

M. JAIONE APALATEGI BEGIRISTAIN

IKASTETXEEN EGITURA  
INTELEKTUALA



M. JAIONE APALATEGI BEGIRISTAIN

IKASTETXEEN EGITURA  
INTELEKTUALA

*Utriusque Vasconiae*

© M. Jaione Apalategi Begiristain

© Utriusque Vasconiae

Lehen argitaraldia: Donostia, 2006ko uztaila

ISBN: 84-935019-2-1

Lege-gordailua: BU 441-2006

Discinua eta maketazioa: P.I.A.

UTRIUSQUE VASCONIAE - Ategorrieta Hiribidea, 3-3.

20013 Donostia. Tel.: 943-270433

Banatzailea: BITARTE - 31195 Berriozar (Nafarroa).

Tel.: 948-302239

## AURKIBIDEA

SARRERA .....	11
I. ZATIA	
ESKOLA-ERAKUNTZA ETA EUSKAL IRAKASKUNTZA .....	19
1. AURREBALDINTZAK .....	19
2. ESKOLA-ERAKUNTZA ETA KANPO BALDINTZAK .....	20
2.1. Eskola-erakuntzaren kultura-ingurunea: giza-sistema ..	20
2.1.1. Hezkuntza eta eskola: pedagogia .....	20
2.1.2. Hezkuntza eta gizartea: hezkuntzaren soziologia ...	24
2.1.3. Hezkuntzaren errealitatea.....	25
2.2. Eskola-erakuntzaren inguruaren teknologia:	
hezkuntza-sistema .....	28
2.2.1. Hizkuntza .....	31
2.2.2. Kultura orokorra.....	33
2.2.2 Kultura berezia .....	35
3. ESKOLA-ERAKUNTZA ETA BARNE-BALDINTZAK.....	37
3.1. Hezkuntza-asmo nagusiak.....	39
3.1.1. Ikastetxeak eta nortasun juridikoa.....	39
3.1.2. Ikastetxearen izaera-nahia .....	43
3.1.3. Eskola-ereduak eta hezkuntza-asmo nagusiak:	
herri eskola eta jabedun eskola.....	44
3.2. Hezkuntza-egitasmoa .....	52
3.2.1. Gizartearen egitasmotik hezkuntza-egitasmora:	
burutzapena.....	52



3.2.2. Gizartearen hezkuntza-egitasmoa: aurreusteen beharra.....	54
3.2.3. Ikastetxearen tokia gizartean: eginkizun-mota eta ikastetxe-egitasmoa.....	57
3.2.4. Gizarte-egitasmotik ikastetxe-egitasmora.....	63
3.2.5. Ikastetxearen hezkuntza-egitasmoa: azalpena, kondaira eta irtenbideak .....	68
3.3. Ikastetxeko barne-araudia .....	77
3.3.1. Zer da ikastetxeko barne-araudia .....	77
3.3.2. Ikastetxeko barne-araudiaren eremu zabala .....	79
3.3.3. Ikastetxeko barne araudiaren egitura eta edukiak ..	79

## II. ZATIA

ESKOLA-ERAKUNTZAREN EREDU BAT EUSKAL IKASTETXEA AZTERTZEKO .....	91
1. Eskola-erakuntzaren ereduaren eremu epistemologikoa.....	91
1.1. Erakuntza adigai bezala.....	91
1.2. Eskola-erakuntzaren zientzia .....	93
1.2.1. Epistemologia .....	93
1.2.2. Erakuntza teorien bilakaera, eskola-erakuntzaren kondairan zehar .....	94
1.2.3. Zientzia, paradigma eta ereduak .....	95
1.3 Eskola-erakuntzaren ereduak.....	97
1.3.1. Aurrezientzi eta iragapen-aroko ereduak eskola-erakuntzan .....	97
1.3.2. Enpresa-teorien ezarpena eskola-erakuntzaren eremuan: Zientzia-aroko ereduak.....	98
1.3.3. Egungo ereduaren joerak .....	101
2. Euskal ikastetxea aztertzeke eskola-erakuntzaren eredu sistemikoa .....	105
2.1. Ikuspegi sistemikoa .....	105
2.2. Helburuak eta helmugak.....	109
2.2.1. Ikastetxe erakuntza sistemikoaren helburuak.....	112
2.2.2. Ikastetxe erakuntza sistemikoaren helmugak .....	116
2.3. Ikastetxearen erakuntza barnea: azpi-sistemak .....	118
2.3.1. Egiturazko azpi-sistema.....	118

2.3.2. Azpi-sistema psikosoziala .....	125
2.3.3. Azpi-sistema teknikoa .....	127
2.3.4. Azpi-sistema administratiboa .....	130
2.4. Ikastetxearen erakuntza ingurua: aldagaiak.....	131
2.4.1. Erakuntza ingurua .....	131
2.4.2. Aldagai burokratikoa .....	136
2.4.3. Aldagai gizapolitikoa.....	149
2.4.4. Aldagai berezia.....	164
2.5. Erakuntza sistemikoaren bideragarritasuna:	
giza esku-harmena .....	168
2.5.1. Giza esku-harmenaren ikuspegi psikosoziala .....	168
2.5.2. Giza esku-harmenaren kultura eta teknologia .....	171

### III. ZATIA

ESKOLA-ERAKUNTZA HOLOLINGUISTIKOA .....	175
1. Lotura honen nondik norakoa .....	175
1.1. Euskal eskola-erakuntza –EEE– eraikitzeke ikuspegia. ....	175
2. Eskola-erakuntza kanpo baldintzen ikuspegi zientifikoa... ..	178
2.1. Giza errealitatea: kultura eta teknologiaren hizkuntza/hezkuntza .....	178
2.2. Kontzientziaren krisia “hutserantz” .....	181
3. Soziolinguistika eta hololinguistika .....	184
3.1. Gizartea eta hezkuntza .....	184
3.2. Holismoa eta hololinguistika .....	185
4. Eskola-erakuntza eta hololinguistika .....	189
4.1. Hizkuntzen norburutasunaren teoria versus eskola-erakuntzarena .....	189
4.2. Ikastola .....	194
5. Berrikuntza: euskal eskola-erakuntza esperientziaren adierazpen autokonsziente. (EAA)-EEEEAA.....	209
5.1. Hizkuntza .....	209
5.1.1. Euskal gizartea eta talde hitza .....	209
5.1.2. Hizkuntza eta hezkuntza.....	213
5.1.3. Hizkuntza eta ikastetxea .....	214

5.2. Hezkuntza: eremuen bernorabideketa eta oharpena ....	216
5.2.1. Isurri berri baten beharra .....	216
5.2.2. Hezkuntzaren funtsezko eginkizunak .....	217
5.2.3. Hezkuntzaren manupeak .....	218
5.2.4. Hezkuntza guneak: EE eredu arteko harremanak..	220
5.3. Erakuntza: hiru urrats .....	223
5.3.1. Eskola-erakuntza zientifikoaren jabeakuntza .....	224
5.3.2. Eskola-erakuntza ereduak edo hezkuntza elkarteen izateak .....	224
5.3.3. Eskola-erakuntza eta nahikotasun maila .....	225
6. Eskola-erakuntza hololinguistikoa .....	233
6.1. Ikuspegi osagarria .....	233
6.1.1. Balio eta izatea: objektibotasun-subjektibotasun baldintzak .....	233
6.1.2. EE osoaren bi ibilbide nagusiak .....	237
6.1.3. Ibilbide osoak garatzearen ondorioak euskal gizartearen “giza sistema”ren ikuspegitik .....	239
6.1.4 (AB)-(BA) ibilbide osoak Euskal EEH-an eta gizartearen hezkuntza eskaria .....	242
6.2 Euskal eskola-erakuntza hololinguistikoaren ikur gunea .....	249
7. Eskola-erakuntza hololinguistikoaren ondorioak .....	254
7.1. Lau eskola-erakuntza eredu .....	254
7.2. Eskola-erakuntza hololinguistiko osoaren banako izatearen garapena .....	255
7.3. Eskola-erakuntzaren “natura” eta kulturazko” oharpenak .....	255
8. Eskola-erakuntza hololinguistikoaren eraginak .....	256
8.1. Ikastetxea .....	257
8.1.1. Eskola-erakuntza kanpo baldintzak aztertzeko eskola-erakuntza hololinguistiko ikuspegia .....	257
8.1.2. Eskola-erakuntza barne baldintzak bideratzeko EEH-ren kudeaketa eta azterkaritza .....	260
8.2. Hizkuntza .....	262
8.3. Gizartea .....	262
8.3.1. Hezkuntza botere .....	263

8.3.2. Hezkuntza elkarte.....	265
8.3.3. Hezkuntza ikerlari .....	265
9.Eskola-erakuntza erakundetuaren normalizazioa	
Euskal Herrian.....	270
9.1. Printzipio orokorrak .....	270
9.1.1. EEH-ren ikur gunea .....	271
9.1.2. Oklusio gunea .....	272
9.1.3. Haustura tentsioa.....	273
9.2. Euskal EEH-ren berreskurapen eta normalkuntzaren axiomak .....	273
EPILOGOA: Gizarte. Zientziek ortzemugatik kanpo JOSE M <sup>a</sup> SÁNCHEZ CARRIÓN “TXEPETX” .....	277
BIBLIOGRAFIA.....	285

## ERABILI DIREN ZENBAIT LABURDURA

EAA	Esperientzi adierazpen autokontzientea
EE	Eskola-erakuntza
EEA	Euskal Elkarte Autonomoa
EEBB	Eskola-erakuntza barne baldintza
EEE	Euskal eskola-erakuntza
EEEEA	Eskola-erakuntza esperientzia adierazpen autokontzientea
EEH	Eskola-erakuntza hololinguistikoa
EEHS	Espainia Estatuko Hezkuntza Sistema
EEKB	Eskola-erakuntza kanpo baldintza
EKI	Eskola-erakuntza kultura ingurunea
EETI	Eskola-erakuntza teknologi ingurunea
EHIE	Euskal Herriko Ikastolen Elkarte
FEHS	Frantziako Errepublikako Hezkuntza Sistema
HH	Helburuak eta Helmugak
IBA	Ikastetxeko Barne Arau
IHA	Ikastetxeko hezkuntza asmoa
IHE	Ikastetxeko hezkuntza egitasmoa

## SARRERA

Lan honen sortzapena *ezina* eta *aldaketa* adigaien oharpenak ikerztearen eta barneratzearen ondorioz sorturiko errekontzak bultzatutako indarrean kokatu behar da. Gure ustez *ezina* gure aurrean agertzen zaigun egoera bat sinestu eta bizitzetik dator, *aldaketa*, aldiz, eta ez nola edo halakoa, aipatu egoera ez sinestetik eta beste zerbaitegiteko zein bizitzeko beharretik dator; egoeraren kontzientzia hartzetik alegia. J. M. Sánchez Carrión “Txepetz”-ek<sup>1</sup> dioen bezala, esperientzia adierazpen autokontzientea–EAA– garatzetik.

Ez dugu sinesten euskal hezkuntzaren errealitatea egungo hezkuntza-egoeran islatzen denik. *Ikastetxeen egitura intelektuala* izenburua darman liburu honek, 1994. urtean, euskal gizartean zehar indarrean zeuden, eta jarraitzen duten, hiru hezkuntza-administrazio eta bi estatuetan zehar banaturik bizi den hezkuntza-egoera ankerra, osasuntsu eta orekagarri bihurtzeko nahiaren ahalegina da, baita ere, Erakuntza-Hizkuntza-Hezkuntza –EHH– adigaien hausnarketak sor dezakeen bilakaerazko krisiaren ondorioz, oroimena edo originaltasuna batuz, etorkizuna gaurkotzeko euskal hezkuntzaren berrantolaketa osoa proposatu nahi du, *ezina* ez onartu eta hobetzeko aukera iraunkor bat proposatuz.

---

<sup>1</sup> *Un futuro para nuestro pasado*. San Sebastian: Gráficas Lizarra / Elkar. “El punto de partida”, 33-66 orr.; (1989n). “La teoría social de las lenguas y su aplicación a la recuperación del euskera”. *Actas del II Congreso da Lingua Galego-Portuguesa na Galizia* (1987). Orense: AGAL; 675-678 orr.

Baina aldatu nahi dugun hezkuntza-egoera aldatzeak, lehenik eta behin, bere errealitate osoz jabetzea eskatzen digu. Horrek esan nahi du gure azterketa-eremuaren printzipio, lege eta sinismen multzoak ezagutu beharko ditugula, berezko euskal gizartearen hezkuntza-erakunde-tzearen errealitatea nolakoa den jakin arte, hain zuzen ere. Eta hezkuntza formala egiten den erakundea ikastetxea denez, ikastetxearen errealitatea aztertzen lagun diezagukeen zientzia Eskola-erakuntza –EE– da.<sup>2</sup>

Zientzia horrek ikastetxearen errealitateari dagozkion printzipioen, legeen eta sinismenen berri emateaz gain, horien arteko harremanen eta lehentasunen araberako garapena eta aurrerapena zertan diren atzematen ere lagunduko digu.

Hezkuntza, oro har, gizatalde bakoitzaren izatea historian zehar irauteko eta garatzeko, bizitzarekiko eta munduarekiko dituen balio-hierarkiako zein lehentasun-mailako arazoak antolatzeko dituen kosmogoniaren igorpena bezala uler daiteke. Hezkuntza horren irakaskuntza bermatzeko, Europar XVI. eta XVIII. mende bitartean, baina batik bat XIX. mendean eskolagintza hedatzen hasten da. XX. mendean berrogeita hamarkadatik hona, O. Fullat-en<sup>3</sup> hitzetan *eskola-leherketa* pairatu dugu eta berarekin batera, herri-eskola/jabedun eskola edo eskola publikoa/eskola pribatuaren arteko arazo iraunkor bezain adierazpentsua, besteak beste, irakaskuntzaren izaera eta garapena ezin baitaiteke familiaren eta botere politikoaren historiatik bereiztu.

Bistan da ikastetxeak norberak ordezkatzeko duen gizarte historiaren arabera bereizten direla, “nolako gizarteari, halako eskola”...<sup>4</sup>. Aldi berean, esan dezakegu “eskola-krisiaren jatorria gizarte-krisian dagoela eta ez alderantziz”<sup>5</sup>. Baina, gizartean hezkuntza-asmo behinenak ikastetxeen irakaskuntzaren bidez igortzen badira ere, beste edozein gizarterrealitatean bezala<sup>6</sup> garapenaren izatearekiko bikoitzak izaten dira beti:

---

<sup>2</sup> LORENZO DELGADO, M. & SAENZ BARRIO, O. (1993). *Organización escolar: una perspectiva ecológica*. Madrid, La Muralla, 11-39 orr.

<sup>3</sup> TENZER, N. (direc.) (1983). *Escuela pública-Escuela privada*. Barcelona, Humanitas, 15 or.

<sup>4</sup> PALACIOS, J. (1988). *La cuestión escolar*. Barcelona, Laia, 645 or.

<sup>5</sup> TENZE, N. (direc.) (1989). *Un projet éducatif pour la France*. Paris, Presses Universitaires de France-PUF, 19 or.

<sup>6</sup> TOURAINE, A.(1992). *Critique a la modernité*. Paris: FAYARD. Liburu osoan zehar garatzen duen ideia.

1. hezkuntza fenomeno unibertsala denez, irakaskuntzan islatu beharko da;

2. hezkuntza-ikastetxea-irakaskuntza hirukotearen loturak eta harremanak giza talde bakoitzaren kultura berezia ezagutzean, jabetzean eta menperatzean dautza, gero banako zein talde gisa “gizatasun” zentzu izan behar duen garapenean eta aurrerapenean eskuartzea ahalbidetuz.

Jakina, Alemaniak, Britainia Handiak, Frantziak, Espainiak..., Estatu Batuek..., edo Norbegiak, Finlandiak, Luxenburgok... bezalako herriek ez dute historia berbera. Beraz, euren hezkuntza bideratzeko antolatu dituzten ikastetxe motak ere ez dira berdinak izan. Ondorioz, irakaskuntzaren bitartez gizarte bakoitzaren errealitateaz jabetzeko eta norberaren garapena ziurtatzeko idatzi, legeztatu eta arautu dituzten hezkuntza-sistema agiriak, ingurune, sortzapen, bilakaera, egitura, arazo eta perspektiba ezberdinak jaso eta islatu dituzte<sup>7</sup>.

Euskal Herriak ez du berezko hezkuntza-sistematik eta bere lurraldeetan diharduten biek, Frantzia eta Espainia estatuetakoez, hain zuzen ere, ez dute bere historiaren jatorria eta garapena ziurtatzen. Beraz, J. M. Barandiaranen<sup>8</sup> hitzei jarraiturik, ohar gaitzke nolako “...zurztasun ikaragarrian bizi garen: Euskal Herria ez da geografia bat bakarrik, bertan bizi diren gizon-emakumeak, herri bat, eta bere historia duen herri bat baizik, noski. Oso historia zaharra. Europa osoan ez da agertzen euskaldunaren ingurumari bezain garbiko etnia bakar bat ere. Lorategi bat osatzen duten landare eta lore-mota askoren artean, guk, lore edo landare ezberdineko jeneroa eratzen dugula esan nahi du, eta besteek adinako eskubidea du bizitzeko. Ez beste lore edo landareek baino arreta hobeagora, baino bai besteek bezain hainbestetara; arreta honen kargu eman digute, eta are gehiago, beste edozein lore hobeki ikustearren norbait desagerrarazi nahian badabil; guk ez dugu eskatzen lorea mozteko, baizik eta gurea bizirik utzi dezaten”.

“Gehiegi eskatzea ote da abere eta landare-espezien ondasun kolektibo bezala defendatu eta landutako balioa duten zibilizazio batean? Horixe da, bada, eskatzen duguna. Ez gehiago; ez eta gutxiago ere. Hau ez da, gutxiagorik ere, “politika” deitzen dutena (...)”.

---

<sup>7</sup> GARCIA GARRIDO, J.L. (1987). *Sistemas educativos de hoy*. Madrid, Dykinson, 2. arg., 23-26 orr.

<sup>8</sup> UGALDE, M. de (1974). *Hablando con los vascos*. Barcelona, Ariel, 46 or.



Adituek diote, hezkuntzaren *funtzioa*, historiaren izana eta oraina elkarrekintzaren bitartez garatzen dela eta hezkuntzaren *sustantzia* hizkuntza bera dela, hizkuntza kultura baten oinarrizko osagaia eta giza-elkarte baten nortasunaren ezaugarri nagusia dela... eta naturaz, giza-banakako zein talde guztien kosmogonia osatzen duen errealtateari loturik, jaiotzetik datorrena dela ... J. D. Garcia Bacca-k<sup>9</sup> ezin hobeki eta ezin eder adierazten digu: "...Iragan mendeetako ezagutza guztiek –teologikoak, filosofikoak, moralak, politikoak...– naturazko beharra bezala, naturazko hizkuntzaren beharra –bokalekin, kontsonanteekin, proposamendu edo saloekin...– daukate eta eduki dute, giza gorputzaren oinarrizko edo hasi-masizko fisiologiak diktatutako beharra da. Behar fisiologikoa, korporala da: arimak gorputzari ezarri".

Eta ezin dugu onartu gaur egun Euskal Herrian diharduten *hezkuntza egoerek* gure naturazko hizkuntza eta, beraz, talde-kontzientziari dagokion hezkuntza-garapena biziarazten uzten ez dutelako eta beraz, talde hitza bahiturik dutelako. J. D. Garcia Baccari jarraituz<sup>10</sup> *sustantzia gabeko funtzioa* ordezkutzen dutelako, hots: "... Naturazko hizkuntza eta bere gramatikaren monopolioa naturazkoa ez den hizkuntza matematiko, algebraiko, sinboliko..., asmakizunagatik ezerez-tua geratzen da. ... Sustantzia ezin da funtzio kolpez birjarri. Naturazko gramatikaren arabera hitz egiten badugu oraindik ere fisiologia-gatik da: ez eta inongo dibinitate hitz motagatik. Hasteko zergatik ez eskatu Jaungoikoari edo gizonei edo horietako norbaiti hizkuntza funtzional, matematiko, sinboliko, formalean hitz egiteko?..."

Oro har, Txepetxek<sup>11</sup> dioen bezala: "giza-hitza gizarte baten gogoetak eraikitzen duen hotsa da, ondorioz, banakoaren hitza 'berezia' eta "ezberdina" ulertzen dela esan daiteke. Hitza pertsonala eta soziala izan daiteke, norbere herriaren hitza gaitzesten edo mespretxatzen duenaren hitzak ez du behin ere errealtatearen berezitasunak elkar osatzeko balioko. Are gehiago, ezberdintasunak, pertsonalki, berea barne areagotzeko ez, baizik egia bilatzeko balio duen 'hitzak' mozorroturik eta ilunpean norabideraturik agertzen da gaur..., hala nola 'interesak', 'elkar interesen' aurka bihurtuz, edo eta asmoa, giza aurrerapenaren

<sup>9</sup> (1994). "Autobiografía intelectual". ANTHROPOS aldizkaria: *Revista de documentación científica de la cultura*. Barcelona, 9 zk. (nueva edición); 22 or. Guk itzulia.

<sup>10</sup> Ibid.

<sup>11</sup> (1980). *Lengua y Pueblo*. Donostia, Elkar, 8 or.

aurkakoa bezala agertuz". Eta kontzientzia da, edozein motatako uni-  
bertso edo gizabanakoaren errealitatearen hondoa ezagutzeko dugun era.

Euskal hezkuntzaren eragile mota guztien artean adore-gabeziak  
baino gehiago sakabanaketak eta nahasketaz jabetzeak motibatu gai-  
tuzte, azkenik, honelako lan intelektual bat burutzera eta ondorioz,  
burua eta bihotza elkartzen diren gunetik eta generantz hasi eta bu-  
katu dugu gure liburu hau.

Orain dela 12 urte, *Eskola-erakuntza eta hololinguistika* –EEH–  
izeneko Doktorego-ikerketak aurkeztu genuenean, gure tesiak izan ze-  
zakeen eragina irudikatu besterik ezin genezakeela egin genion. Ordu-  
tik hona, hezkuntza eta ikastetxearen inguruan, asko egin dela sinesten  
dugu benetan. Argitaratu gabe egon den lan hau, indar sakon baten  
askapena dela esan daiteke eta bere asmoa: ikastetxean izate eta balioa  
eguneratzeko erakuntzaren teoriak oro har eta eskola-erakuntzaren  
teoriak zehazkiago, eskaintzen diguten tresnaria agerian jartzea da.  
Baina begiaurrean ez dagoen zerbait argitara ekartzeko ezinbestekoa  
da, egitura intelektual bat altxatzea, eta hau da guk egin dugun  
ahalegina, hain zuzen ere, Ikastetxeekiko, euskal hezkuntzak oraindik  
orain behar duen jitea egituratzea, alegia.

Bestalde, ez dugu inoren aurka idatzi, baizik eta Hezkuntza-  
Hizkuntza-Kultura guztien alde, inolako ukorik egin gabe eta gure  
ikuspegiak eska dezakeen gogortasunaren zein xamurtasunaren baitan.

Erabili dugun metodologia triangelatzeaz ulertzen dena izan da,  
hau da, gizartearen azpisistema formalaren zein ez formalaren eremuan  
kokaturik, bere errealitatea atzemateko metodo-era ugari erabiliz:

- Historialak: hezkuntza administrazioa eta elkarteak, erakuntza-  
eredua, erakuntza-teoria, ikerkuntza ezberdinak eta hezkuntza-  
ikerlarien ikuspegiak.
- Datuak: gizarteak, erakuntza, hezkuntza eta hizkuntza arloetakoak.
- Tokian tokiko azterketak: lurraldea, herrialdea, herria..., admin-  
istrazioa, ikastetxea edo Eskola-erakuntza eredu ezberdin eta  
ikerlarien artean, hezkuntza, erakuntza eta hizkuntza-ildotik.
- Zuzeneko behaketa..., e.a.

E. G. Boring-ek<sup>12</sup> idatzitakoaren aldekoak gara: "Egitasmo berri  
bat, sorreran, egitasmo bat besterik ez dela –dioenean– definizio

<sup>12</sup> COHEN, L.; MANION, L. (1990). *Métodos de investigación educativa*. Madrid,  
La Muralla, 332-333 orr.

eragile bakar bat duen bitartean. Hautazko bi definizio-eragile lortzen dituenen baliozkotzat hartzen has daiteke korrelazio frogatuen ondorioz, definizio-eragileak asko direnean, orduan berronesten da”.

Gure lan honen helburua bikoitza dela esaten dugu, alde batetik, Euskal Herriak duen hezkuntza-egoera eraldatzekotan, beharko duen Eskola-erakuntza zientziaren ikuspegia azaltzen dugulako, eta bestetik, Eskola-erakuntzaren eremuan eragina duten giza-arlo guztiak (ikastetxere-eredu ezberdinek, administrazioak, ikerlari eta gizarte zabaleko elkarte eta erakunde formal zein ez formalak...) ahalegin eta elkarrekinzarako ikuspegi berri bat eskaini nahi dugulako. Bikoitza da baita ere lan honen helmuga, non, euskal gizarteari dagokion hezkuntza egitatearen giza-teoria zein Eskola-erakuntzarena egituratzen saiatzen garelako. Helburu eta xede hauen lanketa, eskola-erakuntza zientziaren barnean agertzen diren fenomenoek zailtasuna eta ugaritasuna ikertzetik, jakineko zenbait legetara menperatuko dituen ikuspegi orokor bat asmatu eta proposatuz garatuko ditugu, eta bide batez, gure eta gurea bezalako gizarte eta hizkuntza gutxituen egoera aldatzeko, zientzia honen ibilbidea zein norabidea alda dezakeen Eskola-erakuntza esperientzia adierazpen autokontzientea –EEEEA– eraikitzetik, hain zuzen ere.

Liburua hiru zatitan banatu dugu:

Lehenengo zatian, Eskola-erakuntza zientziaren izatek bi motako mugekin topo egiten duela diogu, hots, barnerantz, *Eskola-erakuntzaren barne baldintzak* –EEBB– eta kanporantz, *Eskola-erakuntzaren kanpo baldintzak* –EEKB–. Biak Euskal Ikastetxearen ikuspegitik aztertu ditugu, hezkuntza-eremua aztergai eta langai dutelarik elkar.

Bigarren zatian, lehen atalean, Eskola-erakuntza ereduaren eremu epistemologikoa azaldu dugu eta bat aukeratu dugu, eredu sistemikoa hain zuzen ere; bigarren atalean, euskal ikastetxearen barne-erakuntza aztertzeko eta egokitzeko erabili duguna.

Hirugarren zatian, berriz, euskal ikastetxearen kanpo-erakuntza baldintza izango dugu aztergai eta bere garapenaren berrikuntza, Jose Maria Sánchez Carriónnek –Txepetx– gure artean lehen aldiz egin duen *Hololinguistika* zientziaren eskutik etorriko zaiola frogatu nahi dugu. Sánchez Carriónen teoria hololinguistikoa adierazpen ugarien bidez, *Eskola-erakuntza hololinguistikoa* –EEH– zertan datzan ikusiko dugu.

Eskola-erakuntzaren eremua aztertzeko, guk hemen aurkezten dugun iturri berri honen oinarri teleologikoak zein metodologikoak,

bestalde, ez dira berriak, gogoetaren azken xedea antzematea besterik ez baita. Ideiak, Sánchez Carriónnek dioen bezala, "... ez baitituzte bakarrik ondorioak eduki behar giza-garapenaren norabide zentzuan..."<sup>13</sup>

Epilogoak *Gizarte zientziek ortzemugetik kanpo* izena darama eta Jose M<sup>a</sup> Sánchez Carrión/Txepetx-ek 1995ean prestatu zidan irakurri berria nuen Doktore Tesiaren argitalpenerako..., baina arrazoiak arrazioi, hamabi urte beranduago ikusiko du argia..., ala eta guztiz, Txepetxek "bere horretan uztea" nahi duela aitortu dut, "ordurako idatzitakoak gaurko, baita ere, balio duela" azpimarkatuz. Mila esker, beste behin, zure gogoetagai hartzeagatik, Jose Mari.

Bibliografiaren gainean bi ohar: a) 1994garren urte bitartekoa dela bakarrik; b) bost atal bereiztu ditugula: aldizkariak; egunkariak; kongresu aktak; liburu, idazki eta hiztegiak eta irudiak izenekoak, hain zuzen ere.

Bene-benetan uste dugu gure herrian, *Ikastetxeen egitura intelektuala* bultzatzeko adina indar eta baldintza badaudela... Bestalde, Europako gizatalde enigmatikoena garen aldetik, XXI. mendean murgilduta gaude ondoko gizarte handi zein txikiekin batera eta denok behar dugu, gure gurea den oreka eta garapena bideratzeko aukera... eta berau, *hitza* berreskuratzetik etorriko da. Ikastetxeek ordezkatzan dituzten hezkuntza-elkarteek, bere berea duten *hitza* non agertzen den erakusten saiatuko gara, *Ikastetxeen egitura intelektuala* izenburua jarri diogun gure lan honetan zehar.

Eskerren garaia eta tokia iritsi zaigula uste dugu eta bi eratako eskerrak eman nahiko nituzke, batzuk, laguntza emozionala eskaini didatenei eta besteak, laguntza intelektuala eman didatenei. Bi motako jendartera dut etxean, kanpoan eta lantokian, baita ere *beste munduan*... Mila esker guztioi!

Iruña, 2006ko ekaina

---

<sup>13</sup> (1987a). Op.cit., 23 or.

# I. ZATIA


## ESKOLA-ERAKUNTZA ETA EUSKAL IRAKASKUNTZA

### 1. Aurrebaldintzak

Erakuntza guztiak, sorrera eta asmo ezberdinak izan arren, euren helburu eta helmugak lortzeko norabide zehatzeko abiaduran antolatu ohi dira. Ikastetxeak erakuntza-zientziaren printzipio, lege eta sinismen-multzoekin topo egiten du hezkuntza-erakunde bezala antolatzerakoan; bere asmo nagusiak garatzeko, aukera edo erabilera berezi bat egingo duelarik. Baina, edozein bezala ere, eskola-erakuntzaren azter-eremua den ikastetxe baten egitasmoa aurrera eramateak zenbait baldintzaz arduratzea eta tokian tokiko beharretara egokitzea eskatzen du.

Aldez aurretik, grafiko baten bidez aztertu behar den guztiaren ekarpena eskainiko dugu:

1. IRUDIA: *Eskola-erakuntzaren aurrebaldintzak*



M. Jaione Apalategi (1994)

## 2. Eskola-erakuntza eta kanpo baldintzak

### 2.1. Eskola-erakuntzaren kultura-ingurunea: giza-sistema

Eskola-erakuntza aipatzeak, nahitaez, eskolaren eremua aztertzeraz eramaten gaitu. “Gizarteak” eskolak bere gain hartuz geroztik sorturiko premiak dakar Eskola-erakuntza zientziaren ikuspegiaren beharra, eta bere azterketa-eremua etengabe egokitzen doan arren, orokorrean, esan daiteke bere funtsezko eginkizuna hezkuntza-programak diseinatzeko, eskoletan txertatzeko, administratzeko, ebaluatzeko eta eutsiarazteko ezinbestekoak diren mekanismoen garapena eta baiezta-pena aldarrikatzean datzala.

Eskolak garaian garaiko gizartearen isla izaten ohi dira beti. Batez beste, gehien ezagutzen diren ereduak hauek dira<sup>1</sup>:

– “*borondatezko erakundea*”, erakunde pribatu eta gogorki arau-tuak; agintzen dutenek hezkuntza-mota bat sortzen dute, hala nola gizatalde egokituak eta elizak aukeratzen duten eredia dugu berau, euren kultura birsortzeko asmoz (...);

– “*aitatasun baitakoa*”, ongile batzuk gehiengoaren irakaskuntzaz arduratzen dira hauen mendekotasuna lortzeko helburuarekin, noski. Eredu honen gakoia oinarrizko edukien hautaketa eta definizioan dago (irakurri, idatzi, kalkulatu...), beste batzuk alde batera utziz (lankidetasuna, talde-lana, eztabaida...),

– “*lekukotasun demokratikoa*”, eskolaren heziketa eta administrazioa tokian tokiko aginte politikoaren ardura dira, eta estatuaren eginkizuna “gutxiengo edukiak” proposatu eta betearaztera mugatzen da;

– “*zentralizaturiko eskola estatala*”, estatu-nazio berrien eredia dugu hau. Estatu hezkuntzaren aginte osoaz jabetzen da, eta teknika administratiboen zein arau batzuen bidez eskolen izate bereziaz eta funtzionamendu ereduaz gain, euren arteko harremana bideratu eta bermatzen ere ahalegintzen da.

#### 2.1.1. Hezkuntza eta eskola: pedagogia

Parsons, erakuntzaren teorilari ospetsuaren ustetan, erakuntza moduan hartuz gero eskola, xedeezko norabidean bereizten da gizarte egituran diharduten beste erakundeetatik ezberdinduz.

---

<sup>1</sup> RIBOLZI, L. (1988). *Sociología educacional y escolar*. Madrid, Narcea, 70 or.

Jakina da eskolaren xedea eta bere erakuntza-egitura antzematea ez dela gauza erraza, besteak beste kanpo-eragina handia eta anitza delako. Gurasoek eta familiek, kultura eta gizarte-eragileek, komunikabideek, pentsalariek, politikariek, lan-munduak... guztiak eskolaren hezkuntza-egitasmoa euren usteetara, asmoetara eta beharretara egokitzea eskatzen baitute.

Durkheim-en<sup>2</sup> ustetan, hezkuntzaren eta eskolaren bilakaeraz hitz egiterakoan bi ideia-multzorekin topo egiten dugu:

1. gizabanakoek eraginez garatu direla uste dutenekin, Kent, Herbart, Stuart Mill eta Spencer-ek bezala;
2. gizartearen errealitate berriek egituratu dituztela uste dutenekin.

Durkheim-ek dio hezkuntza ulertu behar dela belaunaldi zaharrek gazteak gizarteratzeko egiten duten ahalegin moduan eta eskola "giza-mikrokosmosa" bezala ikusiko du.

Azken ikerketa batzuek diotenez:

- a) eskolak gizartearekiko independentzia izan behar du, berau bere barne logika eta bizitza propioetik datorkiolarik;
- b) helburuekiko eta xedeekeko askatasuna eskolari, gizartearen ideologia politiko eta ekonomikoetatik urrun, bere barne prozesuak norabidetzetik letorkioke.

Dena den, oro har, Eskola-erakuntzak landu behar dituen kanpo eta barne-baldintzak zein euren arteko harremanak dira hezkuntzarekin zerikusia dutenak, noski. Horretarako, lehenik eta behin, hezkuntza "sistema"<sup>3</sup> bezala ulertzea eta aztertzea behar-beharrezkoa da.

Hezkuntzaren kontzeptura hurbiltzen garenean, zenbait zailtasunekin topo egiten dugu, izan ere, modu askotara bildurik aurkitzen baitugu:

- hiztegia,
- lexikoa,
- teoria,
- saiaketa,

---

<sup>2</sup> (1990). *Educación y sociología*. Barcelona, Península.

<sup>3</sup> Ikus: a) LÉXICOS DE CIENCIAS DE LA EDUCACIÓN. (1991). *Tecnología de la educación*. (1991). Madrid, Santillana; b) KRUTWIG, F. (1978). *Garaldea*. San Sebastian, Txertoa, 89-144 orr.; d) UNESCO (1979). *El enfoque sistémico del proceso educativo*. Madrid, Anaya.



- ikerlana,
- zentzu arruntean,
- orokorrean,
- liburua
- aldizkaria
- etab.

beraz, hezkuntzaren esanahiari hurbiltzea eta zehatz-mehatz, bat-batean, antzematea ez da gauza erraza. Ikus ditzagun zenbait definizio:

1. Hezkuntza, oro har, gizatalde guztiak berezko izatea, mendez mende, iraunarazteko eguneratzen den ekintza da, gizabanako berezi bezala zehazteko eta taldearen ondare kulturalarekin bat egiteko ematen den prozesua hain zuzen ere.<sup>4</sup>

2. Hezkuntza dugu pentsamendua bizkortzeko, aberasteko eta sendotzeko egiten den nahitako ahalegina<sup>5</sup>, gizakiek berezko, nabarmen eta ikur nagusizat jotzen duten hizkuntzaz baliatuz.

3. Hezkuntzak gizon-emakumeak moralki, afektiboki, fisikoki zein intelektualki jakintzaren garapenaren bilakaerarekin engaiatzen ditu. Irakaskuntza hezkuntzarako funtsezkoa izan arren, ez da horretara bakarrik mugatzen, askoz ere zabalagoa da<sup>6</sup> bere ekintzabidea (...).

4. Irakaskuntzaren bidez, hezkuntzak bereak egin behar ditu kultura talde batek erabiltzen dituen hizkuntza bitartekoak ezinbestekoak direlako taldearen biziraupena ziurtatzeko eta giza-garapenaren zentzuan garatzeko. Hemen, hezkuntza-gaiaren burutzapenean, hizkuntzak gizataldeengan duen esku hartzearen neurria erabiltzen da hezkuntzaren funtzio eragilea erabakitzerakoan<sup>7</sup>.

*Hezkuntzak, eskolaren zentzutik hartuta*, Pedagogia hitzarekin topo egiten du elkarren artean duten ahaidetasuna nabarmenduz .

<sup>4</sup> KRUTWIG, F. (1978). Op. cit., 179 or.

<sup>5</sup> TENZER, N. (direc.). (1989). *Un projet éducatif pour la France*. Centre d'Etude et de Réflexion pour l'Action Politique – CERAP Paris: Presses Universitaires de France. "L'éducation: un projet social", 30-42 orr.

<sup>6</sup> MIALARET, G. (1984). *Diccionario de ciencias de la educación*. Barcelona, Oikos-tau, 164 or.

<sup>7</sup> SPECK, J.; WEHLE, G. (1981). *Conceptos fundamentales de Pedagogía*. Barcelona, Herder. Lenguaje IV: "Las funciones del lenguaje en la educación", 409-432 orr.



Pedagogia zer den jakiteko<sup>8</sup> hezkuntza zientzietara jo behar dugu, bertatik pedagogiaren zereginak hobeto ulertuko ditugulako.

Pedagogia, ohiko ikuspegitik, hezkuntzaren artea eta bere teknika bezala ulertu zen; gaur egun, berriz, pedagogia hezkuntzaren zientzia bihurtu da hezkuntzaren egite eta jarduera sakona ikertzeaz arduratzen delarik.

Ibilbide honen pare, eskola hasi zen hedatzen gizartean, hezkuntzaren garapenerako toki ezin hobea bezala ulertuz eta, aldi berean, heziketa-mota honek gizarteari zein gizabanakoari ekarriko lizkiekeen aberastasunak gorenduz. Behar berri horiei erantzunez, pedagogia zientzia, pixkanaka-pixkanaka, sistematizatzen eta eratzen zihuan.

Batez beste, pedagogia –zientzia, teknologia, praxiologia– eta hezkuntza –egitea, errealitatea, ekitea, teknika– zehatzak bezala bereiztea egoki zirudien<sup>9</sup>.

*Gizartearen ikuspegitik aztertuz gero, hezkuntzak* gizabanakoaren “gizarteratze”-prozesuarekin egiten du topo eta honela ulertzen da: giza talde bateko belaunaldi zaharrek berriei elkarren artean, bazkide-tasunean, bizi behar dituzten balore, arau eta jarrerren igortze-prozesua. Eta prozesu hau eskolaren izatetik ulertzeak esan nahi du: eskola hezkuntzaren alderdi formalen heziketaz arduratzen dela, bai, baino gurasoen, irakasleen, ikasleen eta bestelako eragile guztien arteko inplikazioa eskatzen duela. Alde batetik, norberaren kontzientzia partikularra zein bere taldearena ernaltzen laguntzeko eta, bestetik, gizartearen kontzientzia ezagutzen laguntzeko. Hemen hezkuntzak nahikotasunaren eta kontzientzia hitzak harrotzen ditu.

Oro har, eskolak, erakunde gisa, garrantzi handia hartu zuen nazio-estatuen sorrerarekin batera eta halaxe izaten jarraitzen du; izan ere, nola edo hala, gizarteak hezkuntzari eskatzen dion ahaleginak, ohikoak eta berriak, garatzeko leku egokia bezala ikusten jarraitzen delako. Baina asko dira<sup>10</sup> eskola zaharkitutako erakuntza dela uste

---

<sup>8</sup> LARROSA, J. (1990). *El trabajo epistemológico en Pedagogía*. Barcelona, PPU. I. atala, “El discurso epistemológico en Pedagogía. Primera caracterización”, 19-52 orr.

<sup>9</sup> SANVISENS, A. (1987). *Introducción a la pedagogía*. Barcelona, Barcanova, 6 or.

<sup>10</sup> REIMER, E. (1981). *La escuela ha muerto*. Madrid, Guadarrama; ILLICH, I. (1974). *La sociedad desescolarizada*. Barcelona, Barral; ARENDT, H. (1973). *La crise de la culture, «la crise de l'éducation»*. Paris, Gallimard; MEAD, M. (1972). *Educación y*

du tenak... ez duela balio gaurko gizartearen beharrei erantzuteko eta desagerrarazi egin beharko litzatekeela diotenak.

### 2.1.2. Hezkuntza eta gizartea: hezkuntzaren soziologia

Hezkuntza eta eskolaren arteko harremana ezagutzerakoan “pedagogia” hitzarekin topo egiten badugu, hezkuntza eta gizartea aztertzerakoan “hezkuntzaren soziologiarekin” aurkitzen gara.

Hezkuntzaren soziologia dugu soziologiaren barnetik sortzen den adarra, soziologoek eta hezitzaileen etsipen batek bultzatuta, hau da: hezkuntza-prozesuan arreta jarritz gero, gizarte hobetzailea eraiki daitekeenaren ustetan oinarritua, hain zuzen ere. Beraz, hezkuntzaren soziologia oso eginkizun pragmatikoetatik abiatzen den zientzia da. Bere helburu nagusia, gizarte zabaletik, eskolan egiten den hezkuntza sustertzea eta eragingarriagoa bihurtzeko guztien eskuartzea bideratzea da, beti ere, pedagogiarekin harreman estuak edukiz.

Zientzia honek honela mugatzen du bere iker-eremua: gizabanakoz osatutako giza-sistema kultura bat, hots, ikastetxe bat, berea egiten duen hezkuntza-egitasmoa gizartearekin bat egiten ahalegintzen da. Izan ere, hezkuntzaren garapena ez da hutsean gertatzen den zerbait, baizik eta gizartearen zabalasunean nonahi saihesturik agertzen zaigun ekintza mota.

Hasiera batean, hezkuntzaren soziologiaren kezka nagusia hezkuntza-sistemaren balioa frogatzea zen:

1. gizartearen joanaren arabera, eta bestetik,
2. ekonomiak, politikak eta kulturak gizarte-azpisisistemekin zituzten erlazioen arabera.

Hurrengo urrats batean, hezkuntzaren soziologia irizpide teorioak aztertzen hasi zen, gizartearen sorrarazten zituzten ondorioak aztertuz. Une honetan, Cesareok<sup>11</sup> bost lan-esparru proposatu zituen hezkuntzaren soziologiarentzat:

1. hezkuntza-sistema eta gizarte-egitura;
2. hezkuntzaren mugatzaileak;
3. eskola-erakundeak;
4. irakasleak;
5. eskola eta hezkuntzaren ondorioak gizarte-mailan.

---

*cultura*. Buenos Aires, Laidos; CHANAG-GILCHRIST, L. (1981). *Para que la escuela*. Madrid, Cincel-kapeluz.

<sup>11</sup> in RIBOLZI, L. (1988). Op. cit., 28 or.

### 2.1.3. Hezkuntzaren errealitatea

Eskolaren jatorriaz arduratzeak eramango gaitu hezkuntzaren errealitateaz jabetzera eta arduratzera.

Eskola gizarte-sistemaren arlo bat dugu eta azpisistema bezala eratu eta planifika dezakegu. Hori egiteko, eskolak oso ongi ezagutu beharko du gizartea<sup>12</sup> eta, horretarako, ezinbestekoa da bien arteko lokarria den hezkuntzaren errealitateaz hausnarketa egitea, hots:

1. Eskola ez da betidanik diharduen zerbait, gizarteak altxatu duen erakundea baizik. Esan ohi da gizartearen hazte eta korapilatze-prozesuak bultzatu duela bere sorrera. Bertan, helmuga sozial zein gizabanakoarenak lortzeko lan egiten da, eta bere izaerak, nonahi izanik ere, gizartearen ondare kulturala, estrukturala, politikoa eta ekonomikoa azaltzen du.

Gizartean betidanik dihardutenak hezkuntza eta gizarteratze-prozesuak dira. Sorokin-ek<sup>13</sup> eta beste askok dioten eran, eskolek, "gizabanakoaren aldaketaz gain, egituren egonkortasuna ere bermatzen dute". Trillas-ek<sup>14</sup>, berriz, dio gizarteak "sortu" dituen bezalaxe, bere etorkizuna asmagarria ez denez, gizarteak desager ditzakeela.

2. Hezkuntza, eskola egituratik kanpo, beste era eta leku askotan garatzen den errealitatea da.

Gauza bat da hezkuntzaren maila eta antolaketa formalez hitz egitea –diakronikoki– hots, aberri edo herrialdeen arabera aldakorra, eta beste bat hezkuntzaren egoeraz mintzatzea –sinkronikoki–<sup>15</sup>. Orain arte, hezkuntzaren errealitate formala eskola<sup>16</sup> egituran antolatzeko onartua izan da. Fito Rodríguez Bornaetxeak<sup>17</sup> dioten bezala, eskola:

a) hezkuntzaren transmisiorako propioki antolatzen da.

---

<sup>12</sup> SCHUTZ, A. (1974). *El problema de la realidad social*. Buenos Aires, Amorrortu, 3. Zatia: "Símbolo, realidad y sociedad", 195-316 orr.

<sup>13</sup> in RIBOLZI, L. (1988). Op. cit., 68 or.

<sup>14</sup> TRILLAS, J. (1977). *La educación fuera de la escuela*. Barcelona, Planeta.

<sup>15</sup> SANVISENS, A. (1987). Op. cit., "El concepto de educación" 7-14 orr.

<sup>16</sup> Op.cit. *Tecnología de la Educación* (1991). 218 orr.

<sup>17</sup> RODRIGUEZ BORNAETXEA, F. (1986). "Egungo sistema Eskolarraren erakuntza eta Euskal Eskola Publikoari buruzko proiektuak direla-ta, egin beharreko oharpenak": *TANTAK*, EHuko Hezkuntza aldizkaria, 4 zk.

b) hezkuntza, eguneroko bizitzatik bereiztuz, eskola-testuinguruan garatzeko era berezi batean hornitzen da

c) gizarteak bere gain hartzen du.

Bestalde, orain dela gutxira arte, hezkuntzaren teorikoengandik behinik behin, erakundetu gabeko hezkuntzaren errealitatea ez zen hezkuntza-bide bezala hartzen. Eskolatik kanpo egin zitezkeen ekintza hezigarriak garrantzi eta balio gutxiko zerbeit bezala ikusten ziren.

Gaur egun, sinismen hori erabat aldatu da, eta erakundeak, ikerlariak, teorilari zein zientziaren ezagutza-arloetako jakitun guztiak (Bernstein, B.; Colom, A.; Coombs, P.H.; Europako Kontseilua; Fullat, O.; Haug, G.; Trillas, J.; Owens, E.; Oteiza, J.; Sánchez Carrión J.M.; Touraine, A.; Bordieus, P.; UNESCO... etab.) bat datoz esaterakoan hezkuntzaren errealitatea ez dela eskola eremura mugatzen, baizik eta "formarik gabeko hezkuntza" bai eta "hezkuntza ez formala" ere, ikastetxetik kanpo egiten diren hezkuntza<sup>18</sup> motak direla.

Baina ezin da ahaztu eskola desagertzearen aldeko joerak ere hor-txe jarraitzen duela, eta esan daiteke, gutxienez, bi ikuspegi ezberdinetan oinarritzen direla aldarrikapen hori defendatzerakoan:

1. Filosofikoa, non pentsatzen baita eskolak ez duela "hezkuntzaren errealitatea" osoki hezten eta, beraz, bere ahalegina umezurtz geratzen dela giza eta gizartearen garapena bermatzeko orduan;<sup>19</sup>...

2. Ekonomikoa. Egun, gizartearen garapena ekonomia-sistemaren hatzapparretan dago bere baldintzapean<sup>20</sup> eta bere baitan neurtzen da. Eskolak ez ditu bere gain hartzen gizarteak pairatzen dituen aldaketak uste bezain egoki eta nahi bezain azkar...<sup>21</sup> Gizarte garatueta, behinik behin, ez die gizarteek dituzten beharrei erantzuten eta, aurre-rantzean, estatu-nazioetako gobernuek ezingo dituzte orain arte bezala euren gain hartu, erakunde eta erakuntza-mota horiek ez baitira errentagarriak; gastu iraunkor gehiegi suposatzen dute eskaintzen

---

<sup>18</sup> Ibid. (1990). "Formarik gabeko heziketa eta euskararen berreskurapena Euskal Herrian". HIZKUNTZA/HEZKUNTZA Aktak. Encuentros sobre lengua y educación, Bilbo, EHU 141 or.

<sup>19</sup> "Txepetx" (1989a). Op. cit., "La teoría social...", 672-703 orr. eta (1987a). "El equilibrio eco-lingüístico", 331-340 orr.

<sup>20</sup> RIBOLZI, L. (1988). Op. cit., 77-79 orr.

<sup>21</sup> *Revista española de pedagogía* (1988). ESCAMEZ, J. "Pedagogía sociopolítica". XLVI, 181, 455 or.

duten etekinerako... Beraz, eskolaren heriotzaz eta suntsitu beharraz hitz egiten da.

Gizartearen eta hezkuntzaren arteko egoera hori euskal irakaskuntzatik aztertuz gero, lehenengo eta behin, gure ustez, aurre-oztopo nagusi batekin egiten dugu topo, irakaskuntza aurkitzen baita hezkuntzaren isurtze berri baten beharrean, oraindik ere. Izan ere, guretzat euskal irakaskuntza da "hezkuntzak egin behar duen ahalegina, euskaratik eta hitzun osoengandik, gizabanakoa osatzeko errealitatearekin eta gizartearekin"<sup>22</sup> beste edozein hizkuntza-taldetatik hartuta bezalaxe... Bestalde, irakaskuntza hezkuntza-zientziaren paradigmatetik landu beharra dago eta bien artean euskal hezkuntzarekiko teoria enpirikoen bidea urratu behar dute F. Krutwigek<sup>23</sup> dioen moduan. Alde batetik, "gure herria beti irudimenaren eta sormenaren bidetik eraiki delako...", gure esperientziaren bidez behatzen dugunaren ezaugarriez baliatuz eta, bestetik, euskaldunak Europako *kultura enpirikoaren* sortzailetariko bat eta herri megalitikoaren ondare bakarrak garelako".

Munduko hezkuntzaren eta hezkuntza-sistemaren erortzeaz luze hitz egiten da ekonomian, politikan, kultura-esparruetan, baita gizarte soila- ren ahoetan ere... Gauza da hezkuntzaren errealitatearen etorkizunaz jardutea lehen ordenako premia bihurtu dela guztientzat; baina aurre egi- teko, ezinbestekoa izango da bere osotasunean ikertzea eta ez alorrez alor.

Azkenik, gogoratu hezkuntzari *errealitate* hitza gehitzen dioguen- ean, adierazi nahi dugula, halaberharrez, hezkuntza ez dela gizartearen edo munduan indarrean dauden legetara murgiltzea, gizadiaren bila- kaeratik eta gizakien lege naturaletatik hurbil jokatzea<sup>24</sup> baizik.

Errealitate hitz hau sakontasun osoz mugatu ahal izateko, oso erakargarria da hainbat hezitzailek, soziologok, psikobiologok... argi- taratu dituzten lanak ezagutzea, besteak beste, Schutz, Husen, Maturana eta Varela, Luckman, Habermans, Touraine...<sup>25</sup>

<sup>22</sup> Txepetx (1990f). "Los espacios de la desigualdad: Patología social y conciencia lingüística". Op.cit., HIZKUNTZA/HEZKUNTZA, 44 or.

<sup>23</sup> KRUTWIG, F. (1978). Op. cit., "Cientifismo", 101-113 orr.

<sup>24</sup> Ibid. (1989a). "La teoría social...", 603-703 orr. eta (1987a). "El equilibrio ecolingüístico", 331-340 orr.

<sup>25</sup> HABERMANS (1989). *El discurso filosófico de la modernidad*. Madrid, Taurus, 17 or.; SCHUTZ, A. (1974), Op. cit.; MATURANA, H.R.; VARELA, F. J. (1990). *El árbol del conocimiento*. Madrid: Debate. "Dominios lingüísticos y Conciencia

## 2.2. Eskola-erakuntzaren inguruaren teknologia: Hezkuntza-sistema

Hezkuntza-sistema Eskola-erakuntzaren aldagai bat da, eta garrantzitsua hain zuzen ere. Aldagai hau teknologikoki ulertzea, bere eraginez, giza eta gizarte-mailan sortzen diren aldaketek arduratzea da, ez mozkin eta teknika bezala erabiltzea. Beraz, guk eman nahi diogun zentzuan hainbat urrats garatzea suposatzen du<sup>26</sup>, alde batetik:

1. sistema hori egituratzeko erabiltzen diren iturburuen araketa;
2. informazioaren kodifikapena;
3. edukien arteko oreka (kulturalak, zientifikoak, teknikoak, etab.);
4. ezagutza horiek eskatzen dituzten erantzukizun kulturala eta soziala;
5. balizko jarrera-ereduen aurkezpena eta arautegia;

eta bestetik:

1. pedagogia zientziaren araubidea jarraitu;
2. praktikan jarritako ereduak antzeman;
3. ustezko eta lortutako ondorioak ikertu;
4. hezkuntza-sistemak betetzen dituen eginkizunen azterketa;
5. sortzen diren arazo eta irtenbide berriak arakatu.

Zentzu arruntean, hezkuntza-sistemek hezkuntza nazionala adierazten dute, hots: Ipar Ameriketako H. S.; Norvegiako H. S.; Britainia Handiko H. S. Greziako H. S. Frantziako H. S... Hezkuntza-sistema gizarte-sistema baten hezkuntza-egitasmoa izan ohi da. Hala, hezkuntza-sistemen jatorria denbora eta lekuen arabera aldatu egiten da.<sup>27</sup>

Gizarte baten hezkuntza "formalaren" asmo nagusiak hezkuntza-sistemetan jasotzen dira. Gehienetan, hezkuntzaren filosofia baten ildotik, antolaketa, helburu, egitarau, metodologia eta ebaluaketa-eredu bat eskaintzen da bertan irakaskuntza burutzeko, gizartean indarrean

---

humana". IX atala, 177 or.; HUSEN, T. (1978). *La sociedad educativa*. "Utilización de la teoría de sistemas en las ciencias sociales aplicadas" Madrid, Anaya/2. 203-205 orr.; LUCKMANN, T.; SCHUTZ, A. (1977). *Las estructuras del mundo de la vida*. Buenos Aires: Amorrortu; TOURAINE, A. (1992). *Crítica de la modernidad*. Madrid, Temas de Hoy. Ensayo.

<sup>26</sup> Tecnología de la educación. (1991), Op. cit., 446-495 orr.

<sup>27</sup> D'HAINAUT, L. (1988). *Los sistemas educativos: Análisis y Regulación*. Madrid, Narcea.



dauden jarrera eta erakundeen arabera gauzatzen direlarik, eta, beraz, herri baten balorea zein boterea nabarmentzen dira bertan.

Garbi agertzen zaiguna gizarte eta hezkuntza-sistemaren arteko erlazioa da.

Hezkuntza-sistema gizartearen diharduen kultura azpi-sistemaren isla da, baina berarekin batera handiago edo txikiago diren politika eta ekonomiaren azpi sistemak ditugu. Beraz, nahitaez, hezkuntza-sistema bi ikuspegiren arabera aztertu beharko da:

- a) bere baitan, giza-sistema “oso” eta “txiki” bat bezala,
- b) beste sistemekin duen zerikusiaren arabera.

Gizarte batean diharduten azpi-sistemak atzemateko, ulertzeko eta gizarte horren etorkizunez hitz egin ahal izateko ez da nahikoa azpi-sistema bakoitza bere aldetik aztertzea.

Sistemaren eta azpi sistemaren arteko hartu-emanek elkarrekin-tzaren ezaugarria dute funtsean. Beraz, hezkuntza-sistema bat diseinatzeke eta egiaztatzeke ezinbestekoa da gizarte-sistema osoa kontutan izatea eta bertako partaide diren guztiekiko teoria orokor bat frogatzea.

Torsten Husenek<sup>28</sup> gizarte-sistemen sistema teorien erabileraz dioena aurrekoaren adierazgarri dugu: (...) arautze-mailan hezkuntza-gaiak diziplinarteko ikuspegiarekin ikertu behar dira sistemen arteko hurbiltasunak landuz eta koordinatuz, arazoak aurkezteko estrategia egokiak bilatu eta guztia bideratzeko, ikuspegi zabaleko ikerketa-taldeak eratu behar dira (...).

Bestalde, nola ulertu hezkuntzaren zereginetatik gaurko gizartearen ezaugarri nabariena den teknologiaren eta berrikuntzaren eragina? Hezkuntza ekinarazteak, nahitaez, aurreste batzuetatik abiatzea suposatzen du:

- gizartearen egitura eta eraketak,
- materialak,
- giza-baldintzak,
- balioak,
- harremanak,...

eta horiek guztiak aldakorrek direla jakin beharko da, hain zuzen ere. Oro har, gizartearen aldaketek etengabeko egokitzapenak eskatzen dituzte gizakiarengan.

---

<sup>28</sup> HUSEN, T.(1978), Op. cit., 33 or.

Bestalde, eskola giza-sistemaren kultura garatzeko altxatu den erakunde denez, gizarte aldakor horrekiko zenbait helburu betetzeari eskatzen zaio:

1. ikasleengan etengabeko heziketa-gaitasuna txertatzea;
2. giza harremanen arteko garrantzia adierazpide bihurtzea;
3. nonahitik datozkigun informazio-iturrien jatorria bereizten eta lantzen erakustea, aldi berean, norberaren "a prioriak" edo aurreusteak sendotuz;
4. testuinguru berezi, bitxi edo ezberdinetako joan-etorri aldakorretara moldatzeko gaitasuna hezte.

Behin baino gehiagotan diogun bezala, hezkuntza-sistema gizartearen arabera izaten da eta eskolaren jardura arautzeko prestatzen den agiria dela esaten dugu. Baietzapen honen aurrean, nola aztergenezake euskal hezkuntzaren "egoera"? Orokorrean, Parisko CERAP<sup>29</sup> erakundeak Frantziako gizartearen hezkuntza-egitasmoaz eta, bereziki, hezkuntza-sistemaz egiten dituen zenbait burutaziori oso baliagarriak deritzegu guretzat, besteak beste:

1. Hezkuntza eta hizkuntza-sistemen jatorriaz eta beharrez mintzo direlako,
2. Bakoitzaren eginahalen azterketa egiten duelako.
3. Ondorioak baliagarriak direlako beste edozein herrialdetan aztertze.


Oso kontutan eduki behar dugu *hezkuntza eta eskolatzea ez direla gauza bera*. Gizakien eskolatzea bideratzeko sortu den agiriari hezkuntza-sistema deritzogu. Baina guri jakitea interesatzen zaiguna da, bereziki, zer dioen hezkuntza-sistema agiri horrek eta nola egituratzen den. Horri erantzuna emateko, kulturaren eremura jo beharra dugu kultura-fenomenoak bere garapenerako erabiltzen duen bidea eta hezkuntza-sistemak ibili behar duena gauza bera direlako.<sup>30</sup> Ikus dezagun grafikobaten bidez dioguna:

<sup>29</sup> TENZER (direc.) (1989). Op. cit.

<sup>30</sup> APALATEGI, J. (1993). "Hezkuntzaren ebaluaketarako aurrebaldintzak". *UZTARO*, giza eta gizarte zientzien aldizkaria. Bilbo, UEU, 117-124 orr.



## 2. IRUDIA: *Hezkuntza eta kulturaren arteko harremana*



M. Jaione Apalategi (1994)

Banan-banan ikusiko ditugu.

### 2.2.1. Hizkuntza

Hezkuntza-sistemaren eta kulturaren lehenengo eginbeharra, hizkuntzan oinarrituz, bera finkatzea da. “Ez dago gizarterik, ez eta kultura-elkarterik, hizkuntza berbera baten jabe ez denik eta bere pentsamendua azaltzeko zein mundua adierazteko ahalmena ez duenik”<sup>31</sup>. Hezkuntza-sistema guztien lehen eginkizuna, bakoitzak ordezkatzeko duen gizartearen pentsamenduari loturik dagoen hizkuntza, bere egitura garatzeko bermatzean datza. Arazoak, ordea, egon badaude eta geopolitikatik, soziolinguistikatik eta kondairatik sortzen dira. Hau da, toki askotan diharduen hezkuntza-sistemak ez du berezko gizartearen kultura edo dirautenen beharrak garatzen. Aldiz, hizkuntzen

<sup>31</sup> TENZER, N. (direc.) - CERAP. (1989). Op. cit., 30 or.

arteko borroka eta mugak areagotzen dituzte. Hizkuntza-urraketak pairatzen ez dituzten gizarte eta hezkuntza-sistemek buru belarri jardun dezakete irakaskuntza eta heziketak eskatzen dituzten etengabeko berrikuntzei erantzuten.

Honetaz jabetzeko, CIEMENek<sup>32</sup> argitaratua duen Europako hizkuntzen mapa ikusi besterik ez dago. Berehalaxe konturatuko gara kultura-elkarte bati dagokion hizkuntza eta lurralde horretan diharduen hezkuntza-sistema, askotan, ez direla bat etortzen, edo elebakarrak ez diren zenbait aberritan primeran egituratu dutela irakaskuntza eta heziketa-sistema. Euskal gizartean, berriz, arazo hau ez da txikia, bertan diharduten “bi” hezkuntza-sistemek ez dutelako behar bezala bermatzen gure kultura-elkartearen hizkuntza eta izaera.

Oro har, hezkuntza-sistema baten arrazoi nagusia heziketa hedatzea da, eta hori ziurtatzeko ezinbestekoa da pentsatzen irakastea. Pentsamendua garatzeko, lehenik eta behin, sentitzen ikasi behar da<sup>33</sup>. Pentsatu, berriz, gizakien ikur nagusia den hizkuntzaren bidez egiten da. Gizarteak bere gizaki-multzoak propio duen hizkuntzan pentsatzen ikastea ukaezina den eskubide naturala da. *Hizkuntzek eta horien hiztunek gizarteak eratu dituzte eta ez alderantziz*<sup>34</sup>, kontrako eran jokatzeko errealitatearen aurka joatea da indarkeriari atea irekiz.

Hezkuntzak, hezkuntza-sistemaren bidez, gizakiok pentsatzeko daukagun gaitasuna hezi behar du. Hori lortzeko nahitaezko tresneria aurkitzen da azaleratzeko beti prest daukagun sentimenduaren indarrean, eta bidea, berriz, askatasunaren heziketa da. Askatasuna zer den ulertu eta askatasunez jokatzeko, gizabanakoaren funtsezko kultura-nortasunaz jabetu behar da, non irakaskuntza eta heziketa-prozesuen bidez irakasteak bi eskaintza-mota antolatzea suposatzen duen:

---

<sup>32</sup> “Centre International Escarré per a les Minorigs Etniques i les Nacions, CIEMEN. “Aproximació a l’Europa de les llengües” Mapa, (1987).

<sup>33</sup> OTEIZA, J. (1984). *Ejercicios espirituales en un túnel*. Donostia, Hordego, 2. arg., 422-458 orr.; (1972) “Un modelo de hombre para el niño de cada país”. In UBALDE MERINO, J. *La psicología ante la física y la ecología*. Santander, Krispin. 133-134 orr.; Op.cit., TENZER, N. (direc.) - CERAP. (1989). “L’école de la sensibilité artistique”. 46-49 orr. eta “Pour une reconquête culturelle”, 49-50 orr.

<sup>34</sup> “Txepetx” (1987). *Un futuro ...*, eta (1985). “La nueva sociolingüística y la ecología de las lenguas” Homenaje a Aingel Irigaray, *Eusko Ikaskuntza*, Cuadernos de Sección: “Hizkuntza eta Literatura”, San Sebastian, 32-34 orr.

- a) ezagutza-multzo trinkoak, eta
- b) horiei dagozkien baloreak.

Pentsamendu askea ez da bat-batean edo berez sortzen den zer-bait. Bere euskarria baloreek eratzen dute eta, horiei esker, gehiago jakiteko zirrara eta motibazioa sortzen ahal zaigu. Are gehiago, hezkuntza-sistema batek ez dio garrantzirik eman behar pentsamenduari pentsatzeagatik, baizik eta pentsamendu askeari, indar eta kemen bereziz hornituta dagoelako. Heziketa hau jasotzeko zoria duen gizabanakoak bizitzaz, gizarateaz eta izadiar arduratzeko prestatua egongo da.

Norbereikiko eta besteekiko begirunea izateko, *hizkuntza / sentimendua / pentsamendua / askatasuna* laukotearen garapenean trebatu eta engaiatu behar da Hori lortuz gero, bakarrik, hitz egin baitaiteke gizabanako edo gizarte osasuntsuez eta ez gaixoez.

Gizarteak gizarte, nahiko genuke euskal irakaskuntzari lekiokkeen hezkuntza-sistema gizarte osasuntsu<sup>35</sup> bat egituratzeko balioko lukeena izatea. Hori lortzeko, erakundetutako hezkuntzaren kezka nagusia zein izan behar den eta are gehiago, gizarte osasuntsua eraikitzearen aldeko apustua egin nahi badugu bat gatoz Txepetxek<sup>36</sup> dionarekin: “Gizabanakoa errealitatearekin eta ez gizaratearekin uztartzeko, euskaratik eta hitzun osoengandik martxan jarri behar den ahalegintzat jotzen dugu hezkuntza. Hau da, gizabanakoak giza-aurrerapen zehatzaren aurrean esku hartuz, horren norabidea aldatzeko gaitasuna heztea suposatuko luke, hizkuntzaren izatearekin eta ez indarrean dagoen gizarte sistemarekin bat eginez... Gizabanakoa da pentsamendua, sentimendua eta ekintza-gaitasuna duen izakia, besteak beste, eta beraz, hezkuntza-sistemak” bere heziketa eta bere biziaren lekukoa eramateko prestatu beharko luke

### 2.2.2. Kultura orokorra

Behin hizkuntza ikasi, sentitu, hitz egin, besteei entzun eta ulertu, komunikatu eta hizkuntzarekin gozatu, amestu, hezi, bizi... ondoren, “hezkuntza-sistemaren” bigarren ahalegina hizkuntza mamitzen

<sup>35</sup> Ibid., (1990f). “Los espacios de la desigualdad...”, 37 or.

<sup>36</sup> Ibid., 44 or.

lagunduko duen ezagutza-multzo bat eskaintzea da, eta hori da kultura orokorraz<sup>37</sup> ulertzen dena, hain zuzen ere.

Kultura orokorraren betekizunak hauexek dira:

1. gutxiengo ezagutza-multzoa garatu gizaki guztiengan,
2. hizkuntza bermatu,
3. oinarritzko teknika batzuetan trebatu,
4. funtsezko gaitasun batzuetan hezi,
5. bidezkotzat jotzen diren zenbait jakintza eskuratzen lagundu.

Kultura orokorra eskuratzea oso garrantzitsua da, gizabanakoarentzat zein gizartearentzat. Bere zeregina, oinarritzkoak bai, baina funtsezkoak diren ezagutzak gehiengoari igortzean eta heztean datza. Gizakien jatorritzko hizkuntzak erabiliz eta gizabanakoaren izateari dagokion sentimendu-multzoa aupatuz, pentsamendua hezi eta eraiki ahaliko du.

Betebehar horietarako erabiliko dituen teknikak gaitasun batzuk trebatzeko asmoarekin izango dira, esate baterako: irakurketa eta idazketa irakasten, informazioaren aurrean espiritu zabala garatzen, irizpide propioa eta epaitzeko gaitasuna hezten ahaleginduko da.

Kultura orokorraz arduratzeak ere ezagutza-multzo batzuk irakastea esan nahi du. Badira arrazonamendua garatzen duten ezagutzak, metodoa eskuratzen laguntzen duten gai-multzoak, baita bere edukia- ren garrantziarengatik irakatsi beharreko jakintza-multzoak ere. Lehenengo multzokoak dira pentsamendu askearen funtsa, bigarrenekoak gai teknikoagoak menperatzeko ezinbestekoak direnak eta hirugarren multzokoak, berriz, berez ezagutza eta pentsamendu askea eraikitzeko hain oinarritzkoak ez izan arren, eratoritzen laguntzeko balio dutenak dira. Horrek ez du esan nahi, berez, multzo batek besteak baino garrantzi handiagoa duenik, arazoa euren arteko lehentasuna zein den erabakitzean datza. Honetaz ohartzeko jakin beharra dago literatura, historia, filosofia...<sup>38</sup> edo hizkuntza, kultura, artea, sormena...<sup>39</sup> bezalako ezagutza-multzoak ezinbestekoak direla, gizarte berdin, zuzen, aske, ireki, malgu eta "osasuntsuak" lortzeko; beraz, premiazkoak direla eta lehentasuneko jakintza-multzoa osatzen dutela. Horien

<sup>37</sup> MINOT, J. (1970). *L'entreprise education nationale*. Paris: Arnaud Colin; MONORY, R. (1987). *Plan pour l'avenir de l'education nationale*. Ministere de l'education nationale, 15 decembre. Paris.

<sup>38</sup> TENZER, N. (direc.) - CERAP (1989). Op. cit., 104 or.

<sup>39</sup> "Txepetx". (1990f). Op. cit., 30 or.

guztien orde, bigarren mailakoak diren baloreak –ekonomia, merkata, tratua– giza-norabidea galduko duen gizartea eraikitze, arriskua gaudela uste dugu, benetan.

Lehentasunezko multzoak direla eta, euskal irakaskuntzara hurbiltzen bagara, berehala ohartuko gara Euskal Herrian diharduten hezkuntza sistemekin gure kultura-taldeari dagozkion lehentasun-mailako ikasketak orokorrak hedatzea ez dela oso erreza. Burutapen horietan sakontzeko ezin baliagarriago deritzot Oteizak<sup>40</sup> gure kultura eta hizkuntzaz dioenari:

“...oso erosoa eta erraza da esatea hizkuntza dela dena. Nire teoria kontrakoa da, erlazioa alderantzizkoa bihurtzen da: arazoa ez da lehenengo gizonari hizkuntza itzultzea, baizik eta hizkuntzari (gelditzen zaigunari) gizona itzultzea (ez gelditzen zaiguna, baldin zerbait gelditzen bazaigu, baizik eta hizkuntzaren barnean geneukan gizona, oso osorik)... Bere baitan sendatzen ari den gizon honek jakingo du nola bereganatu hizkuntza... bere kulturaren egilea den gizon-emakumea, gure kultura tankerakoa.

...gure krisi guztiak gizonaren kultura-politikarenak dira, mendez mende, politikoaren berreziketarena sentsibilitatean..., haur berriaren berrirudimenarena euskaraz eta honela ez badoa lagundurik, euskara ez da bera bakarrik berreskuratuko.”

### 2.2.3. Kultura berezia

Hezkuntza-sistemaren hirugarren eginkizuna, *kultura berezia* gorentzearena da. Orokorrean, esan daiteke kultura berezia derrigorrezko ikasketak bukatu ondoren egiten diren ikasketak-multzoei deitzen zaiela, hots, Unibertsitate eta beste erakunde berezien bidez lantzen direnak. Urrats horren logikotasuna bakarrik eman daiteke<sup>41</sup> hezkuntza-sistemaren aurreko bi urratsak, hizkuntza eta kultura orokorrarenak, bete bete hedatzen badira.

Kultura berezian barneratzeko, ikasle ohi guztiak gutxiengo trebetasunak menperatu behar dituzte, hots:

1. Komunikazioaren oinarriak.

<sup>40</sup> OTEIZA, J. (1983). *Quosque Tandem*. Colec. Añamendi, 4. arg., 5 or.

<sup>41</sup> TENZER, N. (direc.) - CERAP (1989). Op. cit., 104-108 orr.

2. Nork bere iritzia agertzeko ohitura eta trebetasuna.

3. Aztertzeo gaitasuna eta zentzua.

Hiru gaitasun horien garapena nahitaezkoa da kultura bereziaz behar bezala jabetzeko, ondoren gizakiaren kultura ondarean parte hartu ahal izateko eta, ahal den neurrian, kultura-mundua hobetzeko edo gehitzeko.

Gure “hezkuntza-egoeratik” aztertuz gero, logikotasun hori ez da nabari, arrazoiak, ikastetxeetako hezkuntza elkarteetan ez baino, diharduten hezkuntza-sistemek, aurreko bi aroak –hizkuntza eta kultura orokorra– sustatzeko indarrean jartzen dituzten legedietan aurki ditzakegu<sup>42</sup>.

Bestalde, “euskal hizkuntzatik” begiraturaz gero, ez da zaila kultura bereziaren garapenerako dauden oztopoak ulertzea. Gogoratu besterik ez dago, nazioarte-mailan hedatuentzat jotzen diren hizkuntzek ere, askotan, talde-kulturaren nortasuna garatzerakoan, hutsuneak bilatzen dituztela maila hori antolatu eta aurre egiterakoan. Beraz, euskaratik zer esanik ez!<sup>43</sup>. Oro har, maila honetan sortzen diren arazoak hiru multzotan sailka ditzakegu:

1. Ikasketa-mota hauen inguruko edukiak eta irizpideak erabakitzeo erabiltzen den ildo nagusia kantitate hitzaren ingurutik dator kigu. Beraz, gizarte handia, ezaguna eta hizkuntza sendoa dutenentzat kultura bereziarekiko ikuspegi kuantifikatua arriskutsua bada... nola izan daiteke ona gurea bezalako gizarte batentzat?<sup>44</sup>

Irtenbidea hezkuntzaren errealitatea ezagutzetik dator, hezkuntza-sistemari bi eratako helburuak jorratzea eskatuko dizkiolarik: alde batetik, “kuantitatiboak” eta, bestetik, “kualitatiboak”. Helburu kuantitatiboak ez du esan nahi nahasketa, sailkapenik eza, nolana denok batera aritzea, ... baizik eta, kultura orokorraren atalak esaten diguna beste hau da: “gehiengoentzat gutxiengo beharrak hedatzea”, ez eta kontrolik gabeko zabalkundea egitea edo zenbakiari bakarrik loturiko hizpidea erabiltzea, hots, askorentzat bai, baina, ahal den bezala.

---

<sup>42</sup> EGIN egunkaria 92/11/14 “Profesorado propio”.

<sup>43</sup> “Txepetx” (1987a). Op. cit., “El equilibrio lingüístico”, 91-105 orr.

<sup>44</sup> RUIZ OLABUENAGA, J.I., & ISPIZUA, M.A.(1989). *La descodificación de la vida cotidiana*. Universidad de Bilbao, Deusto, 20-21 orr.; GOETZ, J.P.; LECOMPTE, M.D.(1988). *Ernografía y diseño cualitativo en investigación educativa*. Madrid, Morata, Prólogo eta 37-56 orr.

2. Ikasketa berezi horien artean dauden eduki berberak sortzen dituzten korapiloak hainbat mailatan ematen dira:

- Azalpen eta azterketa teorikoen erabilgarritasunaz hitz egiterakoan.
- Gizartearen itxuran.
- Praktikan.
- Balore-sisteman.
- (...)

Azken baitan, ezagutza bakoitzak dituen epistemologia-arazoak<sup>45</sup> galdera batzuei erantzunez bereizten dira:

1. Zein ote da kultura-ikasketa berezi bakoitzaren eremua, hitzez hitz hartuta, hau da semantikoki?.
2. Zein da bere ezagutzaren izatea?.
3. Zein da bere helburua eta azterketa-maila?.
4. Ikerketa egiteko zenbaterainoko ahalmena du?.
5. Nolako balore-sisteman oinarritzen da?.
6. Kondairaz eta gizarteaz zer dio?.

Beti ere, Bourdieu<sup>46</sup> dioen bezala, epistemologiari buruzko ustea giza-irizpideari erantsita doa beti .

3. Hirugarren multzoan, berriz, kultura espezializatuari dagozkion “betebeharretatik” sor daitezkeen arazoak genituzke aipagai. Urrats honek garatu eta kontutan izan beharreko alor garrantzitsuenak hauexek ditugu, besteak beste:

- Kulturaren promozioa.
- Kultura giza-funtzioa dela, ez ahaztu.
- Pedagogiaren zereginetatik ez dela urrunduko behar.
- Ekonomiarekin dituen lotura eta harremanak.
- Ikerketaren garapena bermatu behar duela.

### 3. Eskola-erakuntza eta barne-baldintzak

Ikastetxearen barne baldintzak irakaskuntza/ikaskuntza-jarduera norabidetu eta zuzenduko duen multzoari deitzen diogu. Hau da,

---

<sup>45</sup> LARROSA, J. (1990). Op. cit., 3. atala “Epistemologia, pedagogia”, 83-104 orr.; VV.AA. (1984). *Estudios sobre epistemología y pedagogía*. Madrid, Anaya; PIAGET, J. (1972). *Naturaleza y métodos de la epistemología*. Buenos Aires, Emecé.


<sup>46</sup> BOURDIEU, P. (1982). *Leçon sur la leçon*. Paris, Les éditions de Minuit, 10 or.

zertan oinarritu behar den (hezkuntza-asmoak), zer bihurtu behar den (hezkuntza-egitasmoa) eta zertan mugatu (barne-araudia) behar den ikastetxean garatzeko antolatzen den hezkuntza, alegia.

Atal honekiko gure eskaintza ez da adigai honen eremu zabala azaltzea<sup>47</sup>, baizik eta, abiapuntu ziur bat finkatu ondoren, euskal ikastetxeak gogoko duen hezkuntza martxan jartzeko tenorean, aipatu ditugun hiru "agiri"-mota hauen garrantziaz eta izateaz jabetzea eta idazten ikastea.

Ikastetxe batek bereiztu eta landu behar dituen gutxiengo agiriak grafikoki azalduta, hauexek lirateke:

### 3. IRUDIA: *Ikastetxearen agiriak*



M. Jaione Apalategi (1994)

<sup>47</sup> EUSKAL HERRIKO IKASTOLEN ELKARTEA-EHIE. (1991). *Euskal Eskola-Escuela Vasca*. Lizarra, Gráficas Lizarra. (Nafarroa); VILLALTA, M. (1987). *Los padres en la escuela*. Barcelona: Laia; SAENZ, O.(1985). *Organización Escolar*. Madrid, Anaya; FULLAT, O. (1983). *Escuela Pública Escuela Privada*. Barcelona, Humanitas;



### 3.1. Hezkuntza-asmo nagusiak

#### 3.1.1. Ikastetxeak eta nortasun juridikoa

Ikastetxeak helburu batzuk betetzeko antolatzen diren erakuntzak ditugu. Hezkuntzaren arloan, ikastetxeek, lehenik eta behin, giza-bitartekoak erabiltzen dituzte euren xede eta helmugak lortzeko asmoz, geroago baliabide materialen beharrean aurkitzen badira ere.

Erakuntza-kontzeptuak, oro har, gutxiengo helburu batzuen inguruan nolabaiteko adostasuna adierazi nahi du, bai eta zenbait ekin-tza burutzeko elkartzen den gizatalde multzoa ere.

Edozein ikastetxe uler eta gara daiteke "erakuntza-printzipio orokorren" ildotik. Aspaldiko kezka dugu erakuntzak legerik ba ote duen ala ez.

Erakuntzaren teoria XIX. mendearen berrogeita hamarreko hamarkadan (1850) hasi zen lantzen eta poliki-poliki joan zen bere eragina sortzen eskola-eremuan. Geroztik, etengabe lantzen jarraitzen da eta, ondorioz, ikastetxeak hainbat erataria ulertu direla ikus daiteke:<sup>48</sup>

1. Ikastetxea, enpresa bezala (Fayol, Taylor,...).
2. Ikastetxea, hezkuntza-elkartea bezala (Argyris, Mayo,...).
3. Ikastetxea, burokrazia bezala (Weber, Etzioni).
4. Ikastetxea, botere eta askatasun-toki bezala (Neill, Freire, Ferrer Guardia, Oury, Lobrot, ...).
5. Ikastetxea, kultura-erakuntza bezala (Ouchi, Freire,...).
6. Ikastetxea, sistema bat moduan (Bertalanffy, Colom, ...).

Batzuen ustez, ikastetxeen hezkuntza ondorioen zergatiak atzematek jakin daiteke zer motatako erakuntza den eta, beraz, zeintzuk bere lege nagusiak.

Gure ustez, erakuntza nolakoa den jakiteko, bere egitasmoa eza-gutu eta helburuak eraginkortasunez betetzen ari diren frogatzetik ondoriozta daiteke. Jakina, erakuntza-motaren arabera, teknika zehatzak erabiliz jakingo dugu.

---

BARBERA ALBALAI, V. (1988). *El proyecto educativo, Plan Anual del Centro, Programación docente*. (1989). *La planificación de los objetivos en el diseño curricular del centro*. (Preescolar, EGB, Enseñanzas medias. Madrid, Escuela Española; ISAACS, D. (1987). *Teoría y práctica de la dirección de los centros educativos*. Pamplona, Eunsa; ANTUNEZ, J.(1987). *El proyecto educativo de centro*. Barcelona, Grao; BARQUERO SEGOVIA, J.(1987). *El reglamento de régimen interior de un centro*. Madrid, Magisterio español.

<sup>48</sup> MUÑOZ SEDANO, A.; ROMAN PEREZ, M.(1989). *Modelos de Organización escolar*. Madrid, Cincel.

Orokorrean esan genezake, lege-mailan, erakuntza guztiek printzipio trinko hauek onartzen dituztela:


1. Elkarren arteko interesa.

2. Agintearen beharra. Beti ere, aginte hau ikuspegi filosofikotik ulertuko da: indar morala bezala. Taldearen izatearen arabera, ezberdina izango da gogokoa duten agintea sortzen ahaleginduko direlarik, kanpoko presioa kontutan hartu gabe. Honen aurkako agintea boterearen ikuspegitik sortzen dena da, kanpotik barrura ezarriz, ia beti giro txarra eta ahula ekartzen duelarik.

4. Barne-lotura. Helburuak argiak, eraginkorrak eta erabilgarriak direla frogatu behar da. Helburuak betetzeko, lehengo eta behin erakuntza osatzen duen taldekide bakoitzak informazio berbera eduki behar du, gero koordinatzeko beharra etorriko da.

5. Erakuntzaren enborrak helmuga trinkoak ditu eta adar berri bat sortzen den bakoitzean, aginte-bide berri bat ere sortuko da:

4. IRUDIA: Erakuntzaren aginte-bidea




M. Jaione Apalategi (1994)

6. Betebeharren mugaketa. Norberaren zein taldearen arteko betekizunak, loturak eta mugak zeintzuk diren garbi eduki beharreko zerbait da. Adibidez, ikastetxe-mailan, "sailak" deritzen multzoak sortzea eta garatzea suposatuko du.

7. Erakuntza-kideen arteko lanak eta mugak batu. Printzipio hau garatzeko, nahiko da "adar edo sail" bakoitzeko koordinatzaileak harremanetan egotea.

8. Lerrokideak (ekintza orokorraren ardura dutenek) eta "staff" kideak (aholkularitza taldea (o) hartzen dituzten erabaki-motak, erakuntzaren legeen barnean saihesturik agertzen zaizkigun beste adierazpen batzuk dira. Grafikoki honela azaltzen da.

5. IRUDIA: Erakuntza-kideak



M. Jaione Apalategi (1994)

9. Azkenik, esku hartzearen printzipioa dugu aipagai. Hori ongi bideratzeko, lehenik eta behin, ulertu behar dena zera da: guztien ondasuna, norberarena barne dagoela esan nahi duela, hain zuzen ere.<sup>49</sup>


<sup>49</sup> SCHUTZ, A.; LUCKMANN, T.(1977). Op.cit., "La estructuración del mundo de la vida para el sujeto vivo", 35-38 orr.; MELOTTI, U. (1981). *El hombre entre la naturaleza y la historia*, Barcelona, Península; ESCAMEZ, P. (1988) "La cooperación y el comportamiento altruista", 398-418 orr.; MATURANA H.R.; VARELA, E.J. (1990). Op.cit., "Altruismo y egoísmo", 173-176 orr.

Printzipio hauekiko adostasuna lortuz gero, Erakuntza guztien lehen arazo larria “nortasun juridikoa” topatzearena da, horren ezaugarriak hauek izaten direlarik:

1. Nortasunaren mugaketa behar da.
2. Jabego-mugaketa, lehen eta bigarren artean ikastetxearen ardura eramaten delarik.
3. Erabaki hartzaileen mugaketa zehatza.
4. Ikastetxearen helburuen mugaketa: hezkuntza-asmo nagusien urratsak azpimarratu eta bideratu.
5. Goi-mailako barne-erakuntza mugatu ikastetxean.
6. Azken erabide eta deuseztatzearen arrazoiaren mugaketa.

Ikastetxeko “jabegoaren” administrazioa eta “erabaki hartzea” eratzten den arabera, nortasun juridiko ezberdinak sortuko dira guztiak zuzenbidearen eskutik mugatuko direlarik, hots:

6. IRUDIA: Erakuntzaren nortasun juridikoa



M. Jaione Apalategi (1994)

### 3.1.2. Ikastetxearen izaera-nahia

Zer da ikastetxearen izaera-nahian esaten dena eta zer dira hezkuntza-asmoak?

Borobiltzeko, esan dezakegu ikastetxe guztietan idatzirik egon ez arren, edo bertako hezkuntza-elkarte osoa kontzientea ez izan arren, guztiek asmo eta gogoeta<sup>50</sup> batzuen araberrako hezkuntza eskaini eta egiten dutela: batzuetan, eskola-erakundearen hezkuntza-asmoak erabat estatuaren edo administrazioaren gain daude (*école publique, colegios públicos*); beste batzuetan, berriz, erakunde zibilen ala erlijiosoen eskuetan, horietariko batzuk pribatu osoak ala kontzertatuak direlarik (*colleges, colegios privados, ikastolak* ..).

Batez beste, betidanik eskolen irudizale eta eratzailiek hainbat adierazpen erabiliz, eskolak izan behar duen: oinarria, pentsaera, egitaraua eta printzipioak asmatzear ibili ohi dira, guztia ongi zehazturiko eta mugaturiko agiri batean agertu nahian. Agiri hori gaur egun "hezkuntza-asmo" edo "ideario" izenarekin ezagutzen da, eta ikastetxeak berezko duen zutabe filosofiko eta pedagogikoz osaturiko ideologia biltzen du. Esate baterako, "Eskola Berriaren Nazioarteko Elkartea"<sup>51</sup>, 1921. urtean Calois (Frantzia) hirian eratu zenean, hogeita hamar puntuko agiri bat kaleratu zuten; hau da, "Eskola Berriak" izateko ezinbestekoa zen baldintza-zerrenda eskaini zuten, gero zazpi printzipio nagusitan bihurtu zen hezkuntza-asmoa.

Beraz, ikastetxe bateko printzipio ideologikoak biltzen dituen agiria hezkuntza-asmo nagusia edo "jomuga" zein "izaera" bezala ezagutzen da. Gure hezkuntza-ingurunean, azken hau aukera erlijioso eta morala eskaintzen duten ikastetxe eta "IKASTOLA" izenez ezagutzen ditugun hezkuntza-erakundeei atxikitzen zaie, beste ikastetxe motek, publikoek alegia, "hezkuntza-asmorik" ez balute bezala. Batak zein besteak idatziazen bidez ala idazki propiorik gabe, euren hezkuntza-elkarteari ardurara politiko eta pedagogikoz arreta hartzea eskatzen diete.<sup>52</sup>

<sup>50</sup> OSAENZ, O.(1985). Op. cit., "El ideario educativo", 407-443 orr.

<sup>51</sup> *La educación infantil, 0-6 años* Vol. III. (1990). Organización escolar. Barcelona, Paidotribo, 77-78 orr.; PALACIOS, J. (1978). Op. cit., "La tradición renovada", 25-153 orr. "Raíces del ideario pedagógico", 156-182 orr.

<sup>52</sup> JACKSON, B.(1981). *Cada niño es una excepción*. Madrid, Morata. 135-136 orr.; CHARACTER PROPIO LOS CENTROS EDUCATIVOS DE LA COMPAÑIA


### 3.1.3. Eskola-erduak eta hezkuntza-asmo nagusiak: herri eskola eta jabedun eskola

Gure inguruan behinik behin eta bat-batean hezkuntza-asmoez hitz egiteak eskola publiko-eskola pribatu "sui generis" baten eremuak ukitzera eramaten gaitu. Hemen, betidanik uste izan ohi da hezkuntza-asmoa eskola pribatuei dagokien zerbait dela eta, orokorrean, politikamunduan "eskuindarrek" defendatzen duten eskola-motetan ematen dela. Bestalde, talde "ezkertiarrek", publikozaleek diote eskolek hezkuntza-asmo berezirik ez dutela izan behar, ezberdintasuna ugaldu besterik ez delako egiten.

Botere ezkertiarrek diote eskola gizartearena izan behar dela, eta, horrexegatik, dirutza publikoarekin mantendu behar dela, honela bermatzen baita guztien balio berdinen beharra eta aniztasunaren garapena.

Fullatek<sup>53</sup> gogoratzen digu hezkuntza-gogoeta baten sustraia, burubidea, ameskeria edo utopiak direla, eta ondoren adierazpen grafiko bat agertzen digu, non ezkertiarrek eta eskuindarrek eskola publiko / pribatuaren aurrean agertzeko izan duten ohiko joera azaltzen duen:

#### 7. IRUDIA: *Eskola publikoa-Eskola pribatua*



O. Fullat (1983). Op.cit., 44 or.

DE JESUS. (1991). Madrid: Conedsi, Secretaría General; EHIE (1988). Op.cit., "Ikastola: izaera eta egitura". Zarautz, Itxaropena.

<sup>53</sup> FULLAT, O. (1983). Op.cit., 44-45 orr.

Eskuindarrentzat hezkuntza-asmoak ezinbestekoak dira irakas-kuntzarentzat askatasun-babesa bermatzeko. Ezkertiarrentzako, aldiz, diktadura ideologikoak besterik ez dira.<sup>54</sup>

Hezkuntza-asmoetan agertzen dena “giza-izateari” buruzko uste bat da, ez eta izan beharrarena. Eskola-ereduak, beraz, ez lirateke zentzu kontrajarrietan aztertu behar, osagarritasun zentzuan baizik. Nola ulertu giza-izate eta ekintza ugaria mundu zabalean zehar, gizarte bakoitzaren izate eta usteari dagozkion eskola-motak eskaini gabe?

Gehienetan, ordea, eskola publiko-eskola pribatuaren arteko bipolarizazio horrekin benetan adierazten dena gizartea bera eta gizon-emakumearekiko eredia izaten da.<sup>55</sup> Bestalde, aberri batek zenbat eta arazo geopolitiko eta hizkuntza gatazka gutxiago izan, orduan eta eskola-eredu orekatuago eta irtenbide kontsentsuatuagoak ematen dira.<sup>56</sup>

Arlo honetan, euskal irakaskuntza eta ikastetxe-eredu ezberdinen sailkapena nabarmenetakoa dugu Euskal Herrian zehar, bere aldarrikapen sozialaren ikuspegitik batik bat; Gales, Irlanda, Eskozia, Britainia... zehaztu gabe.<sup>57</sup>

Begirada honi alde ona ikusiz, esan genezake Euskal Herrira etorritz, arazo geopolitikoa dugula, begi-bistakoa da, eta, ondorioz, giza-krisia baino gehiago, gizarte-izatearen nahiak sortzen duen krisia dugula gure gain. (((Esan dezakegu euskal gizarteaz jabetu eta hezkuntza-bide trinkoak hedatu nahi dituen gizataldeaz ari garela, gizarte honen izatearekiko “aurreusteetatik” abiatuturik gizartearen etorkizunari begira, giza-aurrerapenak, oro har eta gizadi osorako, marrazten dizkigun urratsari jarraituz, eraiki nahi den hezkuntza eman ahal izateko, ikastetxeak behar ditugu.))))

Gure gaurko “hezkuntza-egitura” dei dezakegunaren barnean, aurkezten zaigun eskola pribatu / eskola publiko erako erronkak ez du tokirik. Gainera, lehenik eta behin jakin behar dugu eskola pribatu/

<sup>54</sup> Ibid. FULLAT, O., 35-37 eta 154-180 orr.

<sup>55</sup> TENZER, N. (direc.) - CERAP (1984). Op. cit., “Un projet de Societé”. 29-30 orr.; OTEIZA, J. (1972). Op. cit., UBALDE MERINO, J., 123 or.

<sup>56</sup> EUSKALZAINDIA (1977). *El libro blanco del euskara* (1979). *Hizkuntz borroka Euskal Herrian*. Bilbo; SIGUAN, M. (coord.) (1990). *Las Lenguas y la educación para la paz*. Barcelona, ICE/HORSORI.

<sup>57</sup> VILLAR, F. (1971). *Lenguas y pueblos indoeuropeos*. Madrid: Istmo.



publikoaz ez dela gauza bera ulertzen Maoren Txinan, Nazien Alemanian, Holandan edo Grezian, zein Frantziako eta Espainiako estatuetan.<sup>58</sup>

Euskal Herriak oraindik ez du benetako aukerarik gure gizartearentzat egokienak izango diren eskola-ereduaz apustua egiteko. Aztertu eta ezagutu behar duguna da inguruan dauden eskola-motak eta beraien baldintzen eta ondorioen berri eduki.

Ikastolak herri-eskolak izateko sortu direla esaten denean, arazoaren alde bat agertzea besterik ez da. Zer ulertu beharko dugu euskaldunok herri eskolaz edo eskola publikoaz eta eskola pribatuaz edo jabegodun eskolaz?

Gure herria, mundu zabalean ulertzen den herritasun-zentzuan, egituraketa arrunta eta, aldi berean, trinkoa bihurtzen/bilakatzen denean, besteak beste, eskola-ereduen arazoaz arduratu beharko da. Bien bitartean, Ikastola euskal hezkuntza toki garden eta eredu ezberdinak babes litzakeen isla bezala uler dezakegu.

Oro har, berriz, eskola-ereduez mintzatzeak bi arlo kontutan hartzea suposatzen du<sup>59</sup>: 1. ikastetxearen jabegoa –atal ekonomikoa– eta 2. ikastetxearen kudeaketa –hezkuntzaren atal teoriko-praktikoa–. Ondorioz, arlo hauen uste eta erabilerak lau eratako eskola-ereduak sor ditzakete:

- A- Herri-jabegoa eta herri-kudeaketa duen eskola.
- B- Herri-jabegoa eta kudeaketa pribatua duen eskola.
- D- Jabegoa pribatua eta herri-kudeaketa duen eskola.
- E- Jabegoa eta kudeaketa pribatua dituen eskola.

Gure herrian, mugaz bi aldeetatik ezagutzen den “herri-eskola edo eskola-publikoa” goiko A eredutik elikatzen dena dugu eta horren burutapena “eskola bakarra” sortzearen aldekoa da. Baina eredu honen baitan badira “eskola anitza” edo eskola burutapen ezberdinen sehaska bezala ikusten dutenak, adibidez, hor dugu Suediako herri-eskola ereduak. Biek doako irakaskuntza eskaintzen dute, eta herri-boterearen menpe dira, gehienetan.

---

<sup>58</sup> FULLAT, O. (1983). Op.cit., II eta III. atalak: “Escuela privada o clasista” eta “Escuela pública o estatal”.

<sup>59</sup> Ibid. FULLAT, O. (1983). 40 orr.



Bigarren ereduak, gizartearen berezko aniztasuna babestuz, benetako “hezkuntza-asmo” ezberdinak gauzatzen dituen<sup>60</sup> herri-jabegoa eta kudeaketa pribatua duen eskola dugu. Behar bada, denetan hoberena.

Sailkapen honetako D ereduko eskola-mota, berriz, ez da batere gomendagarria, azken baitan jabego pribatuak kudeaketaren zentzu publikoa oso uste ezina bihurtzen zaiolako; adibidez udal ikastolak, foru aldundien ardurapeko ikastetxeak, etab.

E eredia, aldiz, erabateko pribatua izango dela argi dago. Oso ongi antolatuko da eta bere erakuntza koherentea izaten da.

Hemen, gure herrian, ikastolari eskaintzen zaion irtenbidea A ereditutik dator. “Gaur egun” ezinezko eskaintza da hori euskal irakas-kuntzarentzat, giza-administrazioetik ez baita euskal hezkuntza-egituratuko duen ahalegin eta norabiderik ikusten. Gainera, Ikastolak publiko izateko sortu zirela esan ordez, esan beharko genukeena da euskal gizarte bati lekiokkeen hezkuntza (eredu mota guztiak) aldarrikatzeko jaio direla. Beraz, hezkuntza hori gure gizarte-aniztasunaren arabera eskola-eredu ezberdinetan eskaini eta ahalbidetu beharko dela, baina oraingoraindik gure gizartearen burujabetasun geopolitikoa lortu gabe dagoenez, ezin du gaur egun plazaratu den publiko/pribatu eronka horretan sartu, aukera horiek euskal gizarte eta euskal hezkuntzatik aztertu gabe. Aldiz, oraingoraindik ere, Nafarroa Garaian, Behe Nafarroan, Zuberoan eta Laburdin Ikastola, diharduten sare publiko eta pribatuez gain, beste hezkuntza-eredu aukera bat bezala agertzen da<sup>61</sup>: eskola publikoa, école publique, kolegioa, institutua, collègè, lycée, Ikastola... eta Euskal Elkarte Autonomoan –EEA–, berriz, dagoeneko sare publiko edo pribatuaren barnean saihesturik agertzen da 1993ko maiatzaren 25etik aurrera diharduen “hezkuntza administrazioen” eskutik (...). Baina, hala eta guztiz, ikastolaren etorkizuna ez dago erabat erabakia; ez, noski... Sortze-printzipioek dioten bezala,<sup>62</sup> ikastola ez da konformatuko gaur egun diharduten “aukera-mota” horien barnean jarraitzearekin. Gure gizartean hezkuntza-egiturarekin zer ikusirik duten

<sup>60</sup> SAENZ, O. (1985). Op.cit., 419-420 orr.

<sup>61</sup> Iruñeko Udal Ikastolak (Amaiur, Axular eta Hegoalde), besteak beste, bere kudeaketa arazoak zirela eta ... Nafar Gobernuak Hezkuntza sailaren menpe igarotzea erabaki zen 1993an.

<sup>62</sup> EHIE. (1988). Op.cit. eta EUSKALTZAINDIA. (1979). Op.cit., “Euskararen berreskuratze prozesua: “normalizazio linguistikorantz”, 3. zatia, 164-173 orr.

guztien inplikazioa bultzatuz –ikastetxe guztiak (publikoak zein pribatuak), hezkuntza-administrazioak orokorrean (Elkarte Autonomoa, Nafarroa, Akitania, Bearn) eta gizartea bere gizon-emakume kultura multzo osatzen dutenak, zein pentsalari, jakitun, intelektualak izan ...– euskal gizartetik sor daitezkeen eskola-eredu guztiak –herrikoiak zein jabegodunak izan (publiko/pribatu)– aurkakotasunean ez; baina batez bestekotasunaren beharrean eraikitzea izango da bere ardura nagusia.

Ikastola ez da gaur euskal gizartean agertzen den moduan bukatu-tako aukera bat, baizik eta euskal hezkuntzaren beharra eta errealitatea, gerizapean gordetzen den etorkizuneko egitasmo bat. Euskal lurraldean, ikastolak abiapuntutzat hartu gabe, ezingo da euskal hezkuntza eta eskola-ereduen auzia berregokitu edo berrantolatu gaur egungo hezkuntza-egoerak eskatzen duen bezala. Euskal lurraldean hezkuntza-oreka bideratzeko eta topatzeko, ikastolek ordezkatzten duten hezkuntza-errealitatea –ez gaur diren errealitatea soilik– zio nagusi bihurtu behar da, bestela mesede gutxi ekarriko duten aldaketan eta berriztapenen aurrean ibiliko gara guztiok.

Bien bitartean, ikastolak bere nortasun eta hezkuntza-egitasmo berezia mantentzen saiatu behar dira, horrek suposatzen duen traba eta zailtasun ekonomiko eta legal guztiez.

Ikastolen inguruan betidanik ibili ohi den mamuetariko bat –"publiko/pribatu" izatearena hain zuzen ere– konpondutzat eman nahi izan dute Euskal Herriko Euskal Elkartea Autonomo (EEA) lurraldeko hezkuntza-administrazioetik batik bat; Bizkaia, Araba eta Gipuzkoako ikastolei 1993ko maiatzaren 25erako harrarazi zien erabakien bidez.<sup>63</sup> Baina, konpondu gabe dagoela bistan da,<sup>64</sup> eta era askatuko arrazoiagatik

1. Aurretik eta gozotik, euskal gizartean nonahi dabilen eta bizi bizirik dagoen auzia delako: ahoz aho, erakunde, elkarte, ikus-entzunezko guztietan...

2. Erabili diren aurreuste eta egituraketa-eskaintzak balio ez dutelako euskal gizarteak aldarrikatzen duen hezkuntza-errealitatea birbitzitzeko.

---

<sup>63</sup> 1993/5/25 aurretik eta gozotik, idatzi eta telebista zein irratietan irakurri eta entzun dugun guztia ikusi besterik ez dago.

BUESA, F. (1993). "No volveremos a hablar de ellas". *EGIN* egunkaria. 93/5/27 osteguna. 26 or.

<sup>64</sup> EHIE (1993). "Ez dute lortu ikastolak desegitea". *EGIN* egunkaria 93/5/27 osteguna.

3. Ikastolak Euskal Herriko errealitatea dira, ez eta EAEkoak, bakarrik.

4. EHIEk dioena entzun besterik ez dago.

5. Euskal Herriaren hezkuntza-auzia ez da publiko/pribatu soka-muturraren artekoa, baizik eta hezkuntza berezko bati sortzen zaizkion kultura eta teknologia-arazoei irtenbide egituratu bat ematea.

Gertakariak gertakari eta gertakizunak gertakizun, ikastolaren etorkizuna sortze-printzipioei zein egungo egoerei jarraiki<sup>65</sup> oraindik ere erabakitzeke dago.

Ikastola ez da gaur euskal gizartean agertzen den moduan erabat osatutako hezkuntza aukera bat, baizik eta ezbaia moduan etorkizuneko euskal eskola diseinatzen lagunduko duen egitasmo bat. Ikastolak kontutan hartu gabe, ezingo da gure gizartearen hezkuntza bideratu. Beraz, egun, arestian genion bezala, kinka larrian dagoena ez da horrenbeste eskola pribatu/eskola publikoaren auzia, baizik eta gizarte honen burujabetasunaren erronka eta hemendik bermatuko den euskal hezkuntza eta eskola-ereduaren auzia.

Bestalde, ezin dugu ahaztu ikastolek lortu duten hedapena eta hezkuntzarekiko garrantzia mantentzea eta sostengatzea ez dela gauza erraza giza-hezkuntza-egitura nagusien esku hartze gabe; baina egungo hezkuntza-botereak ez ditu bermatzen

1. ikastolen nortasun-ezaugarriak

2. ikastolak euskal hezkuntzaren emasabela direla eta ez eurengan bukatzen den egitasmoa.

Nola edo hala, "euskal hezkuntza-asmoak" irauteko, ez desagertzeko dugun, "ikastolak" ikastetxe-eredu nagusia jarraitzen du izaten eta diharduen "jabego" administratiboen eskuetatik kanpo ez egon arte, ikastola gaur ezagutzen den bezala ezin daiteke desagertu, nahi ez bada deuseztatu egin. Horretarako, gure ikastolek euren kudeaketa, zuzendaritza eta irakasleria sakona, trinkoa eta eguneratuak jorratzen jarraitu beharko dute, beti ere euskal izatetik abiaturiko aniztasuna eskola-ereduetan berma daitekeela ikusi arte.

---

<sup>65</sup> IBAN, A. (1993). "Ikastolak iparraren bila". *ARGIA* aldizkaria. 93/6/13, 1439 zk., 22-26 orr.; IDIAZABAL, I. (1993). "Las ikastolas". *EL MUNDO* egunkaria. 93/7/28, 4 or.; EHIE (1994). "Educación chantaje a las ikastolas". *EGIN* egunkaria. 94/5/24, 13 or.; (1994) "Arduza no hace nada por las ikastolas" *EGIN* egunkaria. 94/6/29, 14 or.; (1994). "Buesak akordioa onartu badu ere legea betearaziko duela esan du" *EGUNKARIA*, egunkaria. 94/7/21, 6 or.

Horrenbestez, atal honetan oro har, argi gelditu behar zaiguna da “hezkuntza-asmoak” ez direla bakarrik eskola pribatuaren esklusiboan den *zerbait*, baizik eta, edozein eskola-eredutan daudela, – “eskola publiko / école publique” bezala ezagutzen ditugunetan baita ere– hauei hezkuntza-asmoak nonbaitetik emanak etortzen zaiela, Estatutuen eta euren elkarte autonomoetako hezkuntza-administraritzetatik hain zuzen ere. Zer esanik ez, gaur diharduten hezkuntza-sistemen barnean, (EEHS-FEHS)k hain zuzen ere, Ikastolek ezinbesteko dute “hezkuntza-asmoen” izate, ardua eta iparra ez galtzea, “formalki” derrigorrez bete behar dituzten hezkuntza-helburuak eta curriculumak bete beharrean badaude ere, “hezkuntza-egitasmo” egokitu baten bidez gure hezkuntza-asmo nagusiek lortu ahal izateko.

Hezkuntza-asmoak zentzu honetan aurrera eramán ahal izateko eta nahi diren edo gure gizarteko hezkuntza-elkarteak onar ditzakeen hainbat modutakoak izateko, eskola-eredu ezberdinen aldeko apustua egin behar da, beti ere Тхепетхек<sup>66</sup> dioen bezala, euskararen aldeko lurraldetasuna bitarteko delarik... “euskara hutsez jardungo duen lurralde baten aldekoa naiz (...) baino nire aldekotasunak alde asko ditu. (...):

1. Lurraldea, territoria, hizkuntzari dagokionez, ez da inoiz inongo zio edo kausa izaten hizkuntza galtzeko edo berreskuratzeko, efektua baizik.

2. Hizkuntza batek bete behar dituen funtzioak ematearen ala ez ematearen efektua. Herri batean edo herri-multzo batean funtsezko funtzio horiek hizkuntzari ematen bazaizkio, herri hori/horiek gure hizkuntza honen lurralde efektibo bihurtzen da/dira.

3. Lurralde efektiboa bi egoera desberdinen isla. Bi egoera horiek sozioterritorialki desberdinak badira ere, biak dira prozesu bertsu eta koherente baten urratsak. Egoera bati deitzen diogu “elebakartasun territoriala”, besteari “elealbotasuna”.

4. Elebakartasun territoriala sortzen da, administratiboki, unitate bat den udalerri batean funtzio nuklear horiek betetzen dituen hizkuntza bakarra bertako ondare-hizkuntza denean. Elealbotasuna sortzen da, administratiboki, bakarra zen udalerri batean funtzio nuklear

---

<sup>66</sup> (1992d). Op.cit., “Euskararen aldeko lurraldetasunaz”, *UEMA-Udalerri Euskaldunen Mankomunitatearen Aldizkaria*, 12-13 orr.

horiek bikoiztu egiten direnean, udalerrri horretan dauden bi hizkuntza komunitateei aukera erreala ematen zaienean eguneroko zereginetan bakoitzak beretzat hartzen duen hizkuntzan bizi ahal izateko.”

Beraz, bukatzeko esan, hezkuntza-asmoen gaiak gizartearen egituraren arabera garapena eraman ahal duela eta bere barne izatea eskolamotaren arabera dela. Guk uste dugu benetako gizarte aniztetasunaren eskola-eredu guztiek –herrikoiak deitu, pribatuak izan– argi eta garbi eduki beharreko arazoa helburu eta helmugan izate berezien nahia eta asmoa dela: gizarteak onar edo gaitzets ditzakeen hezkuntza-asmoak. Horrela, ikastetxeak ez dira gizarteak uste edo nahi dituen egitarauak betetzeko egitura batzuk, edo euren arabera bizi edo hil daitezkeenak, neurri batean hala gertatzen bada ere. Ikastetxe bakoitzaren eta gizartearen arteko beharra eta lotura ukatu ezina bada ere, etorkizuneko hezkuntzak ahalik eta jakitunen parte hartze gero eta handiagoa eskatzen du, bere izatea lege naturaletik urrunegi egon ez dadin. Horretarako oso garrantzitsua da “hezkuntzalarien” prestaketaren arazoak eta etorkizunaz arduratzea.<sup>67</sup> Baina, lehenik eta behin, jakin behar dugu zer ulertu behar den gaur gizartearen eta eskolaren arteko loturaz? Hau da, zeintzuk diren gizarte-funtzioak eskolan eta eskolaren funtzioa gizartearen<sup>68</sup>.

Gure aldetik, gai hau, hemen, bukatutzat eman aurretik hezkuntza-asmoen agiri horrek erantzun beharreko eskakizunak zein diren azpimarratzeari garrantzitsua deritzogu:

1. Hezkuntza-elkarteen jabetza
2. Ikastetxeak izan nahi duena, nortasun-agiriak zehaztea: ideologia, hizkuntza, ikasbidetza, heziketa-mota, hezkidetzak, kudeaketa-eredua, kontrol-bidea...
3. Makroegoera gizapolitikoak zein hezkuntzarekikoak zehaztu legeri begira, kultura eta giza-ekonomia, eskola-mota, ikastetxearen egitura eta eginahalen ildoak...
4. Ikastetxeko lerro nagusiak azaldu: egitasmoa, hezkuntza elkarrekin zereginak eta bizikidetasunak...

---

<sup>67</sup> VILLA, A. (1988). *Perspectivas y problemáticas de la función docente*. Madrid: Narcea, II EUSKAL MUNDU BILTZARRA. II CONGRESO MUNDIAL VASCO; OTEIZA, J. (1972). Op.cit.

<sup>68</sup> “Txepetx” (1991b). Op.cit., “Gizarte funtzioak eskolan eta eskolaren funtzioa gizartearen”, Gasteiz, 1-10 orr.

5. Laburra, argia eta xumea izan...

6. Gizarteari orokorrean eta ikastetxe batera hezkuntza-kide bezala hurbiltzen den guztiari bertako hezkuntza-asmoen berri eman, eza-gutaraztera gonbidatuz.

Bestalde, hezkuntza-egitasmoa eta ikastetxeko barne-araudia bideratu eta eraikitzeko, diseinatu eta onartzeko ezinbesteko eginbe-harra da hau

### *3.2. Hezkuntza-egitasmoa*

#### **3.2.1. Gizartearen egitasmotik hezkuntza-egitasmora: burutzapena**

Inongo gizarteak ezin du bere hezkuntza-sistema eratu, hobetu edo berritu, baldin eta hezkuntza-egitasmoa zehazturik ez badu. Ezin daiteke irakaskuntzaren berrikuntza luzakor edo iraunkor bat egin, gizarteak aurretik onartu ez badu hezkuntza-egitasmo bat.

Gizarte-ikuspegitik azterturik, honen guztiaren ardura "politika" deituriko atalak dauka. Gizarteek, oro har, hezkuntzari zor dioten tokia eta pisua bermatzeko, zein irakaskuntzaren garrantziaz jabetzeko, "hezkuntza-politika" deituriko bidea eraten dute.<sup>69</sup> Gehienetan, hezkuntza-politika irizpide xumeegietara hurbiltzen da, esanez bere eginahala gizarte baten ondasun-iturriak ugaltzeko eta bertako kultura, hizkuntza eta teknikak atzerrian ezagutaraztean datzala. Baina, hezkuntza-politika baten funtsa herri baten politika, kultura eta etika hezkuntzaren bidez ezagutaraztean datza, honela banakoari edozein zapalkuntza-motatatik eta ziztrinkeriatatik at egoteko bideak edo aukerak eskaini ahal zaizkiolarik.

Hezkuntza-egitasmo bat eraikitzeko, ezinbestekoa da giza-egitasmo baten beharra, bere jomuga eta betebeharrak ezagutuz.

Ondorioz, ikastetxeak hezkuntza-egitasmo sendo bat eskaintzeko, bere gizartearen hezkuntza-egitasmoa ezagutu beharko du.

Bistan da hezkuntzaren inguruan egiten diren burutapen gehienak argizaria suaren ondoan bezalakoak direla, eta hau guztia hezkuntzaren beraren oinarritzko printzipioak ezagutzen ez direlako: elkarharremana-batasuna-ezberdintasuna-eta-jomuga.<sup>70</sup>

---

<sup>69</sup> TENZER, N. (direc.) - CERAP (1989) Op.cit., 11-27 orr.

<sup>70</sup> Ibid., 6-8 orr.

Bestalde, hezkuntza-egitasmoak ez du bere egitekoa lortuko, baldin eta ez baditu ezagutzen eta bereak egiten hezkuntzaren hiru oinarrizko eginbeharrak:

1. Banakoaren garapena bere ahalmenean, gaitasunean eta askatasunean hezi.
2. Gizarteratzea irakatsi, ekinez.
3. Xedean, gizarte bateko partaide eta arduradun sentitzeko lanak duen garrantzia eta tokia ezagutu eta ongi prestatu.

Gizarteratze prozesuaz, Luckman eta Schutzek diotena ulertzen dugu: "(...) hizkuntza da ezer baino lehen barneratu behar dena. Eta hizkuntzarekin eta hizkuntzaren bidez motibazio eta ulerkuntzazko zenbait eskema instituzionalki definiturik barneratzen dira.<sup>71</sup>

Orain arte aipatu ditugun printzipio eta eginbehar horiek ekintzara pasarazteko, hezkuntzak gogoratzen digu edozein motatako hezkuntza-ekintza aurrera eramateko hiru mailako antolamendua eratu beharko dela:

1. Aurre ezagutza prestatu.
2. Ezagutza menperatzeko behar diren tresnak ezagutu eta erabiltzeko gaitasuna garatu.
3. Zehatz mehatzeko ezagutza lortu eta erabili:

Hiru urrats horiek Txepetxek<sup>72</sup> dioen motibapena, ezagutza eta erabilera-mailekin bat datoz.


Esandako horrek guztiak hezkuntza-egitasmoarekin dituen zeri-kusiak azaltzeko, grafiko bat erabiliko dugu:

---

<sup>71</sup> (1977). *Las estructuras del mundo de la vida*. Buenos Aires: Amorrortu, 188 or.; MELOTTI, J. (1981). Op.cit., "Los orígenes del comportamiento social humano", 138-141 orr.; Txepetx (1987a). Op.cit.

<sup>72</sup> Ibid., (1987a). I. atala, 31-39 orr.

8. IRUDIA: *Hezkuntza-ekintzaren biru mailak*



M. Jaione Apalategi (1994)

Ezin da bultzatu gizartetik, ezta ikastetxetik ere, berrikuntza bat hezkuntzaz mintzo gabe eta egitasmo baten aurrean zerikusia duten guztiak gutxiengo jabekuntza-maila lortu gabe. Hezkuntza ez da, bakarrik, irakaskuntzari lotu beharreko zerbait, gizarte osoari dago-kiona baizik.

Gizartea eta ikastetxea zentzu honen barnean ulertzen saiatzen diren gizarteek hezkuntza-sistema baikorrak lortzen dituzte. Ondorioz, ikastetxeko hezkuntza-egitasmoaren beharraz eta garrantziaz jabetuz errealitate bihurtzen saiatzen dira.

### 3.2.2. Gizartearen hezkuntza-egitasmoa: aurreusteen beharra

Hezkuntza-egitasmoa, gizarte-mailan hezkuntzaren beharra onartuz gero, partaide guztien abiapuntu komunaren beharra garatzeko asmoz, hezkuntza-politikaren bidez bultzatzen den egitasmoa da.



Zer esan nahi du hemen politika hitzak? Gizarte baten kontzientzia politikoa ez dela inoiz neutroa izaten, gizatasun-zentzuan alegia; aldiz, "aunitz dira gaur egun arazo berriak dituzten gizarteak eta politika-eremua ahaztu dutelako konpondu ezinik dabilzanak"<sup>73</sup>

Zergatik politikaren beharra eta garrantzia gizartean? Politika izatearen bi printzipioak mundu zabaleko gizarte orori dagozkie: bana-koaren osotasunean eta gure aurretik datorkigun giza-antolaketa edo talde "a priori" batean sinistea. Ez dago elkarrekiko lotura adierazten duten bi printzipio axiomatiko horiek gabe aurrera egin dezakeen gizarterik.

Orokorrean, esaten da mendebaldeko gizarteek zorabio, nahaske-ria eta antzeko arazoak dituztela kultura, araubide eta politika-mailan. Krisi-mota horien abiapuntua balio berriek sortu dutena bide da... Baina sortu ahal dira, benetan? Nola sortzen ditu bada gizarteak balio berriak? Argitzen saiatuko gara.

Egia da gaur nabari den krisia edo haustura dela gizarte mailan "denak balio" duenaren baloreak dakartzan ondorioetatik isurtzen dena. Horrek ez du sorrarazten inongo kualifikaziorik; kulturak nahaspil-duk, inork antzik emateko ez direla, inongo izate sakon, aurreurrats, iragan eta etorkizun gabe dirudi dabiltzala. Badirudi gure gaurko gizarte honetan gertakizun orok pisu berdina dutela: inflazioa zein energia nuklearrak ugaltzea, langabezia eta kontsumokeria gehitzea, lurralde-babesak desagertzea eta basamortu bihurtzeak dakartzan ondorioak... Horiek bezalako arazo handien aurrean, "berdin du" eta "zer egin ba-da" bezalako esakerak entzuten dira eta, gainera, sarri askotan jarrera ere bihurtzen dira!

Gaurko gizartean albistea dugu nagusi; munduan zeharreko berriak segidan iristen zaizkigu. Gertakizun askok ez daukate hasiera-rik, bakarrik, albistea dira...; norabiderik ez dakigu, norbaitek jakin-go du edota horrela da eta kito; nola izango dute bada helbururik?, zergatik? (...).

Baina horren guztiaren okerra ez da albistea bera, baizik eta sor-tzen den nahasketa; baina zergatik nahaste-borraste hau? Gaurko giza-kioi aurretik fabrikatuta dagoen pentsamoldea eskaintzen zaigu, (...) baina gertakizun orok hasiera, helburua eta norabidea dute, noski

---

<sup>73</sup> TENZER, N. - CERAP (1989), Op.cit., 15 orr.

baietz!. Ezbaia eta iritzi propioa edukitzeak pentsaezina dela dirudi eta gaizki ikusia eta guzti dago. Hau da, kritika arazo moduan hartzen da, norberaren burutapen eta pentsaerari tokirik utzi gabe. Eta pentsaera irizpidetsua, ordea, ez da bere kaxa edo hortxe dagoen zerbait, ikasi egin behar da, egokiak diren ikasbide, kondaira eta giza-ezagupenen bidez.

Pentsaera, kondaira eta ohitura batzutan oinarritu beharrean daude, bakoitza bere taldekoa, bere gizartekoa sentitu behar da; horrelako norabiderik gabe etorkizuna ez da aise ikusten. Eta gizarte-egoerak aurkakoak eta iraunkorregiak izaten badira, oso zaila da pentsamendu irizpidetsua eraikitzea, pixkanaka, urratsak ezabatzen joaten zaizkigulako.

Politikarik gabeko gizarteetan bakoitzaren "herri-egoera" ezberdinei aurre egiteko irizpidearen eta ezagupenaren hutsunea nabari da, itxurazko gizarte demokratikoa besterik ez dute lortzen, benetako diktadurak aingintean diharduen bitartean.

Politika ezinbesteko tresna dugu gizon/emakume-taldeen arazoak eratzeko eta osotasunean konpondu ahal izateko. Herri-mailan, zenbat eta gehiago urrundu politikaren izaeratik, orduan eta arazo larriago eta itsuagoak sortzen dira.

Gaur egun, gure gizarte-eredu bati baino gehiagori begiratuz gero, badirudi arazoak dakartzan zailtasunei aurre egin gabe ere konponduko direla uste dela; hau da, beste batzuek esango digute zer egin, edo ezer gertatu ez denarena egingo dugu eta kito... Hau bezalako burutazioa da gaur nagusi eta hori da, hain zuzen ere, hezi eta hazi gabeko demokraziak duen benetako arriskua.

Gizabanakoa bere gizarte-talde izatearen zinua galtzear dabil, betidanik jakin izan ohi denaren aurrezle edo "a priori" kolektibo honen hutsunea nabari da. Ezin da ezer sortu, berritu edo hobetu ezeren gainean, ez baitu zentzurik eta, areago, ez baita sortzen asmo eta gogorik ere. Banakoari ukatzen bazaio bere buruari buruzko informazioa, bere pentsamendua eraikitzeke ahalmena, bere iritzi propioa burutzeko gaitasuna, ezagupena erabiltzeko eskubidea... bereak egin du. Eta, zer izango dira bere ondorengoak? Izan ere, azterketa honen zutabea ez da banako bati edo batzuei gerta dakiekeenaren beldurra, baizik eta aspalditxo, gizarte oroharretan berritu beharrean itxuraz dabilen "mamua". Euskaldunok bizi dugun egoera aztergaitzat harturik, bistan da "mamu-arazo" sakon hau bikoiztu egiten dela. Ohiko zentzuan, gizarte erabakizale eta atlasetan egoteko baimena dutenetan ere aski arduratuta badabiltza desnorabide hori konpondu nahian,

pentza dezakegu hortik “kanpo” gauden beste giza-errealitate askok gairiditu beharko ditugun oztupoak ez direla izango txantxetakoak.

Natura-izaera ezberdineko gizataldeek osatzen dute mundua; baina, gizatalde horien elkarren arteko harremanak batasuna, berezko-tasuna eta jomugarik gabe..., hala nolakoa bihurtzen zaigunean, –uler-tezina, kondairarik gabekoa, urrats gabeko gaurkotasan-hotsaren aldekoa, burutapenik gabekoa, pentsaera eraikigarriaren aurkakoa, isiltasunik gabekoa, zaratatsua, zentzumenaren bahitzailea, partaidetzarik gabeko erabakizalea...– esan beharko dugu gure izatearen eta izan-nahiaren heriotzan parte hartu dugula. Bistan da, beraz, ingurugiro honetan familia eta ikastetxea bezalako erakundeak krisian daudela, euren ohiko funtzioak –jakineko baloreak eta arauak– igortzeari utzi egin diolako eta, aldiz, ez dago garbi eta argi zeintzuk diren hezi beharreko baloreak eta zein irakatsi beharreko arauak. Badirudi “ezerk ez duela garrantzi berezirik” edo “denak balio duela”...; hauxe, beraz, benetako arazoa! Estatuaren eskupean sortu eta iraun duten ikastetxeetan, berriz, krisi hau askoz gehiago nabarmendu da. Eskolak berak xede, printzipio, eduki, antolamendu eta abar guztiak estatuak ezarritakoak izan dituelako, beraz eskola egitura-mota honetan gizarte-krisia askoz zuzenago bilakatzen da.<sup>74</sup>

Eskolek (publikoak zein pribatuak) propioki funtzio berezi batzuk izan behar dituzte, eta ez dira konformatu behar gizarteak edo jabetza-jartzen dizkionak itsu-itsuan betetzearekin, baizik eta bere izatearen ingurua bien arteko “sokatira” orekatsu bat eskaintzera iritsi.

### 3.2.3. Ikastetxearen tokia gizartean: eginkizun-mota eta ikastetxe-egitasmoa

Urrats honetaz jabetzeko, Txepetxek<sup>75</sup> “gizarte-funtzioak eskolan eta eskolaren funtzioa gizartean” idazten duenean, eskolako hizkuntza-erabilera neurtzeko eta horretarako ikastetxeak hizkuntza-normalizazioa lortzeko bete beharko lituzkeen funtzioak aztertzeko eskaintzen dizkigun zenbait argudiori ezin egokiago deritzegu.

---

<sup>74</sup> PEDRO, Fr. (1992). “Tendencias de la educación europea: Tradición e innovación”, *Investigación y ciencia* aldizkaria, 79-80 orr.

<sup>75</sup> (1991b). Op.cit.


Estrapolazio bat eginez, berak dioen “eskola-hezkuntza-gizartea” ikuspegitik aztertuko dugu guk. Lehenik eta behin, jakin beharko dugu zeintzuk diren eskolaren funtzioak gizartean eta zein faktoreen eraginpean dagoen, gero horien arteko hartu-emanen arabera halako edo honelako eskola-eredua sortuko baita. Jarraian, bere idazkiari jarraituz, hiztegi bihurtuko dugu, eta ondoren funtzioaz hitz egingo dugu.

Beraz, ikastetxeak gizartearekin izan behar duen hartu-emanak eta bertatik jaso behar duen informazioa ondorengo hitzen azterketa egitearen ingurutik eraiki lezakeela diogu:

- . EGITURA: hezkuntza-ereduak
- . ALDAKETA: norbere ugalgarri
- . KOIUNTURA: ikastetxea
- . AZTERKETA eta IKERKETA: Euskal hezkuntza-hezkuntzaren ezbaia; Eskola-eredua – Irakaskuntza /ikaskuntza jarduera
- . HEZKUNTZA-EGOERA – ESKOLA-EGOERA: kondairarekiko aldaketen legea.
- . ESKOLAREN BALIAGARRITASUNA
- . ESKOLAREN INTERESGARRITASUNA
- . BAIEZTATU, BIDEZTATU, AZALPENA, ONDORIOAK
- . GIZARTEA – ESKOLA – HEZKUNTZA: Norabide bikoitza
- . ZEHAZGARRIAK: Zentrokide; Osagarri
- . HEZKUNTZA – BANAKOA – GIZARTEA – IKASKETA: hartu-emanak eta elkarrekintza
- . IKASTETXEaren funtzioak

Ondoren, grafiko batean ikusiko dugu esaten ari garen guztia:

9. IRUDIA: Ikastetxea eta gizartearen arteko hartu-emanak



M. Jaione Apalategi (1994)

“Hezkuntza-eskola-gizartearen” adierazpena azaltzeko erabili dugun grafikoa irakurtzeak ondorio gisa zenbait argudio kontutan izatera eramango gaitu:

1. Eskola lot daitekeela hezkuntza-fenomenoaren errealitate osoarekin eta bere oinarrizko funtzio guztiak bete hots:<sup>76</sup>

a) Funtzio eraginkorrak

1. Eskola-egitura bitarteko berezia eta hobezina da hezkuntza jasotzeko.
2. Eskola gai da hasieratik beretik errealitatearen ulermena, borobilketa, kontzientzia eta partaidetasuna bideratzeko, umeengan jakintzaren kosmoikuspegi bat eratuz.

<sup>76</sup> Ibid., 6-7 orr.

3. Eskola (herri sorterra) egitasmo baten kide bizia bezala ager daiteke, bultzatzaile, esperimentatzaile eta motor gisa ez eta berarekin kontatu gabe ezartzen duten curriculum edo beste edozein edukipean bezala.
4. Herri-mailan, eskola giza-elkartean saihesturik egon behar litzateke, gizarterantz ibiliz eta, bertatik, hezkuntza-ahalmen guztiak jasoz bere ikas-prozesuarekin bat egiteko asmoz. Honela, eskolak paper hezitzailea eta eraikitzailea hartuko du eta ikastetxe-inguru erreal guztiaren hartu-eman eta bizikidetasuna bultzatuko.
5. Eskolak benetako lanbide-gaitasunean hezteko eta banakoaren norabidean tresna egokia izan behar du.

b) Funtzio hunkikorrak

6. Eskolak "haurraren lasaitasuna (konfiantza) irabazi behar du", bere intimitate-unean jarrarazi, bere lehen inguruarekin etengabeko lotura naturala eskainiz eta bere laguntza afektibo eta komunikatzeko beharrak eten ez daitezten.
7. Eskola kapaza izan behar da giza-nortasunaren garapen orekatsua eskaintzeko, sormenaren garapena eta erresponzabilitatea indartuz, beti ere Txepetxek,<sup>77</sup> N.R. KEPPEri jarraituz, dioen bezala guk ere sinesten dugu ikastetxeak "sentikortasunezko egoera bakoitzaren aurrean azterketa ezbaitsua egiteko ahalmena garatu behar duela banakoengan, zalantzan jarri gabe ezer onartuz, ezta ere aurrez lortu den guztia gaitzetsiz."

Haurrek ikastetxeetan hainbeste ordu eta urte sartu behar dutenez gero, benetako eskola batek balio beharko du norberaren oreka emozionala eta gizartearekiko antolaketa-era zehatza lortzen laguntzeko.

Eskola ezin antola daiteke gizarteak "une" batean dituen jokaera, krisia, porrota, prestaketa-eskakizuna, biziera... ugaltzeko, gizartean gertatzen dena eskolan ere biziarazteko alegia, baizik eta giza-etorkizunaren norabide zehatzean gizartea aldatzeko eta bultzatzeko prest egongo diren banakoak gaitu behar ditu, hezkuntza-ekintzaren bidez.

Gizartean ez dira bakarrik hezkuntza eta kultura-fenomeno sakonak ematen, beste kezka eta erabaki-mordoa ere konpondu edo

---

<sup>77</sup> Ibid., 7 or. eta (1990f).

landu behar izaten dira, noski. Horretarako, gizarteak gizon-emakume argi, trebe eta orekatsuen beharra du eta eskola ezinbesteko bitartekoa da hori guztia bideratzeko. Eskola ezin da egon "orain dugun gizarte" baten zerbitzurako, berak eskaini behar du zerbitzua, oraingo larrialdiak konponduko dituztenak eta datozei aurre egiteko erak topatuz. Gizarte-krisiak<sup>78</sup> zuzeneko zerikusia du eskolan, ekonomian eta politikan. Horrexegatik, arlo zabal bakoitzak bere estrategia eraiki behar du guztien lotura eta sistema berdinen parte direnen kontzientziaz lan eginez eta erabakiak hartuz.

Uste dugu, baita sinetsi ere, pertsonaren izate osoa heziko duen hezkuntzak, kulturaren garapena adi jarraituko duela eta hizkuntza-taldearen garapena uztartuko duen giza-egitasmoaren eredu, banakoengan epai-zentzua eta iraupenarena jorratu eta garatu ahalko duen bakarra izango dela.

Eskolak gizarte-krisia areagotu edo argi eta garbi azaltzen digu, baina norabidea bestelakoa izan da gizarte-krisia eskola-krisia bihurtu izan ohi delako.

2. Eskolak bere "egitasmoa" izan behar du eta bera kokatuta da- goen gizarteaz esan dezakeguna, bertan islatu behar da.

Eskola erakunde bezala onartzen den errealitatea dugu. Bere helburua, giza eta teknika-ahalbidea, baita bitartekoek ere erabakitzen dute erakuntza-mota zein joera eta eraginkortasuna. Eta horri guztiari ematen zaion erabilera eta lortzen dituen helmugak izango dira gizarte batek bere buruaz hitz egiteko, onartzeko edo gaitzesteko erabiliko dituen irizpideak.

Hezkuntza-erakunde den eskolak nolabaiteko gizartearen eratzaile-papera betetzen du ontzat ematen edo goraiatzaren diren giza-jarrera, jokabide eta jokaera hezten ahalegintzean.

Egia da gizarteak eskatzen diola eskolari halako edo nolako gizarte ereduak garatzea. Baina erakunde bakoitzak bere ezaugarriak ditu: giza-hedapena, herritarren balioa eta asmoa, banakoaren giza-susper-tzailea, nagusitasun morala, tekniko...

---

<sup>78</sup> GALBRAITH, J.K. (1993). "La construcción europea debió empezar por lo social". *EL MUNDO* egunkaria, 93/2/28, 64 or.

BAKAIKOA, B. (1993). "Burujabetasunarentzat." *EGIN* egunkaria. 93/5/1, 23 or.  
CERAP (1989). Op.cit., 13-20 orr.

Hezkuntza-erakundeak norberaren gizarteko iragana, kondaira, kultura eta izaera irakasteko toki ezinago aproposak bihurtu dira.

Baina uste dugu eskola hezkuntza-erakunde aproposa dela gaur egun gizartean bertan ematen diren aldaketa ugari eta sakonei erantzuna emateko eta ezin egon daiteke gizarteak mugituko duelakoaren esperoan. Eskolak "bere egitasmoa" izan behar du; are gehiago, "eskola-erakunde" baino, "eskola-egitasmoa" izanez ezagutaraziz. Baldin eta uste badugu, gizarte berri baten beharra dugula. Batez beste, hezkuntza-ekintzaren tokia den eskola/ikastetxeari zenbait printzipio eta lorpen bidera ditzan, hots:

– Gizabanako eta giza taldetasunaren garapena.

– Norberaren sentikortasun eta trebetasun ugari baina ezberdinak garatu, adierazpide oro heziz: gorputza, hizkuntza, morala, estetika, adimena...

– Banakoaren giza-kontzientzia, sormena, ezagutzen heziketa eragin, eta, ondorioz, bizi-ekintzarako prestatu ahalik eta askatasun zein laguntza-mota guztiak luzatu beharko zaizkio; gizarteak ezbaikortasun ireki eta eraikigarria, neurri edota berrantolaketarako erabiltzea bultzatu behar duelarik.

Horregatik guztiarengatik, ikastetxe-egitasmoak zenbait eginkizun hartu beharko ditu bere gain, gizartearen isla diren arazoetan hezi eta irtenbide hezigarriak garatzen ahalegindu<sup>79</sup>. Hori horrela izan dadin, zer eragin-mota bideratu beharko ditu gizarteak eta zein ikastetxeak?

---

<sup>79</sup> FERRANDES, E. (1987). *Proyecto Educativo para una sociedad nueva*. Madrid: Narcea, 57-62 orr.



## 10. IRUDIA: *Ikastetxearen eta gizartearen zereginen trukaketa*

GIZARTEA	IKASTETXEA
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Giza mobikortasuna _____</li> <li>• Giza berdintasuna _____</li> <li>• Giza justizia/ zuzentasuna _____</li> <li>• Gizartearekiko norbere _____</li> <li>eritzia bulzatu _____</li> <li>• Ereiketa sena _____</li> <li>• Objektibitatea subjektibitatek _____</li> <li>• Taldearen balioak ezagutu _____</li> <li>gaurko giza aurrerapenarekin bat dalozen edo beharrezkoagoak gara ahal izateko engaiatu.</li> <li>• Aniztasun kulturala ohartu _____</li> <li>ugaritasun edo orokorrean dabiiltzan uste kuantitatiboangandik gubxielxigabe; baizik eta giza izatea zein sormen material ala morala beregoki ahal izateko egitura kualitatiboetan oinarritutako gizartea ereiki.</li> <li>• Langabezia burukatu. _____</li> <li>• Aberri hezkuntz politika: _____</li> <li>- Zabala, ikastetxe eredu ezberdinetara irekia</li> <li>- Funtzionalgolasunari gehiegi lotugabe</li> <li>- Ez da irakaslegoaren babes sindikalarekin parekatu behar.</li> <li>- Lau merkatuaren kudeaketa tresna ez da izan behar</li> <li>- Irakaskuntza ahalbidetu egin du. bere tresna teknologikoa den "hezkuntz sistema" ren bidez hezkuntzaren oinarriak (kultura orokorra, gogoeta aske eta kultura berezia garatu eta bermatuz.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Mobikortasun ahalkera- indarra</li> <li>• Egokitzapen hastapena</li> <li>• Eskaerekinza bizitu</li> <li>• Nork bere azterketa hausnar- ahalbidetu</li> <li>• Hausnarketa sena</li> <li>• Gaiekiko tarte edo urruntasuna hartu</li> <li>• Norberaren gizarteko hezkuntz balioaz jabetu eta garatu, banako eta talde partaide bezala jarrera hartzeko engainatu.</li> <li>• Norberaren kultura ezagutu obetzeko eta ingurune hurbilean zein mundu zabalean ekinarazteko.</li> <li>• Eskola porrota, ezberdintasun naturalean bihurtu</li> <li>• Ikastetxearen hezkuntz politika:</li> <li>- Ez da lan merkatura edo pentzamendu "zehatz" batera norabiltua erreiki behar.</li> <li>- Berak ahalbidetu behar duen hezkuntza giza garapenari norabidetua izango da.</li> <li>- Bere lorpena noiznahi eta nunahi egokitzen edo eta aldaketa bereganatzen zein gizarteratzen jakingo duen ikaslea hezitzea da</li> <li>- Aberriaren hezkuntz politikaz gain, ikastetxean beste giza politika ugari landu behar dira, beti ere ikazunde eta lanbide ezberdinetan bizkorkoheria aldendu nahirik</li> </ul>

M. Jaione Apalategi (1994)

### 3.2.4. Gizarte-egitasmotik ikastetxe-egitasmora

Gizarte aske eta demokratiko baten zeinua ez da bere kulturak eta kondairak "aurremugaturik" dituen ibilbideak urratzea, baizik eta haiek oinarritzat harturik, oraina eta geroa gaurko eta biharko beharretara norabidetuko duten gizabanakoak heztea. Horretarako ezinbestekoa da gizabanakoengan hausnartzeko, aztertzeke eta epaitzeke ahalmena garatzea eta horixe da, hain zuzen ere, hezkuntzaren egitekoa.<sup>80</sup>

Ikaslea ezin da murgilarazi ezagutza itxi eta bukatu batera, zama astun bat bailitzan; horrela ulertzen dute askok kultura eta kondairaren

<sup>80</sup> UZTARO. (1993). Op.cit.

CERAP (1989). Op.cit., 25-27 orr. eta 115-117 orr.

izatea. Hori horrela izanik, dena aldez aurretik mugaturik baldin bada-go, ez luke zentzurik gizarte-egitasmoen beharrez mintzatzeak. Hezkuntzaren izatea, joanean zein ondorio bezala islatu daitekeenez, totalitarismoaren jauntzarkeriaren aurkakoa da, bai bere printzipio eta oinarrietan zein ikasbide eta helburuetan.

### 1. Zer da gizarte egitasmoa?

Esan dezakegu hezkuntzaren ahalegin nagusia pentsatzen irakastea dela. Egun dihardun arrisku latza, ordea, bestelako hau sinistian datza: ikasleari ez zaio ezer irakatsi behar, ez dago jokabide aitzindaririk..., baina horren guztiaren arriskua da gizabanakoa "ondoegon" hutsean edo giza-jauntzarkeriaren mass-media guztiek arcagotuko duten irizpiderik ezean uztea.

Ikastetxea ezin da helburu gabeko erakunde bat izan, gizarteko aurregaiek eta modek eraginarazten dutenaren arabera, gizarteak nor-abidetu dezakeen zerbait. Horrelako ikastetxe batek gizarteak dioena errepikatu besterik ez du egiten, benetako lan intelektuala garatu gabe gelditzen delarik.

Hezkuntzak gizarte-zentzutik bermatu behar duen lehen eginkizuna da askatasuna zer den irakastea eta, horretarako, nazioarteko kulturak<sup>81</sup> dituen printzipioen jabeak ezinbestekoa da. Askatasunaren beharra eta sinismena ez da deusetik eraikitzen, balio batzuetan oinarritzen dira. Hezkuntza-kalitate ezaren arazoak eginbehar hori suntsitu eta alferrikaldu besterik ez du egiten. Kalitatearen<sup>82</sup> helburuak eskatzen du kultura orokorraren berreskuratzea.

Ez dago gizarterik, ez eta kultura elkarterik ere, hizkuntza baten bidez euren pentsamenduak adieraz ez ditzakeenik. Hezkuntzaren pamera, noski, hizkuntzaren sunsiketaren eta txirotzearen aurka borrokatzea da, hizkuntza baita pentsamenduaren ardatza.<sup>83</sup>

Beraz, pentsamenduaren hezkuntza-egitasmoa kultura orokorrean, askatasunean heztean eta hizkuntzaz arduratzean dihardu, hezkuntzaren

---

<sup>81</sup> FERMOSE, P. (1992). *Educación intercultural: La Europa sin fronteras*. Madrid, Narcea.

<sup>82</sup> GARCIA GARRIDO, J.L. (1989). *La educación en Europa. Reformas y perspectivas*. Madrid, Cincel.

<sup>83</sup> SIGUAN, M. (Coord.) (1990). *Las lenguas y la educación para la paz*, Heuri Giordan, "La Unidad de Europa y la diversidad de lenguas", 37-48 orr; Lucien Jacoby "La Comunidad Europea y las lenguas", 65-73 orr.

kalitateaz eta inolaz ere ez kantitateaz –notak, agiriak, igarotze-ara-  
zoak, azalpen-erak, ikasturteen iraupenez...– kezkatu behar delarik.

## 2. Hezkuntza, giza-egitasmoa.

Hezkuntza bera giza-egitasmo bat da; baina, zer da hezkuntza gi-  
zartearentzat?. Hau aztertzeak suposatzen du zenbait atal aintzat  
hartzea:

### 2.1. Administrazioa eta hezkuntza.

Ikastetxea hezkuntza-gune bihurtu da. Hezkuntza giza-egitasmo  
bat denez, zer bermatuko du bere hedapena “administrazio” bezala  
ezagutzen den egituraren eskuetan uzteak? Hau da, garatutzat jotzen  
ditugun gizarte-ereduetan administrazioa izaten da, besteak beste,  
“hezkuntza formal” eta horren bidez banakoen arteko “berdintasuna”  
lortzeko erabiltzen den tresna.

Gizarte-mota hauetan hezkuntza administrazioaren eskuetan  
dagoela esateak suposatzen du administrazioa hezkuntza nazionala  
hedatzeko bitartekari egoki bezala ulertzen dela. Komeni zaigu hemen  
gogoratzea edota jakitea zeintzuk izaten diren hezkuntza nazionala  
eskuratze eta eskaintzeko antolatzen diren administrazio baten egin-  
beharrak. Ikus ditzagun banan-banan:

1. DEMOGRAFIA. Horren arabera, hezkuntza-egiturak aldako-  
rrak dira. Une eta egoera bakoitzean erantzukizun berria, egokitua eta  
gainera beti kontsentsuatu bilatuz, interes zuzena dutenekin kon-  
tatuz, alegia.<sup>84</sup>

2. Hezkuntza-erakunde administratiboetatik hezkuntza eskain-  
tzeak KALITATEAZ arduratzea suposatzen du. Beste guztien gaineratik,  
hezkuntza-politika egitea neurri handi batean giza-politikaz arduratzea  
da. Haren helburua da kultura hoberena gehiengoari eskaintzea, ustez  
bere ondorioz berdintasuna eskuratu daitekeelako.

---

<sup>84</sup> Nafarroako eskola maparen inguruko istiluak sortu dituzten kezkak ikusi besterik  
ez dago:

(1992). “Sortzen dice que el mapa escolar margina la enseñanza en euskera”  
*NAVARRA HOY* egunkaria 92/12/15, 9 or.; (1993). “El mapa escolar”, *DIARIO  
DE NAVARRA* egunkaria. 93/1/14, “Diario escolar” atalean, 1-8 orr.; (1993).  
*NAVARRA HOY* egunkaria 93/2/23. a) SENAIN, C. “Mapafobia”, 24 or.; SAINZ  
DE MURIETA, J. “Reforma y Mapa Escolar”, 25 or.; (1993). “Las ikastolas de  
Navarra solicitan apoyo al Gobierno para aplicar la reforma: Presentaron ayer un  
Mapa Escolar para la enseñanza en euskera en toda Navarra”. *NAVARRA HOY*  
egunkaria 93/3/18, 8 or.

3. Betiere kontuz ibili behar gara BERDINTASUN hitzaren irristagarritasunarekin. Berdintasunak lortu nahi duena da desberdintasuna ez areagotzea, baina, bestalde, berdintasuna ez da baliabideen homogeneizazioa. Berdintasunaz kezkatzeak “aurreizatez” arduratzea suposatzen du, errealitate ezberdinez jabetzea eta, hemendik abiatutik, etenik gabe eskaintza egokiak planifikatzea, benetako garapena eta giza-sarritasun naturala lortzeko ekintzak bideratuz edo ahalbidetuz.

4. GIZA-MUGIKORTASUNA. Berez, hezkuntza-sistemak, eta ondorioz administrazioak, ez dauka “giza mobilitatea” helburutzat hartu beharrik. Jakin beharko duena da goi-mailako hezkuntza gehiago eskuratzen den neurrian, aldioro elite-talde “berriak”<sup>85</sup> sortzen direla edo sortu behar litezkeela gizarte-mailan.

5. LANGABEZIA. Langabezia lanbide-politikarekin estuki loturik agertzen zaigu eta ez da, berez, hezkuntzaren zuzeneko arazo edo helburua izan behar, gaur egun askotan gertatzen edo agertzen den bezala. Langabeziaren arazoa ekonomiaren joan-etorrien inguruan ibiltzen den fenomeno da. Hezkuntzari dagokionez, gizarte-arazo larria, sakona eta bihurria izan daitekeenez, epe luzera begira badu zerikusirik ikasleen heziketarekin, neurri batean horiek etorkizuneko giza-ondasunaren sortzaile izan behar direlako.

6. Bestalde, hezkuntza nazionala hedatzeak IRAKASKUNTZA kudeatzea suposatzen du, ez irakasleriaren “statusa” denen gainetik defenditzea. Administrazioaren kezka nagusia ezin daiteke merkatua, lana eta funtzionaritzaren erregulatzea zein lanbide heziketa izan, bere benetako lana eta ardura irakaskuntza egitea delako. Hezkuntzaren etengabeko egokitzapena bertatik sortzen diren ur emankorreko isuri gardenak gehiengoentzat, ez batzuentzat bakarrik, ase egarria adinako bihurtu behar da.

## 2.2 Ikastetxea eta hezkuntza

Ikastetxea giza-egitasmoaren fenomeno da. Ikastetxeak, egitura bezala sortu zenetik gaur arte, gorabehera aunitz jasan behar izan ditu. Guk uste dugu gaurko gizarteak behar beharrezko plataforma duela ikastetxea etorkizunaz hitz egiteko, baina horretarako uste dugu edozein erakuntza-multzo bezala ezbaia bizi eta sakon batean bere erantzukizuna berreraikitzen ari dela.

---

<sup>85</sup> Ez egonkortasun edo aurrekoen antzeko zentzuan, baizik eta dinamikotasun eta aldekortasunarenean.

Ikastetxeak ezin du eskaini betiko balio duen jakintza; aldiz, bere ahaleginak ikasle bakoitzari egokitzeko gaitasuna garatzen eta bere erara erabiltzen irakatsi beharko dio. Egun ezinbesteko egokitze horrek ikasketa tekniko eta zatikatu askoren azkena dakar, baino arazo honen alderik okerreza ez da ahoz aho, begi-bistan dagoen gizarte aldakor batean gaudela, ez eta teknika zein lanbide-joerak daramaten bizkortasuna eta norabidearen kezka. Arazoa da hori guztia hezkuntzaz ulertzen den eremutik kanpo bilatu behar dela. Hezkuntza-sistemak bere osotasunean eta zabaltasun guztian harturik, –hautzarotik uni-bertsitatetaino– banakoari heziketa egokiturik eskaintzen ez badio, zertarako balio dezake hezkuntzaz hitz egiteak, giza egitasmoaren suspertzaile diren pertsonak prestatzeko balio ez badu?<sup>86</sup>

Gaur ez luke teknikaren tokia inork zalantzan jarriko eta giza osasuntsu baterako dituen abantailak ezingo dira egia arrunta eta gehien-goentzako baliagarriak izan, aipatzen genuen berdintasun zentzuan, lehenik eta behin, teknika hori erabili eta teknika hortaz baliatu behar diren gizabanakoak zein gizarteak gizatasun-zentzuan norabidetzen ez badira. Hezkuntzaren bidez banakoa bere jatorriaz, izateaz eta izan nahiaz jabearazi behar da, gero gizabanako horiez osaturik dagoen gizarteak jakingo baitu zer eta zertarako balio eta erabil daitekeen teknika, informatika eta abar<sup>87</sup>.

Hezkuntza-erakunde guztiak hezkuntza-eremu berezi bezala onartzen direnez, orokorrean edozein giza-talderi dagozkion hiru eginkizun nagusiak, hezkuntza-ekintza, eduki eta bideragarri bihurtzen saiatu behar dira, hots:

1. Loturadun pentsamendua eraiki. Ez dugu ezer gehituko esatean gizatalde bakoitzaren hizkuntza tresnarik baliagarriena dugula hezkuntzaren lehen urratsak eraikitzeko zein benetako giza etorkizunaren kezka bereganatzeko. Horixe da hain zuzen ere euskarak, beste hizkuntzekin batera euskal gizarte zein inguru hurbil eta urrunekoentzat, osagarritasun-zentzuan, eskaintzeko duen altxor nagusia.

2. Kultura orokorra hedatu.

3. Kultura espezializatua eskaini.

---

<sup>86</sup> Oso interesgarria da ikustea OTEIZA, J. (1972). Op.cit.

<sup>87</sup> CERAP. (1989). Op.cit., 107-108 orr.

### 3.2.5. Ikastetxearen hezkuntza-egitasmoa: azalpena, kondaira eta irtenbideak

#### a) *Hezkuntza-egitasmoa ikastetxearen ikuspegitik: azalpena*

Gure 1. irudiaren eskemari jarraituz, ikastetxea Eskola-erakuntza denez eta bere barne-eraketaren berri ematen ari garenez, esan “hezkuntza-asmoa” izeneko agirian jaso behar diren “printzipioak” eta “ezaugarriak”: hezkuntza-ingurua, ikastetxearen nortasuna, hezkuntza helburuak eta ikasle-mota etabar arloak osatzen dutela bagenion, orain horiek guztiek “helburu” bihurtuko dituen agiria “hezkuntza-egitasmoa” deitzen zaio.

Helburu horien finkapena hezkuntzaren zenbait eremutara egokitzean datza:

1. Pedagogiarena.
2. Administrazioarena.
3. Erakunde berarena.
4. Gizapartaidetza eta zerbitzuetara,  
hain zuzen ere.

Beraz, hezkuntza-egitasmo baten burutzapena ikastetxea osatzen duten hezkuntza-elkarte osoaren artean egin beharko da, baina eragin-kortasuna lortzearen, egokiena jotzen den talde ordezkaritza bat hautatuko da.

Ikastetxeko Hezkuntza-egitasmoa IHE, ikastetxe bateko lanaren abiapuntua da. Bertako hezkuntza-elkartea ordezkatzeko dutenek, IHE idazterakoan egin behar diren lehen galderak hauek lirarteke:

- gure ikastetxeko “hezkuntza-asmo nagusiek” IHA zer diote?
- Dugun eskola-mota izanda, nola eratuko dugu hezkuntza-ekintza oro har, eta irakaskuntza/ikaskuntza-lana, zehazkiago?
- Zeintzuk dira lortu nahi ditugun xede eta helmugak?
- Zer motatako ikaslea hezi behar dugu?
- Nolako gizon/emakume-eredua nahi dugu garatu?
- Zertan bereizten gara beste ikastetxe ereduetatik?


Hemen esan nahi dugu, beste arlo edo hezkuntza-erakuntza bati dagokion beste gai ugarietan bezalaxe, ikastola izenez ezagutzen dugun ikastetxe-errealitateak aurreko galdera horien guztien ingurutik kezkatu-rik jardun duela hasiera hasieratik euskal izate eta gizartearen ikuspegi-eta beti islatu nahirik. Besteak beste, Euskal Herrian diharduten beste ikastetxe-ereduetatik bereizgarri nagusia den euskalduntasuna, bertakotasuna nabarmenduz.

IHE-k biltzen dituen agiriak hezkuntza-asmoen edo IHE-n laburpen bat suposatzen du eta hau gauzatzeko hezkuntza-elkarte osoak –guraso-ikasle-irakasle-zuzendaritza-teknikari-ez doze-ntez, ulertu eta talde bakoitzak bere ekintza-bideak argi eduki ditzaten gutxiengo egi-tura baten beharra dute.

Hezkuntza-egitasmoa alde batetik, urrun eta hurbileko lana aurre-  
ratzean aukeratu dituen norabide-urrats garrantzitsuenak azaltzean  
datza; bestetik, ikastetxearen hezkuntza-etorkizuna hobea, egokiagoa,  
egoera aldakorretara moldatua... sortzean datza. Hau guztia burutu  
ahal izateko, hezkuntza-elkarte osoa kontutan hartuko duen ordezkari  
edo lan-taldea antolatzea ezinbestekoa da.

IHE-ren bidez, sinesten, uste eta nahi dugun ikastetxea martxan  
jartzeko, ekintza-bide trinkoak eskaini behar ditugu, ikastetxearekin  
zerikusia duten guztiek bere betebeharra eta tokia izango dutelarik.  
Grafiko baten bidez azalduko dugu:


11. IRUDIA: *Ikastetxeko hezkuntza-egitasmoaren ekintza-bidea*



M. Jaione Apalategi (1994)

Hezkuntza-egitasmoa urrun hurbileko lana aurreratzean datza, zein norabide eta zeintzuk izango diren aukeratutako bide garrantzitsuenak azalduz. Etorkizuna, –hobea egokiagoa dagokiona...– sortzean edo asmatzean dago eta honegatik da oso bidezkoa hezkuntza-elkartea osoa bertan ordezkaturik egotea. IHE-ren bidez, sinesten dugun, uste eta nahi dugun ikastetxea martxan jartzeko ekintza-bideak eskaini behar ditugu, honela ikastetxearekin zerikusia duen guztiak bere bete-beharra izango baitu. Grafiko baten bidez azalduko dugu IHE-ren ibilbidea:

12. IRUDIA: *Ikastetxearen hezkuntza-egitasmoaren ibilbidea*



M. Jaione Apalategi (1994)



Hezkuntza-egitasmoa hezkuntza-asmoetatik isurtzen den filosofia ekinarazteko eskaintzen den agiri pedagogikoa dugu. Hezkuntza-asmoen ardura ikastetxeko jabegoaren eskuetan izan ohi den bezala, hezkuntza-egitasmoa ikastetxeko partaide ororen eginbeharra da; bertan, beraz ikastetxeko atal guztiak ordezkaturik egon beharko dira: gurasoak, irakasleak, ikasleak... Honela hezkuntza-egitasmoa pertsona ororen iritzia, kezka eta ardura jasoko duen agiria izango da.

Bestaldetik, hezkuntza-asmoak iraunkortasunaren zeinua dauka, hezkuntza-egitasmoa berriz, urtero berregin behar den agiria dugu, horretarako aurreko guztiak erabilitako abiapuntu eta ondorioen azterketak balio handia dutelarik.

Ikastetxe batek hezkuntza-egitasmo berri baten aurrean topatzen denean eta horretarako antolaturiko taldeak eratzen direnean, bi motako hausnarketak kontutan izan behar ditu.

#### 1. Aurrebaldintzak:

1.1. Hezkuntza-egitasmoa ez da ez teoriko ez praktikotzat jo behar den agiria, errealitate zehatz bat adierazi nahi duen tresna baizik.

1.2. Ikastetxe baten izatea eta inguruarekin izan behar dituen loturak ongi mugatuak egon behar dira IHEn.

1.3. Hezkuntza-egitasmoa idatzi eta irakurtzeak hainbat galderari erantzuna ematea suposatzen du: nola, nolatan, zeren bidez (...). Agiri-mota honek ez du ikastetxeak izan nahi duenari (hezkuntza-asmoen ardura, bestalde) erantzungo, ikastetxe batek ikasturte baten zehar lortu nahi duena azaltzen saiatuko da, ikastetxearen curriculum diseinatuz eta egiten diren eskaintzen arteko lotura eta arrazoiak argudiatuko ditu.

#### 2. Burutzapenak edo baldintzak propioki:

Hezkuntza-egitasmo bat aurrera atera behar duten ordezkariak ezinbestekoak diren baldintzen berri izan beharko dute abiapuntutzat, nahi den bezalako agiria sortzekotan:

2.1. Ikastetxe baten barne-izatearen errealitatea menperatu, horretarako arduradunek hezkuntza-egitasmoaren gaineko informazio osoa izan beharko dute, hots:

- eskola-egituraren aukera;
- ikastetxeek hezkuntza-elkartearen nortasuna, ezaugarriak, gatazka-uneak, hezkidetzarako bideak, pizgarritasuna; balioak, uste eta erabilerak, askatasunaren irudi eta adibide zehatzak, barne-araudia (...);
- irakaskuntza-ikaskuntzaren ardura dutenen kezka, beharrak, asmoak, nahiak, (...);

–teknologia-ingurua eta ikastetxearen etengabeko egokitzapenaren beharra, ikastaroak, berrikuntzak, (...); eta azkenik

–ikastetxe batean ibiltzen diren paper-agiri guztien balioa, garrantzia, zeren isla diren, zer adierazten duten, nola arakatu eta ziurtagiri bihur daitezkeen (...); ikastetxearen iraupena eta eraginkortasuna bermatzeko, kanpo zein barneko administrazio-egiturak duen zerikusia hausnartu.

2.2. Neurri batean ikastetxearen hezkuntza-inguru ofiziala eta ez-ofiziala aztertu eta jabetu: legeak, nortasun juridikoa, jabegoa ezagutu, (...) orokorrean gizarte hezkuntza eta kulturaren berri edukitzea litzatekeela bere kezka.

Bi atal horiek ikastetxe bateko bizitza osoa bideratzen dute, erakuntza bakoitzak hezkuntza-egitasmo pizgarri eta benetan eraikigarri bat izan dezan. Atal horiek dioten informazio eta eremuetatik bere nortasunaren, ezaugarrien eta asmoen arabera, zenbait arlo garatzen saiatuko da bereziki. Honexegatik, hezkuntza-egitasmoan ikastetxe baten errealitate osoa kontutan hartu behar da. Beste era batera esanik, ikastetxearen arlo estrukturala, teknikoa, psikosoziala eta administratiboa aztertu behar da, IHE baliozko egitamu bihurtzeko, arlo bakoitzarekin zer ikusia duten banako guztien kezka eta asmoz hitz egin eta baterabide bat topatzen saiatuz.

Orain arte azaldu dugunak hezkuntza-egitasmoaren azalpena egiteko balio izan du, hau da, bere izateaz jabetzeko, baina aldi berean zenbait galderari erantzuteko ere balioko digu, hala nola:

- zer da hezkuntza-egitasmoa?
- nork egin behar dute?
- zertarako balio du?
- nola egiten da?

Bestalde, orain eta hemen, ez dugu uste hezkuntza-egitasmoaren adigai honen inguruko epistemologia zehatz bat lantzea beharrezkoa denik, eskuartean dugun lana burutzeko.

#### b) *Kondaira*

Gure ikastetxeak sortuz geroztik gaur arte, hezkuntza-egitasmoa idazterakoan, aipatu dugun lehenengo baldintza-multzoarekin dituzte arazoak.

- Nork egindako hezkuntza-legeak bete behar dira?
- Zein dira gure ikastetxeak eta zein euren ezaugarriak?
- Nolako eremu eta mugak dituzte, hezkuntzak berak islatzen dituenak ala gizarteak jartzen dituenak?

–Gizartea eta hezkuntza bai kultura atalak, formalki ulerturik, ikastearen bidez garatzen dira, baina gure herriko ikastetxeetan euskal gizartearen nortasuna adierazten ote da?

–Nola sortu gizartearen eta ikastetxearen arteko lotura erreala, elkar ordezkatzen ez badira?

Honelako galdera-esaldi luze egiten jarrai genezake, baina hemen adierazi nahi duguna da ikastetxe batek bere hezkuntza-egitasmoa errotzeko edota alde zuzenetik dituen burutazioen eta abiapuntuen sendotasuna finkatzeko, jakineko “galdera” batzuk ingurutik, bere erantzun propioa lortuko duela.

Gure hezkuntza-kondairan zehar, eta erakundetze-arlotik harturik, benetan aipagarria eta neurri batean eredugarria izan den berrikuntza ikastolaren erakuntza, antolakuntza eta garapena izan dira.

Gizarte formal eta ofizialaren babesik gabe sortu zirenez gero, eta nolabait jarraitzen ere(...), erabat ulergarria da baieztatzea ikastolak ez daudela aldendurik hezkuntza-egitasmoaren izate eta balioaz. Baina, ikastolak, Eskola-erakuntzaren teoria harturik, barne-egituraren baldintza asko landurik eta garaturik –sekula ere ez bukatuik– izan arren, egiazko hezkuntza-egitasmo batek eskatzen duen moduan, ikastetxearen inguru formalein zein ez formalarekin lotura sendo bat behar dute eta kanpo-egitura honen aldagai burokratikoaren “izatea” aldatzen ez bada, ikastolaren inguruko hezkuntza-mugimendua ezingo da euskal gizarteak gaur duen hezkuntza-egitura eraldatu. Euskal hezkuntzak duen egarria ezingo da ase! Kanpo eta barneko baldintza hauen arteko oreka ikastetxearen hezkuntza-egitasmoa eraikitzeko baldintza ere bihurtzen da, bere joan-etorri guztia norabidetzen dutelarik.

Orokorrean, gaur egun, gure herrian diharduten ikastetxe-mota orok bermatzen ote dute gure gizarteari, (kulturatik gizarte baten ondare osoa bezala ulerturik) darion hezkuntzak bizi behar duen errealitate? Gure gizartearen izenean eskaintzen zaizkigun bi hezkuntza-sistemek, bata Espainia estatuko hezkuntza-sistema EEHS eta Frantziar Errepublikakoa bestea FEHE alegia, ezin dituzte gure errealitate, uste eta aitzindaritzaren beharrak ase. Era berean, diharduten hezkuntza-legeek ez dute, agian, balio guk nahi edo ahalko genituzkeen eskola-ereduak bermatzeko, eta espresuki, oraingoan daukagun euskal ikastetxe-eredu bakarra ikastola da.

Hezkuntza-egitasmoaren eta hezkuntza osoaren zailtasun eta ezintasun nagusiak euskal hezkuntzaren aldetik, eskola-erakuntzaren ingurutik edo gizarte formaletik datozenak direla esan behar dugu.

Barne-garapenaren aurrean, lortu duten trebeziari esker hezkuntza-inguru ofizialetik sortzen diren hezkuntza-lege eta eskakizun berrien aurrean ikastolak ez dira izutzen, ezinezko ardurak gainera eroriko bali-tzaizkie bezala. Adibidez, Espainiako estatu-mailan “LOGSE” (Ley Orgánica General del Sistema Educativo) lege berria dela eta, hainbat adigai berri sortu ziren, hots: hezkuntza-egitasmoa bera, ikastetxeko curriculum-diseinua, urteko plana, memoria, ebaluaketa kualitatiboa e.a., hitz hauek formalki ezezagunak izan arren, ikastolak –bere izateak horrela eskatu duelako– dagoeneko aski landuak eta, edukien aldetik, ezagunak zituen. Ikastola izenarekin sortu, eta oraindik ere sortzen ari diren<sup>88</sup> ikastetxeak, hezkuntza-asmo orokor eta zehatz batzuk lortzeko jaio dira, eta honetxegatik, bere barne baldintzen eraketak eskatzen duen lan trebezia ez da duda-mugakoa izaten.

Beraz, esan dezakegu, eskolaren egitura-mota honen barne-arazoa, alde batetik, lanaren helmugak berak daraman filosofia eta xedeak daudela eta horrek eskatzen duen antolaketa, berrikuntza, eguneratze, girotze, eragiketa e.a., dagoela. Beste aldetik, berriz, euskal gizarte errearen aurresteak eta gaurko errealitateak eskatzen duten egokiratu beharretatik dariona da.

#### d) *Irtenbideak*

Hezkuntza-egitasmoa tresna baliagarria izateko ikastetxearen eta gizartearen arteko elkar onespina behar da. Aipatu ditugun baldintzetatik, lehenengoaren oztopoak direla eta ez ditu ezabatu eta trunkatu behar ikastetxe baten barne ahaleginak. Ezin da onartu ikastetxea gizarte inguruaz kezkatzea eta bertatik eskatzen zaion guztia ahalegin eta trebeziatzat lortzen saiatzea, gizarteak berak ere horrelako erantzukizunik ez badu eraikitzen ikastetxearekiko.

Euskal hezkuntza euskal gizarte osoaren zeregina da, gizarte-arazo orokorra beraz, eta ez bakarrik honen kontzientzia dutenena. Gure gizarteari falta zaion hezkuntza-malgutasuna, besteak beste, gizarte formalak eraiki duen egitura motatik datorkio, hauetan ez baita gure gizartearen errealitatea, islatzen, aldiz gure gizarte-izate propioaren eredu

---

<sup>88</sup> (1991). Ikastola de Lodosa: “Ocho alumnos estudian por vez primera preescolar en bilingüe”. NIE-Nafarroako ikastolen elkarte. *NAVARRA HOY* egunkaria. 91/11/18, 13 or.; (1991). Donaixtin ikastola: “Oztibarrekua, Iparraldeko ikastola txikienetakoa” SEASKA-iparraldeko ikastolen elkarte. *IKASTOLA* aldizkaria, 1994ko otsaila, 30 zk., 18-19 orr.

abagune, bazterturik edo saihesturik hartzen delarik, beste gizarte-eredu batzuk egitura bihurtuz.

Beraz, ikastetxeetatik oro har eta batik bat ikastola eredutik gure hezkuntza ahaleginetan jarraitzeak gizartea inplikatzeko suposatzen du, gure asmoa ez baitago guregan, baizik eta gure herriko biztanlerian eta etorkizunean nahiko genukeen gizartea eraikitzean. Gure gizarteak behar duen, nahi lukeen eta zor zaion hezkuntza eskuratzeko gutxienez hiru alorren arteko hartu-eman eta hitzarmena lortu beharko dira:

1. gizartearena,
2. ikastetxe-eredu eta hezkuntza-mota guztietako ordezkariena, eta
3. hezkuntza-administrazioarena.

Ondorioz, hezkuntza-egitean sumatuko da kultura eta gizarte formalaren arteko lotura erreago bat dagoela. Izan ere, hezkuntzak bi motako erreferentziak jaso behar ditu gizartearengandik:

- a) zientzia eta ikerkuntzen aurrerapenetatik dariona, hots, antropologia, kondaira, soziologia, filosofia eta psikologia batik bat, eta
- b) gizarte baten eguneroko bizitzan zehar elkar onartu zein ezta-baidatzen diren kezka, uste, zinu, irizpide, aburu, galdera, erantzun, gertakizun, norabide (...), edo, entzun ikus bitartekoen bidez jakin dezakegun hori.

Ikastetxe-eredu desberdinek gizarte baten benetako hezkuntza-asmu eta nahiak islatzen dituzte. Hezkuntza irudikatzearen ondorio errealak dira, alegia. Gizartearen eboluzioaren arabera ikastetxe-eredu motak sortu egiten dira. Euskal Herriak behar duen euskal hezkuntzaren orekak diharditugun ikastetxe-eredu guztien elkarlana eskatzen du: pribatu, publiko edo bestelakoa... izan. Gure hezkuntzaren berreskurapena eta berrantolaketa ez da, soilik, ikastolari edo eskola publikoari bakarrik dagokien zerbait. Ikastetxe-eredu desberdinetako ordezkarien arteko hartu-emanak ezinbestekoak dira gaur bizi dugun itsumen eta iruzur honetatik irteteko. Euskal Herriak euskal hezkuntza era askotara berma lezake, beste edozein herrialdeetako gizataldearen antzera, bakoitzari egokienak iruditzen zaizkion ikastetxe-eredu eta hezkuntza-mota sortuz:

- ikastetxe:    – laiko;  
                  – erlijioso;  
                  – hizkuntzatan oinarriturikoak;  
                  – esperimentalak;  
                  – ekologistak;

- giza harremanetan finkaturikoak;
- publiko edo pribatuak;
- e.a.

eta horrek giza-kontsensu eta jakitunen arteko harremanak erabakiko luketen eredu herritar ala jabedun publiko-pribatu, zein, asma daitezkeen beste batzuetan eraldatu litzake.<sup>89</sup> Bestalde, "gutxiengotzat" joko genituzkeen aurreste horiek benetakoak izateko, hau da, irudikatu diren "hezkuntza-asmo" batzuk herri ala jabego egituran emateko izan...) ikastetxe-eredu erreal bat bihurtzeko eta beste batzuetatik bereiziko den "hezkuntza-egitismo" bat bideratzeko, ez eta beste ikastetxe batzuen aurka joateko edo ukatzeko ezinbestekoa da:

1. gizarte (soil, elkarte zein jakitun edo ikerlari aske...) hezkuntza-administrazioko teknikari eta beste ikastetxe-ereduen arteko onespena jasotzea,

2. barne-egitura sendo, irekia eta ulergarria garatzea baldin eta trebea izango den hezkuntza-egitasmoa, profesionaltasun, gaurkotatasunez eta giza aurrerapenaren bidetik urratu nahi bada.<sup>90</sup>

Azkenik, administrazioaren esku-harmena begi-bistakoa da, mundu zabaleko hezkuntzaren berri menperatu eta bere ardurapean duen gizartearentzako ahalik eta ondasun zein oreka aberasgarriena topatzen saiatu beharko da. Herri eta hiritar guztiek onartu edo ez, hortik sortu den egitura da hezkuntza boterea edo administrazioa. Hezkuntzak kultura eta hizkuntza-politika ditu zeregin eta ekintza-bide, eta horrek bizirik eta aldatzen doan gizartearekin etengabeko harremana eskatzen du; ildo beretik ulertu behar delarik hezkuntza toki berezi diren ikastetxeekin eduki behar den lotura ere. Azken baitan, hezkuntza-administrazioa bera lehen agertu dugunaren bultzatzaile sutsu eta interesatuena izan behar litzateke, baldin eta bere egiturak behar duen iraungarritasuna eraginkortasunez garatzea nahi badu.

<sup>89</sup> Ipar Ameriketako "hezkuntza eta Ikastetxe ereduez" jabetzea oso interesgarria da gure auzirako; HUSEN, T. (1979). *Op.cit.*, II. atala "La internalización de la educación", 73-108 orr.; BARBERA ALBALAT, V. (1988). *Op.cit.*; SAENZ, O. (1985). *Op.cit.*, 432-440 orr.; FERRANDES, E. (1987). *Op.cit.*; ETXAGUE, X. (1991) "Ikastetxeko hezkuntza proiektua". *Eztabaidagaiak*. Donostia, Gipuzkoako Ikastoletako Irakasle Elkarte, 1-4 orr.

<sup>90</sup> HUSEN, T. (1978). *Op.cit.*, IV. atala "El futuro" 167-227 orr.

### 3.3. *Ikastetxeko barne-araudia*

#### 3.3.1. Zer da ikastetxeko barne-araudia

Hezkuntza-asmoak –IHA– ikastetxea nolakoa den azaltzen digu. Hezkuntza-egitasmoak –IHP–, berriz, hezkuntzarekiko eginbeharrak eta barne-araudiak. –IBA–, aldiz, ikastetxe bateko antolakuntza eta barne-egituraren funtzionamendua bermatu nahi duen agiria dugu, bere funtsa ikastetxea osatzen dutenen hezkuntza-elkartearen hartu-emanak eta bizikidetzeta hobetzea da. IBA-n, ikastetxeko lanaren mugak eta administrazio-kudeaketa guztiz jakinaren gainean egotea da bere kezka orokorra.<sup>91</sup>

Honetaz gain, beste batzuek uste dute IBA-n lege-araudia ere jaso behar dela. Guk, berriz, beste batzuek bezala, bi arrazoi ditugu horrela ez dela usteko, baizik eta IBA ikastetxeko lana zein administratitzaren arteko loturak eta esparruak azpimarratzeko bestetako ez dela erabili behar esateko:

1. Esan liteke IBA baten barnean lege-araudiak edo azalpen juridikoak ez daitezkeela bereziki landu behar, zeren eta herrialde bakoitzak ikastetxearen gain “hezkuntza-lege nagusi eta orokorrak” deiturikoak dituelako. Adibidez Espainia Estatuan LODE eta LOGSE e.a.<sup>92</sup>

2. Bestalde, gure hezkuntza nazionala aldarrikatu nahian eraiki diren ikastetxeetan, kontu izan beharko da gauza bat dela hezkuntza-legeadiak zer diren jakitea, edo gure gain ditugun legeen zergatia ezagutzea, eta beste bat zer ezberdintasun dauden gure inguruan diharduten herrialde batzuen hezkuntza-legeadien artean, adibidez. Beti ere guk egingo genituzkeen aukerak ezagutzen joateko.

Askotan, IBA-z mintzatzean, gehienetan ikasleari dagokion zer-baitetan pentsatzea da, ikaslearen arautegiaz ari garelara emanez..., baina

---

<sup>91</sup> MARTIN BRIS, M. (1988). *Organización escolar (Plan Anual y Memoria del Centro)*. Madrid, Escuela Española S.A., 257-262 orr.; BARQUERO, V. (1987). Op.cit.

<sup>92</sup> LODE-*Ley Orgánica de Derecho a la Educación*. (1989). Textos legales. Madrid, Boletín Oficial del Estado/M.E.C.  
LOGSE. *Ley Orgánica de Ordenación General del Sistema Educativo*. (1990). Madrid, Ministerio de Educación y Ciencia.



ez da horrela, noski. Ikaslearen barne-araudia<sup>93</sup> ikastetxeko IBA-ren atal bat da, orokorrean, eta irakasle/ikasleen arteko jokaerak mugatzeko eta bideratzeko, zein gurasoekin lotura egoki bat edukitzeko, oso baliagarria dugu atal hau. IBA, berriz, bertako partaide den hezkuntza-elkarte osoaren eginbehar eta eskubideak arautzeko erabiltzen den agiria dugu.<sup>94</sup>

Ikastetxeko barne-araudiaren azken helmuga legoke funtzionamendu antolatu bat topatzean eta bermatzean. Bestaldetik, jakin behar dugu IBA ikastetxe ereduaren eta izatearen arabera ezberdina izan litekeela edukietan, nahiz eta landu behar dituen atalak edozein ikastetxe motari dagozkion.

Gure ahalegina berriz, IBA-k duen izate, garrantzi eta beharraz jabetzean legoke.

Ikastetxe pribatuetan, IBA jabegoaren esku eta berak uste duen hedapenean egongo da. Euskal hezkuntzak, gehiagotan aipatzen ari garen ildotik, IBA-ri bere aurreusteen araberrako berezitasunak eskatu behar dizkio, ikastetxeko bizi osoaren ardura eta bermaketa bertan islatuz.

IBA agiriak bete behar duen funtzioa betetzeak zenbait atal lantzea suposatzen du.<sup>95</sup> Baina orokorrean, IBA eraikitzeko, IHA-tik isurtzen den zenbait puntu jakin eta horien arabera araubideak egitea suposatzen du:

Ikastetxeko hezkuntza-asmoa ikastetxeko barne-araudia egin behar dutenen gida eta abiapuntua izaten da. Guk hemen 3.1 puntuan azertu duguna (IHA), kontutan izanik, orokorrean jakin badakigu, hezkuntza-asmoak ikastetxearen zinua, asmoa eta nahiak irudikatzen dizkigutela, bai ikastetxe publiko zein pribatuak izan. IBA-ren barne-filosofiaren muga, berriz, ikastetxeko jabegoaren eta zerbitzua ematen dutenen erlazioaren arabera bereiztu egiten da.

<sup>93</sup> ISAACS, D. (1987). Op.cit., "El reglamento de alumnos", 135-143 orr.; MARTIN BRIS, M. (1988). Op.cit., 117 orr.; LORENZO DELGADO, M.; SAENZ BARRIO, O. (1993). *Organización escolar: Una perspectiva ecológica*. Alcoy, Marfil; MOLINA GARCIA, S. "El alumnado", IV. atala, 91-144 orr.

<sup>94</sup> GARCIA HOZ, V.; MEDINA, R. (1987). *Organización y gobierno de los centros educativos*. Madrid. Rialp. "Trabajo, convivencia y disciplina", 271-286 orr.

<sup>95</sup> BARQUERO, V. (1987) Op.cit.



### 3.3.2. Ikastetxeko barne-araudiaren eremu zabala

Beti ere, hezkuntza-asmoak era batekoak ala bestelakoak izan, IBA ikastetxeko hezkuntza-elkartea osatzen duten guztien kidetasuna bideratzeko balio duen tresna dugu. IBA-ren eremu legala ikastetxe batek jarraitzen duen hezkuntza-sistemaren inguruak ezartzen du. Hau da, Danimarkan, Bretaina Haundian, Grezian, (...), e.a. dituzten eremu legalak, antzekoak izan daitezke, hezkuntzak duen unibertsaltasun-zentzuan, baina gizarte batek egiten duen interpretazioaren arabera bereziko dira. Hain zuzen ere, euskal ikastetxeak antolatzen direnean euskal hezkuntza bat eskaintzeko, bi estatuetan sakabanaturik gaudenez, bakoitzak bere lurralde “ofizialean” indarrean dauden legeak kontutan izaten ditu. Adibidez, Espainiako estatuan, IBA idaztean, Espainiako Konstituzio, LODE (Ley Orgánica del Derecho a la Educación), Errege dekretuak... e.a.<sup>96</sup> kontutan hartu behar dira, zenbat eta “publikoagoak” izan orduan eta mugatuago, hots:

\* 27.3 Art. Konstituzioa.

\* LODE, 15 art.

\* Abenduaren 18ko 2376/85 Err.D.

\* 1986ko martxoaren 18ko. O.M.

\* 1987ko otsailaren 13ko idazkaritzaordeko norabideak.

\* Abenduaren 18ko 2376/85ko Err.D. 61, 62, 66. Art. eta uztaileko 2ko 12/1987ko legea.

\* Abenduaren 18ko 3275/1985 Err.D. eta 1987ko martxoaren 12ko O.M.

LODE, 55 eta 57 artikulua.

LODE, 22 eta 52 artikulua.

LODE, 42.1 j eta 57 1

### 3.3.3. Ikastetxeko barne araudiaren egitura eta edukiak

#### 1. Aurreusteak

IBA-k, ikastetxeko barne-egokitasunerako arau-multzo bat denez, orokorrean bere inguruan diharduen legediarekin zerikusia du, bai

---

<sup>96</sup> MARTIN BRIS, M. (1988). Op.cit., 260 or.; LORENZO DELGADO, M. (...) (1993). Op.cit.; RODRIGUEZ ROJO, M. “Asociación de padres y participación comunitaria”, 141-148 orr.

ikastetxe-mota eta eredia antolatzerakoan zein landu beharreko lerro nagusietan. Baina, horretaz gain, IBA-k hezkuntza-elkarte baten nor-tasuna eta ezaugarri zehatzak bideratzeko balio behar du.

Beraz, esandakoa kontutan harturik, jakin badakigu ikastetxe bateko erakuntza-lana oso bihurri eta korapilatsu bilakatzen dela, are gehiago bere barne-egitura guztiaren eguneratze ildotik ibiltzen bada. Besteak beste: antolakuntza-teknikak, planifikazioa, koordinazioa, zuzendaritza eta kontrola ekiteak ..., ikastetxe bakoitzaren berezitasunetatik abiatzea suposatzen duenez, IBA eraikitzea eta eskuratzea lan tresna ezin hobea edukitzea da.

IBA-ren eduki eta egitura nahiko orokorra izan daiteke, edozein ikastetxerentzako modukoa, baina guretzat auzia, euskal hezkuntza bideratzen duten ikastetxeentzat, alegia, bi eratakoa da:

a) IBA agiria hezkuntza-elkarte osoak ezagutu eta onartu beharra ote?. Hainbat erantzun eta erabilgarritasunekin topo egingo dugu, ikastetxe-ereduaren arabera. Orokorrean, jabego pribatuak zein publikoak dituen usteen arabera ibiltzeko idatziko da IBA.

b) Euskal ikastetxeak bere ekarpen bereziak egin beharko ditu honetan ere, batik bat kontutan harturik legediaren aldetik bete beharrean dagoena alegia, ez direla jatorri eta helmuga gabeko legeak. Bestaldetik, ikastetxeko egitura, funtzionarazteko ideiak malguak baina ongi oinarriturikoak izan behar direla eta azkenik edukiak ekarpen eremu zehatzak bideratzeko baliodunak izateko, arlo eta zehar-lerro ezberdineko eduki kontzeptualak, prozedurak, jarrera eta baliokak, ezagutza soziala menperatzeko egokituak izan beharko direla.

2. IBA idazteko gida-eredu bat.

Besterik gabe, aipa dezagun IBA betetzeko proposatuko dugun gida eredu bat, eta euskal hezkuntzaren ildotik harturik zer nolako lana eta irakurketa suposatzen duen:

LEHEN ATALA: IKASTETXEAREN PRINTZIPIO ETA HELBURU OROKORRAK  
HEZKUNTZA ELKARTE BEZALA

IBA egiteko ardura duten ordezkariak, lehenik eta behin, atal honen mamia idazten saiatu beharko dira:

1. Legeak:

Gure ikastetxeek indarrean dauden lege formalekin zeharkako eta ez zuzeneko zerikusia izan beharko dutenez, bakoitzak bere hezkuntza-mota defendatzeko zenbait egokitzapen eta mugaketa egin beharko ditu. Noski, horrela esateak ez dirudi zailtasunik duenik. Aldiz,

ezinbestekoa dela dirudi. Baina, IBA egiterakoan, helburuak zehazteak, antolaketa egokitzeak, bizikidetasunez hitz egiteak edota ikasketen programazioaz arduratzeak uste baino kezka eta ezadostasun gehiago sortzen dituzte, baldin eta aurretik “balioen urratsak” orokorrean eta ikastetxearenak zehazki nolakoak diren ezagutzen ez badira. Hain zuzen ere, honen lehentasunak eta eraketak zuzeneko zerikusia izango baitute ikastetxeko hezkuntza-egitasmoan.

Ikastetxe bakoitzak duen hezkuntza-uste ezberdinetik, ez eta aurkakotasun zentzuan, bizi tankera bat dario: askatasunean eta arduratsu biziitzea, hain zuzen ere, eta horrek nahitaez inguruarekin harremanetan jartzea suposatzen du, bere errealitateaz jabetu eta bizi era hori irauin eta mardultzeko dituen arau eta bidezko legeak betetz. Herrialde egituratuak ere lege-bilduma nagusi baten bidez zuzentzen dira. Eta hemendik egituratzen den hezkuntza-sistema eta, ondorioz, ikastetxeak, hezkuntza-ekintza egiterakoan zenbait baldintza-multzo bete behar izaten dituzte. Adibidez: norberaren eta besteen eskubide eta askatasunaren eremua ezagutu hezkuntza heziketa baikorra jasotzeko, alegia.

## 2. Bizikidetasuna eta hezkuntza-prozesua:

Aurreko puntutik, hots, legeak eta honen erabilgarritasunetik datozen zenbait ustetatik, besteak beste: elkarlanerako grina, eroapena, lankidetasuna, askatasuna, (...), besteak beste, ezingo dira ikasleengan garatu, baldin eta hezkuntza-eremuaren ezaugarriak ongi ezagutu eta menperatzen ez badira, eta ikasle-taldea, hezkuntza-prozesu barne eta giza-elkartearen zati bezala, bizikidetasunean hezteko duten eskubidearen ardura onartzen ez badugu.

## 3. Ikastetxe bakoitzaren hezkuntza-elkartea:

Hezkuntza-elkartek ez dira berberak izaten, beraz IBA-n, ezaguri hauen adierazpenak ere agertu beharko dira. Bertan elkarte bati dagokion eskubide eta eginkizunen berri emango da.

## BIGARRREN ATALA: IKASTETXEAREN EGITURA

IBA-k, ikastetxearen egiturari dagokion deitura eta erabil daitezkeen (barne zein kanpo) gunee, bitarteko eta baliabideen antolaketaren azalpen bat eskaini behar du; ardura-banaketa, elkargoarenak zein banakoarenak diren zehazturik.

Hemen jokoan dagoena, koherentzia eta irekitasuna da. Alde batetik, hezkuntza-elkartearen eta gizarte hurbilaren artean eta bestetik, ikaslea, giza aurrerapenaren zentzuan hezi nahi duen hezkuntza-egitasmo baten kontrola jarraitzekotan.

## HIRUGARREN ATALA: ERAKUNTZA-EGITURA

Atal honen eginkizuna ikastetxe bateko jaurlaritza-bideak (elkargobanako) zehaztu eta bakoitzaren funtzioak mugatzea da. Horren idazketak ikastetxe bateko goitik beherako antolaketaren berri ematea suposatzen du; hau da, ikastetxeko langile bakoitzak (irakasle, zuzendari, zerbitzu, e.a.) hezkuntzan dituen eginbeharrak eta dagokien azalpen zehatza.

Hau guztia argitzeko zein bat-bateko hierarkia jabeakuntza lortzeko "organigrama" errepresentazioa dugu. Bertan ikastetxearen atal guztien berri agertzen da. Ikastetxe-eredu eta barne antolaketaren arabera egokitzen da bereiziz eta egokituz.<sup>97</sup>

Gure asmoa, hemen eta orain, ez da organigrama-mota baten aldeko apustua egitea, baizik eta IBA-ren barnean horrek duen garrantzia eta eragina azpimarratzea.

IBA baten barnean, erakuntza-egituraren atalak ikastetxeko jabeago eta zerbitzuaz arduratzen direnen arteko hartu-eman eta lotura-erak erabakitzen ditu. Beraz, ez da berdina izango administrazioen jabeagoa, irakasleriaren zein bestelako langileen artean sortzen diren lotura eta eginbeharrak bideratuko duten organigrama, beste motako jabeagoa duten ikastetxeetatik.


Zehatz-mehatz, ikastetxe-eredu eta mota bakoitzak bere barne-egitura du, nahiz eta askotan eginbehar berdinak bete behar izan. Hala eta guztiz, hezkuntza-legediaren inguruan ezinbestekoak diren funtzioetan, euskal hezkuntza-egiteko eratzten diren ikastetxeak bai Espainia zein Frantzia estatuetakordezkapen zuzeneko ikastetxeak izan, ikastetxe-eredu guztiak berdintsu antolatu eta eratuko dira. Bestalde, guk hemen ez dugu organigrama zehatz baten aldeko apusturik egiten, ez baitago "onena" denik, baizik eta gure gomendioa, euskal hezkuntzaren gaur egungo egoera legala atzeman eta aztertu ondoren, euskal ikastetxe batek eduki ditzakeen irtenbide guztien berri, nola eta non topatzen den erakusteaz gain, bakoitzak uste duen organigramarik egokiena bultzatzearena da.<sup>98</sup> Bukatzeko, bi organigrama-eredu eskainiko ditugu:

<sup>97</sup> EHIE-Euskal Herriko Ikastolen Elkarte (1985). *Gestión y funcionamiento de la Ikastola*. Donostia, 16 or.; (1988). *Op.cit.*, 28 or.; (1991). ERAGINKOR. *Reflexiones en torno la organización de las ikastolas de Euskal Herria*, 7 or.

<sup>98</sup> BALL, S.J. (1989). *La micropolítica en la escuela: Hacia una teoría de la organización*. Madrid: Paidós/M.E.C. 24-25 orr.; LORENZO DELGADO, M.; SAENZ

a) Espainiako Estatuko ikastetxe publikoetako organigrama.

13. IRUDIA: *Espainia estatuko ikastetxe publikoetako organigrama*




Barquero Segovia, V. (1987). Op. cit., 15 or.

BARRIO, O. (1993). Op.cit.; LORENZO DELGADO, M. "La estructura del centro escolar", 205 or.

b) Gaur egun ikastolen barne antolakuntzarako proposamena:

14. IRUDIA: Garaiko ikastolaren organigrama



Iturria: EHIE/Euskal Herriko Ikastolen Elkarte (1988)

Bestaldetik, gure inguruan, ikastetxe pribatu gisa ezagutzen diren organigramek, legeak babesturik, ezberdintasun nabarmenak izan ditzakete euren artean ere. Ikus, Espaina Estatu LODE barruan, 55.57.22.52 eta 57.1 atalak.

LAUGARREN ATALA: IRAKASLERIAREN EGITURA

Atal honetan, ikastetxeko irakasleriaren konposaketa, eginberrak, eskubideak eta ordezkapenenen zein baimenen inguruko

arloak azalduko dira. IBA-ren barnean, badira irakasleriaren beste eginkizun batzuez mintzo diren atalak, hots: tutoretzak, elkarte zein arloburu agertu beharrekoak ...

Irakasleriaren egitura-atalean, ikasle eta familiaren arteko hartue-mana jasoko da, eta bestetik, irakasle bakoitzaren uste eta irakaskuntza-askatasunaren arteko eskubidez mintzoko da.<sup>99</sup>

Berriro ere esan, euskal ikastetxeek ezin dutela gure lurraldea banatzen duten bi estatuen konstituzio eta hezkuntza-lege orokorrein inongo ezbairik gabe men egin..., beste gauza bat da egoera honetan ikastetxeak, nahitaez, zenbait lege bete behar izatea, baina, beti ere, argi izanik hauen jatorriak (...).

Irakasleriaren atala barne-antolaketa-erllo bat denez, ikastetxe bakoitzaren hezkuntza-asmoak aurrera eramateko banatu behar diren funtzioak argi zehaztu ondoren egituratua izango da. Irakasleria ezin da egituratu bere ikastetxeko barne-agiriak kontutan izan gabe, hots: hezkuntza-asmo, hezkuntza-egitasmo eta ikastetxeko barne-araudia.

Alde batetik, irakasleriaren eskubide guztiak kontutan harturik, ikastetxe batek hautatutako irakaskuntza jakineko helmugara eramateko, irakasleriaren betebeharrak ere kontutan izango ditu IBA-ren atal honek. Honela, bien arteko oreka-beharrak etengabeko eztabaida baikorra sortuko du, irakasle izatearen kezka eta ezadostasunak, profesionaltasuna bermatzeko balioko dutelarik. Hori guztia ikastetxeko hezkuntza-asmoak, idatzi eta onartzen dituzten ordezkari zein/ ala egileak izan, nolabaiteko aurreustetan oinarritu beharko dute. Atal honen eraginkortasuna erreal izateko, ikastetxe orok irakasleria kontratatzerakoan eta euskal ikastetxeak zer esanik ez/ behinik-behin, egin beharko dutena zera da: barne-agiri idatziak erakutsi eta guztien berri azaldu, jarraian irakasle hautagaiek zein hautatuek ikastetxearen nortasun-ezaugarriak zenbateraino onartzen eta garatzeko prest dauden agertu beharko dutelarik, besteak beste, horren arabera irakasle ego-kienarekin geratuz.

Atal honen garrantzia pisuduna dela uste dugu, baldin eta ikastetxe(*ak eur*)en izatea barne-baldintzek eskatzen duten bidez/*eran*, arrakastaz garatuko bada. Irakasleriaren eskubide eta eginbeharrak garbi


---

<sup>99</sup> Ibid., SALVADOR MATA, F. "Profesorado: Departamentos y equipos docentes", 115-140 orr. "Asociación de Padres y participación comunitaria", 161-162 orr.; MOLINA GARCIA, J., 110-112 orr.

ez edukitzeak edo eta ezezagunak izateak gatazka asko sor diezazkieke ikastetxei. Aldiz, esango genuke IBA tresna erreal dela hainbat kezka eta arazo argitzeko. Eta eskubide pertsonalak zein profesionalak: bizi-jarrerak, usteak, ohiturak (...); erakusteko askatasuna. Azken baitan, ikastetxe batek mugatu eta irakasleak onartu behar lituzkeenak, bere ahalbidetza profesional eskatuko duen etengabeko prestaketarako adostasuna, e.a. bereziki IBA-n, irakasleriaren atala zabaltasun eta irekitasun osoz idatzi eta jasota aurkitzeak, neurri batean ikasle eta hezkuntza-elkarte osoari ikastetxetik itxaro duena bermatzea suposatzen du.

Buka dezagun grafiko bat azalduz, bertan IBA-n irakasleriaren eginbehar eta eskubideen arteko ondorioak nola ikus daitezkeen jakinez:

15. IRUDIA: *Ikastetxeko barne-araudia eta irakaslegoa*



M. Jaione Apalategi (1994)



#### BOSGARREN ATALA: IKASLEAK

Ikasleen eginbehar eta eskubideez, barne antolaketaz, bizikidetasunez eta adinean sartu diren ikastaldeen elkargo-eskubideez arituko da.<sup>100</sup>

Ikastetxearen izateak era ezberdinetako barne-araudiak sortzen ditu, baina orokorrean ikasleekiko ardatz diren printzipioak hauek ditugu:

1. Hezkuntza ikaslearen abiapuntutik eta ez irakasleenetik eraiki beharra.

2. Ikasleak dira irakaskuntzaren ardatz nagusia.

3. Ikastetxeak ikasleei eman nahi zaien hezkuntza formala garrantzeko altsatuak izan dira.

4. Ikasleen eskubideak aurrez ezagutzea ezinbestekoa da, hezkuntza-helburuak egokitu ahal izateko.

5. Ikasleen betebeharrak ez badira garatzen, horien heziketa eta irakasketa ez dagoela bermaturik esan nahiko du.

Hezkuntza-printzipioekiko adostasuna edukitzea oso onuragarria da IBA idazterakoan. Eskubideak idazterakoan, ikasle guztien izenean egin behar da, baina eginbehar, bizikidetzeta eta euren barne eraketaz edo elkarteaz aritzeak ikasleen adinak kontutan hartzea suposatuko du, batik bat ikasle ordezkariak eta kontseiluak dituzten araubideak idazterakoan.

Orokorrean, ikasle baten familiak ikastetxe baten aukera egiten duenean, IBA-ren onarpena eta betetzeko asmoa azaldu behar du.

#### SEIGARREN ATALA: IRAKASLEAK EZ DIREN GAINONTZEKO LANGILEAK

Hezkuntza-elkartearen barne-langileria, ez dozentearen lana oso beharrezkoa da, alde batetik, irakaskuntzaren garapena errazteko eta, bestetik, hezkuntzaren ikuspegi oso bat bermatzeko. Administrazio eta zerbitzu-lanak egiten dituztenei esaten zaie ez dozente.

Ikastetxe publikoetan legalki arauturik azaltzen da zein izango den langileria horren partaidetza ikastetxeetan. Ikastetxe pribatuetan, berriz, era askotako egokitzapenak aurki ditzakegu. Orokorrean, dioguna zera litzateke: izugarritzko garrantzia duela honako atal honek, ikastetxe baten irudi, bizitasun, oreka, girotze, mirespen... e.a.-erako.

---

<sup>100</sup> Ibid., 91-114 orr.

Beraz, langileria horren ordezkapena ikastetxearen erakunde nagusi eta egitasmo guztietan agertu behar dela.

Administrazio-egituran barne, ikastetxe bateko lan burokratiko eta administratibo orokorrez gain, organigramaren arabera banatuta agertzen diren langile-mota (gerente, idazkari, administrari...) funtzio bereiztuak izango dituzte. Gauza bera gertatuko da zerbitzu ataleko langileekin: atezaina, mantenimendu, barne-garbitasunaren ardura-duna, ingurune sukaldari... e.a., horien beharra eta eginkizunak, publiko diren ikastetxeetan ezik, erakunde bakoitzaren egitura eta ahalbideen arabera antolatzen dira eta, gehienetan, diru iturriek zerikusi haundia izaten ohi dute. Dena den, IBA-n atal honen kokapena ez da txantxetan hartu daitezkeen zerbitzuak, edo hobe esanda, bigarren mailako izan behar..., lan-mota hauek egiteko ardura dutenek hezkuntza-elkarteak osatzen duten neurrian, ikastetxe baten antolamendu sendo baten zuztar baitira.

#### ZAZPIGARREN ATALA: ESKOLA EGUTEGIA ETA ORDUTEGIA

Ikasturtearen hasieran, hezkuntza-elkarte osoak horren berri eduki behar du, eta urtero egokitu behar izaten da. Bertan ikastetxeak izango duen ordutegia eta egutegia azalduko dira.

IBA-n urtero aldatzen den atala denez, batik bat egutegiaren gora beheragatik, askotan, guraso eta langile berriei IBA osoa banatu dez "eskola egutegi eta ordutegia" banatzen da bakarrik.

Atal honetan, ikasturtearen hasiera eta amaiera, ikastorduen banaketa, adin, maila eta eduki; jai kopuru, derrigorrezko zein aukeraturako, (...) festa-egunen azalpena adierazten dira. Ikastetxeko arduradunek aukerazko eta ezinbesteko diren egunen arazoak elkarte osoari azaldu beharko diote.

Gauza da atal honen izatea ez dagoela erabat ikastetxeen esku, baizik eta lurralde bateko hezkuntza-administrazioiko zuzendaritzaren esku dagoela eta ikastetxe-eredu orori dagokiola. Hala eta guztiz, hauek derrigortasunezko gutxiengo ordutegi eta egutegi markatzen dutela esan behar da, gero ikastetxe bakoitzak bere egokitzapen eta hobekuntzak egiten dituelarik.

–Beraz IBA-ren atal honetan hauxe jasoko da:

–Eguneroko ordutegi orokorraren berri.

–Ikastetxearen ordutegian izan daitezkeen berezitasunak.

–Irakasle bakoitzak bere lana osatzeko erabiliko duen ordutegiaren berri, "Irakasleria Batzordeak" on-ikusia eta "Eskola Batzordean" zein "Ikastetxeko Batzordean" onartuak izan behar direlarik.

–Ikastetxetik kanpo garatu beharreko hezkuntza jardueren berri (lantegi, herri, hiri, mendi, kanpaldi ... ikustaldi zehatzak eta irtenbide ezberdin) ere aipatuko dira.

–Eta azkenik, derrigorrezko ikastordutik kanpo antolatuko diren ekintzak, (udaletxe, lantegi, erakunde... lagundurikoak ere azalduko dira IBA-ren atal honetan.

#### ZORTZIGARREN ATALA: IKASLEEN GURASOAK

Herri bateko lege orokorra zein ikastetxe batek gurasoekiko bete behar dituenak edo ikasle arduradunekiko eskubide batzuez mintzo dira: norberarekin ados datorren hezkuntza jasotzeko eskubidea.

Baina ikastetxearen eta ikasleen gurasoen arteko loturak beste eskubide-mota hauek eskatzen ditu:

1. Gurasoen etengabeko elkarrekintza ikastetxeko arduradunekin, zuzendariarekin, ikasketa-buruarekin, irakasleekin, haurren hezkuntza baita heziketa-prozesua ere hobetuz garatzeko.

2. Aldiro, haurraren garapen orokorraren berria jasotzea: ikaske-ta zein hezkuntza-prozesu osoarena, alegia

3. Ikasgaien aukeren berri eduki eta erabakitzea.

4. Ikastetxeko eskola-batzordean partaide izateko eskubidea.

5. Ikastetxe jabegoaren, IHA eta IHE-aren arabera, elkarte, lan talde... antolatzeko askatasuna.

Eginbeharrak berriz, besteak beste, honako hauek izaten dira:

1. Haurraren garapena ziurtatzeko lankidetzak eskaini, bai zuzendariari zein irakasleei.

2. Bizikidetasunerako barne-araudia eta ikasle bezala dituzten eskubideez zein betebeharez jabetu eta bete.

3. Ikastetxeko deialdiei erantzuna eman beti, batik bat haurraren hezkuntza, heziketa eta jarrera dagokienetan.

Ikasleen gurasoekiko atal hau ez da legeak esaten duen neurrikoa, baizik eta esan dezakegu oso garrantzitsua dela ikastetxe baten gurasoen partaidetzarekin kontaktua bere eginahala baikorra eta eraginkorra izatekotan. Hezkuntza-erakundeen eta ereduaren arteko interesak ezin dira aurkakoak izan. Ikusmirak ezberdinak izan arren, xedeak eta helmugak berberak izan behar dira. Beraz, oso garrantzitsua da guztien indarrak jaso eta biltzea, elkarlanean nahi den helmugara iristeko. Hautabideak, zehaztasunak, mugak, prozedurak, lankidetasuna..., IBA-n jaso behar dira. Azken baitan legeak, oro har, bideratuko duena alde aurretik ongi ikusiak diren eskubide eta betebeharrak batzuk izango

dira eta hauek lantzeko zenbait bide eskaini ere, baina ikastetxearen esku dago hezkuntza prozesu sakon eta arrakastatsua izatekotan gurasoen erakargarritasuna lortzea eta guztien elkarlana antolatzea.

#### BEDERATZIGARREN ATALA: BIZIKIDETASUNA

Ikastetxe bat hainbat funtzio betetzeko sortu da eta hori ahalbidetzeko bidea hezkuntza-elkartea osatzen duten guztien hartu-emanak egokitzea da. Aldiz, horretarako barne-tresna eta prozesu zehatz baten beharra saiatzea izango duelarik. Ikastetxe bakoitzak bere hezkuntza-elkartearekin eduki nahi dituen zerikusiak bere bizikidetasun-atala garatzen den adinakoa izango da. Ikastetxeko bizikidetasun-maila, nolabait, hezkuntza-aurreusteen araberakoa izaten da, eta zenbait faktorerengatik hauek oso mugaturik egoten dira:

1. Ikastetxe-eredu
2. Hezkuntza-asmoak
3. Hezkuntza-egitasmoa

Ikastetxe bateko bizikidetasuna hiru urrats horien usteek baldintzatzen dute. Orokorrean, berriz, esan dezakegu hezkuntza-erakundeak bi uste nagusien inguruan antolatzen direla:

a) Hezkuntza-elkartearen asmo eta xedeak ezagutzetik abiatuko den hezkuntza-egitasmoa bideratu nahi duten ikastetxeak. Beraz, bizikidetzak garrantzi berezia izango du.

b) Aurretik apustu egiten den ikastetxe-eredu bat garatzeko eta bermatzeko ildo nagusia izango diren hezkuntza-asmo batzuetatik abiatuz, horiek eskatzen duten hezkuntza-egitasmoa egiteko jakineko hezkuntza-elkarte bat erakarri nahi duten ikastetxeak ditugu. Horiek, beraz, bizikidetasunaz ere aurreusteak izango dituzte.

Bataz beste, IBA-n, bizikidetzaren atala lantzeak jakineko gaiak jorratzea eskatzen du:

1. Bizikidetasunerako arauak
  - 1.1 Ikastetxe osoari dagozkionak
  - 1.2 Ikasgelarenak
2. Ikastetxeko irten beharrak baldintzatuko dituzten arauak
3. Lantzeko eta ikasteko tresnen zein ikastetxearen erabilera arautuko dituzten mugak.

Zentzabide edo diziplinaren multzoa.

## II. ZATIA

### ESKOLA-ERAKUNTZAREN EREDU BAT EUSKAL IKASTETXEA AZTERTZEKO

#### 1. Eskola-erakuntzaren ereduen eremu epistemologikoa

##### *1.1. Erakuntza adigai bezala*

Zenbait ekarpen egin ondoren<sup>1</sup>, “erakuntza” hitza hainbat erreallitate adierazteko erabiltzen dela ikusten dugu, hots:

a) erakunde antolagarria;

b) antolaketa behar duen ekintza bera: helmuga baten inguruan kokatuz, osotasun ezaugarriaren zati guztiak, arau berberak onartu eta zerbait sortu, antolatu eta bereratzea, alegia;

d) aipatutako ekintzaren ondotik sortzen den ondorioari;

hiru erreallitate-mota horietara egokitzen den “zientzia”<sup>2</sup>, “erakuntza zientzia” bezala ezagutzen da. (Bestalde, hori izakundeturiko hezkuntzaren eremu zabalean aztertzen badugu, erakuntzarekiko hiru motako zientzia garapenak bereiz daitezkeela ikus dezakegu: administrazioaren, kudeaketaren eta ikastetxearen alorretan, hain zuzen ere.) Baina, hala eta guztiz, beharrezkoa da bereiztea “erakuntzaren” eta “administrazioaren” arteko mugak euskal hezkuntza eta

---

<sup>1</sup> GOMEZ DACAL, G. (1986). *Administración educativa*. Madrid: Anaya. 326 or.; ORDEN, A. (1986). “Organización escolar” en *Diccionario de la Administración educativa*. Madrid, Escuela Española. 327 or.; MORENO, J.M. (1978). *Organización de los centros de enseñanza*. Zaragoza, Edelvisés 9 or.

<sup>2</sup> BUNGE, M. (1985). *Seudociencia e ideología*. Madrid, Alianza. 9., 39. eta 60 orr.; KUHN, T.S. (1966). *Las revoluciones científicas*. Mexico, FCE.

Eskola-erakuntzari begiratu bat. Izan ere, anglosaxoi eremuan administrazio adigaiaren zentzu zabalak gure inguruan adierazten baitu “enpresaz” ulertzen dena; erakuntzaren izate eta adigai bera barn-eratzten duelarik.<sup>3</sup> Beraz, administrazioa ez da inondik inora “Administrazio publikoa” ren zentzuan ulertzen. Ondorioz, “Hezkuntza Administrazioa” ez da “Administrazio Publiko” edo “Hezkuntza nazionalaren” irizpide zein arduradun nagusia, non:

–Eskola legislapen,

–Hezkuntzaren planifikapen eta gainbegirale, gehi

–Hezkuntza-politika arloen eragile bilakatzen<sup>4</sup> besteak beste Frantziako eta Espainiako Estatuetan gertatzen denaren aurka.

Azken urte hauetan, “erakuntza” adigaiaren inguruan ikerketa ugari garatu izan ohi dira. Horrexegatik, bere errealitatea ulertu nahirik hurbiltzen garenean, korapilo eta alde anitz duen zerbait bezala aurkezten zaigu. Gainera, erakuntza mugatzerakoan elementu edo osagai berriz inguraturik agertzen zaigu denboran zehar, bere izaera dinamikoa, gertaera aldakorretara murgildurik dagoen errealitatea delako, hain zuzen ere.

Horrengatik guztiarengatik, erakuntzaren adigaia bi zentzutan uler daiteke<sup>5</sup>:

1. berezko errazionalitate eta jabetza duen sistema bezala, eta

2. baliabide zehatzen bidez ekinarazten diren ekintzen jardueraren osagarri modura.

Erakuntza adigaia aztertzean funtsezko zenbait ezaugarri topatzen ditugu, hots:

---

<sup>3</sup> MUÑOZ GARDUÑO, J. (1986). *Introducción a la administración. Enfoque histórico*. Mexico, Diana; KOONTZ, H.; O'DONNELL, C. (1969). *Principios de dirección de empresas*. Buenos Aires, Mc Graw Hill. 15 or.; GULICK, L. (1962). *La ciencia, los valores abstractos y la administración pública*. Costa Rica, Esapac.; CHIAVENATO, I. (1981). *Introducción a la teoría general de la administración*. Buenos Aires, Mc Graw-Hill.

<sup>4</sup> GOMEZ DACAL, G. (1986). Op.cit.; MORENO, J.M. (1978). Op.cit.; POZO, A. (1978). *Organización escolar*. Burgos, Hijos de S. Rodríguez; DIEZ HOCHLEITNER, R. (1983). “Organización” en *Diccionario de Ciencias de la Educación*. Madrid, Santillana; CISCAR, C.; URÍA, M.E. (1986). *Organización escolar y acción directiva*. Madrid, Narcea.

<sup>5</sup> BUENO ABAD, J.R. (1988). *Servicios sociales: planificación y organización*. Valencia, Mestral, 55-65 or.

- a) osaketa<sup>6</sup>;
- b) helmuga eta helburuntz norabideturiko erakuntza<sup>7</sup>;
- d) eginbeharren arteko bereizketa eta koordinaketa orokorra bezain arrazionala;
- e) denboran zehar jarraipena bermatu;
- f) kanpo-erakuntzatik, barne-erakuntzak jasotzen duen eragina aztertu eta jabetu.

Beraz “erakuntza” hitza bere zentzu osoan ulertzeko, lehenik eta behin, erakuntza osatzen duen zati bakoitzaren errealitateaz jabetu behar da, gero, horien arteko lotura, beharra eta eragina aztertu nahi bada.<sup>8</sup>

## 1.2. Eskola-erakuntzaren zientzia

### 1.2.1. Epistemologia

Gure ikerlanaren eremua “Eskola-erakuntza” zientziarena izango da. Berau, oraindik ere, goraxeago aipatu ditugun arrazoi orokorragatik ez, baina epistemologiaren eraginpean baitago oraindik, hots:

- Eskola-erakuntzak sortzen duen ezagutzaren izatea;
- bere helburu eta azter maila;
- ikertzeko ahalmenaren eremua;
- eskola-erakuntzaren balio-sistema eta
- gizarte zein historia gertakizun eta horien eraginez egon diren hutsune
- ikastetxe barnean, erakuntza eta administrazio izateen bereizketa, nekez lortzea iristeagatik,
- e.a.
- zenbait zailtasun mota, gainditu gabe edo, ... aurkitzen da oraindik ere, zientzia hau.<sup>9</sup>

<sup>6</sup> SIMON, A.H. (1971). *El comportamiento administrativo*. Madrid, Aguilar.

<sup>7</sup> MAYNTZ, R. (1972). *Sociología de las organizaciones*. Madrid, Alianza Universidad.

<sup>8</sup> PEIRO, J.M. (1991). *Psicología de las Organizaciones*. I. eta II. vol. Madrid, UNED; MINTZBERG, H. (1984). *La estructura de las Organizaciones*. Barcelona, Ariel; PORCEL, A. (1987). *Introducción a la Psicología de las Organizaciones*. Barcelona, Biblioteca Universitaria de Ciencias Sociales; COLOM, A.J. (1979b). *Sociología de la Educación y teoría general de sistemas*. Barcelona, Oikos-Tau.

<sup>9</sup> KLIKSBERG, B. (1979). *El pensamiento organizativo: Del taylorismo a la teoría de la organización. La administración científica en discusión*. Buenos Aires, Paidós, 79 or.;

Diogun hutsune gehi adostasun ezak, Administrazio, kudea zein Eskola-erakuntzaren atzerapena eragin dute, zientzi hauen garapenean. Izan ere, Eskola-erakuntza, ala beste zientzien epistemologiaz arduratzeko erantzun behar ditugun galderak, irtenbide ezberdinak izan baitituzte edo eman zaizkie zientzi hauen bilakaera eta hazkundean zehar.

### 1.2.2. Erakuntza teoriaren bilakaera, eskola-erakuntzaren kondairan zehar

Eskola-erakuntzaren epistemologia garatzeko, Eskola-erakuntza zientziaren bilakaerari kasu egin beharko diogu:

Dirudienez XVIII. mendean eta Alemania, Austria eta Britainia Handian sortu berriak ziren funtzionalgo-multzo ezberdinen inguruan bultzaturiko ikuspegiak eraginda hasi zen, lehenengo aldiz, enpresa erakuntza bezala aztertu eta antolatzen.<sup>10</sup>

Zientziaren ardatzetik egituratu zen “erakuntza” horrek zenbait urrats igaro behar izan ditu 1860tik gaur egunera arte. Autoreen arabera, honen sailkapenak bereiz ditzakegu:

A. Muñoz Garduño-ri<sup>11</sup> jarraituz lau aro eta joera bereiziko ditugu:

1. Zientzitasun-joera: ordezkari garrantzitsuenak H. Fayol eta F. Taylor, ondoren H. Poor, R. Owen, Babbage, Bob, Gantt eta beste dira.

2. Psikologiaren ikuspegitik aztertuko duen “giza-harremantantuna” joera: E. Mayo, A.H. Maslow eta K. Lewin bezalako aitzindarien eskutik.

3. “Egiturelaritza” joerak soziologiaren ikuspegitik ikertuko ditu erakuntzak: H. Weber da, teori honen buruzagi nagusia; ondoren oso emankorrak izan diren Ch. Barnard, R. Mayntz, A. Etzioni bezalakoak ahaztu gabe.

4. Azkenik, “giza-harremantantun berria” izenez ezagutzen den joerak aurreko hiruren gorpuzketa osatu nahiko du. Bere ordezkari garrantzitsuenak D.M. McGregor, R. Lickert eta CH. Argyris dira.

---

OWENS, R.G. (1979). *La escuela como organización. Tipos de conducta práctica organizativa*. Madrid, Santillana, 20-21 or.; LORENZO DELGADO, M.; SAENZ BARRIO, O. (1993). Op.cit., “Perspectivas actuales de la organización”, 1. atala, 30-34 or.

<sup>10</sup> MUÑOZ SEDANO, A.; ROMAN PEREZ, M. (1989). Op.cit., 27-36 or.

<sup>11</sup> MUÑOZ GARDUÑO, J. (1986). Op.cit.



R.G. Owensek<sup>12</sup> enpresa-erakuntza teoriaren kondaira beste era batera egituratzen du:

1. "Taylorlaritza eta burokrazia" 1910. urtera arte: F. Taylor eta H. Fayol alde batetik, M. Weber bestetik.

2. "Zientzia gerentziaren" aroa (1910.1935). Aurrekoen eraginez, erakuntza zientzi honen kezka hedatu eta Unibertsitate ukituaren beharra ikusi eta antolatzen da. Bertan, L. Gulik eta L. Urwik ditugu aitzindari eta sortzaile.

3. "Giza harremanak eta enpresa" (1935.1950) ikuspegiaren emankortasuna, beste bien aplikapen ondorioetatik isurtzen diren hutsuneek bultzaturik sortzen da E. Mayoren eskutik. Jarraitzaileak, berriz, Ch. Barnard eta H.A. Simon. B. Kliksberg<sup>13</sup>. Owensek, erakuntzalari ospetsuenaz mintzo da, eta enpresa edo administrazio erakuntzaren kondaira atzemateko, B. Lussatok<sup>14</sup> aldiz, ideia eta eskola ezberdinak harturik egituratzen du zientzi honen hazkundera.

### 1.2.3. Zientzia, paradigma eta ereduak

Gaur egun Eskola-erakuntza printzipio teorikoa eta aplikazio praktikoa duten arau multzo zientifikoek osatzen dute, eta bere helburua izakundeturiko hezkuntzaren baldintzak hobetzean datza.<sup>15</sup>

Baina zientziaren eraikuntzan oso garrantzitsuak dira paradigma edo ereduak.

Ohiko zentzuan, zientziaz egiazkoak eta sistematikoak diren jakintza-multzoak ulertzen da. Eta zentzu zabalago batean zientzia, natura, gizartea, banakoa eta bere gogoeta buruzko jakintza-multzo objektiboz hartzen da.

Baina, zientzia azalpen edo adierazpen baten atzetik, beti, teoria eta ikerkuntza-eredu batek dihardu, eta horien arteko oreka zientziaren ezaugarri bihurtzen da.<sup>16</sup>

---

<sup>12</sup> OWENS, R.G. (1979). Op. cit.

<sup>13</sup> Ibid. (1979). 11 or.

<sup>14</sup> LUSSATO, B. (1976). *Introducción crítica a las teorías de la organización*. Madrid, Tecniban.

<sup>15</sup> MUÑOZ SEDANO, A. & ... (1989). Op.cit., 17 or.

<sup>16</sup> BUNGE, M. (1983). *La investigación científica*. Barcelona, Ariel, 2. arg.; BUNGE M. (1985). Op.cit., 18-31 or.; 43 or.

Eredua edo paradigma, berriz<sup>17</sup>, zientziak ikertzen dituen errealtateen jabekuntza errazteko erabiltzen edo asmatzen diren laburpen, eskema eta abstrakzio ulerkuntzatan datza teoria baten osagai eta oinarritzko hartu-emanen zerikusia adieraziz.

Asko eta asko dira eredu adigaiak arduratu direnak,<sup>18</sup> baina goian dioguna laburtuz, esan dezakegu ereduak: zientziaren ipar ikuspegitik aztertzen ari den errealtate baten ezagumendu teoriko eta horien ekitearen arteko balioa frogatzeko errazgarriak direla.

“Eskola-erakuntza eredu bat, euskal ikastetxea aztertzeko” bigarren zati honen garrantzia azpimarratzeko ezinbestekoa da eredu hitzaren ingurunea menperatzea, guk nahi dugun euskal Eskola-erakuntza zientifikoa eraikitzeko. Eta zientzia-eredu bikotearen izatea, zientzia eraikuntzan zehar ulertzeko Th.S.Kuhnen-ek<sup>19</sup> bost urrats atzeman ditzakegula dio:

1. *Zientziaurrea*: funtsezkoari buruzko desadostasun osoa eta eten-gabeko ezbaia da bere ezaugarria. Ondorioz, teorilari adina teori sortuz.

2. *Paradigma*: Ikerkuntza zientifikokoaren zinupean aztertzen diren errealtateetarako, aldi berean lege, teoria, aplikapen eta tresnari multzoaz osaturiko eredu bideragarriak dira, non errealtate baten inguruko ikertalde batek bere ulerkuntzarako oinarritzko eskema eta balizko teoria, lege eta teknikak eskaintzen dituen. Gainera, ereduen ezarpenak eta onarpenak ikerlariaren esperientzia zehatzez gain, erabili beharko diren iker ikaspidetza edo metodoak ere eskaintzen ditu.

Paradigmak edo ereduak dira zientzia baten garapena baimentzen dutenak zientzialaria, arazo metafisikoetatik askatuz eta bere ikere-muaren mugak argi eta garbi azalduz.

3. *Zientzia arrunta* deitzen zaio onarturiko paradigma baten ondotik eraiketa-prozesu batean sortzen den zientziari. Eredu berri honen

---

17 FOULQUIE, P. (1976). *Diccionario de Pedagogía*. Barcelona, Oikos-tau, “Modelo”, 305-306 orr.; “Paradigma”, 343 orr.

18 PEREZ GOMEZ, A.I. (1978). *Las fronteras de la educación*. Madrid: Zero. 54-60 orr.; GIMENO SACRISTAN, J.; PEREZ GOMEZ, A.I. (1989). *La enseñanza: su teoría y su práctica*. Madrid, Akal Universitaria, 95-138 orr. eta 166-187 orr.; STENHOUSE, L. Madrid, Morata; (1987a). *Investigación y desarrollo del currículum*, 2. arg., 127-142 orr.; (1987b). *La Investigación como base de la enseñanza*. 28-43 orr. eta 44-81 orr.

<sup>19</sup> (1966). Op.cit.

arauak harturik, aurreko datu, garaturiko esperientzia eta ustezko arazo ugariak berrerabakitzea suposatzen du.

4. *Krisia* zenbait ezbehar sakonek paradigma baten zutabeetan eragina sortzen duenean ematen da. Eredu berri bat atzera botatzeak beste bat onartzeko erabakia hartzera eramaten du.

5. *Zientziaren iraultza* paradigma baten aurrean hedatzen den krisiak dakar, eta horrek bultzaturik beste baten ordezkapena darama. Eredu berri bat onartzeak aurrekoarekiko haustura kualitatiboa barn-eratzeko suposatzen du.

### 1.3. Eskola-erakuntzaren ereduak

Eskola-erakuntza zientziaren kondairaz arduratu direnak asko dira, bere arazoez kezkatu eta konpondu nahian erabili diren eskola eta norabide ugariak diren bezala.<sup>20</sup>

Eskola-erakuntzaren adigaita lotua dago, alde batetik, eskolak berak kondairan zehar izan dituen gorabeherekin, eta, bestetik, enpresen erakuntza zientifikoaren bilakaerarekin.

Ohikoak diren hiru urrats onartzen dira Eskola-erakuntzaren kondairan<sup>21</sup>, batz besterem honetan jorratu diren joerak, eskolak eta proposamen ugariak ordezkari eta sailkatzen dituztelarik:

#### 1.3.1. Aurrezientzi eta iragapen-aroko ereduak eskola-erakuntzan

Teorien aplikapenaren aurretik bi aro bereiz ditzazkegu:

a) *Aurrezientifikoa*. Garaiko eskolaren behar eta aukera ezberdinen arabera antolatzen da, gehi zentzumen arruntean oinarrituriko irizpideen bidez. Orokorrean, bi ikuspegi lantzen dira; teorikoagoa bat, eskolaren giza-arloaz arduratzen dena eta praktikotasuna bilatzen duena bestea hezkuntza nola egin eta egituratzeaz arduratuz. Lehenengoan, Platon, Luis Vives eta Comenioren lanak izango dira ardatz

---

<sup>20</sup> BUENO ABAD, J.R. (1988). Op.cit., 67-71 orr.; MORENO, J.M. (1978). Op.cit.; GARCIA HOZ, V.; MEDINA, R. (1986). *Organización y Gobierno de Centros Educativos*. Madrid, Rialp.

<sup>21</sup> OCISCAR, C.; URJA, M.E. (1986). Op.cit., 81 orr.; MUÑOZ SEDANO, A. (...) (1989). Op.cit., 36-40 orr.

eta adierazgarri nagusi; bigarreanean, berriz, Pestalozzi, Basedov eta Comenioren eskutik sortutako eskolenak.

b) *Iragapen-aroa* XIX. mendearen bukaeran sortzen da, “Eskola Berria”ren sorrerarekin batera. Eskola-erakuntzaren ahalegina Pedagogiak beste zientzia batzuetatik behar dituen laguntzak, –psikologia, biologia, antropologia, soziologia...– eskuratzean eta egituratzean datza.<sup>22</sup>

### 1.3.2 Enpresa-teorien ezarpena eskola-erakuntzaren eremuan: Zientzia-aroko ereduak

Oro har, onarturik dago 50. hamarkadatik aurrera erakuntza teoria ezberdinak eskolan aplikatzeagatik bereizten dela. Eskola enpresa-erakuntza teoretatik sorturiko joan-etorri guztien isla bihurtzen hasten da, eta bere antolamendurako zenbait “eredu” aplikatzen hasi ere.

Ondorioz, erakuntza-teoria egituratu duten ardatz printzipioak Eskola-erakuntzaren teoriarenak ere bihurtu dira eta dagokien eredu ordezkagarriak sortu dituzte<sup>23</sup>

- Eredu produktiboak.
- Gizazale ereduak.
- Eredu egituralak.
- Eredu politikoak.
- Eredu sistemikoak.
- Eredu kulturalak.

Eredu horien guztien arteko berezitasunaz jabetzeko, Muñoz Sedano eta Roman Perez-en liburuan datozen 25 eta 26. grafiko-eskemak ezagutzeari oso adierazgarria deritzogu, hots: “erakuntza-eredu ezberdinen oinarritzko aspektuak” bata eta “erakuntza-eredu ezberdinen dinamikotasun-aspektuak” jasotzen dituenak<sup>24</sup>.

---

<sup>22</sup> BALLESTEROS, A.; SAIZ, F. (1935). “Organización escolar”. Madrid, *Revista Española de Pedagogía*; HERNANDEZ RUIZ, S. (1954). *Organización Escolar*. Mexico Uteha; MORENO, J.M. (1978). Op.cit., 13 or.

<sup>23</sup> MUÑOZ SEDANO, A.; ROMAN PEREZ, M. (1989) Op.cit., 60-62 or. eta 65-226 or.

<sup>24</sup> Ibid., 118-119 or.

## 16. IRUDIA: Erakuntza-ereduen oinarrizko alderdiak

## EREDUAK

Oinarrizko alderdiak	Ekoiopenekoak	Gizazaleak	Egituralak	Politikoak	kulturalak	Sistemikoak
Teoria Adierazgarriak	Klasikoa eta neoklasikoa	Giza-harremanak	Estrukturalismoa	Kritika Marxista	kulturalismoa	Sistemen teoria orokorra
Antolaketa-ren kontzeptua	Ekoizpenerako Unitate Arrazionala	"status eta rolen gizarte sistema"	Funtzio eta organoen Egitura formala	Interes borroken alderdia	Esanahien multzo sinbolikoa	Sistema irekia
Eskolaren kontzeptua	Enpresa ekoizlea	Hezkuntza Komunitate Partehar-tzailea	Antolaketa formala	Eskola librea opresioaren Aurrean	Kultura sinboliko elkarbanatua	Eskola irekia
Gizakiaren Kontzeptua	Gizaki ekoizlea	Gizaki soziala	Gizaki antolatzailea	Gizaki politikoa	Gizaki kulturala	Gizaki Funtzionala
Lortu nahi diren emaitzak	Etekin gehien	Ongizatea eta Eraginkortasuna	Eraginkortasuna	bizikidetasuna	Komunika-zioa	Eraginkortasuna
Giroaren Aurreko egoera	Itxia	Itxia	Itxia	Ireakia	Ireakia	Ireakia
Autoreak	TAYLOR, FAYOL, GULIK, KOONTZ, MORATINOS, MUNICIO	MAYO, LEWIN, TANNEMBAU M, ARGYRIS, DEWEY, GARCIA HOZ, MORENO	WEBER, SELZNICK, ETZIONI, MERTON	GINTIS, eta BOWLES, ALINSKY, FERRER, FREINET, LOBROT	SAINSA ULIEV, DURKHEIM, FREIRE, MUNICIO	BERTALANFI, KANTZ eta KAHN, GOMEZ DACAL CISCAR eta URIA

Iturria: MUÑOZ, A.; ROMAN, M. (1989). Op. cit., 118 or.

17. IRUDIA: *Erakuntza-ereduen alderdi dinamikoak*

## EREDUAK

Alberdi dinamikoak	Ekoi-zpenekoak	Gizazaleak	Egiturelak	Politikoak	Kulturalak	Sistemikoak
Plangintza	Zuzendaritzak zehazten dituen beharrik	Partehartzeko bilerak	Helburuak bateratzeko estrategiak	Botere berrakarako alderdiak	Erantzukizunak finkatzeko errituala	Helburuak koordinatzeko estrategiak
Erabakiak hartzea	Agintearen prozesu arrazionala	Kompromisuari ireritako prozesua	Erabakitarako sekuentzia arrazionala	Boterea erabiltzeko aukera	Buruzagiaren alde egiteko errituala	Azpisistemaren inplazazioa
Berrantolaketa	Teknika berrien bidez	Beharrak orekatzea	Rolak eta ardurak birbanatzea	Boterea birbanatzea	Eraginkortasunaren irudia mantentzea	Ingiuruaren beharregatik
Ebaluazioa	Ekoi-zpenaren sarietarako	Hazkundera laguntzeko	Sariak eta zehapenak banatzeko	Boterea erabiltzeko	Erriual antolatua	Feedback sistema osorentzat
Galazken tratamendua	Agintepeko ezarpena	Harremanak areagotzea	Helburuak disziplinaz mantentzea	Negoziatu edo manipulatzeko	Amankomuneko baloreak garatzea	Azpisistemak berregokitzea
Komunikazioa	Aginduak besterengantzea	Beharrak elkartrukatzeko	Txostenen eta ekintzen besterengantzea	Manipulatu edo eragina izateko	Istoria eta Kondairak kontatzea	Sistema osoan besterengantzea
Bilerak	Gutxi erabakiak hartzeko	Bitokia	Erabakitzeko erabiltzeko lekua	Lehiatzeko lekua	Balorea baieztatzeko zeremonia	Sistema artikulatzeko
Motbazioa	Ekonomikoa	Autorealizazioa	Materiela	Koertzioa, sedukzioa	Sinbolikoa	Era askotakoa

Iturria: MUÑOZ, A.; ROMAN, M. (1989). Op. cit., 119 or.

### 1.3.3 Egungo eredu en joerak

Badira uste dutenak,<sup>25</sup> 1950etik-1980 arteko aroan zehar, batik bat, eskolaren eremuan zabaltzen hasi ziren erakuntza-eredu ezberdinek —emankorrek, gizazaleak, egiturak, politikoak, kulturalak eta sistemikoak— ez dutela eskaintzen ikastetxea erakuntza bezala mugatzeko behar bezalako teoria zehatzik, izan ere, enpresa erakuntzaren errealitatek egituratutako eredu hauek etsigarria ez den eran erabili izan direlako hezkuntza errealitatearen barne.

Guk ideia honi beste irakurketa bat egiten diogu; aurreko eredu guztien baliagarritasuna ez bada lortu, hezkuntza eta ikastetxe-eremuan; alde batetik, eredu horiek sortu diren gizarteetan, orokorrean izan duten arrakasta, beste batzuetan dela ez bezalako hezkuntza-egitura eta errealitate batean murgilduta zeudelako uste dugu<sup>26</sup> dela, eta bestetik berriz, aurrekoaren ondorio gisa, gizarte bakoitzean ikastetxe eredu eta hezkuntza mota inguruko filosofia eta kezkatik darion joera zein jarre-  
rak, enpresa teorietatik, ikastetxera igarotako erakuntza eredu en “egokitzapena” baldintzatu ohi delako, alegia.

Hezkuntzan eta honen izakundetzaren bilakaeran, beraz, enpresa-erakuntzaren teoriak bultzada eta aurrerapen nabarmena “eskaini diezaiokete” ikastetxe-erakuntzari eta ez dugu esan nahi “eskaini dutela”, zeren eta gure hezkuntza-ingurumenean bakarrik kokatzen bagara ere, hau da euskal hezkuntzaren egungo “egitura” eta “errealitate” barne, eskaintza horretatik oraindik ere oso “urrun” dabilzan ikastetxe asko daudelako, “protoerakuntzaren” garai en leudekelarik, hain zuzen ere. Eta euskal ikastetxeak bere gizarte-kondairarekin<sup>27</sup> bat

---

<sup>25</sup> LORENZO DELGADO, M.; SAENZ BARRIO, O. (1993). Op.cit., 20 or.; WEINERT, A.B. (1985). *Manual de Psicología de la Organización: la conducta humana en las organizaciones*. Barcelona, Herder, 126-127 orr.

<sup>26</sup> GARCIA GARRIDO, J.L. (1987). *Sistemas educativos de hoy: Alemania, Inglaterra, Francia, U.S.A., U.R.S.S., España*. Madrid, Dykinson; (1986b) *Problemas mundiales de la educación*. 2. arg. Madrid, Dykinson; (1986a) *Fundamentos de educación comparada*, 2. arg. Madrid, Dykinson; VEXLIARD, A. (1970). *Pedagogía comparada: métodos y problemas*. Buenos Aires, Kapelusz, 57-70 orr., 97-103 orr. eta 159-190 orr.

<sup>27</sup> Hots: euskal eskola publikoa, publiko-pribatu sareak, eredu linguistikoak, eremu linguistikoak, hezkuntza proiektu, zuzendaritzak, irakaslearen etengabeko egokitzapena, administrazioaren tokia eta eginkizunak, hezkuntza gatazka, komunikazio... e.a.

eginez ezin du jarraitu, berrogeita hamar urte hauetan zehar, zehazki hezkuntzaren eremuan, erakuntza-teoriek izan duten eraginaren ondorioak ezagutu eta menperatu gabe. Besteak beste, egun, gure hezkuntza inguruan aurkezten zaizkigun hainbat eta hainbat arazoren irtenbidea, hots: erakuntza teoriaren hazkunde eta kondaira aztertzetik topa ditzakegulako.

Horretaz gain, inoiz ez bezala, hezkuntza eta erakuntza-teoriak euren egituraketa eraikitzerakoan ezinbestekotzat jotzen dituzte bakoitzaren eremu erreala eta osoagoa eragiten duten ikuspegi zein gertaera formal eta ezformalak kontutan hartzea. Joera honen isla gizartearen beste eremuetan ere gertatzen ari da<sup>28</sup>: ekonomia, politika, kultura adierazpen-mota guztietan e.a., gainera, esango genuke giza taldeen bilakaera aztertzetik sortu den indarberritze baten inguruko joera dugula berau. Eta Saenz Barrio-ri<sup>29</sup> jarraituz, hezkuntza-ikastetxe erakuntza eremuan egun nagusitzen diren eredu berrien sorrera ere, gizartearen azterketa gizasikologikoen garaipenean kokatu behar ditugu:

a) ikastetxea “anarki antolatua” eredu. Ikuspegi eta eredu burokratikoak diotenaren aurkakoa da. Weick (1976), Meyer eta Rowan (1986) ikerlarien lanak gaineratutakoaren ildotik garatzen da, hots: eskola, erakuntza korapilatsu, aurpegi asko dituen eta aldi berean egitura xumea dela frogatu nahirik eginiko ikerketen ondorioz sorturiko eredu hau.<sup>30</sup>

b) Ikastetxea, “erakuntza izakundetua”<sup>31</sup> bezala. Eredu honek egin duen azterketa eskolaren egitura formala eta irakasketa jardukeraren

---

<sup>28</sup> MASCOLEL, A. (1992) “El fin del economicismo”. *EL PAIS* egunkaria, 92/4/29.

HUSEN, T. (1978). Op.cit., 203-205 orr.; KEMMIS, S. (1988). *El curriculum: más allá de la teoría de la reproducción*. Madrid, Morata. “Hacia el establecimiento del debate y de la teoría de la educación”, 137-155 orr.; OTEIZA, J. (1988). *Propósito experimental*. Bilbao, Museo de Bellas Artes de Bilbao. “Renovación de la estructura en el arte actual”, 5. atala, “El arte hoy, la ciudad y el hombre”, 14. atala; *Harvard DEUSTO Business Review*. Ediciones Deusto S.A (1993): a) GURCHARAN DAS “Piensa global y actúa local”, 3. zk., 76-85 orr.; b) CONGER, J.A. “El nuevo marco de la formación de líderes”, 4 zk., 56-66 orr.

<sup>29</sup> Ibid., (1993), 21-24 orr.

<sup>30</sup> GONZALEZ, M.T. (1987). “La escuela como organización: algunas imágenes metafóricas”. *Anales de la Pedagogía*, 5 zk., 27-44 orr.

<sup>31</sup> GARMENDIA, J.A. (1988). “La cultura de la empresa”. *Revista Española de Investigaciones Sociológicas*, 41 zk., 7-23 orr.; COLOM, A. (...) (1979a). *Lectura del*



artean azaltzen den desartikulazioan oinarritzen da. Ikastetxearen barnean gertatzen denak, eskola kultura deitzen denak alegia, hau da, erakuntzaren funtzionamenduari buruz dituen balio, uste, printzipio alegia ez du ikusirik eskola-egiturak bete behar dituen arau, eginbehar, agiri, txosten, azalpen..., e.a.-rekin. Ondorioz, ikastetxeak "kultura antolatua" edukitzea lortu behar du erakuntza orekatsu bat garatzekotan.

d) Ikastetxea "mikropolitika" eredu. Erakuntza guztiak botere eta kontrolaren arteko lehia dihardutela dio ikuspegi honek. Honi aurre egiteko mikropolitika-ereduak eskainiko duena zera da: interesatuen artean hitzarmenak bidetzea. Bestalde, ohiko zuzendaritza eta kudeaketa erakuntza teorien aurkako edo ezbezalako hautabidea eskaintzen digu eredu honek, hots: ikastetxe bakoitzak "bertako gertaerak" irakurtzeko erabiltzen dituen kultura eta kodeen berri emanez eta hauen garrantzia ezpimarratuz.<sup>32</sup>

e) Eredu ekologikoa. Zientzia askoren ikuspegiak hezur-mamitzeko balio izan dute ekologiaren ekarpenek oro har, eta paradigma honen ezaugarria, berriz, errealitate: urrun, gertu, naturazko giza eta gizarte edo kultura gertakari aurrean, elkarren arteko adierazpen bide zehatzak eskaintzen ahaleginduko da. Askoren ustetan, eredu hau, benetako eredu ezberdinen artean..., eredu osagarria bezala gaineratu den paradigma bilakatu da. Hezkuntzaren ikuspegitik eta egun ikastetxeak duen lekutik, eginkizun zein etorkizunari so jarririk, orain arte Eskola-erakuntza teorien barne sortu diren paradigma edo eredu guztien loturartekotasuna garatu duen eredu bezala agertzen zaigu.<sup>33</sup>

---


*discurso pedagógico actual*. Palma, Embat; DURKHEIM, E. (1976). *Educación como socialización*. Salamanca, Sígueme; BOURDIEU, P. & PASSERON, J.C. (1970). *La reproducción*. Paris: Minuit; ALTHUSSER, L. (1976). "Ideología y aparatos ideológicos del Estado", in GRAS, A. *Sociología de la educación*. Madrid, Narcea; FREIRE, P. (1975). *Acción cultural para la libertad*. Buenos Aires, Tierra Nueva; KAHN, J.S. (dir.). (1975) *El concepto de cultura: Textos fundamentales*. Barcelona, Anagrama.

<sup>32</sup> BALL, S.J. (1989). Op.cit., "Ortodoxia y alternativa" 19-43 orr.

<sup>33</sup> SAENZ BARRIO O. (1993). Op.cit.: LORENZO DELGADO, M. "La organización de la escuela como ecosistema social", 3.atala eta bertan agertzen den Bibliografi aberatsa; SANTOS GUERRA, M.A. (1990). *Hacer visible lo cotidiano*. Madrid, Akal; "Txepetx". (1987a). Op.cit., "El equilibrio ecolingüístico", 331-340 orr.; VAYER, P. & ... (1993). *Una ecología de la escuela: la dinámica de las estructuras materiales*. Barcelona, Paidós, I. atala: "La interacción" 13-47 orr.

Laburbilduz, II.zati honen 1. azpiatala ixteko garatu dugun guz-  
 tiaren azalpen grafikoa eskainiko dugu:

18. IRUDIA: *Eskola-erakuntza eredu en eremu epistemologikoa*



M. Jaione Apalategi (1994)

## 2. Euskal ikastetxea aztertzeko eskola-erakuntzaren eredu sistemikoa

### 2.1. *Ikuspegi sistemikoa*

Eskola-erakuntzaren inguruan hainbat eredu topatzen baditugu ere, guk jarraituko duguna oinarritzko hiru ibilbide ziurtatzeko aukeratu izan da:

1. Eredu honek eskola-erakuntzaren izate bihurria eta korapilatsua sailkatzen lagunduko digulako.

2. Eskola-erakuntza hurbiltasun fisikoz ezagutzen utziko digun eredu delako.

3. Eskola bakoitzari lagundu diezaiokelako burujabetasunez bide sendoa eraikitzen.

Ez dugu ikuspegi honen ezarpena buru-belarriz edo berak darman “erakuntza” eta “sistema” hitzen azterketa zehatz-mehatzegatik aukeratzen, baizik eta egungo euskal eskolaren eremua jorrazteko oso egokia topatzen dugulako. Beraz, ikuspegi sistemiko honen erabilera ez da irtenbide itxia. Bere bitartez EE-ren izateaz, hezurduraz eta mamiaz jabetzea nahi genuke:

–elementu eta osagaien funtzionamendua aztertuz;

–euren arteko erlazio eta mugak azpikatuz;

–azter urratsak zein metodologikoak eskainiz;<sup>34</sup>

–EE estatikoa, akulturala eta apolitikoa; guztien gainera “teknologia” botere hutsa bultzatzen duena, edo “teknologia” guztiak “kultura” mota edo kultura-nortasun zehatza dutela atzetik<sup>35</sup> dioena. Aurreko grafikoa kontutan harturik “aukera” berezi bat egitearen aldekoak gara: euskal eskolaren erakuntza-zientziak euskal ikastetxera hurbildu edo egokitu dezakeen enpresa-erakuntza ikuspegitik sorturiko eredu sistemikoa oso baliogarria ikusten dugu; baina egungo azterketa bai ikuspegi erakuntza zein botere eta eredu kosmoikuspegiarekin tartekatuz.

---

<sup>34</sup> COHEN, L; MANION, L. (1990). *Métodos de investigación educativo*. “Triangulación”. 331-351 orr.

<sup>35</sup> WEINERT, A.B. (1985). Op.cit., 72-128 orr.; Harvard Deusto (1993). 3 zk., Op.cit., TAYLOR “Tecnología y cultura: entrevista con Nicolas Hayek, el titán de Swatch”, 92-103 orr.

Arrazoiak:

Gure gizartearen eta egoera orokorrean, eta hezkuntzarena bereziki, berea ez duen giza sozio-psikologi ikuspegitik bizirauten duelako eta bere "naturazko" izateari dagokion "egoera" berri bat antolatzeko ezaugarri duen kultura, teknologikoki bihur beharrean dagoelako.

Ahalegin nahasi bezain erakargarria eta bide ziur bezain zuhur honen bitartez, euskal hezkuntzak eta ikastetxeak EE-ren kontzientzia eta jabekuntza-maila trinkoa jasotzea eskatzen dute:

- bere osagai guztien funtzionamendua aztertuz;
- euren arteko erlazio eta mugak azpimarratuz;
- eskola baten hutsuneak atzemanaz;
- hezkuntza aldaketarako prest egoten erakutsiz,
- (...) e.a.

Ikastetxea gizarteak sorturiko hezkuntza erakundea dugu. Eskola-erakuntzak suposatzen du gizartearen arlo edo zati batez hitz egitea. Zentzu zabalenean, esan dezakegu erakuntz ezagumenduak sortuak izan direla gaurko gizartearen gorabeherak ezagutzeko, aztertzeko eta bide batez kontrolatzeko.

Bestaldetik, ikuspegi sistemikoa langungarri izango dugu Euskal Herriaren giza-hezkuntza hobeto ezagutzeko eta lantzeko, arazo horien irtenbideek behar duten ezaguera-iturriak bilatzeko eta gure hezkuntza helburu zein helmuga osatzeko. Honen ildotik, ikastetxe bat sistema<sup>36</sup> bezala uler dezakegu, hau da: elkarren zerikusiak eta zereginak ekintza osoa bideratzen duten osakin bereiztuen multzo antolatua bezala. Ikastetxeak sistema baten oinarrizko ezaugarriak adieraziko dizkigu:

1. OSOTASUNA: osagai baten aldaketak, besteen aldaketa suposatzen du.
2. DINAMISMOA: kanpora zein barnera begiratuz eta ikastetxeak egitura funtzionala osatuz eta ekintza mota-bidea suposatzen du.
3. EGONKORTASUNA: aldaketak onartu ondoren, bere dinamika egonkortzea bilatzen du.
4. MALGUTASUNA: alderazketa darama bere gain.
5. XEDETASUNA: helmuga duen asmoa dugu.
6. FEEDBACK: ikastetxearen joanean eta ondorioetan autokontrola.

---


<sup>36</sup> TECNOLOGIA DE LA EDUCACION. (1991). Op.cit., 480 or.

Erakuntza-teorikoak dioenez, eskola sistema eta erakuntza berezitasunez osaturik agertzen zaigu.

Gure lanaren lehen ataleko lehenengo zatia EE-ren berri emateko erabili dugu: zer den, nola sortu den, zenbat erataria ulertzen den, zeintzuk diren teoria ezagunenak eta zein, hauen oinarriak eta bideratzen dituzten ezagumenduak...; orain, bigarren atal honen bidez, aukeratu dugun EE sistemikoaren berri eman eta bere ezaugarriak ezagutzeaz gain, euskal ikastetxearen izatea aztertzeko nola erabil dezakegun azalduko dugu.

Teoriatik sorturiko EE eredu sistemikoaren joerarentzat, sistema da erakuntza, suprasistema inguruneko hiru aldagai eta sistema barneko lau azpisistemen arteko elkarekintzaren eraginpean, helmuga eta helburu zehatzak osatzen duen errealitatearen zatia.<sup>37</sup> Diogunaren adierazbidetzat irudi grafiko bat erabiliko dugu, ondoren, atal bakoitzaren azalpena garatuko dugularik:

19. IRUDIA: *Eskola-erakuntzaren eredu sistemikoa*



M. Jaione Apalategi (1994)

<sup>37</sup> PORCEL, A. (1987), Op.cit., in BUENO ABAD, J.R., 58 or.

## 2.2. Helburuak eta helmugak

Erakuntza sistemikoaren ikuspegia erabiltzen badugu, ikastetxeak berezko berezitasunak adierazteko dituen "helburu eta helmugak"<sup>38</sup> agertuko zaizkigu.

Ikastetxeak hezkuntzaren bidez egin nahi duenaren ardura helburretan datza; azken baitan, bere garapena komunikapenaren eta ekin-tzaren arteko zentzua azaltzean dagoelarik. Betiere, gaur egun ulertu beharko genukeen "komunikazio berriaren"<sup>39</sup> ildotik, hain zuzen ere. Orain arteko zentzuan ulertzen zen komunikazioaren eta bi pertsonen bidez joan-etorriko mezua tartekatzea desagertu egin baita edo, zeharo aldatu behinik bein. Dagoeneko, komunikazioa bera kultura-sistema bezala ulertzen da, mutur batetik besterako kausalitatean ez baina, boro-obilean hedatu eta osatzen joaten delarik, non banakoa hor barnean kokaturik agertzen zaigun.

Maila honetan ikastetxea aztertzeo garatu nahi dugun erakuntza sistemiko ereduarekin bat dator "komunikazio berri" horren atzetik izkutatzen den filosofia: kultura, sistema bezala ulertzea, alegia.

Ikastetxe bateko helmugak, berriz, bereizten dira bertan eskainiko den hezkuntzak lortu nahi dituen ondorioak zehazteagatik, eta, ikastetxeak erakuntza inguruarekin nahitaez diharduenez,<sup>40</sup> bere barne sistemako azpisistemak modu batera ala bestera antolatzeak eragin zuzena izango du helmugetan.

Ikastetxe batek dituen helburuek eta helmugek gutxienez bi irakurketa egitera eraman gaitzakete:

1. ikastetxearen erakuntza inguruan diharduen "hezkuntza bostereak" hots, gizatalde baten hezkuntza-lege nagusien araugile eta ordezkari arduradunen eremua, non egituratutako hezkuntza helmuga-helburuak HH betearazten dituztenak, eta bestetik

2. ezaugarri bereziko HH-k garatzen saiatzen diren ikastetxeak. Baina, HH arteko lotura eta izatearen arrazoiak jabetzeko diogunaz gain, beste erabateko bereizketaz ere arduratu beharko gara:

---

<sup>38</sup> RIBOLZI, L. (1988). Op.cit., 71 or.

<sup>39</sup> BATESON, G. (1984). *La nueva comunicación*. Barcelona: Kairós. "Conexiones y aberturas: hacia una ciencia de la comunicación" 107-113 orr.; MATTELART, A. (1993). "El libro debe de entrar en la cultura del entretenimiento ...", *EL MUNDO* egunkaria, 93/2/3.

<sup>40</sup> RIBOLZI, L. (1988). Op.cit., 1. Atala, 21-63 orr. eta 2.Atala, 67-93 orr.

2.1 Ikastetxe “ereduaz” hots: izate ezberdinak antolatu nahirik egituratzen diren HH-k, eta orokorrean pribatu-publiko (jabego-herri eskola) bereizketaren barnean kokaturik ezagutzen ditugunak,

2.2 Ikastetxe “hezkuntza-motaz” hots: eskaintza ezberdinak antolatzeko egituratu behar diren HH multzo zehatzak egokitzeko ahaleginetan ibiltzen direnak genituzke: erlijiotarra, laikoa, esperimentalak, hizkuntza trebekuntzan oinarriturikoak, kulturantza aldekoak... Aukera hauek, berez, jabego zein herri eskola-ereduetan eman daitezke, gure hezkuntza ingurunean halakorik ematen ez bada ere.

Aldiz, euskal lurraldean diharduen hezkuntza-uste orokorraren eraginez, lehenengo ikastetxeetako HH jokaera “herri-eskola edo eskola publiko” bezala ezagutzen direnetan emango litzateke, eta bigarrenak berriz, “jabego-eskola edo eskola pribatu” deitzen direnetan.

Beraz, lehenengo atal nagusian genioen bezala, ikastetxearen HH-en arazoa ez da soilik ematen “jabego” edo “herri” eskola sareen arteko bereizketagatik, baizik eta gizatalde eta horren gizarte-ereduen zein egitasmoen ondotik dagoen hezkuntza printzipio eta usteen inguruko arazoa izaten dela. Alde batetik, gizarte orekatu eta osasuntsuetan hezkuntza-asmo baten hedapena garatzeko behar den babesa eta askatasuna izan arren, topatzen dituzten zailtasunak beste arlo eta errealtate motetatik datozkie; adibidez, ustez, hezkuntza-asmo batzuk ontzat eman arren, aurrera eramateko behar adina azpiegitura, baliabide, kultura, prestaketa... ez edukitzeagatik alegia.

Baina, berez hezkuntza-asmoen hedapena EE bakoitzaren esku utzi behar litzatekeenaren aldekoak gara, aldioro, gardenak eta komunikagarriak diren ebaluaketa eta giza botere, jakitun zein hezkuntza-elkartearen iritzia kontutan hartuz.

Edozein hezkuntza-boterek edo administrazio-motak dihardue-larik ere, benetako hezkuntza birmoldaketak aurrera eramateko:

1. gizarte berak hezkuntza-egitasmo garbia eduki beharko du;<sup>41</sup>

2. hezkuntza-edukien eta metodologiaren aldaketa sakon zein berrikuntza trebe bat bermatzeko, ikastetxe-ereduaren zein hezkuntza-motaren arteko bereguneraketari ekin; eta

3. honek guztiak, berriz, ikastetxe guztien berregiturarako eta berrantolaketarako filosofia berri edo egokitua eskatzen du.

Bestalde eta oraingoz, bigarren zati honen lehenengo azpiatalean genionari jarraituz, ez dugu ahaztu behar Espainiako eta Frantziako

---

<sup>41</sup> CERAP (1989). Op.cit., 28-42 orr.



estatuetakoa hezkuntza-administrazioen egituren teorien jatorria eta anglosaxoienak ezberdinak direla eta, ondorioz, hezkuntza HH, eredu, mota (...), zein beste edozein hezkuntza-gairen aurrean erabiltzen dituzten "printzipio, teoria eta uste"ekiko oreka, jokaera eta taxuketa ere bereziak direla.

Ondorioz, begi bistakoa da oraingoz bere benetako izatean antolatu ez den euskal gizarteak (...) zer nolako zailtasun eta nahasterekin topo egiten duen, gaurkoz, bertatik sortu den hezkuntza-egitura bakarria den "ikastola"<sup>42</sup> errealitateaz mintzatu edo eta berregokitu nahian hasten denean, (...). Baina egoera hau gainditu eta gure izatearekin bat datorren hezkuntza-egoera berri bat antolatzeko, zein gure ingurua osatzen duten beste gizarte adinako hezkuntza-egituraz arduratzeko ez da nahiko egun, hezkuntza-administrazio ezberdinetatik<sup>43</sup> aurkeztu eta eskaintzen zaizkigun hezkuntza-irtenbide edo aukeraz erabakiak hartzea, ez horixe, baizik eta euskal hezkuntzaren errealitatea osatzen dutenek gure printzipio, lege eta sinismenek eskatzen duten oreka eta egoera egokitzeko ezinbesteko gogoetei heldu eta gizarte orokor zein hezkuntza- botere mailara bideratu beharko ditu, hots:

1. Oro har "hezkuntza" eta batik bat "euskal hezkuntza".

2. Ikastetxe zein hezkuntza-ereduen inguruko jatorria ezagutu eta bere egokitzapenez jabetu, gero Euskal Herrian dihar ditugunaz arduratu eta guztiak (publiko-pribatu) inplikaturaz euskal hezkuntzak eta irakaskuntzak bere hedapena zein garapena bermatzeko behar dituzten azpi-gain egituren bernorabide eta berantolaketa ugariak, sakonak, irekiak, sendoak, iraunkor bezain eraginkorrak... proposatu.

3. Honetarako ikastolek eraiki duten errealitatea, euren historia-ren esperientzia, berrikuntza, profesionalitatea, ekimena, egitasmo eta abar luzea nahitaez kontutan hartu beharko da, edo hobeto esan hauek izango dira Euskal Herriko hezkuntza-egoera berri bat sortzeko zioa.

---

<sup>42</sup> PUELLES, A. (1993). "Mas de treinta años de historia de un movimiento popular". *EGIN* egunkaria 93/5/26, 3 or.

<sup>43</sup> Euskal Elkarte Autonomoa-EEA, GOROSPE, P. (1993). "Miles de padres vascos comienzan el debate para elegir la escuela pública y el modelo privado". *EL PAIS* egunkaria, 93/5/16, 32 or.; Nafarroako Elkarte Autonomoan, BARCOS, J. (1993). "Entrevista a J. MARCOTEGUI, Consejero de Educación y Cultura: La ley del vascuence no satisface algunas aspiraciones, pero no lesiona derechos". *ALDIZKARIA* aldizkaria. Nafarroa. 3 zk., 28-30 orr. Pirineo Atlantikoetako Kontseilu Nagusiko Lehendakaria eta F. Bayrou, Komenioa: (1993). "Seaska ere, publikoaren eta pribatuaren arteko aukeran". *IKASTOLA* aldizkaria, 26 zk. 8-9 orr.




Guk jakin behar duguna da ikastetxearen HH arazo ardura, gizarte-egituren arabera aldatzen dela, eta gaurkoz, euskal ikastetxearen ikuspegitik aztertuz eta bizi dugun gizarte zein hezkuntza-egituren egoera ikusirik, ikastetxe-eredu guztiei bere HH-k askatasun osoz egokitzen lagundu eta bultzatu behar zaiela, gero hauek aurrera eramateko garaian beste politika batzuen ardurapea eskatuko badute ere. Eta honetarako Euskal Herrian hezkuntza-oreka eta giza aurrerapena baita hezkuntza zein hizkuntza-politika berriak ere behar ditugu.

Zehatz mehatz ikastetxearen hezkuntza-erakuntza baldintza kulturaren barne legoke HH azpisistema eta bere garapenerako, bestalde, hezkuntza eta hizkuntzaren arteko partaidetasunaren izatea eta egokitzapena ezinbestekoa da. Hau, berriz, gure ustez, eskolak gizartean eta gizarteak eskolan dituzten eginkizun eta betebeharrak inguruko hausnarketa egitekin uler daiteke.


Azkenik, esan, ikastetxearen HH-k idazteko eta diogun guztia kontutan hartu ahal izateko, oro har, Eskola-erakuntzaren teoria eta zehazkiago EE sistemikoaren jatorria, izatea eta jabetza menperatzeak ustezko eta gogoko diren HH aukerak egiaztatzen lagunduko digula. Jarraian, dioguna grafikoki azaltzeaz gain dagozkion edukiak esku-ratzen saiatuko gara hurrengo bi azpiatalen bidez:

20. IRUDIA: *Eskola-erakuntzaren helburu eta helmuguen irudi simbolikoa*



M. Jaione Apalategi (1994)

21. IRUDIA: *Estola-erakuntzaren teoria eta bilakaera*



M. Jaione Apalategi (1994)

2.2.1. *Ikastetxe erakuntza sistemikoaren helburuak*

Ikastetxe batek lau motako helburuak bereiziko ditu, hots: erakuntza inguruan diharduen aldagai bereziko gurasoentzat; azpistema psikosozialari zuzenduak; ikastetxeko bizikidetasun arlokoak eta azpistema teknikoko ikasle eta irakasleei dagozkienak. Banan banan ikusiko ditugu:

1. *Ikastetxea eta azpistema tekniko.*

Ikasle eta irakasleei bideratutako helburuak agertuko dira bertan.

1.1 *Ikasleari zuzendutako helburuak.*

Ikasketen errealitatea osatzen duten hiru eremu eta bakoitzak ukitzen dituen arlo ezberdinetan topatuko dira: edukien ezagutza, motibapena eta erabilerarenak hain zuzen ere.

### 1.1.1 Eduki ezagutza:

a) Ohitura eta teknikaren multzoa: irakasketa, ikasketa: lanak; balorapenak; nor bere buruarekiko ezagutza, jabetza eta menperaketa; finkotasuna. (...)

b) Natura, gizarte, kultura arloa.

(...)

d) Ahalmen gaitasunak: irudimena, behaketa, aztergaitasunak, hausnarketa, islapena eta erabakitze gaitasunak.

e) Sentikortasun estetikoa, musikala eta dantzarena.

### 1.1.2 Motibapen-balioak:

a) alde batetik, hezkuntza-erakuntza baten errealitate kulturala, soziala eta politikoaren balioa eta, bestetik, balio unibertsalak eta zehatzak islatuko dituzten helburuak ipini.

b) – Jarrerak:

– arauak;

– irizpideak;

– kosmoikuspegia eta

– egoera afektiboek dagokien arloak bereiztuz.

### 1.1.3 Erabilera

a) Norberarentzat egokituriko ezagutza-maila orokorra:

– ahalmen gaitasuna eta

– adierazpide estetikoa zein artistikoa.

b) Besteenganako komunikatzeko gaitasuna heziko dituzten helburu-arloak:<sup>44</sup>

– Ingurune erregulatuak aginte-mailako hartuemanek dagokione. Hemen haurrak moral arloa atzeman eta bere ondokoekin erabiliz jabetasun-maila bat lor dezake.

– Haurra, erabil tresna batzuen menperatuz, ikasketa inguruneko gauzen izaeraz jabetu.

– Irudimen edo berrikuntza ingurunean: haurra mundua esperimentatu eta bertsioak saiatzeko eskaintzak prestatu.

Pertsonarteko inguruak: haurra ondokoaren egoera hunkikorrekin konzientea izan behar da.

d) Inguru zabalarekiko: beste irudi, natura eta gizarte buruzko helburuak.

---

<sup>44</sup> BERNSTEIN, B. (1988). *Clases, códigos y control*. Tomo I. Madrid, Akal Universitaria, 3. arg., 202 or.

- e) Zientzi-Teknika arloak eta helburuak:
  - Bereiztasunak: objetibitatea eta subjektibitate bereiztu eta atzematen ikasi.
  - Teknikaren jatorria eta aplikapena gehi erabilera uztartu.
- 1.2 Eskola-erakuntza sistemikoaren helburuak irakasleekiko.<sup>45</sup>
  - 1.2.1 Hezkuntza errealitatea lurraldetasun zentzutik barneratzea, hiri, herri, aberri, auzo, ... e.a. ikuspegiak bereiztuz.
  - 1.2.2 Norberaren jakin-mina eta kezka inguruko helburuak.
  - 1.2.3 Ikaslearen kultura versus irakaslearen kultura eta alderantzizkoak landu:
    - a) Lan eguratsa, berdinen arteko elkar hizketa bermatzeko helburu motak.
      - Konfiantza eta begikotasuna.
      - Ulerkuntza eta ikusmira zabala.
      - Onespena eta prestigioa
      - Lehia kutsu gabeko elkar hartu-eman.
      - Komunikapen ubideak eraiki.
      - Hezkuntza asmoak eta elkarrekintza.
    - b) Etengabeko prestaketa, hots:
      - Ikerketa/berrikuntza
      - Sail antolaketa
      - Argitalpenak
      - Saio bereziak eta irtenaldiak e.a.
- 2. *Ikastetxea eta azpi-sistema psikosoziala: bizikidetasuna*
  - 2.1 Bizikidetasun ekintza motak
    - a) Ikastetxean bertan:
      - Elkar ezagutu
      - Agurrak eta solasak
      - Taldeak eta elkarteak
      - Lehiaketak
      - Atsedean uneak, e.a.

---

<sup>45</sup> PERROW, Ch. (1991). *Sociología de las organizaciones*. Madrid, MC GRAW-HILL/interamericana, 1. arg. "El poder en el análisis de las organizaciones ...", 316-342 orr.; FERRERES PAVIA, J.S. (1992). "La cultura profesional de los docentes: desarrollo profesional y cultura colaborativa. "Actas II CONGRESO INTERUNIVERSITARIO DE ORGANIZACION ESCOLAR: Cultura escolar, desarrollo organizativo. Sevilla, Universidad de Sevilla. 3-39 orr., WEINERT, A.B. (1985). Op.cit.; PEIRO, J.M. (1991), Op.cit., I eta II tomoak.

b) Ikastetxetik kanpo:

Udalekuak

Kultura arloko irteerak

Txangoak, e.a.

2.2 Ikasketa uneko bizikidetasun jarduerarako helburu motak

Ekintza

–arruntak,

–gehigarriak,

–bereziak eta

–bereiztuak.

2.3 Ikasketa garaiko zein ondorengo bizikidetasun ekintzarako bideak:

–Ikasle, guraso, irakasle eta babesle, elkarrekin zein antzinako elkarrekin mota ezberdinak antolatuz.

3. *Ikastetxea eta erakuntza inguruko aldagai berezia: gurasoei zuzenduriko helburuak*

3.1 Hezkuntza egitura arloko helburuak

3.1.1 Azaldu

a) psikologia,

b) biologia,

d) joera eta eragingarritasunaren arteko zerikusiak,

e) ikastetxeko ekintza asmoak,

f) barne kudeaketa,

g) administrazio egokitzapena eta jarduketak

3.1.2 Adierazpen urratsak egokitu:

–senitarteko ukipena bideratu,

–ikastetxeko topaketak prestatu/zuzendu,

–hartu-emanak eskaini eta jasotzeko ere prest azaldu, e.a.

3.1.3 Bizkortu-Sakondu

–Parte hartzea eta elkarrekintza.

–Ikastetxera hurbiltzeko erraztasunak eman.

–Lan saioetara hurbilketa norabidetu.

–Eskolaren komunikapen sarean parte hartu eta elkartu.

Helburuak, oro har, ikastetxearen errealitate ugariari ezartzen zaizkien aipamen orokorrak direla esan dezakegu<sup>46</sup>, bere ardura nagusia

---

<sup>46</sup> VON CUBE, F. (1981). *La ciencia de la educación: Posibilidades, abuso político, límites*. Barcelona, Ceac, 59-60 orr.

ikastetxeko bizikide guztien hobekuntza areagotzea delarik. Beraz, bizikide guztiak, eurekiko aukeratu diren helburu guztiak, logiko eta enpirikoki froga daitezke, egiazko ala hutsak bezala suertatzen direnak bereiztuz.

### 2.2.2. Ikastetxe erakuntza sistemikoaren helmugak

Helburuak-objetiboak-helmugak aldez, erabateko subjektiboak ditugu, beraz ez orokorrak ez eta frogagarriak, beti banako eta talde/erakunde edo erakunde zehatz bati loturik agertzen zaizkigularik.

Helmugak, aipamen subjektibo bereziak ditugu. Beti etorkizunari begira daude eta dagoen edo diharduenaz gain, bideratzen diren eske edo nahiak ere izaten dira.

Ikastetxe batera hurbilduz, helmugak, hezkuntza-asmoak-IHA<sup>47</sup> deituriko agirian barna azaltzen dira. Honelako asmoak idazteak zenbait galderari erantzutea dakar berekin:

1. Banakoari buruzko usteak, nolako gizon-emakumea hezi nahi dugu?<sup>48</sup>

2. Irakaskuntzari buruzko usteak.

3. Hezkuntzari buruzko usteak.

4. Hezkuntza eta kultura inguruko usteak.

–Erakuntza ikastetxearen kultura.

–Inguruaren kultura

–Giza politika hezkuntzan eta inguruko giza politikaren egoera.

5. Hezkuntza eta moralak.

6. Hezkuntza adierazpen arloak:

–Estetikoa: artea, musika, dantza.

–Kirola.

7. Hezkuntza etengabeko ekintza.

Helmugez aritzea, IHA-z aritzeA da, eta berori, ikastetxe eredu, hezkuntza-mota eta gizarte eredu ustearen arabera da.

Badira, eskola-ereduen alde eta aurka agertzen direnez gain, IHA-ren hezkuntza-mota –eta beraz, ikastetxearen helmugen izatea–, erlijio edo moral arloko hezkuntza bideratzen duten ikastetxeen auzia bakarrik dela uste dutenak ere bai, ala ez izan arren noski, zeren eta ez baitago

---

<sup>47</sup> Gure I. zatian.

<sup>48</sup> OTEIZA, J. Op.cit., (1972).

herri zein jabegodun ikastetxe eredurik helmuga gabekorik. Ikastetxe erakuntzen helmugak ezberdinak eta ugariak izan daitezke; baina erakuntza kultura baten barnean diharduten helmugak ezin dira ordezkatzen duten giza taldearen hezkuntza-asmoekiko aurkakoak izan. Eta hau da askotan Euskal Herrian, beste gizarte batzuetan bezala, gertatzen dena. Okerreko norabide horretatik aldentzeko, euskal gizartearen alde lan egiten duten orok eta euskal hezkuntzaren inguruan dabilzanek zehazki bereiztu eta bideratu behar duten lana hauxe da:

1. Ikastola, Euskal Herriak sortu ahal izan duen ikastetxea dela, baina ez dela bukatutako eredu bat, (...) bertan, hezkuntza eta ikastetxe erakuntza ereduak era askotara edo ezberdinetara ulertzen dituztenek osatzen duten errealitatea, beraz delako,

2. Ikastola ikastetxeetan, islatzen diren helmugak, modu askotakoak direla, eta euskal hezkuntza eta hizkuntzaren garapena, mundu zabaleko hezkuntza eta beste hizkuntzen aurrerapen ildoak jarraiturik baina, bertakoa kolokan edo gutxietsia ez geratzeko, gure gizarteak nahi, uste eta aldarrikatu adina ikastetxe eredu antolatzeko ahaleginak egin beharko direla.

3. Era berean, jakin behar dugu eskola-eredu arteko bereizketa, zenbait giza arloren ikuspegi ezberdinek, hezkuntzaren funtsa eta hezurdura bihurtzetik sortzen direla, hots:

–hezkuntza-teoria bat ala beste erabiltzetik,

–beste leku edo herri batean garatutako esperientzia martxan jartzetik,

–gizarteak babestu eta ikerlari zein elkarte baten uste ezberdinetan oinarrituriko hezkuntza antolatzen duten ikastetxeak:

. Teknologi garaikidean oinarriturik,

. hizkuntzen balio uste ingurunetik,

. erlijio ikuspegitik;

. laikoak;

. kultura, guztiaren ardatz hartzen dutenak;

. formarik gabeko hezkuntza, hezkuntza formalaren zati izaten ahalegintzen diren ikastetxeak;

. hezkuntza, edukietan ardaztuko dutenak;

. motibazioa, hezkuntza eta heziketaren funtsa bezala erabiltzen dutenak;

. hezkuntza, lan munduari begiraturaz, eskaini eta prestatzen duten ikastetxeak;

. prestaketa orokorra edo eta zehatza, hezkuntzaren funtsezko arduraz bezala harturik, antolatuko direnak;

. (...) e.a.

4. Ahalbidetu daitezkeen eskola-eredu eta mota guztiak, gure gizartetik abiatu beharko lirateke, horretarako behar diren egitura eta aholkularitza teknikoen beharra gaitzetsi gabe.

Bukatzeko, laburbilduz esan dezakegu, ikastetxe batek, EE sistematikoren ikuspegitik bere helburu-helmugaren azterketa egiteko, kontutan hartu beharko dituen azpi-sistemak lau direla:

- egiturazkoa,
- teknikoa,
- psiko-soziala eta
- administratiboa,

derrigorrezko eta jakineko zenbait arlo aztertzea suposatzen dutelarik:

1. Hezkuntza asmoak.
2. Bitartekoen eraginkortasuna.
3. Beste aberri batzuetako hezkuntza-sistemak.
4. Balioen garrantzia, esanahia eta aukera.
5. Hezkuntza egitasmoa.
6. Eskolaren eginkizunak gizartean, oro har, eta zehazki.

Honetarako aztertu beharreko "funtsezko" gaiak hauek lirateke:

- eskola gizartearen birsortzaile bezala,
- eskola giza aldaketa eta berritzaile bezala,
- eskola askatasun harrobi eta nor bere buruaren eraiki leku ezin hobea, eta
- eskola porrota eta bere eragina banakoarengan zein gizartean.

### ***2.3. Ikastetxearen erakuntza barnea: azpi-sistemak***

#### **2.3.1. Egiturazko azpi-sistema**

Ikastetxearen antolaketa formalez arduratzen da azpi-sistema hau. Bere "helmuga", eskola-erakuntzaren barnean, hezkuntza-partaide diren guztien osaketa bilatzea da: zuzendaritza eta azterkaritza antolaketa (zuzendari, zuzendaritza taldea, irakasle-zuzendaria, teknikari, orientatzaile, psikologo, ...); irakasleriaren sail antolaketa (sail bakoitzaren arduraduna, arloko koordinatzailea ...); ikasgelen egitura egoikiak, hezkuntza-prozesua lanak burutu ahal izateko irakasle/ikasleen



arteko lokarri erak (ikasleen eraketa, ikasle eta irakasleen arteko topaleku, ikasburu, tutore, ...).

Egiturazko azpi-sistemaren “helburu” orokorrak honako hauek lirateke:

1. Ikastetxe bati –herri edo eskola publikoa zein jabego eskola edo pribatua izan– legokiokkeen hezkuntza-motari egitura egokiena topatzea, hots: nortasun juridiko, elkarte mota, hezkuntza-egitasmoaren araberrako banaketa ... e.a.

2. Hezkuntza elkarte guztiarentzako egitura atsegina bilatzea (irakasle, ikasle, guraso, teknikari, ...).

3. Partaide diren guztiei ikastetxeko egitura ezagutaraztea.

4. Edozein motatako egitura antolatua izanik ere, hartu-eman ireki eta gardenak garatzea.

5. Erakuntza formalean dauden beste erakuntza informal guztiak atzematea.

6. Eskolari dagokion neurrian, aukeratutako egiturari hierarkia eta sistemaren kontzeptuak eranstea eta erabiltzea.

7. Eskolaren funtzio banaketa, guztien partaidetasuna kontutan harturik egitea, betebeharrak zehatzen berezitasunak aurkeztuz.

8. Eskolako antolamendu arlo bakoitzari, ahalik eta autonomia gehien eskaini, kudeaketa zein erabaki hartze unetan.

9. Atal edo arlo ezberdinen artean, hartu-eman eta irizpideak garatzeko malgutasuna nagusitzea.

10. Eskola lankide guztiak behar bezala ordezkatzeko, organigrama baten bidez.

Euskal ikastetxearen eremuan azpi-sistema honen azterketa egite-rakoan, benetan kolokan agertzen zaigun arloaren helmuga eta helbu-ruak zuzendaritzarenak direla esango genuke. Ikastolek hogeita hamar urtean jasan dituzten hazkunde, gorpuzketa eta abiadurak ikusita, gaur egun, orokorrean egitura osoaren berrikuspenera eskatzen du, baina batik bat zuzendaritza eta azterkaritza<sup>49</sup> arloena. Arrazoiak asko dira. Hona hemen batzuk:

1. Ikastolak, erakuntza teoria erabiliz noski, gure gizartean “ofi-zialki” diharduen hezkuntza-saretik kanpo edo babes berezi baten in-guruan garatzen dira; beraz begi bistakoa da, ikastolek osatzen dituzten

---

<sup>49</sup> Ikus gure Aurrebaldintzak atala.

elkartetarik kanpo (guraso-ikasle-irakasle-teknikari-aholkulari-ikastolen elkarte ...) behar baino laguntza gutxiago jasotzen dutela.

2. Ikastolak ez dira bene-benetan gizarte mailan osatu, hau da, edozein ikastetxeri erakuntza inguruarekiko behar duen onespen eta prestigioa ez da erabat hedatu, oztopo nagusia aldagai burokratikoan dagoelarik, hain zuzen ere.

3. Zenbat eta barne egitura eta antolaketa sendoagoa eduki, orduan eta erakuntza inguruko aldagaien aurrean, indar gehiago izango dute. Beti ere, bere barne "mezua" arretaz hartu eta garatzekotan.

4. Aurrekoaren ondorioz ere, kalitatezko hezkuntza-eskaintza ematen jarraitu ahalko du.

5. Ikastolak, erakunde eztabaidagarri bezala agertzen dira beti, ... gehienetan ordea, ez euren hezkuntza-egitasmo edo hezkuntza-elkarteak eskatzen duten eran, ... baizik eta gizarte politika inguru zein aldagai burokratikoaren interesen eraginagatik, hain zuzen ere. Arrazoi horrek ere ikastolaren ordezkapen sendoak eskatzen ditu.

6. Zuzendaritza eta azterkaritzaren egokitzapenak eskola-erakuntzaren oreka eta eraginkortasuna esan nahi du.

7. Gainera, azterkaritzaren eremuak eginkizun bereziak ditu ikastetxe erakuntza baten barnean, eta beste edozein lan arlotako arduradunenak bezala, ordezkazekin.

8. Egun, ikastolen inguruan dabilzan eztabaida askotariko eta ugariak zuzendaritzaren beharra areagotu besterik ez dute egiten.

9. Zuzendari lanak, beste edozeinenak bezalaxe (irakasle, aholkulari, pedagogo zein psikologo ...), prestaketa berezi bat eskatzen du. Egia esan, guztiak dira beharrekoak ikastetxe batek aukeratu edo eskuartean duen hezkuntza teoria bat osatzeko eta irakaskuntza ikaskuntzaren joan-etorria garatzeko, baina denek eta bakoitzak hauxe eduki behar dute oso garbi: norberaren eta beste kideen lau esparruren eduki, helburu eta helmugak, hain zuzen ere.

Ikastolek orain arte urratu duten ibilbide latzean zehar agertu duten auto-erakuntza eta hezkuntza-ardura zein hizkuntzaren egokitzapen beharrari bota dioten aupada, ... ezin da amildegi edo lehenagoko kezka itxurapean bazterturik geratu ahal, eta horri aurre egiteko, ezinbestekoa da zuzendaritza atalaren egituraketa sakonaren aldeko apustua egitea. Horretarako dugun lau tresna, Eskola-erakuntza zientzia bera da.

Aldez, ikastoletako irakasleria eta ikasle antolaketa eredugarria izan dela aldarrika dezakegu: hartu-eman irekia; etengabeko komu-

nikapena; neska-mutikoen hezkidetzaz; haurraren oinarrituriko hezkuntza-egitarauak; nesken zein mutikoen berdintasun printzipioa, lan eta jolas hezgarrien garapena, irakaskuntza gidatu eta norabide-tua; irakasleria kezkatu eta etengabeko prestaketan zein eguneratzean nekaezina; hezkuntza-aldaketa eta berrikuntzari beti adi; hizkuntza gatazkaren oreka topa nahian aitzindariak; irakasle-ikasle artean he-sirik ez, mugak bai; (...). Irakaslearen betebeharrak trinko gain, ikaste-txearen egiturazko azpi-sistemako beste hainbat hutsune bete ohi izan dituztelarik.

Dena den, euskal ikastoletako irakasleriaren ikurra hezkuntza-kalitatea izan ohi da, bai euren egokitzapen zein hezkuntza-prozesu osoan zehar.

Irakasleriaren lana ongi frogatuta geratu da azken urte hauetan zehar. Besteak beste, gogoratu besterik ez dago zenbait egunkari eta aldizkaritan kaleratutakoak:

– ikastoletako ikasle taldeen arrakasta “selektibitatean”, adibidez.<sup>50</sup>

– hizkuntza trebetasuna eta menperatzea ezin hobea ikastoletako haurraren, orokorrean, hiru hizkuntza jakitea lortzen direlarik.<sup>51</sup>

Arrazoi horien gainetik guztiagatik eta gehiagotatik, euskal hezkuntza eta ikastetxe erakuntzaren eremua indarberritu, hobetu eta egokitu dezaketenez profesionalen beharrea aurkitzen gara, edo beste era batera esanez, erakuntzalari (erakuntza egile) edo eskola-erakuntza teoriarren beharrea, hain zuzen ere. Eta horren premia ikastola inguruko guraso, irakasle, zein ikasle elkarteetatik egiten den ahalegin trebeaz gain, nabarmena da.

Ikastolak sortuz geroztik, Euskal Herriko lurralde banaketa ofizialez gain, euskal hezkuntza eta ikastetxe propioaz hitz egin daiteke, baina ez bukatutako edo finkatuta dagoen zerbait bezala, ezta gutxiagorik ere<sup>52</sup>.

Ikastolei esker, aurrerago aztertuko ditugun erakuntza inguru-neko aldagaien artean, sortzea lortu duten kezka eta desegokitasun sentimenduak eraginda, oraingoz behinik behin, euskal hezkuntzara

<sup>50</sup> NAVARRA HOY egunkaria. 1993-6-20. Iruñea; DIARIO DE NOTICIAS egunkaria. 1994-6-24. Iruñea; EGIN egunkaria. 1994-6-24. “Nafarroa” atalean.

<sup>51</sup> IKASTOLA aldizkaria, (1990-1994), 1-34 zkak.

<sup>52</sup> Ikus I. zatia.

egokitu ez badira ere<sup>53</sup>, euskara, irakaskuntzaren lanabes bihurtu beharrarena ikusi dute, gure lurraldeetan zehar, gizarte mailan zein hezkuntza-administrazioak edo ministerioak eta hainbat ikastetxek. Erakunde ofizialetatik, desbideratze politiko eta ideologikoagatik, ikastolen elkartetik hezkuntza eta erakuntza teoria orokor zein zehatz baten hutsunegatik eta bi ideia hauen artean banatu diren gizarteko partaide soil zein ikerlari eta adituz jotzen diren gehienen eraginez, euskal hezkuntzaren hedapen beharra, mugatuegi azaldu da, hots: publikotasunaren eremutik, hain zuzen ere. Ondorioz, sare publikoko egiturek antolaketa berri batzuk jasan dituzte, baino sare pribatu deituriko ikastetxei ezer gertatu ez balitz bezala lasaiegi utzi zaien bitartean.

Orain arte, garatu dugun guztia kontutan harturik, esan dezakegu, egiturazko azpi-sistemaren helburu eta helmugak aztertzeak zerbait gai jakin ukitzera eramango duela ikastetxea:

#### 1. Erakuntza antolaketa motak.<sup>54</sup>

1.1 Eskolaren aurre-eremua (egitura maila, metodoak, egiturari buruzko azterketa...).

1.2 Dauden ikerketak ezagutu.

1.3 Erakuntzaren tamaina, korapiltasuna eta itxuraketa ezagutu eta menperatu.

1.4 Zenbait egitura mota aztertu: zeharkakoa, goitik beherakoa, (...)

1.5 Organigrama eta esku erakuntza eraiki hezkuntza-atalak, ardurak, eginahalak, (...) e.a. azpimarratuz.

#### 2. Zuzendaritza<sup>55</sup>

2.1 Gaur egungo zuzendaritza ikastetxeetan.

2.2 Zuzendaritza motak.

2.3 Zuzendari profesional baten eginbehar zehatzak:

---

<sup>53</sup> Ikus 3. atala eta III. zatika 4.2. azpipuntua.

<sup>54</sup> HALL, R.H. (1982). *Organizaciones, Estructuras y Proceso*. Madrid, Prentice/Hall; SAENZ BARRIO, O. (1993). Op.cit., 8.atala.

<sup>55</sup> PASCUAL, R. (1992). *El liderazgo transformacional en los centros docentes*. Bilbao, Deusto, ICE; ESKIL, N. (...) (direc.) (1988). *Le rôle des chefs d'établissement dans l'amélioration du fonctionnement de l'école*. Paris, Economic; CONGRESO INTERNACIONAL SOBRE DIRECCION DE CENTROS DOCENTES (1992). Op. cit.

a) Ikastetxe barruan, erakuntza antolatu eta koordinazio, kontrola, kudeaketa, berrikuntza, eraldakuntza talde zein ikastetxe giroa, (...) bideratu.

b) Ikastetxetik kanpo erakuntza ingurua ongi ezagutu eta bertan ikastetxearen oihartzun izan.

2.4 Zuzendaritza teknikak aztertu.

### 3. Gobernu organoak<sup>56</sup>

3.1 Espainiako edo Frantziako estatuetaiko hezkuntza-erreformak ezagutu eta derrigorrezkoa dena bete: a) gobernu organo kolegiatuak –eskola kontseilua, irakasleriaren klaustroa, gurasoen batzarra, ...– eta b) pertsona bakarreko gobernu organoak: zuzendaria, ikasketa burua, idazkaria, ...–

3.2 Beste herrialde batzuetako legeak ezagutu (Danimarka, Finlandia, Suedia, Suitza, ... abar).

3.3 Gobernu organoen arazoak: zuzendaritza versus partaidetza, ikastetxeen burujabetza, gaur egungo ezbaiak, (...)

### 4. Irakasleriaren antolaketa<sup>57</sup>

4.1 Irakasleriaren eginahalak eta eginkizunak elkar onartu:

–Aurreikusi.

–Egitaratu.

–Ekin.

–Berrikusi.

4.2 Sail didaktikoak:

–Zer dira, eta zein bere helburuak?

–Behar al dira?

–Sail hauen betebeharrak:

–Egitaratu.

–Berrikusi eta kontrolatu.

---

<sup>56</sup> LORENZO DELGADO, M.; SAENZ BARRIO, O. (1993). Op.cit.; SALVADOR MATA, F. “Los órganos unipersonales de gobierno y su dinámica”, 9. atala, 213-237 orr.; CAMACHO PEREZ, S. “Los órganos colegiados de gobierno y su dinámica”; 10. atala, 239-258 orr.; RAMO TRAVER, Z. (1986). *Manual de los órganos de gobierno de los Centros Docentes*. Madrid, Escuela Española, GARCIA GARRIDO, J.L. (1987). Op.cit.

<sup>57</sup> McKENNA, B.H. (1979). *La organización del profesorado en los centros educativos*. Madrid, Anaya/2; Ibid. LORENZO DELGADO, M.; SAENZ BARRIO, O. (1993). SALVADOR MATA, F. “Profesorado: Departamentos y equipos docentes” 5. atala, 115-140 orr.

- Eguneratu.
- Sailburuaren beharra eta aukera:
- Zein izan.
- Zertarako.
- 4.3 Irakas-taldeak: zer dira, zertarako, nola banatu ahal dira, (...)
- Mailako koordinatzailearen funtzioak.
- 4.4 Irakaslearen legedia:
- Inguruko ikastetxeen legedia ezagutu.
- Ikastolena ezagutu.
- Beste batzuen berri izan.
- 4.5 Kopurua eta banaketa.
- Ikastetxe batek behar dituen irakasle profesional motak.
- Eskolaren kalitatea.
- 5. Ikasleriaren antolaketa<sup>58</sup>
- 5.1 Aurreustek, curriculum eta eskola.
- 5.2 Eskola graduatuaren muga eta abantailak, curriculumaren erabilera, talde homogeneoak eta heterogeneoak.
- 5.3 Graduatugabeko eskola:
- Curriculum.
- Irakaskuntza bakoiztua: Dewey, Parkhurts, Harris, Kilpatrick, e.a.
- Irakaskuntza sozializatua, Tolstoi, Petersen, Cousinet, Freinet, Neill, e.a.
- 5.4 Ikasleriaren legedia.
- 5.5 Ikaslea eta ikastetxea: hartu-emanak, ondorioak, usteak, asmoak, etorkizuna, ezbaia, (...).
- 6. Hezkuntza norabidearen saila<sup>59</sup>:
- 6.1 Arduraduna eta talde profesionala.
- 6.2 Zerbitzu mota.
- 6.3 Funtzioak.
- 6.4 Gutxiengo ezagutza alorrak.
- 6.5 Teknika erabilgarrienak.

<sup>58</sup> Ibid. MOLINA GARCIA, S. "El alumnado", 4. atala, 115-140 orr.

<sup>59</sup> SOBRADO, L. (1990). *Introducción psicopedagógica y orientación educativa*. Barcelona, PPU; RODRIGUEZ MORENO, M.L. (1986). *Teorías y proceso de la orientación educativa*. Barcelona, PPU.

- 6.6 Norabide zerbitzuen antolaketa.
  - Ikastetxeko norabide programa.
  - Zerbitzuen planifikazio eta garapena.
  - Planifikazio motak eta eraketa.
- 6.7 Norabidearen garapen historikoa nazioarteko ikuspegitik.

### 2.3.2. Azpi-sistema psikosoziala

Esan genezake, ikastetxe baten barnean diharduten hartu-emanen arduratzen dela. Egiturazko azpi-sistema ikastetxearen arlo “formalez” kezkatzen bada, psikosoziala “ez-formalez” aritzen dela esango dugu. Azken azpi-sistema honetan dauden erlazioak bi motako aldagaiez osaturikoak dira: batetik, psikologikoak eta, bestetik, gizapolitikoak.

Ikastetxe baten barnean lanean ari diren guztien jarrera eta jokararak kontutan hartuz lan egurats aproposa bilatzean datza azpi-sistema honen funtsa. Zuzeneko zerikusia du hartu-eman ez-formalekin. Atal honen oreka eta bideragarritasuna oso garrantzitsua da, ikastetxe erakuntza orokorrerako.

Azpi-sistema hau behar bezain ongi garatuko bada, bere helmuga eta helburuen berri izan beharko dugu lehenengo, eta arduradun egokienak topatu bigarren.

#### 1. HELMUGAK

Arlo honek ikastetxeko kide guztien arteko giro egokia eraiki nahi du. Hori bideratu ahal izateko, zenbait gai jakin eta menperatu beharko dira. Azpi-sistema psikosozialak<sup>60</sup> lortu nahi dituen helmugak hauexek dira:

##### 1.1 Talde dinamika eta komunikapena:

##### 1.1.1 Talde dinamika:

- taldeen ezaugarriak;
- talde arauen erregistroa;

---

<sup>60</sup> CARTWINGH, D. & ZANDER, A. (1989). *Dinámica de grupos: investigación y teoría*. Mexico, Trillas; MYERS, G.E.; MYERS, M.T. (1990). *Les bases de la communication humaine: une approche theorique et pratique*. Canada, Quebec, McGraw-Hill, 2. arg.; BATESON, G. (1984). Op.cit., 119-229 eta 265-298 orr.; WEINERT, A.B. (1985). Op.cit.; LORENZO DELGADO, M.; SAENZ BARRIO, O. (1993). Op.cit. SABIRON SIERRA, F. “El conflicto en las relaciones escolares”, 11. atala, 259-282 orr.

- taldeen berezitasunak;
- talde motak;
- talde dinamikarako teknikak.

#### 1.1.2 Komunikapena:

- Zentzua.
- Prozesuak.
- Arazoak.
- Hitz gabeko komunikapena eskola-erakuntzan.
- Partehartzearen koska eta kudeaketa.
- Ohiko eta eskola berriaren eguneraketa kudeaketa arloan.

1.2 Boterea eta erabaki hartzea. Atal honetan ikusi beharreko zenbait puntu:

- Agintea eta eskola; gizarte-psikologia arloko ikerketak
- Giza eragipenaren teoriak eta erak: adoskeria, menpekotasuna, berberagarritasuna eta barneragarritasuna.
- Boterea eta aitzindaritasunaren arteko lotura eta ezberdintasunak, eskola-erakuntza mailan.
- Erabaki hartzearen prozesuak, ardatzak, berezitasunak banako-taldearena, aldagai kualitatiboen eragina, (...).

#### 1.3 Erakuntzetako gatazka.

- Erakuntza prozesuak: joanak eta jarrerak.
- Partaide ezberdinen gatazka erregistroa.
- Esku-hartzeko erak.

## 2. HELBURUAK

Helburuak, aipatutako helmugak lortzeko eginahal zehatzak ditugu, beraien bitartez ikastetxean giro egokia lortzeko zenbait arrazoi eta urrats bide prestatuko dituztelarik:

2.1 Komunikapen zuzenaren arrazoiak aipatzea, okerrak bazterraraziz.

2.2 Gizabanakoek taldeak osatzerakoan erabiltzen dituzten irizpide eta kezka azaltzea.

2.3 Aitzindaritza prozesuak ikertzea.

2.4 Erabaki hartzearen zehaztapenak ezagutzea, garrantzi handiko asmoak bereiztu eta kontsensuaren beharra nabarmentzea.

2.5 Barne gatazkaren jatorria atzematea.

2.6 Talde banaketaren indarra bideratzea.

2.7 Elkarrekintzarako bideak eskaintzea.

2.8 Kudeaketa sendotzea.

2.9 Auto-kudeaketaren balioa aztertu eta arretaz lantzea.



### 2.3.3. Azpi-sistema teknikoa

Arlo honen eginkizun nagusia erakuntza bateko partaideen jakintza multzoa ezagutzea da, bai eta egungo beharretara norabideak prestatzen saiatzea ere. Ikastetxe bateko profesionaltasuna eta zientziasuna aztertu eta orekatzeko lagungarri dugun azpi-sistema da hau.<sup>61</sup>

Ikastetxeak hezkuntza jarduketa du ekintza nagusi. Bada, ekintza nagusi hori teknikoki gauzatzeko behar-beharrezkoak diren atal guztiak gaurkotasunez antolatzea da bere helmuga.

Hona hemen HELBURU orokorrak:

1. Irakasleriaren etengabeko prestaketa, norberaren ahalmen eta trebeziari arabera, ikastetxeen ezaugarri eta inguruan dauden hezkuntza-ikuspegiak egokituz.

2. Ikerketa eta ekintza gauzatzeko behar diren prestaketak antolatzea.

3. Irakasleriaren prestaketa eta hezkuntza-kalitatearen arteko lotura aztertu eta ezagutaraztea.

4. Ikasleen behar eta asmoak bete dezakeen egutegia eraikitzea.

5. Eskola-erakuntzaren arkitektura aztertzea.

6. Curriculumaren edukiak osatzeko garrantzizko bideak aipatu edo nabaritzea.

7. Curriculumara eraikitzeko ikerketa kualitatiboa, hezkuntza-ekintzaren ikerketa eta eredu edo ikuspegi teknologikoaren beharra azpimarratzea.

---

<sup>61</sup> HUSEN, T. (1978). Op.cit., 4.atala; GIMENO SACRISTAN, J.; PEREZ GOMEZ, A. (1989). Op.cit., "El profesor y la formación del profesorado", 7. atala; BREZINKA, W. (1990). *La educación en una sociedad en crisis*. Madrid, Narcea; ELLIOT, J. (1990b). *La investigación en educación*. Madrid, Morata; STENHOUSE, L. (1987a). Op.cit.; SARRAMONA, J. (1987). *Curriculum y educación*. Barcelona, CEAC; KENNEDY, M.I. (1980). *Construcción de escuelas en la comunidad. Análisis de diversas experiencias*. París, UNESCO; CRONEY, J. (1978). *Antropometría para diseñadores*. Barcelona, Gustavo Gili; PHILLIPS, C.W. (1974). *Les systèmes de construction industrielle, les objectifs de l'enseignement et les problèmes de changement*. Paris, OCDE; APALATEGI, J. (1994). "Euskal irakaskuntza eta curriculum". *Isilik pedagogi aldizkaria*, 19. alea, 5-7 orr.; IZTUETA, P., GARAGORRI, X., RODRIGUEZ, B.F., ERRIONDO, L. (1994). "Euskal curriculum". UEU. Iruñea; TXEPETX, SIADECO (1993/94). "Geroa gaur egitasmoa": Plan de implementación del uso, conocimiento y valoración del euskera en las ikastolas San Fermín y Fco. Jaso de Iruñea-Pamplona.

8. Curriculumaren baldintza pedagogikoak zerrendatu, aztertu eta atzematea.

9. ikastetxe baten izatearekin bat datozen jarrerak zerrendatu, eta jarrera kaltegarriak azaltzea.

10. Ikasketa-irakasleen eta ikasleen arteko jarreraren egokitasunaren beharra aztertu eta mugatzea.

11. Ikastetxeko egitasmoaren beharra azaltzea.

12. Lehenetasun mailako arazoak eta egitasmoak zeintzuk diren ezagutzea.

13. Berrikuntza eta aldaketa bideratzeko, ikastetxeak egin behar dituen lanak zeintzuk diren aipatzea.

HELMUGAK berriz –azpi-sistema teknikoan– ikastetxe bateko hezkuntza-jarduketa teknikoki eta gaurkotasan osoz antolatzean dautza:

1. Irakasleriaren prestaketa.

1.1 Hezkuntza eta irakaskuntzaren kalitatea egungo gizartean.

1.2 Irakasleriaren etengabeko prestaketaren xede, ezaugarri eta robota.

1.3 Ikastetxe zehatzerako prestaketa eredu eta irakaslea.

1.4 Ikastetxearen prestaketa politikarako baldintzak: ezagutzamotibazioa-erabilera.

2. Arkitektura eta atal tekniko eskolan.

2.1 Eskola eraikuntza: barnetik eta ingurutik.

2.2 Gune banaketa eskolan.

2.3 Gela giroketa:

– Beharrezko elementuak.

– Giroaren ezaugarriak.

– Altzairuak.

– Diseinu irizpideak.

– Garbitasuna.

2.4 Gune banaketaren garrantzia auto-identifikazioa lortzeko.

3. Denboraren banaketa eskolan.

3.1 Eskola egutegia:

– Irizpideak.

– Nazioarteko irizpideak.

– Egokitzapena.

3.2 Eskola egunbeteko denbora banaketa

3.3 Programazioak eta iraupenak: luzeak, laburrak eta egunerokoak.

- 3.4 Denboraren garrantzia “hezkuntza irizpidetsua” lortzeko.
4. Curriculuma eta egitarauketa.
- 4.1 Curriculum teoria: diseinua, ohizko eta gaurko joerak.
- 4.2 Curriculumaren edukiari buruzko arazoa:
- Nortzuk erabaki curriculumari buruz.
  - Zein irizpide dira bidezkoenak.
  - Curriculuma eraikitzekeo ideiak:
    - \* antropologia, historia, filosofia
    - \* politika curriculumean, ez eta curriculumaren politika,
    - \* ikerketa kualitatiboa;
    - \* teknologiaren kultura; e.a.
- 4.3 Euskal Curriculuma.
- 4.4 Ikerketa didaktikoak eta ereduak.
- 4.5 Ikerketa didaktikoak eta ikuspegi teknologikoa.
- 4.6 Curriculuma eta hezkuntza formala/ez formala.
- 4.7 Curriculuma eta hezkuntzaren aurreikuspen metodologikoa, sozio-kulturala eta linguistikoa.
5. Jokaera aldaketa.
- 5.1 Ikasketaren eta jarreraren arteko zerikusia.
- 5.2 Jokaera aldaketa: azterketa, jabekuntza eta garapena.
- 5.3 Aldaketa diseinuak eta ereduak.
- 5.4 Ikastetxe bateko partaide tekniko guztien jokabide koherentzia.
- 5.5 Esku hartze prozedurak:
- auto-behaketa;
  - auto-jarraibideak;
  - arazoen irtenbideak.
6. Ikastetxeko egitasmoa<sup>62</sup>.
- 6.1 Hezkuntza egitasmoa eta ikastetxeko egitama.
- Irizpide orokorrak: nork du hezkuntza-egitasmoa (gizarteak?, gurasoak?, hezkuntza-elkarteak? (...)).
  - Zehaztasun mailak.
- 6.2 Ikastetxeko egitasmoaren kezak
- Urteko helburuak: irakaskuntza eta hezkuntzarekiko.
  - Ikastetxeko urteko egitasmoa:
  - Irakas jarduketa.

---

<sup>62</sup> Ikus gure I. zatian, 3.2 azpiatala.

– Kudeaketa ekonomiko – administratiboa, ikastetxe jabegoaren arabera.

- Eskolaz kanpoko ekintzak.
- Irakasleriaren antolaketa.
- Ikasleriaren antolaketa.

6.3 Ebaluaketa eta jarraipena.<sup>63</sup>

6.4 Urteko gogoeta: datu bilketa eta azterketa, balorapena, buru-tapen irizpidetsua, berrelikadura.

6.5 Behar-beharrezko ekintzabideak:

- Egitura osoaren berrikuspena eta, hala bada, berrantolaketa.
- Berrikuntza bideak geratzea.
- Euskalduntzearen garapena barne erakuntzan.

#### 2.3.4. Azpi-sistema administratiboa

Ikastetxe mailan, azpi-sistema honen helmuga giza-baliabideen eta bitarteko ofizial guztien egoera arakatzean datza:

1. Batetik, irakasle kopurua aztertzen da osoki,
2. gela eta ikasleekiko batez besteko ratioa alderatuz,
3. azkenik, hitzarmen ofizialekiko komunikapen bide agiriak finkatzen ditu.

Arlo administratiboaren azken xedea, ikastetxe bakoitzak bere egoeraren diagnostikoa egin dezan, “berez” “legearen” ikuspegitik zabala eta erreala den erreferentziazko ratioa erabiliko du. Hemendik lortuko diren ondorioak honelakoak izango dira:

1. egituraketa berriak eta aldaketak gauzatzen laguntzea.
2. Ikastetxeko gobernu eta funtzionamendu egiturak aztertzea.
3. Arduradun ezberdinen zereginak ondo behatzea.
4. Dauden eta behar izango diren neurri edo ratioak ikertzea.

Hori guztia aurrera eramán ahal izateko, ikastetxe bakoitzak bere egoeraz jaso behar duen informazioa ondorengo atalek osaturikoa da:

- juridiko administratiboa: titulartasuna;
- pedagogiatik: mailak, ereduak, ikasketak, (...);
- ikasleria,

---

<sup>63</sup> LORENZO DELGADO, M. (1993). Op.cit. SABIRON SIERRA, F.: “La evaluación del centro docente”, 20. atala, 447-477 orr.

- langileria – irakasleria: titulazioak, berezitasunak, egokitza-  
penak; espezialitateak, (...);
- azpiegitura, altzariak eta hornidura;
- inbertsioak;

Azpi-sistema administratiboaren helburu orokorrak honetan gauzatzen dira:

1. Ikastetxean derrigorrezko diren agiri ofizialen sailkapena egin.
2. Agiri bakoitzaren balioa edo erabilera jakinarazi.
3. Ikastetxeko eginbeharrei dagozkien agiriak arakatu eta eskuratu.

Laburbilduz esango dugu bi eginkizun nagusi nabarmendu behar genizkiokela azpi-sistema administratiboari<sup>64</sup>:

a) administrazio atala bereziki bi motako agirien araketaz ardu-  
ratuko delarik, alde batetik ikasleari dagokion agiriaz:

- Ikastetxearen paper ofizialak.
- Eskola liburua.
- Ebaluaketa aktak.
- Gurasoentzako azalpenak,

eta bestetik agiri ofizialak:

- Instantziak edo agiri buruak.
- Ziurtagiriak.
- Ofizioak.
- Bilera aktak.

b) kudeaketa mailan berriz: aurrekontu ekonomikoaren ardura  
izango luke, batez beste:

- funtzionamendu gastuak eta
- batzorde ekonomikoaz arduratuz

## ***2.4. Ikastetxearen erakuntza ingurua: aldagaiak***

### **2.4.1. Erakuntza ingurua**

Eskola-erakuntzaren ingurua aztertzerakoan, bi ikuspegi nagusi-  
rekin topo egiten dugu:

---

<sup>64</sup> IBAR ALBIÑANA, M.G. (1976). *Modelo económico-administrativo como instru-  
mento de gestión y evaluación de centros docentes*. Bilbao, Universidad de Deusto;  
ICE; LORENZO DELGADO, M. (1993). Op.cit. RICO WECHER, N.: “La vida  
administrativa y económica de la escuela”, 19. atala, 424-446 orr.

a) eskola, erakuntza inguruaren esanetara egon dela uste dutenen ikuspegia, eta

b) eskola egitura, inguruak dituen beharretarako soilik ezin dela bilakatu diotenak. Gure ustez, eskola ez da gizartearen menpe egon behar den erakuntza. Orokorrean, eskolak bere izate berezi, nabarmen eta nagusia adierazten du hezkuntza-egitasmoaren bidez, erakuntza errealitatea<sup>65</sup> islatuz alde batetik, eta bere garapen eta berrikuntza bermatzeko egokitzapen proposamenak bideratzen saiatuz, bestetik.

Eskola bakoitzak, ereduak eredu, bere ezaugarriak ditu, eta atal honen bitartez atzematen ahal zaie:

1. Ikastetxearen izaera: hezkuntza-asmo, uste eta nahien filosofia.

2. Adierazpen bide juridikoa.

3. Kudeaketa eta funtzio egitura.

4. Adierazpen pedagogikoa, hots:

4.1 Hezkuntza printzipioak.

4.2 Hezkuntza teorien artean, gogoko diren asmoak betetzeko eta ikastetxeak biziarazi nahi duen gizon emakume egitasmoa aurrera eramateko balioko duena aukeratzuz.

4.3 Orokorrean, ikastetxeko hezkuntza-egitasmoa IHE marraztu, aurrera eraman eta ebaluatu. Euskal IHE gauzatzerakoan, berriz, horren guztiaren aurretik, Jorge Oteizak<sup>66</sup> dioen bezala, ezinbesteko galdera multzo zehatz batzuen erantzunak bilatu behar dira:

– nolakoa da?

– zein da hezi behar dugun haurra?

– nolakoa da euskalduna eta bere giza taldearen ezaugarriak?

Zeintzuk dira?;

– guk sinistu, amestu eta behar dugun giza emakume ereduia topatu: nola bizi, komunikatu eta ikusiko du mundua?, zein da oraingo, bere giza kultura eta sinismen arlo guztien zura?. (...)

Euskal gizartea ez bezala, nortasun gatazka eta etengabeko ez-baian bizi ez diren gizarteetan, euren erakuntza eredu ezberdinen bitartez behar eta nahi dituzten gizon-emakume eta gogoko gizarteak

---

<sup>65</sup> SACRISTAN, D. (1988) "Asumir la dimensión política que tiene lo educativo". *Revista Española de Pedagogía*, XLVI, 181, 49 or.; PALACIOS, J. (1988). *La cuestión escolar: críticas y alternativas*. Barcelona, Laia.

<sup>66</sup> (1972). Op.cit.

garatzeko, hezkuntza era ugari eta osagarrien bidez (...) amestu eta itxuratzen saiatzen dira. Baina egoera horretako gizarte eta ikastetxeen artean, halako oreka eta elkar mirespena atzeman daiteke, eta bi baldintza hauen arteko onespina eta beharra aurreuste hauetatik abiatu eta bermatzen da:

1. Ikastetxeak bere gizarte eta banakoen ondasun bilakaeran konprometituak sentitzen dira, eta hezkuntza egokiena antolatu eta eskaintzen saiatu. Betiere, giza aurrerapenaren zentzu orokorraren eta zehatzaren arteko lotura eta garapena bultzatuz. Horretarako, ikastetxe bakoitzaren erakuntza inguru ongi ezagutu eta menperatu behar da, edozein atal edo aldagaikiko iritzi zein aburu propio bat heziz.

2. Gizon-emakumeek sortzen dituzten eraketa eta indar egituraz baliaturik, bilakatu eta garatzen joaten dira gizarteak, (...). Gizarte bateko banakoek, naturaz, uste, nahi, sinismen eta asmo berdinak dituztenen artean elkartu egiten dira gizarte orekatsu baten pentsatzea, ez du esan nahi, bertako biztanle guztiek bizitza uste, zein munduarekiko kosmo-ikuskerara berbera dutenik, ez da gutxiagorik ere!. Baina, banakoen zein giza taldeen arteko “berdintasuna” onartzeak suposatzen du horien naturazko ezberdintasunak ahalbidetu eta garatzea.

Edozein gizarte arlotatik, behin eta berriro aldarrikatu eta printzipio nagusizat jotzen den “berdintasun” adigaia, bere barnean atzematen dituen “hutsak” betetzeko erabiltzen dela ikus dezakegu, baina gehienetan intentzio edo hitzetan besterik ez da geratzen. Izan ere, gizarte baten barnean edo gizarte ezberdinen arteko “berdintasun” eskubidea bermatu eta orekatzeko, “ezberdintasunak” onartu behar dira, eta horretarako, nahitaez haxe bereizi behar da, bi motako ezberdintasunak daudela, alegia:

– “naturazko” edo gizakien zein giza taldeen izateari berari dagozkienak, eta

– “egoerazko” edo giza egiturak sortutakoak.

Gizarteen zein banakoen “naturazko ezberdintasuna” onartzeak suposatzen du guztien arteko elkartasun beharra eta ondasuna, hau da, “naturazko berdintasuna” onartu eta bideratu ahal izatea.

Beraz, uler dezakegu, naturazko berdintasun printzipioa garatzen duen gizarteak xamur eta atseginez onartu eta babestuko dituela bertatik sortu eta antolatu nahi diren ikastetxe eredu ezberdinak, baina benetako “ugaritasuna”, ez eta “ugalkeria” bermatzeko, ikastetxe eta gizartearen artean nolabaiteko ezbai bideak sortuko ditu. Eta “erakuntza

inguruaren” zeregin nagusia bide horiek egoki eta eragingarri bihurtzea litzateke, hain zuzen ere.

Ondorioz, oso erraz ohar gaitzke euskal gizartean sortu den euskal ikastetxe eredu bakarra (...), ikastola bezala ezagutzen duguna alegia, “naturazko” ildotik abiatu eta garatzen iritsi dela. Euskal Herrian dauden beste ikastetxe mota oro “egoerazko” bide batek bultzaturikoak dira. Beraz, berehala uler dezakegu, gaur egun ikastola hezkuntza-egiturari eskaini zaion –eta lurralde batzuetan, dagoeneko, bukatutzat eman den “hezkuntza-sare orokorrarekiko”– egokitzapena onartezina dela euskaldunentzat. Sekula ezin izan ohi da “egoera” bat taxutu edo hobetu, bere “natura” jatorria abiapuntutzat hartu edo bertan murgildu gabe. Aldiz, adabakiak besterik lortzen ez direlarik, (...). Euskal Herrian, ez da hezkuntza-sare orekatu eta osasuntsu bat eraikiko, baldin eta bertako naturari dagokion hezkuntza, egoerazko ikastetxe eta hezkuntza-egitura oinarritzat hartzen ez bada. Horrekin batera “gehiengo” eta “gutxiengo”, “naturazko” eta “egoerazko”, e.a. adigai “demokratikoek” astindu berezi bat eskatzen dute.

Bestalde, ikastola gaur ezagutzen den eran, ez da euskal gizarteak onar eta babes lezakeen hezkuntza-egitura bakarra. Eskola-erakuntza ingurune orokorretik ikastoletara<sup>67</sup> hurbildu diren guraso-ikasle-eragile-babesle-e.a. guztiek, gehienetan, ez dituzte ikastetxe eta hezkuntza-eredu berberak gogoko. Baina euskal hezkuntzarako funtsezko diren beste zenbait gauzatan ados dira, hots:

1. gure gizarteak –euskara– ikur nagusia duen hizkuntzaren bidez, gurea den kultura suspertu, garatu eta hedatu;
2. euskal hezkuntza-sare baten beharra agerrarazi eta aldarrikatu;
3. garaiko eta inguruko beste ikastetxeetan ematen ez diren eskaintza eta beharrei erantzuteko (...).

Ikastolak zein Euskal Herrian ditugun beste ikastetxe eredu guztiak, hezkuntza-garapena eraikitzeko, prest dauden hezkuntza-egitura eta erakuntza zein hezkuntza-eredu edo mota ezberdinak garatzearen alde egon behar dira. Guztien artean beharrezko oreka eta osagarritasunaren legeak bermatuz.

---

<sup>67</sup> Euskal Herriko Ikastolen Elkarte – EHIE: (1983). “Zenbait oinarritzko gogoeta ikastolen normalizazioari buruz”; (1988). Op. cit.; (1990). Ikastolen I. Batzar Nazionala. Iruñea; (1992). Ikastolen II. Batzar Nazionala. Iruñea.



Arazoa, ordea, beste hau da: egun, Euskal Herrian, “naturazko” ikastetxe bilakaera bultzatuko luketen egiturak bezala ez baino, euskalduna ez den “egoerazko” hezkuntza-sare batzuen barnean, aukera soil bat bezala ulertu nahi dira ikastolak. Ikuspegi horretatik sekula ezingo da euskal gizartearen, naturazko giza taldearen, hezkuntza egarria ase.

Ikastolak, egungo hezkuntza-”egoeratik” aztertuz, nahiz eta “kopuruz” erdarazko ikastetxeak baino gutxiago izan (...) “naturazko” hezkuntza-garapenetik zein euskalduntasunaren ikuspegitik “gehien-go” dira, beti.

Egungo “egoera” ez euskalduna egoera euskaldunera iritsiko bada, “natura” eta “egoera” ikuspegiak berregokitu beharko dira. Baina hori bideratzeko, bi motako ahaleginak ezinbesteko baldintzak ditugu:

1. Hezkuntza teoria eta eskola-erakuntza zientziaren teoria ezagutu eta menperatzea bata, eta

2. Jakintza batek behar duen giza baliabideak izatea, bestea.

Hori horrela ez badugu antolatzen, ez dugu behin ere gaitutako ahulezia sortzen digun hezkuntza-egoera (...).

Bien bitartean, ikastolak, gure gizartearen diharduten ikastetxe oro bezala, erakuntza inguruan sortzen diren gatazka, tira bira, gertakizun, uste eta abarren isla dira, noski. Eta edozein ikastetxetan, erakuntza inguruan, azter daitezkeen presio motak honelakoak izaten dira<sup>68</sup>:

1. Administratiboak.

2. Politikoak.

3. Kultura arlokoak.

4. Lurralde banaketa ingurukoak.

5. Kondairarekikoak.

6. Geografia arlokoak.

7. Filosofiatik isuritakoak.

8. Sinismen eta uste ingurukoak.

9. Eta orokorrean, izadiak aldarrikatzen dituen gai ezberdinetako mugaketa, berrikuspen, kopuru, neurri hartze, erabilgarritasun, (...) e.a., zentzukoak.

Ikastola propioki presio horiek euskal gizartearen zentzutik aztertzen saiatu behar da. Beraz, hementxe dugu, zoritxarrez gure herrian

---

<sup>68</sup> D’HAINNAUT, L. (1988). *Los sistemas educativos: Análisis y regulación*, 24-32 orr.

zehir diharduten beste ikastetxe ereduak lehen berezitasuna. Hemen ere aipa ditzakegu, ikastola ereduak eta bere hezkuntza-elkarte "osoak", euskal hezkuntzaren bidea eraikitzen jarraitzeko, egun, zertaz jabetu, zer ezagutu eta menperatzen saiatu beharko diren, dihardugun erakuntza ingurunea, gure gizarte zein hezkuntza-beharretarako norabide, ikuspegi eta dagokion abiadura har dezan, ...:

1. Euskal Herrian zehar, lurraldez lurralde ditugun hezkuntza-ahalmenak ezagutu.

2. Hezkuntza sistemen izate eta egokieraz jabetu.

3. Nork egin eta arautzen dituzte hezkuntza-legeak.

4. Noren esku dago hizkuntza legedia.

5. Ikastolak, eskuartean duten hezkuntza-sistemen arabera, bere garapen eta etorkizunerako ezinbesteko garrantzia duten zenbait gai aztertu beharrean daude, zer eragina duten bere izatean:

5.1 irakasleen sindikatuak,

5.2 alderdi politikoak,

5.3 hezkuntza-politika baten ezarpenak,

5.4 elkarte pedagogikoak,

5.5 gizarteak hezkuntza-kalitate eta porrotari buruz dituen uste eta kezka,

5.6 ikastetxe ereduak buruzko uste eta eztabaidak;

6. gurasoen elkarteak;

7. herri jarduketak;

8. ikastetxeetan antolatzen diren ekintza motak;

9. Eratatutako ikasketa eta ikastetxetik kanpo diharduten ikasketen arteko zerikusia eta oreka beharra, haurren kultura eraikitzean; ... e.a.

Orokorrean, aipatu ditugun presio zein kezka horiez guztiez jabetzeko eta aztertzeko, ikastetxeak erakuntza inguruarekiko duen lotura hiru aldagairen bidez azter dezake: aldagai burokratikoak, soziopolitikoak eta berezia deitzen ditugunak, hain zuzen ere.

#### 2.4.2. Aldagai burokratikoak

Eskola-erakuntza, orokorrean, administrazioaren erabakien baldintzapean ibili behar izaten da. Aldagai honen bitartez, gizarteek duten antolaketa administratiboen eredutik abiatuz, hezkuntzarekiko duten joera ikusten da, eta bere eginkizun nagusia da diharduen "hezkuntza-sistema" eskoletara bideratu eta betearaztea.

Ikastetxe eta inguruaren zereginak, aldagai honen barnean, helburu hauetantxe sailka ditzakegu:

1. Erakuntza inguru eta eskolarteko zenbait menpekotasun zehaztea.
2. Hezkuntzari dagozkion arau garrantzitsuen hari eta jarraipenari atzematea.
3. Administrazio orokorraren eta lurralde autonomoaren ahalmen eremua bereiztea.
4. Irakaskuntzaren eta askatasunaren artean dagoen erakuntza zentzua azpimarratu eta azaltzea.
5. Leku bakoitzean diharduten lege orokorren arabera, hizkuntza-erikiko legeak aztertu eta proposamen berrien bidez jabetzea.
6. Eskolaren eta gurasoen arteko bizkortasuna lortzeko, ekintza-zerrenda bat aurkeztea.

e.a.

#### 1. HEZKUNTZA, KULTUR ETA HIZKUNTZA POLITIKA

Helburu horiek guztiak hiru erako ekintzabideetan zehar ikusi behar ditu eskola bakoitzak:

1.1 *Hezkuntza politika*: politika boterearen banaketa eta hezkuntza-arloekiko ahalmenez dihardu. Orokorrean, boterean daudenak hezkuntza-helburu batzuk betetzen saiatzen dira<sup>69</sup>. Hezkuntza, hemen lurraldetasun baten barnean ulertzen da, hezkuntza nazionalaren hedapena bezala. Beraz, lehenik eta behin, hezkuntza nazional baten egokitzapena egiaztatzeko, ezinbestekoa da lekuan lekuko administrazioen eginkizunak eta kudeaketa zehatza ezagutzea, era batera edo bestera, hamahiru urtez haurren etorkizuna euren eskuetan baitago.

Hezkuntza politikaren barnean, zenbait atal bereiz daitezke:

1. Herri administrazioa: printzipio logiko-formalez zein gizarte politikaz kezkatzen da, arduramena, tokian tokiko administrazio autonomoetara luzatuz.

2. Hezkuntza administrazioa: hezkuntza politikaren beste aztergai bat dugu. Bertan ongitasun arrunta, hezkuntza eta legegintza inguru, orokorrean, zein hizkuntzaren izatea ikusten dira.

3. Lurralde boterearen banaketa. Bertan, oinarritzko legeak eta hezkuntzaren kontzeptuak aztertuko dira.

---

<sup>69</sup> CERAP (1989). Op. cit., "Les finalités d'une politique éducative", 11-62 orr.

4. Estatuaren ahalmenak hezkuntzan: hemen, guri dagokigunez, hiru agiri aztertu behar dira:

- Espainiako Estatuko Konstituzioa
- Frantziako Estatuko Konstituzioa
- Hezkuntza erreformak

5. Lurralde autonomoen ahalmenak: indarrean diharduten legeen arabera (Konstituzioak, estatutu legeen eskumenak eta eginahalak aztertu, e.a.

6. Hezkuntza administrazioaren egitura menperatu, esparru orokorra eta lurraldearen berezitasuna ezagutuz. Alde batetik, estatu mailako administrazioaren egitura eta, bestetik, lurralde administrazioarena.

Hezkuntza egitasmoak giza egitasmoa suposatzen du; gaur gure inguruan handik eta hemendik darabilgun hezkuntza-erreformak direla eta (...), esan behar da erreformaren lehen gakoa ez dela arazo teknikoa izaten, politikoa baizik. CERAP<sup>70</sup> erakundekoek diote, Frantziako estatuan joko politiko hori falta dela; gauza bera esan genezake Espainiako estatuko hezkuntza-erreforma berria dela gure hezkuntza-errealitatea, berriz, muga horien baldintzapean dihardu.

Hezkuntza giza egitasmo bat da. Hezkuntza politika giza politika sakona da, bere helburua kultura handiena ahalik eta gehienentzat hedatzean datza, gizartearen hobekuntza bermatu nahian.

Baina hezkuntza eta giza politika nahastea eskola sistemaren egin-beharrak ankertzea da. Giza helburua hezkuntza-egitasmoaren bihotzean kokatu behar da.

Esan genezake gure inguruan diharduten hezkuntza-politiken akatsak –Espainiako eta Frantziako estatuetaoak, hain zuzen ere (...)–, zenbait kontzeptu gaizki ulertu eta erabiltzetik datozela, hots:

1. “*Hezkuntza politikak*” –hezkuntza-egituren “berberetasuna” bultzatuz– kalitatea eta egoerazko desberdintasun batzuk sakondu besterik ez ditu egiten.

Gehiengoentzat kalitatezko irakaskuntza egiteak ez dakar eskola egituren berdintasun ideologikoa, egun gehienetan uste eta esaten den bezala, baizik eta berdintasuna bakar bakarrik berezitasunak edo ezberdintasunak zaindu eta bideratu nahi izatetik sor daitezke. Dauden egoerak, kultura, pisu eta garrantzi “natura” berdinekoak dira. Eskolak,

---

<sup>70</sup> Ibid., 25-27 orr

beraz, ezberdintasun horiek guztiak hezteko eta bideratzeko egin behar du lan. Ezberdintasunak ezagutu eta errespetatuz bertintasuna dator. Bertintasuna ez da hitza soilik, ez eta hitz magikoa ere, aldiz aurkakoa, errealitatea urratzeramaten gaituen bide bat baizik.

2. “Giza aldekortasuna” ongi diharduen hezkuntza-sistemen baldintza eta ondorioa dugu, edozein hezkuntza-politikaren behingo helburu eta ezinbesteko eginbearra; ez eta ustezko hezkuntza-politika “hoberenari” dagokion zerbait.

3. “Lan politika” – “Langabezia”. Hezkuntza sistema onaren ondorioak produktibitatearekin du zerikusia, baina hezkuntza-politikak “produktibitatearen ingurua” epe luzerako zentzuan erabili behar du, bide batez, bere hezkuntza-ekintza zabalduz eta gehituz.

4. Hezkuntza politika nazionala sindikatuen indar eraginez sistematikoki “*funtzio publiko*” politikari lotuegi azaltzen da beste zereginen gainetik, irakasleriaren statusa zaintzera zuzentzen delarik.

Inork ez du bere gain hartu eta sakondu nahi irakasleriaren kontzientzia ala hutsunearen egoerak eta ondorioak.

Gure ustez, gizarte erregulazio politikatik kanpo egon beharreko zerbait da ikastetxea, beste erakunde askoren pare.

Hezkuntza politikak, irakaskuntzaren bidez, hezkuntza nazionala eragin behar du.

Hezkuntza nazionalak, berriz, gizarte osoaren zerikusi eta eragina suposatzen du:

- erakundeak eta erakunde kulturalak,
- mass-media, komunikabide eta,
- elkarrekin sakonen bidez erabaki hartzeak.

Gure ustez, hezkuntza-politika egoki bat egiteko ez da nahikoa hezkuntza nazionalaren ardura dutenei –botereren bidez hezkuntza-gainbegirale daudenei– hezkuntza-egiteko diru mardoa aurrean jartzea, baizik eta, hezkuntza-egitea gehiengoentzat kalitatea erakustea bada, lan hori eraikitze eta bene-benetan gizarte osora hedatzeko, gizarteko arlo garrantzitsu edo esangarrien esku-harmena da behar-beharrezkoa. Dagoeneko esaten ari garenak oihartzuna du gure mundu hurbiltzat jotzen ditugun Europako zenbait herritan, Ipar Amerika, Australia eta Kanadan batik bat. Horrela, hezkuntza-politikaren ibilbidea egituratzerakoan zein ustez garrantzi handiko erabakiak hartu behar izaten direnean, hezkuntza-botere nagusiaren ardura dutenek eskatzen dute zientzialarien (antropologo, psikologo, soziologo, ekonomilari, ...) eta gizarte ez-formaleko ordezkari eta abarren arteko esku-harmena eta

elkarrekintzaren bitartez sorturiko ondorioak eraginarazten saiatzen dira<sup>71</sup>. Ikuspegi berri hori, bestalde, gizartearen beste zenbait arlotan ere lantzen ari dira<sup>72</sup>.

Azaldu duguna ikusi eta gero, ez zaigu oso zaila egingo euskal hezkuntzaren “hezkuntza-politika” non eta nola dagoen erantzutea. Egun, gure arazoa lurraldetasun arazoa dela dirudi. Nolako euskal hezkuntza eraiki daiteke, gure herria lurralde administrazio ezberdin eta aurkakoen menpe dagoen bitartean? Herri boterea deitzen den arlotik, euskal hezkuntza-politika ezin bada egin, hezkuntza nazional batek eskatzen duen zentzuan, euskal gizarteko atal ez-formaletatik apustu horretan dabilta.

Herri boterea deitzen den arlotik, gaurkoz hezkuntza nazional batek eskatzen duen zentzuan, behinik behin, bistan da, ezin dela Euskal hezkuntza-politika bat egituratu. Bestalde, gure gizarteko beste atal zein arlo formal eta ez-formal ugari apustu horren atzetik dabiltzala ikus dezakegu:

- komunikabide,
- jende aditu,
- zientzi gizon-emakume eta elkarte,
- erakunde,
- gizarte soila, ... e.a.

Beraz, hori guztia aztertu eta atzeman ondoren, nahiko argi agertzen zaiguna zera litzateke: gure gizartean, “ofizialtasunaz” eta “ez ofizialtasunaz” ulertzen dena, helmuga ezberdineko indarrek osatzen dutela eta, gaurkoz, “aurkakotasuna” nabari dutela gainera (...).

Bestalde, hezkuntza-politikaren eduki eta eginbeharretan murgilduz, ikus dezakegu, egun, gizartetik hezkuntzari, orokorrean, eskatzen zaiona “formatzea” edo “heztea” dela. Gaurko gizartean formakuntzak duen eginbeharra handia da, pisu nabarmena du. Beraz, ezin dugu jarraitu hezkuntza ohiko gainbegirale “epel” eta “gezen” esku uzten (...) <sup>73</sup>

<sup>71</sup> HUSEN, T. (1978). Op.cit.; KEMMIS, S. (1988). Op.cit., “El debate público sobre la educación y la formación de comunidades críticas de teóricos del “curriculum”. 145-154 orr.

<sup>72</sup> ALVAREZ, M. (1993). “La revolución industrial de López de Arriortua”. *Harvard Deusto*, Op.cit., 3 zk., 56-64 orr.; MAS-COLELL (1992) Op.cit.

<sup>73</sup> D’HAINAUT, L. (1979). Op.cit., “Le besoins en éducation”. Programmes d’études et éducation permanente. 66-80 orr.; HUBERMAN, A.M. (1973). *Cómo se realizan*

Baina, ez du ematen behar adina lortzen ari denik, zeren eta herri eta “aurrerakoi” deitzen ditugunetako hezkuntza-jaurlaritzza edo botere nagusi asko oso kezkatuak agertzen dira hezkuntza formalaren ondorioak aztertzerakoan.

Hezkuntza politikaren bidez,<sup>74</sup> gaurko gizarteak behar duen hezkuntza-formakuntza, baikorra eta baliagarria izango bada, hezkuntza-egitasmo berriak beharko dira, baina horren aurrebaldintza gizartean bertan datza, hau da: ezin dira hezkuntza-egitasmo berri baten bitartez gizartearen “beharrak” ase, baldin eta, lehenik eta behin, gizarteak berak hezkuntza-egitasmorik ez badu.<sup>75</sup>

Horrekin batera, edo hobe esanda, horri aurre egin ahal izateko, besteak beste, E.G. Boring eta N.K. Dezinek<sup>76</sup> triangulazio metodologiaz diotena ezinbesteko baldintza dugu.

### *1.2 Kultur politika*

Orain arte, orokorrean, hezkuntza-politika zer den eta bere egitearen arrazoi batzuk aipatu baditugu ere, ondoren haxe jakin beharko dugu: edonongo hezkuntza-politikaren ardura dutenek nondik nora topatu behar dituzten hezkuntza-helburu orokorrak, alegia.

Hezkuntza politika egiteak benetako kultura orokorra suspertzea dakar. ... “Herri bat, berak duen kultura orokorragatik uztartzen da kondairan zehar. Kultura orokorrari esker elkartzten da herri bat. Elkar bizi duen kultura orokorragatik erasoan datozkion indarrei eta ezbeharrei aurre egiteko ahalmena du gizarte batek”.<sup>77</sup>

Kultura orokorra burutapen eremutik ideien mundura datorkigu, eta bi erakoak izaten dira:

- a) arbasoengandik jasotako ideiak,

---

*los cambios en educación: una contribución al estudio de la innovación.* París: Unesco; PAUVERT, J.C. (1986). *Les Personnes de supervision pédagogiques: nouvelles fonctions et formation.* Paris, UNESCO; CERAP (1989). Op.cit., 284-287 orr.

<sup>74</sup> FULLAT, O. (1994). *Política de la educación. Politeya-Paideia.* Barcelona, CEAC; (1987). *Políticas educativas europeas: treinta experiencias piloto.* Madrid, IFAPLAN-Popular-MEC.

<sup>75</sup> CERAP. 28-50 orr.

<sup>76</sup> COHEN, L.; MANION, L. (1990). *Métodos de investigación educativa.* Madrid, La Muralla. 332-334 orr.

<sup>77</sup> CERAP. Op.cit., “La culture generale: sacrifice ou impasse?” 104-108 orr.

b) sortu berriak eta beraz ezohikoak edo ezezagunak.

Kultura orokorraren eginkizuna ez da ohiko gizarte zientzien bilakaera jasotzea, baizik eta:

1. Etorkizuneko ikuspegia susmatzea, gizarte baten biharko beharrak aztertuz eta ulertuz. "Gaur egungo kultura orokorra ezin daiteke giza asmo mugatu bat heziko duen hezkuntza eredu batez egin; "jendeen zuzentasunaren" ingurutik edo eta "gizon-emakume zuzena" formakuntzaren ildotik. Kultura orokorra nozio irekia, aldakorra eta baikorra dugu".<sup>78</sup>

2. Kultura orokorrak gehiengoentzat gutxiengo eskakizunak betetzea suposatzen du. Hauxe da bainako guztiok giza talde ezberdinetan bildu eta berdintzen gaituena:

1. guztiok hizkuntza baten jabe izatea,

2. giza talde bakoitzak atzematen dituen jakineko ezaugarriak elkar bereiztu eta komunikazioa sortaraztea.

Giza talde guztien beharra eta naturazko nahia, denboran zehar, iraun eta garatzea da. Horretarako bakoitzak duen kultura, taldearen barne hedatzea ezinbesteko beharra da eta, prozesu hori ahalbidetu zein bermatzeko, bakoitzak bere hizkuntza du.

Baina, hizkuntzak trebatzen duen ziurtasun, aztergaitasun eta hausnarketari esker, beste giza taldeen "nahi-iraun eta garapen" beharra uler daiteke, aldi berean elkarrekintzazko irtenbide aberats bezain ugari eta orekatsuak topatzen ahaleginduz. Hizkuntzek berek, bat-batean, izadi osoaren hartu-emanen garapena eta komunikazioa bermatzen dute.<sup>79</sup>

Kultura orokorrak etorkizuneko aurrerapen eta ezagutzean berrikuntzak bermatzen ditu eta zutabezko gai teknikoaren ezagupena ere suposatzen du bestalde, pentsamendu askearen eraikuntzarako oinarritzakoak, hain zuzen ere.

Kultura orokorraren ondorioz "kultura berezia" dator. Oinarritzako komunikazioaren funtsa zentzumena erabili eta azter bideak urratzen ikastea litzateke, ondorioz:

1. banakoa aukera "berezi" bat egiteko prest aurkituz.

2. giza tesiaren kultura eta teknologiaren hazkunde zein hobekuntza orekatsuan parte hartu dezakeelarik gehiengoentzat.

---

<sup>78</sup> Ibid., 191 or.

<sup>79</sup> Txepetx (1987). Op.cit., "El equilibrio ecolingüístico", 231-340 orr.



Beraz, “hezkuntza-politika” baten lehen eginkizuna giza talde baten/batzuen kulturaren printzipioak atzematean datza, horren lege eta sinismen multzoei, analisi eta azterketa zientifiko bat erantsiz, hezkuntza-egitamu eraginkorra prestatuz.

Egungo, giza banako eredu, bizitza antolamendu, demokraziaren behar, etengabeko inguru tekniko eta ekonomikoaren joan-etorriak, “ohiko” jakintza mugen aldaketa e.a., hezkuntzaren eremuan ibilbide berriak eskatzen ditu.<sup>80</sup>

Kultura orokor sakon batek, naturazko kultur taldeetan oinarriturikoak, jakintza elikatzeke oinarria ematen du. Horrela ulertu beharreko kultura orokorrak ezinbesteko aldaketak eskatzen ditu gure inguruan diharduten irakaskuntzetan. Alde horretatik, errealitate soziopolitikoak mugatu arren, ikastoletan antolatu eta eskaini den irakaskuntzak egoki ulertutako kultura orokorra hedatzea izan du helburu. Baina noski, EE teoriak ikusarazten digun bezala, “ikastetxea” orokorrean, salbuespenak salbuespen, ez da bakarrik bere barnean bizitzeko sortu den hezkuntza-egitura, eta ikastola, zehazki, ezin da beti gurasoen kemen eta indar, irakasle trebe eta langileen bidez, laguntzaile iraunkor eta sutsuen laguntzaz, ... e.a. bizi, baizik eta ikastola barneko zein kanpoko erakuntzako baldintak behar ditu: baliabide zein mirespen ala moralki izan.

### *1.3 Hizkuntza politika*

Hezkuntza politikaren eginbeharra kultura orokorra hedatzearena dela esan dugu, baina ez dugu oraindik aipatu ezer hizkuntza politikaz. Baina diogunaz jabetzen bagara, ohar gaitezke ezin dela hezkuntza politika bat aurrera eraman hizkuntza politika kontutan eduki gabe. Kultura orokorra egiteak hizkuntzaren errealitatea eta, beraz, soziolinguistikarena ezagutzea dakar berekin. Hizkuntza baten jabe izateak berdintzen gaitu gizaki guztiok eguneroko bizitzan zehar. Hizkuntzak, bat-batean, izadi osoaren hartu-eman beharra eta komunikazioa bermatzen du.

Hizkuntza politikak bi eginbehar nagusi dituela esan genezake:<sup>81</sup>

---

<sup>80</sup> CEAC (1987). Op. cit.; GARCIA GARRIDO, J.S. (1986b). Op. cit.

<sup>81</sup> Txepetx (1990b). Op.cit.; Ibid., (1990a).

1. hizkuntza baten errealitatea ezagutzea, eta behar dituen heda-  
pen eta aruntasuna bermatzea;

2. hizkuntza bati dagozkion legeak betearazten saiatzea.

Eskola-erakuntza teoriatik datozkigun ezagumenduetatik, esan dezakegu hezkuntza-antolamendu batek eskatzen dituela oraintxe gure herrian ematen ez diren hezkuntza eta hizkuntza politikak.<sup>82</sup> Izan ere, gurea bezalako, hizkuntza gutxituen normalizazioak, Miguel Siguane-  
nek<sup>83</sup> dioen bezala, giza adostasun zabalak eskatzen ditu, ez eta eraba-  
ki politikoak bakarrik (...).

## 2. HEZKUNTZA SISTEMA

Hezkuntza, kultur eta hizkuntza politikak landu eta ikertzea “hezkuntza-sistemaren” eginbeharra da. Oro har, hezkuntza-sistema “herri” bateko irakaskuntzaren gauzatzeaz eta, bere eraginez, gizarte garatuagoak bideratzeaz arduratzen da. Aurreko hiru politika eremuak aztertzetik derrigorrezko erantzukizunak sortzen zaio edozein hezkuntza-sistemari:<sup>84</sup>

1. Zer ulertzen da, gaur egun, hezkuntzaz eta zein dira bere hel-  
buru eta helmugak.

2. Nondik nora sortu da hezkuntza-sistema.

– Sistemaren ingurua ikertu.

– Ahalegin mailak.

– Sistema eta errealitatea.

3. Hezkuntza sistema motak, oro har.

4. Espainiako eta Frantziako estatuetako hezkuntza-sistemak  
zehazki

– Legeak, erreformak eta egitura.

---

<sup>82</sup> CERAP (1989). Op. cit., 11-62 orr.; “Une politique éducative pour résoudre la crise sociale”, 25-27 orr.; EUSKALZAINDIA. (1977). *El libro blanco del Euskera*, 100-116 orr. eta (1979). *Hizkuntza borroka Euskal Herrian*, 3. atala; ROTAETXE AMUSATEGI, K. (1988). *Sociolingüística: Política y Planificación lingüísticas*. 151-169 orr., Madrid, Síntesis; *SOZIOLINGUISTIKA BAT* aldizkaria. Donostia, EKB: a) GARMENDIA, M.C. (1991). “Euskararen normalkuntza gizartearen normal-kuntzaren baiatakoa behar du”, 3/4 zk. 115-139 orr.; b) FISHMAN, J. (1992). “Hizkuntza berreskurapena”, ibid., 6 zk.; d) (1993), “Irakaskuntza eta normaliza-zioa”, 10 zk.

<sup>83</sup> SIGUAN, M. (1992). “Los pactos lingüísticos”. *BABELIA* aldizkaria. 92/4/4; (1992). *La España plurilingüe*. Madrid, Alianza.

<sup>84</sup> “Txepetx” (1990f). Op. cit.; CERAP. Op. cit., 11-62 orr.

5. Hezkuntza sistemaren bilakaera eta eragileak.
  6. Hezkuntzaren arlo formal guztien azterketa:  
Hezkuntza berezia,  
Helduen hezkuntza, ... e.a.
  7. Hezkuntza sistemari dagozkion beste zerbitzu batzuen garapena jarraitu:  
Ikerkuntza.  
Eusgarri zentroak.  
Baliabide zentroak.
  8. Irakaskuntzaren erreforma edo
  9. Hezkuntza sisteman eta inguruaren arteko mugak.<sup>85</sup>
- Ikastetxe baten ikuspegitik, hezkuntza-sistemari dagozkion sistema ezberdinen eragina eta garrantzia ikertzea oso garrantzitsua da, are gehiago gure irakaskuntzarentzat, hots:
- politika sistema;
  - giza kultura;
  - administrazio kultura;
  - ekonomi kultura eta
  - demografi kultura.
- Hezkuntza sistema eta sistema berezi horiek<sup>86</sup> beste hiru esparru zabalekin zerikusian ibiltzen dira:
- a) Historiarekin, oraingo hezkuntza-sistema batek historian zehar gertatutakoak kontutan hartu behar ditu. Historiaren eragina oso garrantzitsua da hezkuntza-sistemetan eta adibide oso nabarmenak ditugu hirugarren mundua deritzon herrietan, hots: kolonizazio garaian eraikitako egitura, metodo eta hezkuntza-helmugak denbora luzez mantendu ohi dira askotan, alegia.
  - b) Filosofia, etika, zientzia eta erlijioaren ikuspegiak, hau da: ideiak, balioak eta usteak biltzen dituzten multzoak eta eguneroko hezkuntza giza kultura, politika eta zenbait egituren bidez erakusten direnak.
  - d) Egoera fisiko eta geografikoekin. Arlo hauekiko hezkuntza-sistemaren kezka
    - komunikabide egitura,

<sup>85</sup> D'HAINAUT, L. (1988) Op.cit., "Perspectiva adoptada", 20-23 orr.

<sup>86</sup> Ibid., 29 or.

- biztanleriaren banaketa,
- herria edo hiriaren egituraketa,
- industriagintza eta
- ingurugaien egokitzapena egitean legoke.

Hemen ezin ahaztu, egun ekonomia sistemaren eragina, bere inguruan biltzen baitira giza bitarte zein tresna indar guztiak.

Bestalde, hezkuntza-sistemarentzat, hezkuntza-edukiak etengabe egokitu beharra, benetako kezka bihurtu da. Garai batean, hezkuntza jasotzea epe zehatz batean zehar eduki jakin batzuk jasotzea eta lantzea zen. Hezkuntzaren kontzeptu hori bukatutzat jotzen da orain. Ez dago bizi osorako ikas daitekeen jakintza multzo trinkorik. Esan dezakegu hezkuntza, gaur egun, “etengabeko heziketa” bezala ulertzen dela.

Lanbide eskakizunak, gaur, azkar aldatzen dira. Uste dugu hezkuntza-sistemak ikasleari etengabeko egokitzapen trebezia eskaini behar diola. Zerbait ezagutarazi baino, ezagutza bultzatu eta eraikitzen lagundu. Erakustea, dagoeneko, ez da albiste mordo on bat ematea, ikasleak errealitatea ahalik eta osoen atzematzen ikasi behar du, bera bizi den errealitate sozialean zein ekonomikoan murgiltzen erakutsiz.

Egun, oro har, uste dugu ikastetxea garatzekotan<sup>87</sup>, hezkuntza-sistemak “pentsamendu antolatua” garatzeko oinarriak eskaini behar dizkiela ikasleei eta, horretarako, ezinbesteko hiru zutabe errotu beharko ditu.<sup>88</sup>

a) *Erretorika*: epaiak egiteko azter-jarrera sakonean trebatzeko balio du. Horretarako, hizkuntzaren eta pentsamenduaren arteko harremanak ezagutu eta menperatu behar dira.<sup>89</sup>

b) *Logika*: erretorikak hezurmamituz ematen dion pentsamendua hezurmamitzeko balio badu, logikak, berriz, funtzionarazteko balioko du eta norabide horretatik jarrai dadin ohitzen matematika, fisika eta biologiaren izateak ulertarazten saiatuko da.

d) *Kronologia*: gerta-ondorio kontzeptu zehatzen erabilera eta kondairaren azterketa erakutsiz, denbora eta gizatasunaren zentzua ematen dio honek pentsamenduari.


<sup>87</sup> TRILLAS, J. (1977); RODRIGUEZ BORNAETXEA, F. (1990). in *Hizkuntza/Hezkuntza Aktak*, REIMER, E. (1981). Op. cit.

<sup>88</sup> CERAP. Op.cit., 35-36 orr.

<sup>89</sup> OTEIZA, J. (1972). Op.cit.

Diogun honek, hezkuntza-sistema egitura barnean kokaturik, honelako eginbeharrak eskatzen dizkio, haur, lehen eta bigarren mailako hezkuntzari:

22. IRUDIA: *Hezkuntza-sistema eta pentsamendu antolatua*



M. Jaione Apalategi (1994)

Baina, hezkuntza-sistemak eduki ezagutzez gain, adierazpen hizkeraren erretorika, logika eta kronologia ere bideratu behar ditu. Horretan datza, hain zuzen ere, hezkuntza-sistema “errealago” baten sorkuntza. Hezkuntza bera, egun, errealitate oro ulertu eta garatu nahi den neurrian, giza jakintzaren kosmo-ikuspegia bere osotasunean biltzen ere saiatu beharko da. Estetika zientziaren ingurua ezinbesteko zutabea da, kulturaren garapen ardura bere esku duen “hezkuntza-sistema” batentzat. “Herri bakoitzaren hatsa naturazko erritmoak sortzen duen jarrera pertsonalaren eta honen ingurutik bideratzen diren kultura aldaketaren araberakoa da (...). Ondorioz, kultura, “gizakia-natura” errealitate bikoitzaren elkarrekintzen (adostasun edo desadostasun, oreka ala desorekaren) ondorioa da.”<sup>90</sup> Euskal kulturaren

<sup>90</sup> Ibid., 34 or.

izateaz jabetzeko, orokorrean, eta euskal hezkuntza-sistema bat eraitzeko, zehatzean, Jorge Oteizaren lan emankorra<sup>91</sup> ezinbestekoa da.

Pentsamendu antolatua ezaugarria hiru atal horien oreka lan-tzetik etorriko da. Beraz, gaur egun, hainbeste hitz egiten den infor-matikaren erabilera eskolan oso gai irristagarria dela uste dugu ..., lehenik eta behin, gazteengan ez bada, barne-barne pentsatzeko keme-na eta horrek eskatzen duen errealitatearen hausnarketa egiteko tre-batzen zein hezten. Informatikak berak, pertsonarengandik kanpoan dagoen zerbait denez, ez du herri bateko ikasleak etorkizuneko arazoei aurre egiten erakutsiko, aurretik gizatasuna bera sentitu, ulertzen eta giza ireki eta azkarrak hezten saiatzen ez bagara. Informatika, gaur egun, ezinbesteko tresna edo teknika bihurtu zaie gizarteei, baina hori erabili behar dutenak, lehenik eta behin, hezi behar dira. Informatika, berez, ez da pentsamenduaren hornidura, baizik eta horren elikagaiak diren “erretorika-logika eta kronologia” deitu dugun hirukote horren eramaile eta bitarteko besterik ez.

Beldugarria da A. MASCOLELL matematikariak dioena entzutea; “Joko-teoriaren hasieratik, xakea test bat izan da eta liluragarria da ikustea zer gertatzen ari den gizakiaren eta makinaren arteko borrokan, pixkanaka-pixkanaka makina irabazten ari dena.”<sup>92</sup>

Gure ustez, hezkuntza formalak honetaz egin dezakeena funtsezkoa izan daiteke gaurko gizarte antolamenduarekiko, hots: giza hierarki ba-lioen printzipio eta horien legeen “gizatasuna” ikertu, heziz eta garatuz.

Laburbilduz esan genezake hezkuntza-sistema baten eraginkorta-suna hobetzeko ez dela nahikoa edo beharrezkoa erreformak bultzatzea, baizik eta horiek helburu “errealaz” osatzea. Horretarako, gutxienez, bi jarrera eta ekintzabide garatu beharko dira:

1) ebaluaketaren izateaz jabetzeaz gain, landu eta seriooki erabili, hots: ikasle, irakasle, ikasketa, ikasturte eta ikastetxe osoaren azterketa eta balio irizpideak garatzen joateko eta

2) hezkuntzaren izatea hezurramitzen duten guztien interesak kontutan hartu, hots:

- ikasle,
- guraso,

---

<sup>91</sup> Ikus: Bibliografia orokorra.

<sup>92</sup> MASCOLELL, A. (1994). *EGUNKARIA* egunkarian, 94/9/17, 3 or.

- gizarte,
- lan mundua,
- giza ingurune zehatz eta zabala,
- hezkuntzaren beraren egoera eta premiak, ... e.a.

### 2.4.3. Aldagai gizapolitikoak

Izatez, aldagai hau oso irristagarria da, bai eskolaren bai hezkuntzaren ikuspegitik aztertzerakoan.

Ikastetxe mailan, nahiko gutxi tipifikatua agertzen da, baina gehienetan, bere eragina garrantzitsua izaten da, askok hala ez uste arren.

Besteak beste, lehenik eta behin, aldagai soziopolitikoari dagozkion gai orokorrak aipatzen hasiko gara:

- 1) Hezkuntza sarearen egitura Euskal Herrian:
  - 1.1 Hegoaldean: ikastolak, eskola “publikoak”, eskola “pribatuak”
  - 1.2 Iparraldean: ikastolak “écoles publiques”, “colleges” eta “lycées”, “competence: communale, départementale et régionale” direlarik.
- 2) Eskola-eredu bakoitzaren egituraz.
  - Nola ulertzen dira erduekiko errealitateak.
  - Jatorria eta kondaira.
  - Gaur egungo egoera (EAE- Euskal Autonomia Erkidegoa, Iparraldea eta Nafarroan).
- 3) Eskola eta hezkuntza:
  - hezkuntza mota;
  - eskola anitza ala aniztasuna eskolan;
  - hezkuntzaren hutsune motak egitura ezberdinen barnean, e.a.
- 4) Euskal Herriko eskola sarea:<sup>93</sup>

<sup>93</sup> Ikus: VIÑES RUEDA, H. (1982). “Estudio lingüístico y sociológico del euskera en Navarra”. *FONTES LINGVAE VASCONUM* aldizkaria. Iruñea, Institución Príncipe de Viana. Nafarroako Gobernua XIV urtea, 40 zk., 539-544 orr.; (1986). Euskararen Legea Nafarroan edo “Ley del Vascence” 86/12/18; AZCONA, J. & ... (1985). “La Diputación recibió el informe sobre la situación del euskera en Navarra.” *DIARIO DE NAVARRA* egunkaria 85/9/28, 21 or.; (1989). *Euskara, Nafarroako irakaskuntzan*. Textos legales BILDUMA. Nafarroako Gobernua. Iruñea; (1988). Ikastola eta “eskola publikoaren” arteko konfluentzia legea euskal elkarte autonomoan (EEA); (1989). Ikastolak eta EAEko Hezkuntza Sailaren arteko komenio sinatzea, Jose Ramón Rekalde eta Euskal Eskola Publikoaren Legearen zirriborroa; (1990). EAEko PSOEren Euskal Eskola Publikoaren bigarren zirriborroa. Eta

- 4.1 Etorkizun hurbila:
  - . "Euskal eskola" publikoaren legea.
  - . Euskararen legea.
  - . Eskola pribatu/publikoa.
  - . Ikastola.
- 4.2 Etorkizun urruna:
  - . Euskal hezkuntza-sarea.
  - . Herri zein jabegodun eskolen arteko bataz bestekotasuna.
  - . Eredu askatasuna.
  - . Euskal erakuntza hololinguistikoa.
- 5) Hezkuntza eta demografia<sup>94</sup>.
  - 5.1 Biztanleria Euskal Herrian: herriak, hiriak, ibarrak (...) guztira.
  - 5.2 Hezkuntza mapa egitamu berria.
- 6) Hezkuntza eta teknika<sup>95</sup>.
  - 6.1 Zientziaren ildotik lotu.
  - 6.2 Teknikaren eragina hezkuntza-erakuntza inguruan.
  - 6.3 Eskola-erakuntza barnetik aztertu, zientzia eta teknikaren errealitateak egokitzuz.
- 7) Hezkuntza eta ekonomia.<sup>96</sup>
  - 7.1 Gizartea-Lanbidea: hezkuntza aberria eta lan merkatuaren oraina eta geroa herri zein jabetun funtzioa edo publiko-pribatua.
  - 7.2 Hezkuntza eta funtzio publikoa edo funtzio pribatua.

---

Eta Euskal Herriko Ikastolen Elkartearen (EHIE) ak, I. Batzar Nazionala. Iruñean; (1992). EAJ/PNVk "sare publikoaren" aldeko jarrera aurkezten du; (1992). Ikastolen II. Batzar Nazionala. Iruñean. eta, EAJ eta (EHIE)ek elkarrizketak hasi zituzten; (1993): 1. Otsailean EAEko legebiltzarrak "Euskal Eskola Publikoaren Legea" onartu zuen; 2. Apirilaren 24an, EHIE Batzar Nagusi bat ospatzen du Gasteizen; 3. Maiatzaren 4an, EAJ eta PSOE-EE-ren arteko akordioa; 4. Maiatzaren 25an, Ikastolak, EAEan zehar, "sare publiko edo pribatuaren" arteko aukeraketa epea, bukatutzat ematen da; BASURCO, E & IZTUETA, P. (1993). *Euskal Eskola Berria*. Donostia: EHU (Kord.).

<sup>94</sup> *Navarra hoy*, aldizkaria. Iruña: (1992-12-15). "Sortzen dice que el Mapa Escolar margina la enseñanza en euskera"; (1993-2-23). "Mapafobia". SETUAIN, C. Ibid., "Reforma y Mapa Escolar". SAINZ DE MURIETA, J. (1993-2-28). "¿Quien quiere el Mapa Escolar?"

<sup>95</sup> MEDINA, M.; SAN MARTIN, J. (Eds.) (1990). *Ciencia, tecnología y sociedad*. Barcelona, Anthropos-EHU/UPV.

<sup>96</sup> SPECK, J.; WEHLE, G. (1981). *Conceptos fundamentales de pedagogía*. Barcelona, Herder, "Economía de la educación" 190-215 orr.



### 7.3 Hezkuntza kosteak.

- Hezkuntza aurrekontuak.
- Gastu arruntak eta bereziak.
- Jakineko eta beharrezko gastuak.
- Gastuekiko aurrealdintzak eta aurreusteak.

### 7.4 Ekonomiaren eta arazoen lehenetasun mailak: irtenbideak.

### 7.5 Hezkuntza eta lanpostua.

Euskal hezkuntzaren oztopo nagusia, gaur egun, giza politika egituratik datorkiguna dela esan dezakegu. Gainera, egitura mota horrek berezitasun propioak ditu gure herrialde eta lurralde bakoitzean. Bestalde, gizarte garatuetan, eskola-erakuntza ingurua ez da ikuspegi politiko eta boterearen eran bakarrik lantzen ..., baizik eta gizartearen beste arlo eta joerak ere oso kontuan hartzen dira, hots:

- ikerketak,
- nazioarteko hezkuntzaren joan-etorriak,
- batz besteko pedagogiaren lanak, eta<sup>97</sup>
- orokorrean, hezkuntzaren inguruan diharduten eztabaidagai guztiak.

Edonongo hezkuntzarentzat, "pedagogia soziopolitikoaren" eragina ezinbestekoa izaten da; nahiz eta gizarte handi edo txiki, mende balde ala sortalde, zibernetika ala alfabetizazio eremuan dabilena izan (...); eta nahitaezko ezagutza bihurtzen da burujabetasuna lortu nahian dabilen lurralde edo gizarteentzat. Izatea ikertu eta menperatzea eskatzen duela uste dugu gaurko euskal hezkuntzaren egoerak, eta aldagai soziopolitikoaren azterketa sakon baino xumea eskaintzeko, hirutan banatuko dugu bere ezaguera eta ekintza maila:

1. Hezkuntzaren eginahal gizapolitikoak: hezkuntza edukiak eta pedagogi gizapolitikoak.

2. Pedagogi gizapolitikoaren nolakotasuna hezkuntzan.

3. Pedagogi gizapolitikoaren zerikusia, beste maila batzutan.

Gizarte politikaren<sup>98</sup> lehen eginbeharra hezkuntzan, antropologiak, tokian tokiko gizabanakoa, gure kasuan euskal gizon-emakumeari buruz, erantzuten saiatu den galderen berri jakin behar du, hots:

<sup>97</sup> PEDRO, F. (1992). "Tendencias de la educación en Europa: Tradición e innovación". *INVESTIGACION y CIENCIA* aldizkaria. Barcelona, Prensa Científica; 189 zk., 79-87 orr.; GARCÍA GARRIDO, J.L. (1986a). Op.cit.

<sup>98</sup> SACRISTAN GOMEZ, D. (1988). "La función sociopolítica de la educación". *REVISTA ESPAÑOLA DE PEDAGOGÍA*, XLVI, 181 zk., iraila-abendua, 491-497 orr.

– Zer nolako gizon-emakumea da euskalduna?  
– Zeintzuk dira atal hezgarriak euskaldunengan?  
– Nola sailkatzen eta bereizten ditu arazo garrantzitsuak, xumeenetatik?

– Zer nolako baliotan ditu familia, lana, herria, lagunak ... e.a.

Ondorioz, besteak beste gizarte politikaren funtzioa, euskal hezkuntzan, euskal gizabanakoaren ezaugarriak aztertu eta arakatzetik etorri dena da.

Oro har, hezkuntzarekiko, gizon-emakumeek bi atal bereizgarri ditu:

1. Norberari dagokion heziketarena, eta
2. Gizartean bizitzeko duen joera hezi beharrarena.

Kondaira edo giza politika ingurunearen arabera, atal bat ala beste kontuagoan hartzeko eskatu ohi zaio hezkuntzari. Gaur egun dirudi, hezkuntza formalari eskatzen zaiona, zera dela: politika eta gizartea bereiztuz, bake bidean eta kidetasun osasuntsu batean heztea. Hau da, espresuki, hezkuntzaren gizarte politika funtzioa aldarrikatzen da. Batean, galderak sortzen ahal zaizkigu:

a) Zer dakarkie diogun horrek eskolan parte hartzen duten guztientzat?

b) Zein helburu bete nahi du funtzio horrek hezkuntzan?.

Lehenik eta behin, komeni zaigu bereiztea zer adierazten den “hezkuntza-politika” eta “politika hezkuntza”z hitz egiterakoan. Beterian dauden alderdiek hezkuntza-helburu zehatz batzuk zabaldu eta betearazteko duten ahalmenaz ulertzen da hezkuntza politika. Politika hezkuntza, aldiz, eskolak bere gain dituen funtzioetatik bat, sozial garatzearena du, non, hezkuntza-egiterakoan politika lantzeko posibilitatea eta beharra aldarrika dezakeelarik. Hori ongi ulertu eta bideratzeko, eskolak bi bide urra ditzake:

1. Gizabanakoak, izatez, badu albo politikoa: eskolak behar adinako askatasuna eta burujabetasuna behar du, gizartean diharduten alderdien ideologiapetik urruntzeko eta bere eragin mota garatzeko. Horretatik kanpo, askatasun eta eskubideei buruz hitz egitea axalez arduratzea besterik ez da.


2. Eskola, banako sozial eta herritarrez osaturik dago. Beraz, eskolak gizarteari zerbitzu bat eskaini behar dio, eta ez bere zerbitzura egon, soilik (...).

Bi mutur horiek elkarren aurka jardun ez dezaten, hezkuntza soziopolitikoa eta giza balioak aztertu eta errotzen saiatu behar da, bide

batez, bizikidetasuna derrigorrezko eta lehentasun mailakoa dela baieztatuz eta justifikatuz.

Egia da hezkuntza-ekintza bera eta eskolak, orokorrean, bete behar duen funtzioa, giza politika, ideologia, moralak, mundua, gizakia eta bizia ulertzeko, uste zehatz batetan oinarritzen dela, hots:

23. IRUDIA: *Eskolaren funtzio-esparru zehatzak*



M. Jaione Apalategi (1994)

Eskolaren funtzio horiek argi ikusi ohi dira, jabegodun edo eskola pribatuetan, “hezkuntza-asmu” agirien bitartez, hain zuzen ere. Gure ikastolek jaso eta jarraitu behar izan duten kondaira bereziagatik eta, batik bat, euskal hezkuntzan zegoen hutsuneagatik (... , funtzio horiek hasiera hasieratik ongi edo nahiko finkaturik egon dira), orain, gure ustez, berrikuspen baten beharrea badaude ere... .

Gure inguruan “eskola publiko”-“*école publique*” deitzen diren erakundeetan, eskola funtzio horiek oso nahaspilaturik agertzen dira, betiere orokorregi aurkeztu eta garatzen direlarik.

Arazoa betikoa da, eta asko dira gai honetaz arduratu direnak<sup>99</sup>: Legrand, W., Ardoino, J. Entwistle, H., Langlois, D., Medina Rubio, R., Sacristan Gómez, D. (...). Azken horrekin bat gatzoz esaterakoan eskola, “askatasun printzipio ildotik antolatu eta bere garapenez arduratuko balitz, gizarreak indarberritzeko duten bide bakarra, hots, gizon-emakumeak bene-benetako bidea urratzen arituko lirakekeela, baina horretarako, murgildurik dagoen gizarteko kultura, giza eta politika errealtate zehatza ardatzen duten balio eta giza arauak erakutsi beharko zaio ikasleari, ondoren, giza talde orok behar duten bizikidetasunaren mugak ulertu eta jabetzerakoan, askatasun osoz, bereziki berea eta bestee-ganako egingo duen bizikidetasun eredu erakargarriena irudikatzeko eskubidea eta beharra erakutsarazi ahalko zaiolarik”<sup>100</sup>. Aipa ditzagun bizikidetasuna hezurmamitzeko erabili daitezkeen zenbait giza-balio:

- Askatasuna, autonomia eta burujabetasuna
- Zuzentasuna
- berdintasuna
- aniztasuna
- jasankortasuna
- ulerkortasuna
- lankidetasuna
- bakea
- giza eskubideei begirunea
- demokrazia
- ezbairako gaitasuna
- entzuteko gaitasuna
- norberaren usteen babesa
- elkarrizketa
- eztabaidarako zentzua
- solidaritatea edo lagunkidetasuna

---

<sup>99</sup> *Revista Española de Pedagogía* (1988) Op.cit., 181 zk.: ESCAMEZ, J.; PETRUS, A.; MUÑOZ, A. “Pedagogía sociopolítica”. 454-473 orr. MEDINA RUBIO, R. “Educación moral y comportamiento cívico-político”. ARDOINO, J. (1980). *Perspectiva política de la educación*. Madrid, Narcea; ENTWISTLE, H. (1980). *La educación política en una democracia*. Madrid, Narcea; LEGRAND, L. (1977). *Pour une politique démocratique de l'éducation*. Paris: P.U.F.; LANGLOIS, D. (1990). *La politique expliquée aux enfants, et aux autres*. Paris, Enfance Heureuse. Ikus hemen 124 or.: “Livres d'initiation et d'éveil”.

<sup>100</sup> SACRISTAN GOMEZ, D. (1988): Op.cit., *Revista Española de Pedagogía*, 181 zk. 493 or.

Giza taldeen zein banakoen arabera, balio orokor horiek hainbat lehentasun maila izaten dituzte. Beraz, bizikidetasun eredu ugari sor daitezke, ez eta aurkakoak, osagarriak baizik. Hori horrela ulertzeak gizarte eta banakoen izateak naturalki ulertu eta eurekiko garapen baikorra bermatzea esan nahi du. Eta eskola erakundeak, horretaz, badu zer egin handia eta garrantzitsu-garrantzitsua.

Balio horiek hezkuntzaren bidez landu eta ikastetxeak hezgarri bihurtzeak bi aurrebaldintza kontutan hartzea eskatzen du:

1. Lehenengo eta behin, balioak zer diren, ikasi, ezagutu eta gain hartu.

2. Eztabaida teoriko garrantzitsuenak ezagutu.

Gizartean bizi eta bertako kide izateko, egokitzat ematen ditugu eduki batzuk ezagutu eta ikastea. Baina atal horrek ikuspegi politikoa lantzea suposatzen du, eta hau esatea zain jakitea dirudi ez dagoela ongi ikusita (...). Aldiz, egoera horren bideragarritasuna ziurtatzeko uste dugu, ikastetxeak edo eskolak sustrai-sustraietatik landu behar dituela giza balioak, eta hori egiteko, berriz, ezinbestekoa da ikastetxe bakoitzak bere politika aurkitzea. Gizartearen esanetara egon beharrean, alderdi politikoez eta gizartean diharduten beste sare eta egituraz gain, bere "ideologia" aldarrikatu eta bermatu beharrean dago eskola. Eskola buru-belarri –giza zein bere errealitatea hausnartuz eta hezkuntzaren bidez– garapen eta oreka eskaintza batzuk egiten saiatu behar da. Gizartean diharduten helburu politikoek ez dute zertan bat etorri eskolakoekin.

Esaten ari garena, egia bihurtzeko, gizarteak eskola-eredu ezberdinak aukeratzeko bideak eskaini behar ditu. Eta arlo hori ukitzerakoan, askotan, bi adigai nahasten dira, hots: "eskola anitzak" eta "aniztasuna eskolan", hain zuzen ere. Beraz, lehenik eta behin, bien arteko mugaz jabetzeko "aniztasuna" hitzak zer esan nahi duen ulertu beharko da. Eta azalpen hori egiteko, neurgarri jakin batzuk erabil ditzakegu:

- kultura,
- ekonomia eta
- gizartea.

Adibidez, eskola batean hiru arlo horiekiko egoera ezberdinetako haurrak biltzean, aniztasuna bermatzen dela esan dezakegu eta hori oso gauza baikorra dela uste dugu. Gehienetan, "aniztasuna eskolan" berdintasuna bermatzeko balio duen adigai bezala eragin ohi da (...). Aniztasuna, ordea, eskola-ereduak sortu eta onartzetik hasten da, gero eskola barnean ziurtatzen delarik. Eskola mota ezberdinak onartzea gizon-emakumeen arteko berezko ezberdintasunak onartzea, da. Gizarte

berdintasuna aldarrikatzeak eta hezkuntza-elkartereakiko berdintasuna jorratzeak berezitasunak kontutan hartzea suposatzen du.

Baina hala ere, osotasuneko planteamendu bat falta da, hau da:

- Zer ulertu behar da herri edo eskola publikoaz.
- Zer ulertu behar da jabegodun edo eskola pribatuaz.

Hezkuntza, oro har, eta euskal hezkuntza, bereziki, berriro ere bere, hezkuntza-helmugetaz arduratu beharrean aurkitzen da gaur. Ez da nahikoa dagoena mantentzea edo hobetzea.... Euskal Herriko hezkuntza-egoerak beste errealitate baten isla bihurtu behar da. Gure gizarteak, European barna, bat egingo duen hezkuntza-egitasmo eta egitamu proposamen berri bat behar du. Adibidez, 1997ko maiatzaren hogeita bostean Euskal Autonomia Erkidegoan eta bertako ikastolen artean, Euskal Herriko ikastolen elkartearen bitartez, “bukatutzat” eman zen “hitzarmenak” –sare publiko-pribatua aukeratu beharrarena, alegia– ez du euskal hezkuntza berrantolatzeke balio, osotasun planteamendua falta baitzitzaion eta, ondorioz, adabaki “ofizial” hutsa bihurtu dute Euskal hezkuntza-elkarte zein gure gaurko gizarte egituran hezkuntza ordezkatzen duten orok.

- ikastetxe publiko-pribatu/publique-privée; colegio-college, ikastolatik-unibertsitatea barne delarik...,
- hezkuntza-administrazio ezberdinek: Nafarroa, EAE eta iparralde ordezkatzen dutenek, ...,
- herritar mugimendu guztiek,
- jakitun eta ikerlari ...,

guztien kezka eta eginbeharra da, proposamen berri, ausartak, ez ohi-koak, e.a. elkarrekintza eta esku-harmen sakonen bitartez, Euskal Herriaren naturari dagokion hezkuntza-egoera egoki eta errealena topatzea, betiere, beste herri eta giza taldeekin batera garapena eta aurreapenari aurre eginez.

Eta dagoeneko ikastolek urratu duten ibilbidea zein hezkuntza-egitasmoa abiapuntutzat ez bakarria hobezina edo bukatua bezala, hartu gabe, ezingo da gure lurraldean hezkuntza-oreka bat bideratu.

Baina, gure artean bizi diren beste ikastetxe “guztiak”, jabetun ala herri eskolak izan, ez badira sakon-sakonetik euskal hezkuntza eraikitzen saiatu eta parte hartarazten ez bazaie ..., ikastolen etorkizunak gaur ezagutzen dugun bezalakoa izaten jarraituko du, hau da, “egoerazko” ez eta “naturazko” hezkuntza-sare baten lekuko. Euskal lurraldeetan, geopolitikaren administrazio eta mugaz at, gizartearen beste atal formal zein ez formalak eta bertako ikastetxe guztiak, ez bakarrik ikastolak,

hezkuntza propio bat eraiki nahi eta beharrezan elkartzeko ez diren bitartean, euskal hezkuntzaren egoerak geroz eta itxurazkoagoa izaten jarraituko du, ia-ia behar bada, zentzugabetasunera bultzatuz... Bistan da, egun gure gizarteko hezkuntza-botere eta indar ofizialek ez dute ematen horrelako egitasmo baten bultzatzearen aldekoak direnik... .

Bien bitartean, ereduak eredu, eskolak balioen igortze eta barne irizpide jarrera hezi behar ditu ikasleengan

1. bere axiologia politikaz gain,

2. ikasleengan, arrazonamendu irizpidetsua ere garatu behar du. Egia ezagutu ahal izateko eta zientziak objetiboki hurbiltzeko behar beharrezkoa delarik. Hau aurrera eraman ahal izateko, ikasleengan burujabetasuna ziurtatzea ezinbestekoa da. Baina, zeregin garrantzitsu hori, burutu ahal izateko, ikastetxeak gizartean funtsezko izatea eta oinarrizko zereginak ezagutu eta seriozki aztertu beharko ditu. Bestela seriozki kontutan hartzen ez bada, nola ahalko dute ikasleek giza balioen benetako barneratze prozesu bat garatu?<sup>101</sup>

Eskolak ezin ditu edukiak edo hezkuntzaren mamia albiste moduan azaldu, hau da, hausnartu zein buruarazten erakutsi behar du. Erlazio dinamiko eta emankor bat sortu behar da hezitzaileen eta hazgaien artean.<sup>102</sup> Askotan eskolak giza balio orokorrak zuzen zuzenean eta egokitu gabe igortzen ditu, irakaslearen izaera eta jokaerak soilik haurrengan balore isurtze eta jabetza bide bilakatzen direlarik. Bistan da, irakasle batek askotan hala ez uste edo ez ohartu arren, bere lan inguruko gaiak erakustean adierazteko, azaltzeko, egoteko, harremanetan jartzeko, izateko, ... e.a. ere ikasleengan izugarritzko eragina dutela.

Irakaslearen aurre-hausnarketa derrigorrezko baldintza da bere lan, izate eta egiteko erarekin pertsonalizatzea. Oso zaila da teorikoki zerbait erakustea eta betegarria bihurtzea, irakasleak, berak, bere gain hartzen ez badu esaten ari dena. Maleruski, izan ere ia beti teoria eta praktika aurkakoak direla<sup>103</sup> uste ohi da ... .

---

<sup>101</sup> BUJ GIMENO, A. (1992). "El entorno escolar como factor determinante en la educación del niño". *Revista española de pedagogía*. L urtea, 191 zk., urtarrila-apirila. Bertan "Haurrengan Eskubideei buruzko Nazioarteko Hitzarmena" harturik, haurra, hezkuntza, eskola inguru eta hezkuntza helburuei dagokien adigaien azterketa egiten du.

<sup>102</sup> OTEIZA, J. (1972). Op.cit.


<sup>103</sup> CARR, W. (1990). *Hacia una ciencia crítica de la educación*. Barcelona, Leartes, KEMMIS, S. "Sarrera", 7-38 orr.



Teoria, objetiboki, unibertsalki azaltzen-agertzen zaigun jakintza du-gu. Hori erakusteko, lehenetik eta behin, norbereganatze prozesua egon behar du, hots: pentsamendua, hizkuntza, idazketa erabiliz, ... e.a.. Hori emanez gero, prest dugu jakintza bat besteengana igortzeko. Beraz, eskola egituraren barnean eta hezkuntza-ekintzan zehar horren teoriarekiko irakasleak duen jabetasun eta menperaketarekin zerikusi zuzena du.

Teoria eta praktikaren arteko lokarria ulertzea eta frogatzea, ezinbestekoa da balio, giza arau eta bizikidetasunaren izatea ulertzeko. Besteak beste, euskal hezkuntzarentzako garrantzi handiko auzia da hori. Orokorrean, berriz, grafikoki honela adieraziko genuke:

24. IRUDIA: *Teoria eta praktika hezkuntzaren argitan*



M. Jaione Apalategi (1994)



Hezkuntzaren epistemologiaren<sup>104</sup> izatea eta jatorria, “nondik-nora” ibilbidea osatetik topa dezakegu eta hau 24. grafikoan agertzen diren gutxiengo galderei erantzutetik aurkitzen da:

1. Zein da hezkuntza ezagutzen jatorria?
2. Zein da bere garapena kondairan zehar?
3. Zein du bere helburu eta azter maila?
4. Zein da bere iker eragina eta ahalmena?
5. Zein da bere balio sistema?


Hezkuntzak, bere ezagutzaren bidez, ikasleengan hausnarketa irizpidea garatuz, jakintza multzo baten barneraketa lortu nahi badu, eskolak eta irakasleak, orokorrean zein tokian tokiko epistemologiak eskatzen dien galderei erantzun sendo bat egitea eraman beharko ditu. Ikasleak, betiere, hezkuntzarekiko hartu-emanetan, bi motako mugekin topo egingo du: naturazko muga edo banakotasun izatetik norberaren xedeak lantzetik sorturikoak eta gizatasun arloa tokiratzetik etorriko direnak, horiek urratzearen ondorio gisa, ikasleak autokontzientzia esperimintatu ahalko du.

Autokontzientzia garatzeak, gizarte politikaren lur irristagarria alde batera utzi eta ezagutzaren jatorrizko izatea menperatuz azter tresna bihurtzea suposatzen du. Autokontzientziaren printzipio eta legeak, besteak beste, gizarte, eskola, hezkuntzalari eta ikasleari igorri behar direla uste dugu.

---

<sup>104</sup> Ibid., 2.zatia 103-160 orr.; LARROSA, J. (1990). Op. cit.

25. IRUDIA: Hezkuntzaren epistemologia



M. Jaione Apalategi (1994)

2. PEDAGOGIA SOZIOPOLITIKOAREN NOLAKOTASUNA HEZKUNTZAN

Demografia, ekonomia, kultura, zientzia eta teknikaren eragina aztertzeko erabil daiteke hezkuntzan pedagogia soziopolitikoak.<sup>105</sup>

2.1 *Demografia*. Orokorrean hiru atal kontuan hartzeko erabiliko da:

a) Jaiotza kopuruen zuzeneko eragina hezkuntza-zerbitzu eta langileengan.

b) Zahar edo hirugarren adinez ezagutzen den biztanleriaren kopurua eta hezkuntza iraukorrekiko zerikusia.

<sup>105</sup> ESCAMEZ, J.; PETRUS, A.; MUÑOZ, A. (1988). Op.cit., *Revista de Española de Pedagogía*, 181 zk.

d) Hiri zein herri egitarau berrien beharra; lehengoak, kantitatean eta bigarrenak, kalitate arazoak konpontzea eskatuko dituztelarik.

2.2 *Ekonomia*. Ekonomiaren garapenak, ekonomia aurrekoiairen zentzuan, gaur egungo hezkuntza-eremuan, zenbait hitzen ingurua ulertzea suposatzen du:

- autoinstruzio,
- autonomia eta
- sormenaren gehikuntza

Hezkuntza eta ekonomia ezinbesteko lokarritasuna duten giza sistemak bezala ulertzen dira, baina, gaur egungo giza aldaketa azkarrak eskatzen dituen ekonomi egokitzapenak direla medio, hezkuntza ezin da ulertu, “erakunde” eta “formal” zentzuan bakarrik, baizik eta bere zentzu “ez formalean” ere, eta hobe esanda, berau garrantzi handiko fenomeno bilakatu denez, orokorrean hezkuntza formalaren eduki eta betekizunak ..., berraztertze sakonaren beharra duela, begi bistakoa da.<sup>106</sup>

2.3 *Zientzia eta Teknika*. Hezkuntza ildo honetatik aztertzeak, bat-batean, burutazio eta berregituraketa batzuk egitera eramaten du:

1. Kurrikulumaren berrikuspena eta berregokitzea.
2. Jakintza eremu zabalaren arteko diziplinartekotasuna.
3. Etengabeko egokitzapena eta prestaketa hori guztia bidertzeko, hezkuntza, trebakuntza eta argibide gune bezala ulertu beharko da. Ondorioz, gizabanakoak autokonszientziaren garapena lortuko duelarik, hots:

a) jakintza alorretarako jarrera egokien jabetza;

b) jakintzaren eremua eta bere erabilerak egokia ziurtatzeko jarrera moralen jabetza;

d) jarrera aldaketarako prestaketa: izadiaren iraupena bermatuko duen ildoak garatuz, eta teknologiaren erabilerak egokitze eta mugatzeko duen ahalmena garatuz;

e) zientzia-teknologiaren garapena landu. Horrek bi arloen buruketak egitea eskatuko du, hau da, giza burmuina eta industri aholkurako behar diren lehen osakinen arteko sormen aberatsa, hain zuzen ere.

2.4 *Kultura*. Antropologia zientziaren ikuspegia jarraituz, kultura giza talde baten ohiko pentsamolde zein bizitzeko eraz ulertzen da.<sup>107</sup>

<sup>106</sup> SPECK, J. & WEHLE, G. (1981). Op.cit.

<sup>107</sup> FOULQUIE, P. (1976). Op. cit., 107 or.

Hala eta guztiz, kultura hitzaren esanahia<sup>108</sup> era askotara mugaturik azal daiteke ..., baina guztietan hezkuntzarekin duten zerikusi eta harremana suma dezakegu. Bestalde, gizarte baten kultura baloreen<sup>109</sup> bidez atzematen da. Hezkuntza, gizarte ereduaren arabera, bereiztu egiten da. Hezkuntzaz gauza bera uste edo ulertu arren, era askotara landu daiteke. Oro har, hezkuntza, gizakien berezko, nabarmen eta ikur nagusia den hezkuntzaren bidez, pentsamendua aberastu, trebatu eta sendotzeko egiten den nahitako asmoen, ekintzabidea dugu. Beraz, hezkuntzaren lehen lana kultura hedatzea izango da: bigarrena, berriz, hedapenean zehar ematen diren gertakariak garatzea. "Gertakari" horiek atzemateak gizarte batean diharduten "baloreak" ezagutzea eta sailkapen bat egitea suposatzen du; gero, azkenik, hezkuntzaren bidez hezgarri bihurtzen saiatzeko.

Honekin batera, egun, gizarte zibilizatuaz ulertzen dugun eremuan eman diren balore aldaketan berri jakitea, aurreko lanaren osagarri izango dugu, besteak beste:

#### 26. IRUDIA: *Balioen aldaketa*

BALIOAK	
GORAKADA	BERAKADA
Erkide-tza	Norgehiagokeria
Giza justizia- herri zerbitzua.	Txobinismoa.
Gizatasuna	Norbekeria.
Sormentasuna eta jakintzaren joan etorria.	Titulu araketa.
Lanbide arteko aldekortasuna esperientzi berrien beharra.	Lana, norbere ziurtasun ekonomiko bezala!
Giza sarearekiko betebeharrak eta ardura.	Jabegotasuna.
Ekosistemaren ardura eta kezka.	Dakitenek konponduko dute...
Estetika baloreen balioa.	Aurrerapenean konfidantza eta baikortasun sutsua.

M. Jaione Apalategi (1994)

<sup>108</sup> MIALARET, G. (1984). Op. cit., 123-124 orr.

<sup>109</sup> Ibid., 492 or.

### 3. PEDAGOGIA GIZAPOLITIKOAREN ZERIKUSIAK BESTE MAILA BATZUETAN

Pedagogia gizapolitikoak, gizarte, politika eta hezkuntza mailetan ematen diren aldaketan eta horien arteko zerikusiak aztertzeko ere erabiltzen da. Ikerketa mota hori bi aztergai edo multzoen inguruan kokatzen da:

1. gizarte politika aldaketan eraginez, hezkuntza-politikan sortzen diren gorabeherak, esate baterako

1.1 mundu zabalean zehar lurralde zein elkarte edo erakunde berrien eraikitze ondotik sortzen diren hezkuntza-politiken garapena aztertu:

- Europako elkarteak
- Europako legebiltzarra
- Hegoaldeko afrikar elkarteak
- UNESCO
- Arabiar herrien erakuntza
- e.a.

1.2 Zer egin daiteke hezkuntza-politikan eremuetatik gizarte politika aldaketei erantzun ahal izateko?. Adibidez, orokorrean, emakumearen eta lan munduaren arteko gertakari nabarmena dela eta, zer erantzukizun bideratu beharko ditu dagoeneko eskolak?, besteak beste, balore azterketa, gizarteratze arloaren ukipen berria edo ezberdina, arautegiaren berrikuspena,... e.a. aztertzea eramango gaituelarik.

2. Pedagogia gizapolitikoak gizarte bateko botere politiko batek bere gain hartuko lukeen hezkuntzari buruzko proposamen edo eredu tekniko-profesionala bezala ulerturik. Gure ikerketaren izenburua –“eskola-erakuntza eta hololinguistika”– pedagogia mota honetan koka genezake..., zeren eta gure asmoa, egungo euskal hezkuntza-egoera desorekagarria onbideratzeko, proposamen berri bat aurkezten dugulako, Euskal Herriko hezkuntza azpi-sistemaren “natura-egoera” bikoitearen iparra eta oreka, giza aurrerapenaren zentzuan, garatu ahal izateko, abiapuntu berritzaile hartu beharreko EE egitasmo teorikoa delako, hain zuzen ere. Eta bide batez, EE ikerketa zientifikorako arketipo edo eredu nagusitzat erabil daitekeen proposamen bat aurkezten ari garelako.

3. Gizarte baliagarri bat eraikitzeko, hedatu beharko litzatekeen hezkuntza proposamena egiteko ere balio du pedagogia gizapolitikoak. Gure proposamenak honekin ere zerikusirik badu, zeren eta gizarte sistemaren hezkuntza azpi-sistema aztertu eta azaltzeaz gain, hezkuntza-sistema beraren ontasuna, hobekuntza eta ekitea nondik norakoak

diren ere agertzen ditugulako. Hori guztia euskal gizarte zein gure inguruko gizarte orokorrak gaur egungo gertakizunetara hobe moldatzeko ere..., egiten dugun proposamena dugulako.

4. Gainera, pedagogi gizapolitikoaren izate eta eragin mailaz ohartzea hezkuntzak dituen eginbeharrak burutzeko, askatasun tresna bihurtzen dira. Horri loturik, esan nahi genuke “Eskola-erakuntza eta hololinguistika” ikerketa proposamen hau hezkuntza eraginkorrago bat aldarrikatzeko asmoarekin egiten dugula, eta dakigunez, hezkuntza-eraginkortasunaren ezaugarriak gutxiengo zenbait malda berrikustea suposatzen du:

1. Pedagogia edo hezkuntza-teoria.
2. Giza politika.
3. Giza planifikazioa eta eraldakuntza.
4. Giza gatazkak.
5. Hezkuntza gastuak:

- zama bezala?,
- inbertsio emankorra?,
- aberastasun iturri?,
- faktore osagarria?,
- kontrol eragilea?, azkenik, pedagogi gizapolitikoaren zeregin

arloa genuke ere bai.

6. Hezkuntza gainbegiraketa. Teknifikatze eta demokratizatze bezala ulerturik gainbegiraketa mota honek, orokorrean, hezkuntzarekin zirikusia duten zenbait arloren garapenaren bilakaera eta berrikuntza maila aztertzea esan nahi du:

- 6.1 Politika eta hezkuntza-sistemen egitura egituretan.
- 6.2 Hezkuntza administrazioarena.
- 6.3 Zientzia eta teknika hartu-emanena.
- 6.4 Hezkuntza politika.

Bukatzeko esan, begi bistakoa dela:

erakunde edo erakunde ezberdinen arabera, faktore hauen sailkapena

a) alda egin daitekeela, eta

b) hedatzeko dagoen euskal hezkuntzak asko ikasi beharko duela atal honetatik!

#### 2.4.4. Aldagai berezia

Euskal ikastetxea aztertzeke erakuntza sistemikoaren aukera egiten genuenean, eredu guztietatik osoena, egituratua eta ez itxia zela

genion, are gehiago ikastetxea, sistemaren urrats eta izatearen mamia aztertzeaz gain, holosistema edo une baten ikuspegi oso eta muga iraunkorduna izan beharrean garaian garaiko holoikuspegi sistemikoaren esku hartzerako tokia ere uzten duelako, aukeratu dugula esan dezakegu.

Sistema baten ezaugarria "irekitasuna" bada, berritzailea eta egokigarria ere izan beharko da. Hala, ikastetxearen erakuntza inguruneko aldagai berezirik, bertara hurbiltzen direnen errealitatearekin harremanetan jartzeko eta elkar aberasteko eusgarri zehatzak eskaintzen saiatzen da.

Aldagai honen bideragarritasuna oso garrantzitsua da ikastetxe baten nortasuna eta ezaugarriak errotzeko.

Aldagai bereziaren bidez, ikastetxearen helburu eta helmugak zein barne eta kanpo erakuntza osoaren bizikidetasun garapena eraiki ahal da.

Diogun "ingurugiro" hori, ikastetxeak berak jasan duen bilakaeraren arabera aldatzen joan da. Eta gaur egun hartu duen pisua ukaezina da edonorentzat. Guk, berriz, gure ekarpenerako atal honen izatea ikertzeko, bi lerro nagusi aztertu beharra ikusten dugu:

1. Ikastetxea ekosistema bezala:

Eskola sistemaren hezkuntza-sistema, giza-kultura sistemaren ondorio orokorra bezala.

1.1 Ikastetxearen aldagai bereziaren populazioa giza ekosistema eta erakuntza kultura zehatza bezala.

1.2 Ikastolak, aldagai berezi eta barne erakuntzaren hartu-eman eredugarri.

Lehenengo lerroko lehen azpi-puntua egituratzeko erabil daitekeen oinarrizko txostena, J. Gairinena<sup>110</sup> izan daiteke eta bigarrenarako, berriz, gomendatuko genituenak M. Lorenzorenak<sup>111</sup> lirateke, hain zuzen ere, eta biek adierazten dutena, aldagai bereziaren eguneratzeko ezinbesteko ikuspegia dela uste dugu, are gehiago nahi adina sakontzeko, bibliografia eskaintzen dutelarik.

---

<sup>110</sup> LORENZO, M.; SAENZ, O. (1993). Op.cit. GAIRIN, J. "El sistema escolar como ecosistema evolvente de la escuela", 2. atala, 41-68 orr.

<sup>111</sup> Ibid., LORENZO DELGADO, M. "La organización de la escuela como ecosistema social", 3. atala, 69-89 orr., eta "La cultura escolar", 16. atala, 367-382 orr.

Guztiaren laburpen gisa, autore askorekin bat etorriz<sup>112</sup> esango genuke, ikastetxeak eskuartean duen zeregin nagusia den “hezkontza”, benetako garapen bidetik eramateko, tokian tokiko erakuntza sistema bezala ulertu eta hartu behar dela.<sup>113</sup> Ezin daiteke ikastetxe bateko barne egitura osatzen duten azpi-sistemen eragina aztertu edo esku hartu, baldin eta horren erakuntza inguruneko giza errealitatea ezagutzen ez bada, hots, ikastetxe guneak eta kultura eremu zehatzak mugatzen dituzten populazioa: guraso, ikasle, irakasle eta elkarte osoa, hain zuzen ere.

Ikastetxea, giza eta gizarte ekosistema bezala aztertzeak hiru esparri nagusi bereizitu eta elkar erlazionatzea suposatuko du:

a) Ikastetxe oro, alde batetik, historia korapilatsu baten joan etorrien ondorio izaten ohi dira. Gure herrian, euskal erakundetzearen urratsak ikastolagintzaren eskutik jaso ditzakegu. Historiaren aztarnak bilatzeak izandakoa jakiten laguntzen du, baina duguna segurtatu eta etorkizuna hobetzeko argitasunak eskaini ere bai, ... “nahiz-eta Historia historia izan, eta ez jakite prospektibo. Iraganarekiko leialtasuna eta geroarekiko sormena hobeki gorde eta eragin litezke ez jakineen baino informazio eguneratu baten gain”.<sup>114</sup>

---

<sup>112</sup> HAWLEY, A. (1982). *Ecología Humana*. Madrid, Tecnos; BRONFENBRENNER, U. (1987). *La ecología del desarrollo humano*. Barcelona, Paidós; MINGORANCE, P. (1990). “El contexto como cultura significativa en el pensamiento del profesor. Metáforas institucionales.” Kongresu akta: *El centro educativo. Nuevas perspectivas organizativas*. Universidad de Sevilla: GID; COLOM, A.; SUREDA, J. (1980). *Hacia una teoría del medio educativo*. Universidad de Baleares, ICE; II CONGRESO INTERUNIVERSITARIO DE ORGANIZACIÓN ESCOLAR (1992). Op. cit.,

<sup>113</sup> TAYLOR, W.; DAS, G. (1993). Op.cit., *Harvard Deusto Business Review*.

<sup>114</sup> INTXAUSTI, J. (1991). *Euskal eskolaren iraganaz Historia baten bila: EHIHren proiektua (1990)*, Ikerlanak, IV. EHEA eta EHIE. Bergara, Iragi.

*TANTAK* hezkuntza aldizkaria (1990). Donostia: EHU/UPV, 4 zk.: BASURCO, F. “Ikastolaren normalizazioaren historia”, 33-61 orr.; FERNANDEZ, I. “Instituzionalizatzeko urratsak eta administratzairekin harremanak (1980-1990)”, 63-69 orr.; ZABALETA, I. & DAVILA, P. “Euskal Eskolaren lehen urratsak”, 21-31 orr.; *JAKIN* sorta. (1972). “Gure ikastola: goitik, behetik, eskuinetik, ezkerretik”. Oñate (Gipuzkoa), Aranzazu; ZALBIDE, M. (1990). “Euskal eskola, asmo zahar bide berri”. Euskal Eskola Publikoaren Lehen Kongresua, Gasteiz, Eusko Jaurlaritzak, I. tomoa, 211-271 orr. eta II tomoa.



b) Giza eraikuntza adierazpen zehatza ere badira ikastetxeak. Hau da, gizartearen berezko zerbait ez, baino gizarteak, oso era ezberdinetara pentsatu, irudikatu eta altxatutako erakuntzak dira. Eraiketa baikoitzaren jabegoaren arabera, ikastetxeak giza garapen eta berrikuntza aurrerapen zehatzak ahalbidetzen saiatuko dira.<sup>115</sup>

d) Azkenik, ikastetxeak orokorrean askotan ageri, beste askotan estalirik agertzen diren funtzio zehatz batzuk betetzeko gune bezala ere ulertu daitezke, hots: hezi, gizarteratu, lanbideratu, erakutsi, norabidetu, kultura hedatu (...) edo alderantziz lurperatu, agintea azpimarratu, ezberdintasuna areagotu, bizikidetasuna ankertu, (...) e.a.<sup>116</sup>

Hiru esparru zabal horietan zehar, gizabanakoaren garapena gertatzen da, bere bat-bateko ingurunea bilakatuz eta guztien artean giza ekosistema osatuz:

Aldagai bereziak beraz, lekuan lekuko hezkuntza-elkartearen arabera batik bat, eskolaren lanabes nagusia den hezkuntzari gune fisiko eta kulturala eransten dio. Ikastetxea eta inguruneko aldagai berezien artean egon behar den oreka, batik bat, ikastetxearen zeregina da, eta bere eraginkortasuna bermatzeko, hezkuntzaren zenbait arlo aztertu eta bideratzea ezinbesteko da, guztietan ikuspegi orokor eta, aldi berean, zehatza erabiliz, hots:

1. Hezkuntza, sendiaren ikuspegitik.
2. Hezkuntza, guraso eta ikastetxea.
3. Hezkuntza elkarte eta kultura elkarte.
4. Ikastetxearen kultura.
5. Guraso, ikasle, irakasle, ... eta elkarte hurbilaren gizarte eta kultura ezagutu.

“Ingurugiro” hitzaren izatea, eta zeregin mailak aztertzea zen aldagai bereziarekiko ikerketa osatzeko proposatu dugun lehen iker lerroa. Bigarren batek, berriz, ikastolagintzaren kondairan zehar, aldagai bereziak izan duen garapen eredugarriaren esperientzia aztertzea eramango gaitu, alegia.

Ikastola ikastetxeen giza hornidurek benetako ekosistema kulturala bezala funtzionatu ohi dute eta egun, gertakizunak gertakizun, holaxe jarraitzen dutela esan genezake. Are gehiago, Euskal Herriko

---

<sup>115</sup> Ibid.; Euskal Herriko Ikastolen Elkarte – EHIE: Euskal Herriko Ikastolen 25. urteurrenak bilduma.

<sup>116</sup> BERNSTEIN, B. (1988). Op. cit.

ikastolen funtsezko errealitatearen egia zein ikastola egitasmoaren arrakasta eta horren ondorioz, egun, “bernorabidetzen” edo “aldatzen” hasia den eskolagintza mugimendu berriaren izatea ..., neurri handi batean, ikastoletako aldagai berezietan eman den:

- trebezi
- bizitasun
- eztabaida
- berrikuntza
- egokitzapen
- esku harmen, eta
- e.a.

eraginez lortu dela, esan daiteke.

Ikastolak (...) “egiturazko zutabeak izan ditu euskarrizat baina, horiek ez ezik, talde sozial zabal baten unean uneko borondatea ere bai. Eta hainbat ikastolak bere zilarrezko ezteiak ospatzen dituen urte hauetan, eskolagintza hori aztergai historiko bilakatzera doa, laster izango baitugu, joan badoan denborari esker, distantzia egokitik begiratzerik.”<sup>117</sup>

## *2.5. Erakuntza sistemikoaren bideragarritasuna: giza esku-harmena*

### **2.5.1. Giza esku-harmenaren ikuspegi psikosoziala**

Bigarren zatiaren bigarren atalean garatu dugun Eskola-erakuntzaren eredu sistemikoa gaurko euskal ikastetxea aztertzeko baliagarria izateaz gain, etorkizun hurbileko zein urruneko euskal hezkuntzak beharko dituen ikastetxe eredu eta mota ezberdinak eraikitzeko balio digun ikuspegia dela uste dugu. Baina eginbehar horren bideragarritasuna finkatzeko, “giza esku-harmen” sendoa ezinbesteko baldintza da.

Eta horixe da hain zuzen ere, giza azpi-sistemen artean zein bakoitzaren barnean (ekonomia, politika, kultura, ... e.a.) eta, horien ekintza bidez, garapen onuragarriagoak lortzeko sortu diren hainbeste elkargo, bulego, erakunde, ... e.a., giza ikerlariek, aspalditxotik, egiten dituzten baino egitamu errealago eta bideragarriagoak esku egitea

---

<sup>117</sup> INTXAUSTI, J. (1991). Op.cit., 209 or.

eskatzen die, gai bakoitza aztertzerakoan dagokion makro zein mikro helburu, helmuga, egitura, teknologia burokrazia, ... planifikatzerakoan holoikuspegiak baliatzea eskatzen zaielarik, alegia. Errealitate ezberdinak, hobe eta osoago, ezagutzeko ezinbesteko baldintza da edozein ekimen aurrera eramatekotan. Baina jakin badakigu, errealitatea ikuspegi formalez zein ez formalez osaturik agertzen dela eta, giza historian zehar, behar dezakegun bezala, garai batzuetan, halako ez eta bestelako ikuspegi mota baten hutsunea nabarmenagoa izaten da; egungoan duguna, berriz, holoikuspegi baten beharrez gain, ikuspegi ez formal edo psiko-sozialaren hutsune edo aintzagabekeria da.

Hezkuntza erakundea den ikastetxetik, besteak beste, ikuspegi holo eta psiko-soziala berreskuratzea, besteak beste, “giza esku-harmen” adigaien (jatorria) *izatea* menperatu eta bereganatzea eskatzen du ikastetxearen “giza esku-harmenak”, ikuspegi psiko-sozialetik honela mugaturik geratuko zaigu:<sup>118</sup> “talde egoera baten helburuaren aurrean laguntza eta ardura banatze alde suspertzen den pertsonaren buru eta jarrerazko eragina”.

Ikuspegi psiko-soziala erabiltzea, edozein errealitatearen “berezko garapena” osoago ezagutzeko baldintza da, askotan, hainbat egoerapetan ezabatu edo hiltzorian bizi den errealitate sutsu eta ustekabeak gain, azalerazten lagunduz.

Erakuntza zientzialarien iritziz (psikologo, soziologo, pedagogo eta politikologo), giza esku-harmena:<sup>119</sup>

1. kultura ondarea,
2. arazoaren ezagupen, ardura eta eraginkortasuna,
3. bizitasuna eta sortze energia,
4. egoerazko desberdintasunen areagotzailea,
5. egitasmo erreal bat bihurtzeko daitezkeen usteko ahalbideak, ...

bezala ulertu behar da, erakundekide guztiekin zerikusia duten helburuak bideragarri, erreal eta orekagarriagoak sortzen lagundu dezakeelarik.

---

<sup>118</sup> MEDINA RUBIO, R. (1988). Op.cit., “Estructura y naturaleza de la participación educación” Op. cit., *Revista española de investigaciones científicas*, 181 zk. 475-479 orr. Davis, K.-ri jasotako oharra, 475 or.

<sup>119</sup> PASCUAL, R. (coord.). (1988). *La gestión educativa ante la innovación y el cambio*. Madrid, Narcea; II. EUSKAL MUNDU BILTZARRA, 110-127 orr.

Giza esku-harmena azaldu dugun ezaugarriez mugatu daitekeena-rekin ados gaude. Baina ikastetxe bakoitzak, aurrez, beste gai edo arazo batzuk jakin eta azertu behar ditu:

. Zeintzuk dira “giza esku-harmena” baldintzatu eta adierazgarri bihurtzen duten aldagai eta printzipioak.

. Zertarako balio du giza esku-harmenak, barne edo kanpo erakuntza ingurugiro bakoitzean.

. Noiz ematen da zerikusi baikorra esku-harmen eta emankortasun zein hezkuntza-kalitatearen artean?

Erakuntza sistemikoaren azpi-sistema, aldagai zein eskola-erakuntzaren kanpo eta barne baldintzen atal edo aztermailaren arabera, guk esandako galderek erabilera ezberdinak eta erantzukizun ugariak eskainiko dizkigute. Baina, behetik giza esku-harmenaren filosofia benetan ulertu eta erabiltzen badugu, betetasun edo asetasunak dakarren emankortasun eta eraginkortasuna berehala sentitu eta ikusi ahalko dugu ikastetxe osoan eta maila ezberdinetan:

a) Ikastetxeko biltzar eta lantalde bakoitzaren eginkizunetan zehar, eraginkortasuna zein gobernagarritasuna edo giro aproposa.

b) Erkidetasun eraikigarria, egoera teknikoetan zein arruntetan.

d) Denbora galtze ezaren sentimendua eta bide batez:

– gauzek aurrera egiten dutenarena,

– erkidetza guztien atal baikorra ezagutu eta behar denarena,

– talde zentzua,

– lankidetasun hatsa,

– taldeen arteko ongitasun edo betetasuna,

– ekintza ezberdinen arteko osagarritasun iparra,

– (...)

e) Aurrejarrera baikorra ardurak banatzerakoan.

f) Aitzindaritasun onartua eta orekatua.<sup>120</sup>

g) Motibapena edonon.

h) Gurasoek hezkuntza aurrean dituzten kezka, galdera, e.a. etengabeko egokitzapen iturri,


i) Oro har, ordezkari ordezkatzailerik egoki eta onartuak.

Eskola-erakuntza sistemikoaren bideragarritasuna, grafikoki azalduz, honela geratuko zaigu:

---

<sup>120</sup> PASCUAL, R. (1987). *Liderazgo y participación: Mito y realidad*. Bilbao, Deusto.

27. IRUDIA: *Eskola-erakuntza sistemikoaren bideragarritasuna*



M. Jaione Apalategi (1994)

### 2.5.2. Giza esku-harmenaren kultura eta teknologia

Giza esku-harmenaren izateak giza kulturaren hainbat aldagai-ekin zerikusi zuzena du, betiere aldagai gizapolitikoekin, batik bat: giza "statusa", kultura maila, gizarte arlo ugarietan parte hartzeko ohitura, eredu politikoaren eragina, gizarte eta politika erakunde arabera, (...). Orokorrean, era zuzeneko isla izaten du ikastetxe egitura barnean.

Gaurko ikastolen bilakaera, ez egoerazko kulturaren giza politikak eragindako ondorioa..., baizik eta, berezko edo naturazko kultura batek eskatzen duen kontzientziak bultzatutako giza taldeen giza esku-harmenaren eraginez, hain zuzen ere.

Kast eta Rosenzeigek giza esku-harmena, erakuntza sistemikoaren helmuga, balio, eta psikosoziala, egiturazkoa, teknologia eta adminis-

trazio azpi-sistemekin erlazionatzen dela diote.<sup>121</sup> Erakuntzaren sistema teoria orokorrak giza esku-harmen ikuspegi intelektuala, baikorra eta emankorra garatu eta azpi-sistema guztiekin erlazionarazten du. Esku-harmena bera erakunde bizi eta aldaketetara egokigarria bideratzen duen egoera bezala ulertu duelarik.

Ikastetxearen betebeharratetik, esku-harmena ez da ordezkartizapenaren zentzu hutsetik hartuko, baizik eta eskola kultura gara dezakeen teknologia bezala. Hau da, giza esku-harmen teknologia, kultura giza esku-harmenaren tresna edo bitartekoa litzateke eta kultura esku-harmena sakona eta autokonstzientea bezala ulertu behar da:

“bizia eta hezkuntza arazoan aurrean eragin, lehentasun, sinismen, asmo, aburu joera eta jarrera multzoa da, une zehatz batean giza talde baten egintza historikoa, ekintza elkarte bati lotzen diolarik” bestalde, kultura ez eta teknologia bezala eragiten du esku-harmenak, zeren eta “buru bakar bati loturik dauden borondate anitzi zentzuaren indarra eta eskola elkarteari talde kontzientzia eraikitzea lortzen duelako”.<sup>122</sup>

Ondorioz, hezkuntza-elkartearen kultura nortasuna eta hezkuntza-kalitate arazoei, zentzua eman besterik ez da gertatzen. Ordez, azken baitan, “izaera” bateragilerik gabe, oso eginbehar desatsegina bihurtzen da hezkuntza-elkartearen giza esku-harmen zentzua.

Bestalde, guk ere erakuntza zientzialari askoren antzera, kalitatezko hezkuntzaren<sup>123</sup> oinarria ikastetxe bateko kultura batasuna dela uste dugu, eta horren eragile nagusia “zuzendaria”. Are gehiago edozein erakuntza eredu delarik ere, baldin eta bere hezkuntza-asmoen garapenerako “zuzendaria” kontutan hartzen ez badu, ez dugu bere bideragarritasuna egokitzen joko.

Euskal Herrian, berriz, datozen urteetan ikastoletako zuzendariak joka dezaketen apustua gure etorkizunaren txapelketa erabakitzeke adina izan daiteke. Horretarako, zuzendari talde trinko eta erakuntza

---

<sup>121</sup> MEDINA RUBIO, R. (1988). Op.cit., 481 or.

<sup>122</sup> Ibid.

<sup>123</sup> Eusko Ikaskuntza. (1994). HEZKUNTZAREN KALITATEARI BURUZKO IHARDUNALDIAK, Bilbo, Martxo 14-15-16. Ikus: FRABBONI, F. “las condiciones contextuales de la calidad de la Educación”. 10 or.; DE MIGUEL DIAZ “La calidad de la educación y las variables del proceso y de producto” 24 or., “Ethos y cultura de la institución...”, 19 or.

teoria menperatzen dutenak egokitu beharko dira. Benetako erakuntza azterkariak sortu eta antolatuz.

Zuzendaria, oro har, hezkuntza-elkartearen kultura joan etorriaren axiologi bultzatzailea bezala ulertzen da; bere funtsezko zeregina, kultura sortzea litzatekeelarik.<sup>124</sup>

Kultura bakoitzaren arabera giza esku-harmen teknologiko bat ala beste sortuko da. Arazo tekniko zehatz batzuez gain, hala nola erakuntzaren neurriari lotu zaizkiokeenak,<sup>125</sup> esan daiteke ez dagoela giza esku-harmen eredu eredugarriarik. Eta esku-harmenaren izate, muga eta erabileraren garrantzian sinisten badugu ere, ohartzten gara EE-ren arazo guztiak, konpon dezakeen tresneria ez dela.

---

<sup>124</sup> MEDINA, M.; SAN MARTIN, J. (Eds.) (1990). Op.cit.

<sup>125</sup> SCHUMACHER, F. (1979). *Lo pequeño es hermoso*. Madrid, Blume.

### III. ZATIA

## ESKOLA-ERAKUNTZA HOLOLINGUISTIKOA

### 1. Lotura honen nondik norakoa

#### *1.1. Euskal eskola-erakuntza –EEE– eraikitzeke ikuspegia*

Zati honetan, lan korapilatsua bezain erakargarria garatzeko asmotan gabiltza. Lehenengo zatian, Eskola-erakuntza zientziaren izatea bi motako baldintzek mugaturik dagoela genion, hots, “barnerantz” edo “Eskola-erakuntzaren Barne Baldintzak” eta “kanporantz” edo “Eskola-erakuntzaren Kanpo Baldintzak” eta biak, Euskal Ikastetxearen ikuspegitik aztertu ditugu, hezkuntza eremua azter eta langai dutelarik elkar. Bigarren zatiaren lehen atalean, Eskola-erakuntza ereduaren eremu epistemologikoa azaldu dugu eta bat aukeratu, eredu sistemikoa hain zuzen ere, bigarren atalean zehar, “Euskal Ikastetxearen Barne Erakuntza” aztertzeke eta egokitzeko erabili duguna.

Hirugarren zatian, berriz, “Euskal Ikastetxearen Kanpo Erakuntza Baldintza” izango dugu aztergai eta bere garapenaren berrikuntza, Jose Maria Sanchez Carrion “Txepetx”ek gure artean lehen aldiz erabili eta egin duen “Hololinguista” zientziaren eskutik etorririko zaiola frogatu nahi dugu. Txepetxen teoria hololinguistikoaren adierazpen ugarienez bidez “Eskola-erakuntza hololinguistikoa” zertan datzan eta nola hezurmamitu daitekeen eskainiko dugu.

Azken baitan, gure helburu orokorra, Euskal Herrian egun dau den “eskola-erakuntza ereduaren” arteko gatatzari irtenbide orekatsu bat eskaintzean datza eta, horretarako, III. zatian zehar, ahalbidetuko dugun ahalegina ildo honetatik joango da:

1. Gatatzaren (jatorria-mamia-funtsa) izatea atzeman, hots hezkuntza eremutik baino hizkuntzarenetik datorrela frogatuz,




2. Hezkuntza sareen artean osagarritasuna behar eta bata-beste-ko-tasunaren ikuspegia berreskuratu.

3. Azalpen zientifikoaren bidetik berreraikitzeko eskaintza ikertu dela defendatzen dugu "eskola-erakuntza hololinguistikoaren" izate zientifikoa ikertuz.

Irudi grafikoaren bidez adieraziz honela ager dezakegu:

28. IRUDIA: *Hezkuntza sareen eztabaidarako abiapuntu zientifikoa*



M. Jaione Apalategi (1994)

Eskola-erakuntzaren epistemologiak eraman gaitu zientzia horrek gaurdaino sortu dituen ereduak ezagutu eta aztertzeraz. Guk diogu, Eskola-erakuntza egiteko/aplikatzeko, ikastetxea bere isla bezala harturik, bi motako baldintzak bete behar direla, hots:

1. Eskola-erakuntza ikastetxearen Barne Baldintzak: Hezkuntza asmoak, Hezkuntza egitasmoa eta Barne arautegi atalak osaturik, eta

2. Eskola-erakuntza/ikastearen Kanpo Baldintzak, giza sistemaren kultura eta hezkuntza-teknologia dituelarik hezur-mami.

Barnekoak aztertzeko, egokitzeko eta hezkuntza-beharrei aurre hartzeko, Eskola-erakuntza eredu sistemikoa proposatzen dugu, eta kanpokoentzat berriz, hololinguistikaren eremua izango dugu ardatz.

Horren guztiaren asmoa, euskal ikastetxeak, erakuntzaren teoria-tik ulertu beharreko zerbait direla frogatzea da:

## 1. OROKORRAK

- Euskal Hezkuntzaren izatea aurkitu eta bere testuingurua Euskal Herri osorako birdefinitzea.

- Ikastetxeak, eskola-erakuntza zientziaren alorretik antolatzea.

- Ikastolak, bere hezkuntza-elkarte osoarekin, (ikasle, guraso, irakasle (...)), abagunezko arazo bezala hartu dena, egiturazko irtenbide bihurtzea. Euskal hezkuntzari, orokorrean, eman behar zaion eraketa berriaren trikuarri hartuz.

## 2. ZEHATZAK

- Hezkuntza ekin eta ikertzen dutenen arteko elkarlanaren beharra aldarrikatzea.

- Ikastolak, bereziki Eskola-erakuntzaren esanetara berregokitzea eta horretako "erakuntzalari" talde bat osatzea eta prestatzea.

- Euskal gizarteari hezkuntza-kultura zientifikoa eta ez ideologikoa bideratzea, non hezkuntza-erabaki gune diren tokien ardura nagusia izan behar litzatekeen:

Administrazio, erakunde ofizial, ez-ofizialak, kultura talde, elkar-te, (...)

- Euskara eta Hezkuntza, gure gizartearen errealitatea areagotu eta eraberritzeko, ikastetxearen ezagutza eta erabilera zientifikoki egin beharko da, eta horrek ez du esan nahi, metodologi sendo bat aurkitzea nahikoa dela, baizik eta helburuak, zentzua ematen dutenak direla jakinik, ongi bereiztu eta finkatzean datza. Alegia, euskal ikastetxearen erakuntza zientifikoki garatzeak berekin dakar helburu hauek kontutan hartu eta lantzea:

1. Lehenik eta behin, euskal gizartea, Euskal Herria bezala ulertu behar dela, ez eta gaur egun bizi dituen mendetasun ezberdinen egoera baten islatik bakarrik eta hortik aurrera, garena ikasi eta izan ondoren, gure hezkuntza gaurko arazo eta etorkizunekoetarako ikuspegia hezi nahian, garatuz joan beharko dela: garena, gero eta modu egokiagoan adierazi eta gara dadin, behar den testuingurua sortuz.

2. Hezkuntza ekiten dutenen guztien jokabidea, aipatu dugun testuinguru berri horretara egokitu, hots hezkuntzaren atal formaleko zein ez formaleko partaide guztiak, alegia.

## 2. Eskola-erakuntza kanpo baldintzen ikuspegi zientifikoa


### *2.1. Giza errealitatea: kultura eta teknologiaren hizkuntza/ hezkuntza*

Erabat ados gaude Txepetxekin,<sup>1</sup> behin eta berriro esaten duenean, banakoen zein taldeen “giza errealitatea” ezagutzeko dugun era bakarra lege naturalek diotenei jarraitzea dela. Horrek, mundua, elkarren arteko ezberdintasunen duintasunean, osagarritasunaren onarpenean eta hizkuntzen zein arrazen balio parekideak, oinarri eta batera ikusarazten dizkigutelarik Hizkuntza, kultura baten oinarritzko elementu eta giza elkarte baten nortasun ezaugarri nagusia delako, guztien arau naturala, sendi/elkarte/talde ... e.a. batzuei loturik jaiotzetik datorrena da. Ondorioz, printzipio, lege zientifiko jakin eta banako zein talde sinismen zehatz batzuk onartu eta bizitzen dituzte elkar. Bestalde, oso interesgarria da ohartzea arlo hauen arteko lehentasunen arabera, gizarte zein edozein erakunderen aurrerapena neur daitekeela, ..., “egia zientifikoak ez baitaude zenbaitek edo nork onartzen dituzten eraginpean, ... aldiz, gizarte bateko kultura, heziketa lege eta sinismenen aurrean bere partaideak dituzten lehentasun edo menpekotasunen baitan daude.”<sup>2</sup>

<sup>1</sup> (1990b) “Análisis para escépticos”. *Zutik* aldizkaria, II, 2-3 orr.; (1987a). *Ibid.*, 385-387 orr.

<sup>2</sup> *Ibid.* (1991a). “La marginación social del idioma y el status marginal de la sociolingüística”. Acuerdo de bases para la planificación lingüística del Euskera en la Universidad Pública de Navarra/Nafarroako Unibertsitate Publikoa. Gasteiz, II. atala, 2-5 orr.

29. IRUDIA: *Giza errealitatea lege naturales baitan*



M. Jaione Apalategi (1994)

Eskola-erakuntza –EE-, bere “kanpo baldintzen” eremuan, giza sistema osoaren “kultura” eta horren ondorioz sortzen den “teknologi” errealitateak ezagutu, jabetu eta ikasi beharrean dago, baldin eta euskal giza taldearen hezkuntza-ikuspegia, EE-ren lege zientifikoetara egokitu nahi badu.

Bistan da, EE zientzia euskal gizartearen ikuspegitik garatu eta egitaratzeak berekin ekarriko duela dagozkion aldagai guztien ikerketa sakona egitea. Horretarako, lehenik eta behin, euskal gizartearen benetakoa kultura paradigma gureganatu eta ulertu beharko da, gero hemendik hezkuntza-garapen teknologikoa<sup>3</sup> nola eraiki daitekeen eta

<sup>3</sup> APALATEGI, J. (1993). “Eskola-erakuntza eta euskal irakaskuntza bidegurutzean”. Eusko Ikaskuntzaren XII Kongresua: Euskal Ikaskuntzak hezkuntza sarean, 29-XI/3-XII, Gasteiz.

elkarren artean dituzten zerikusiak ulertzea iritsiko, beti ere EE-ren aurreikuspena galdu gabe.

Edozein kulturaren atea irekitzen digun giltza da hizkuntza. Euskal EE-ren kanpo eremua ezagutzeko, gure giza sistema bereizten jakin beharko dugu lehendabizi, gero kultura azpi-sistemaren barne "hezkuntza" aldagaia bilatuz, bere estatus "ez formala" ezagutu eta azkenik, beste edozein herrik bezala, gure nortasun, lehia, balio eta xedeak hezgarri bihur nahian, estatus "formala" hartuko luketen teknologi azpi-sistemak bideratzen duen hezkuntza-sistema agiria eraikiz.

EE-ren eginbeharra hain zuzen ere, ikastetxe eremutik, hezkuntza, eguneroko bizitzatik bereiztuz, giza talde bat, dagokion "berezko" testuinguruz hornitzea da, aldi berean giza talde horren iraunkortasuna eta izatea kinkan jarri gabe. Giza talde batek kultura bizitzen duenean, elkarren arteko zerikusi eta usteak garatzen ari da, hizkuntza, bitarteko tresna nagusi duelarik. Lehen atal ez-formal horretatik formalagora igarotzea, hizkuntzaren erabilera eta erabilgarritasunen eremuak zabaltzera besterik ez da, hots: adibidez alemandar/holandar gizarteak bere hezkuntza formala adierazteko duen "hezkuntza-sistema", hezkuntza-uste ez-formalak eta formarik gabeko hezkuntzak<sup>4</sup> ematen duen/den kultura ingurutik eraikitakoa da, bien eremuak hizkuntza berberean antolatuz, (...).

Gizarte baten hezkuntza kultura eta teknologiaren asmo nagusiei, behartasun iraunkorrako, sakonago eta baliagarriagoa emateko, "eskola" izeneko erakundeak sortu ziren. Beraz, EE zientzia gizartea ongi ezagutu beharrean aurkituko da, baldin eta hezkuntzaren errealitatea, osotasunean hartu eta landu nahi badu, gero eskola eremuan antolatzeke eta erakusteko. Baina, euskal giza sistemaren ikuspegitik, eskola eta gizartearen arteko lokarri den hezkuntza taxutzeko, nahitaez, EE zientziak, bere errealitate bikoitza menperatu beharko dugu, hots: hezkuntza-eduki eta euskara hizkuntza ingurua, alegia.

---

MEDINA, M. & SANMARTIN, J. (1990). Op. cit., "CTS. Alternativas educativas para un mundo en crisis", 130-152 orr.

OTEIZA, J. (1964). "Ideología y Técnica para una ley de los cambios en el arte". Hitzaldia. Artearen kritika nazioarteko ihardunaldiak, Italian.

<sup>4</sup> Ikus hemen RODRIGUEZ BORNAETXEA, F. (1986).

## 2.2. Kontzientziaren krisia “hutserantz”

Izan ere, hizkuntza, bere funtzio<sup>5</sup> guztietan egokitua duten giza taldez arituko bagina, aipatutako errealitate bikoitz horren garrantzia bestelakoa izan zitekeen, ziur aski, gaurkoz, euskal gizartearen egoera antzekoa, hain zuzen ere. Baina, hala eta guztiz, herri bakar bat bezala antolatu/bizi nahi den Euskal Herriari, EE zientzia garatzeko, oinarri eta funtsezko diren urratsak eskaini nahi genizkioke. Eta hololinguis-tika izango da, EE kanpo baldintzen eremua zientifikoki eraikitzen lagunduko digun zientzia. “Txepetx”en ikuspegi sakona bezain ederra hartu eta euskararen berreskurapenerako giltzarriak eta hizkuntzen giza teoria elkartzen dituen “Un futuro para nuestro pasado” liburua aztertzetik, EE-ren kanpo eremua diharduten hezkuntza/hizkuntza errealitateak holistikoki ikertu ahalko ditugularik.

Txepetxek, euskal hololinguis-tika eraikitzeko, ikertu eta eskaini dizkigun aldagai<sup>6</sup> batzuk ezagutzea, ezinbestekoak dira, bere teoriaren eta gure ahaleginaren izatea eta garrantzia ulertzeko. Jakin ditzagun, beraz, zeintzuk diren. Gaur egun, gizakiek edo giza espeziek, orokor-rean “hutserantz” bultzaturik dihardute, desitxaropena eta itomenez desagerraraziz; “hutsa” horretara iritsi aurretik, gizabanakoengan “kontzientziaren krisia” sortzen da, baina, banakoaren ikuspegitik bizi ohi da, eta ondorioz bi eratako jarrerak sor dakizkioke:

1. “ezerezerako” jaurtikia, edo
2. “goranzko” jaurtikia.

Bigarren jarrera mota horrek norabide berri baten beharra aurkitzen eta bide-batez, zentzumena eraikitzen laguntzen dio gizabanakoari, Txepetxek “espiral cósmica” deritzona. Abiadura horrek hasierako hutsune hura, kontzientziaren dinamizarantz, abiapuntu bihurtzen du, gizabanakoak, besteak erakarri eta bera erakarrarazi egiten duelarik. Ibilbide hori “infinutitik zerora” norabidea bezala deitzen dela dio, eta bertatik sor daiteke bai ibilbidea bera “zerotik infinitura”. Dinamika horren errealitatea aztertzeko, “hizkuntzaren “ikurgunearen muina” zer den adierazten eta agertzen hasten zaigu, hots, “ale edo unitate betez osaturiko hizkuntza kontzientziaren gunea” dela esanez, hain zuzen ere.

<sup>5</sup> Op. cit. “Txepetx” (1987a). III eta IV atalak “Lucha lingüística” eta “El equilibrio lingüístico”.

<sup>6</sup> Op. cit., Txepetx (1990d). “del infinito al cero”.

Unitate edo ale beteak, hiztun osoari deritzo, egoerarekiko norbereragintasuna (automotibazioa) pertsonala eta razionalaz, hizkuntzaren batbateko beste gai edo arazo batzuk teko erabilera eta gorakada eragiten duten banakoz osaturik dagoen multzoa/gunea, alegia. Dioguna giza-banakoengan gara dadin, zenbait urrats eman beharko dira:

1. "KRISIAREN KONTZIENTZIA" bera, (aberriaren zentzuan) non, hizkuntza elkartearen sormen inguruko indarrak bereganatuz, derri-gorrezko hazkundera bideratzen du gizabanakoak, hazi berria erein, jarrera berria aurkitu eta kontzientziaren kultura bereganatuz. Kontzientzia krisiaren garapenak bi zati bereizten ditu:

1.1 "errekuntza" = mina, non sormena biziartzten duen energi sendagarria barneratzen da eta, ondorioz indukzioaren bitartez, iraganaren birsortzea eragiten du. Hau da, Oteizak<sup>7</sup> "'hutsa" adigaia erabiltzen duenean adierazi nahi duen egoera, kontzientzia krisia deritzona Txepetxek, hain zuzen ere. Honek jarraitzen du esanez, "krisia" bera bi eratakoa izan daitekeela

a) ebolutiboa<sup>8</sup>, non "haustura tentsioa" ren<sup>9</sup> bitartez biziaren iraungarritasun behararen aldeko txertoa sortzen du, edo

b) inbolutiboa = bestelakatze eta ondorioz beldurra eta menpekotasunaren bitartez aldaketarekiko hauskaiztasuna nabari duen mundua sortuko da biziari bizkarra emanaz

1.2 "originaltasuna" edo etorkizuna gaurkotzeko ahalmena, honek eskatzen duen ardurapenean.

Urrats eta eginkizun hau garatzean, beste zerbaiten beharra sortzen da, hots:

2. "BERDINTASUN<sup>10</sup> ISURTZEAREN TRILOGIA" edo sentittu beharrena alegia. Dihardun legalitatearen dinamika apurtuz eta beste eran sortuz.

EGIN (elkartasuna)

JAKIN (elkarikasi) eta

NAHI (askatasun eta berdintasunetik erabakitzeke ahalmena) azkenik,

<sup>7</sup> Op. cit., OTEIZA, J. (1983). 4. arg., 458 orr.

<sup>8</sup> GROF, S. (1994). *La evolución de la conciencia*. Barcelona, Kairós.

<sup>9</sup> Txepetx (1987a). Op.cit., XII. atala "Haustura tensioa", 373-407 orr.

<sup>10</sup> OTEIZA, J. (1972). Op. cit.

3. “BURUTZAPEN GUNE BERRIA”<sup>11</sup> eraikiz, gure benetako ahalmenaz arduratuko den gunea izango da, egoera orekatsu batera bideratuko gaituena.

Arduradunengan urrats horiek eman behar dira ere, euskal EE zientifiko bat eraikitzeko. Zenbat eta erantzukizun handiagoa eduki: ikerlari, teknikari, zuzendari, irakasleri, guraso (...) orduan eta krisi sakonagoa jasan beharko.

Hezkuntza krisiaren urratsak garatzeak, ondorioz, Euskal Herrirako EE zientifiko berri bat altxatzeko, dinamika berri bat sortu beharko du ere, hots:

1. gure giza sisteman barne, hizkuntza eta hezkuntzak duten tokia, sortzen dituzten balio printzipioak eta honetarako, giza aurre-rapenaren zentzuan, guzti hori gera dadin nola antolatzen den jakin beharko dugu lehenik eta behin,

2. hezkuntza eta hizkuntzaren izate eta hartu-emanaz jabetu;

3. ezagutza eta ikasketaren dinamika, orokorrean aztertu eta euskal hezkuntzaren ikuspegitik ulertu.

4. Gaur egun, gure herrian, ditugun EE – ikastetxeen egoerekiko sailkapen bat egin,

5. hizkuntzaren balioa eta izatea bereganatu eta landuko dituzten ikastetxeak bultzatu,

6. Ikastetxe guztiak, ditugunak, EE-ren osagarritasun teoriatik, euskal hezkuntza, eta euskaratik egin beharreko hezkuntza-ikuspegian hezi, honetarako, edozein hizkuntzarentzat, ezinbestekoak diren bi errealitateen izatea ulertarazi<sup>12</sup> beharko zaie, alde batetik,

– hizkuntzaren izate objetiboa: esperientzia eta pentsamendua biderazteko era, hotsez osaturiko kode genetikoa dugu, bestetik

– hizkuntzaren bizi subjektiboa; hiztunen bitartez denbora eta gune zehatz batzutan bizitzeko era ematen zaio hizkuntzari.

Beraz, hezkuntza eta giza sistema aztertzeko, gizarateak mintzo duen hizkuntza ezagutu eta euren artean dituzten hartu-emanak nolakoak diren jakiteak, herri bakoitzaren hezkuntza, oro har, eta EE ereduak bereziki, ulertzeko behar beharrezkoa den erreferentzia dugu

---

<sup>11</sup> “berdintasuna” I. zatia, 2.2 eta 3.2 azpiatalak.

GROF, S. (1993). Op.cit.

<sup>12</sup> Txepetx. (1987a). Op.cit., 173 or.



hau. Bistan da, zenbat eta hizkuntza gehiago hitz egin, giza sistema baten barnean, orduan eta zailagoa izaten ohi dela, hezkuntzaren antolaketa. Hizkuntza bakoitzak bere balio eta antolaketa kontzeptuak, lurraldetasunarekin<sup>13</sup> batera daramatzalako, hain zuzen ere. Bestalde EE kanpo baldintzen ikuspegi zientifiko batek landu beharreko esparrua, eta euskal hezkuntzaren errealitate eta norabide eraiki-garriena zein den diseinatzen lagunduko diguna.

### 3. Soziolinguistika eta hololinguistika

#### 3.1. *Gizartea eta hezkuntza*

Soziolinguistikaren helburu nagusia hizkuntzaren giza hedapena eta hizkuntza elkarteen arteko hartu-emanen berri ematea besterik ezin daiteke izan, (...) batere orekagarriak ez diren egoerak, ulertu eta eraldatzeko tresna bat dugu (...).<sup>14</sup>

Soziolinguistikak hizkuntzaren eta gizartearen arteko hartu-emanak aztertzen ditu, eta jasaten dituzten aldaketak adierazteko teoria bat eraikitzen saiatzen da<sup>15</sup>. Zientzia horren iker eremua zabala dela bistan da.

Hizkuntzaren eta gizartearen arteko hartu-emanaren kemena aspaldikoa da, hots, giza kondairan zehar, botere politikoak izan dituen esku-hartze iraunkorrak aztertu besterik ez daukagu. Bestalde, hizkuntza edozein giza talderen adierazpen eta komunikazio tresna dugu; gizarteari loturik agertzen zaigun gaitasuna eta bertan bizitzeko ahalbidetzen gaituena.

Soziolinguistikaren langaia, hizkuntza egiterakoan eta hizkuntzan bertan, gizarteak duen kokapena aztertzean datza, betiere hizkuntza guztien izate naturala eta goratzeko duten eskubidea defendatuz.

---

<sup>13</sup> Lurraldea: bereak diren "eginkizun" batzuk eusten dien gorputza edo ondorio bezala ulerturik. Ikus Txepetx. (1992d). "Euskararen aldeko lurraldetasunaz". *UEMA. Udalerri Euskaldunen Mankomunitatearen Aldizkaria*, 13-13 orr.

<sup>14</sup> Txepetx. (1987a). 155 or.

<sup>15</sup> ROTAETXE AMUSATEGI, K. (1988). Op. cit., 13-19 orr.

Gizartea, sistema bat bezala azterturik,<sup>16</sup> hezkuntza formala, hau da, ikastetxeen bidez emateko onartzen dena, gizarteko azpi-sistema bat dugu. Beraz, eremu horretan hezkuntzak duen pisua edo garrantzia ezinbestekoa eta begi-bistakoa denez, gizarte batek hezkuntzari buruz dituen sinismen, uste eta nahi guztiak bertan islaturik topatuko ditugu.

Soziolinguistika zientzia, guk hemen, Eskola-erakuntzaren eta Euskararen artean dauden eta egon beharko lireratekeen erlazioei buruzko ezagutza zientifikoa lortzeko erabiliko dugu, nola? beste edozein zientziak bezalaxe, hau da, metodo unibertsalaren bidez, hots: indukzioa, dedukzioa, behaketa eta baieztapena eginez/erabiliz. Zer lortu nahi dugu horrekin?. Eskola-erakuntzaren eta Euskararen hartu-eman behar horri dagokion esperientzia, auto-konszienteki menperatu beraien arteko legeak bilatuz, azalduz eta tokian tokiko arazoaren aurrean aplikatuz. Txepetxekin bat egiten dugu esaten duenean, soziolinguistikaren balioa gizarte mailan, hutsune eta desoreka besterik sortzen ez dituzten “usteak”<sup>17</sup>, “ezagutzaz” aldatzen dituelako dela, hau da: hizkuntzari buruz dihardun ideologia, logika bihurtuz eta ideiekiko logika egiten ikasiz gero bere inguruan sortu diren hainbat gatazka ezereztu/suntsitu ahalko dira, ordez sormenari, batasunari, ilusioari eta giza ontasunari tokia eginez.

Gaur egun, Euskal Herrian, “hezkuntza-eredu” inguruko auzia bistan da ideologia hutsa dela, ustez-uste eraikitakoa; alegia gure ahalegina berriz, goian esan dugun bezala, dihardun isurri hori errazionaltasun logiko bihurtzea litzateke. Uste dugu, ildo horri eutsiz, gure hezkuntza-eredu eta hizkuntza erabilera elkartasun eta elkarlanean norabidetuko ditugula. Euskal hezkuntza, gaur egun, ibilbide zientifikoaren beharrean baitago, “gure” hezkuntza eta erakuntza eredu ezberdinak sortu, onartu eta aldarrikatu beharrean aurkitzen garelarik.

### *3.2. Holismoa eta hololinguistika*

Gizarte mailan, isla bat den hezkuntza, EE-ren ikuspegi eredu sistemikotik aztertzeak “holismo”aren oharpenarekin bat egitera ere

---

<sup>16</sup> Ikus: I. zatia.

<sup>17</sup> Txepetx. (1990b). Op.cit., 1 or.

eramango gaitu.<sup>18</sup> Oro har, gizarteak holismo edo norberatasun ikuspegitik sailka ditzakegu, hots: erlazio gisa ala funtzio banatuen arabera ulertuz, lehenengo gizarte motetan giza egitura elkar zerikusia duen erlazioz osaturik antolatzen da, besteak berriz, berezko ezaugarriak bereizten dituzten funtzioen ildotik eta honen arteko autonomitate printzipioa dute egituratzen saiatzen direna. Holismoaren usteetan, hierarkia eta elkarmenpekotasuna bat datoz. Ondorioz, gizartearen antolaketa mailan, osagai bakoitzak bere lekuarekiko duen adostasuna eta gizartea osotasun zentzuan bizitzea gauza bera da, edo bat datoz beraz, inongo aurkakotasunik gabe biziz.

Bestalde, Holismoa “filosofian zehar osoaren eta zatien arteko harremanen arazoari irtenbide bat emateko asmotan egindako saiaketari deritzo honela; holistek ez dute onartzen monisten errealitatearen arlo guztietako homogenotasuna, ezta pluralistek gauzei egozten dieten esentziazko desberdintasuna ere. Beraientzat eremu guztiek (fisiko, psikiko eta abarrek) mailaz maila bata bestearen segidan eratzen den \*osotasuna obratzen dute, zatiak osoaren menpe daudelarik. Beraz, osoa ez da zatien batuketa bat”.<sup>19</sup>

Jan Cristian Smuts (1870-1950)<sup>20</sup> eta Kurt Goldstein (1934)<sup>21</sup> filosofoen saiakerak “holismo” hitzaren inguruan ere, oso baliagarriak izan zaizkigu eta hemen ikustea komeni zaigu, gure lanaren asmoa nondik nora datorren ohartzeko.

---


<sup>18</sup> GROF, S. (1990). *La mente holotrópica*. Barcelona, Kairos.

<sup>19</sup> U.Z.E.I. (1987). *Filosofi hiztegia*. Donostia, Elkar, 268 or.

<sup>20</sup> FERRATER MORA, J. (1990). *Diccionario de filosofía*. Madrid, Alianza editorial, 9. arg. (E-J), 1545-1546 orr.

<sup>21</sup> *Ibid.*, 1545 or.

30. IRUDIA: *Holismoaren ikuskeraz ezberdinak*



M. Jaione Apalategi (1994)

Smutsentzat, holismoak ez dakar berekin, ustezko entelekiaren moduan, eboluzioaren eta hartu-emanen jokabideak norabidetzen dituen izate bat dagoela. Holismoa azalpen era bat da, sormen sintesi prozesua, non, bere ondorengo osotasunak: dinamikoak, bilakaeragarriak eta sormenzaleak baitira. Holismoa fase batzuen bitartez agertzen da, “materi errealitate edo natura kidegoen sintesitik” “osotasun ideal eta balio absolutu edo ideal holistikoetaraino”. Holistikaren unibertsoan dena, nortasuna den, “osotasun holistikoaren” eraketara hedatzen da.

Goldstein berriz, Smuts baino beranduago, holismo ikuspegi zehatzagoz beste atal batzuk azpimarratzen saiatzen da.

1. Banako organismo oro harretan (*oro hartan* ala *oroharretan*), jokabideekiko hartu-eman holistikoa egoten da. Organismoak, “osotasun moduan funtzionatzen duten sistemak” dira, non “emanikako eragin-garri/bizgarri batek organismo guztian aldetak sortu behar dituen”.

2. Holismoa ez da derrigorrez “bizizaletasuna”, ez eta “teleologizaletasuna” ere. Aldiz, “organizismoari” eta biologizismoari” beste edozein teoriari baino lotuago dago.

3. Batzuetan, holismo baten ideia zehaztasunez aplikatu zaio gizarteari, bai giza errealitatearen naturaren sorkunde bezala (holismo antologikoa), bai errealitate horren azalpen moduan (holismo metodologikoa)

Goldsteinen holismoa Smutsena baino ikuspegi zehatzagoz aztertutik agertzen zaigula esan dezakegu, eta aipaturiko hiru adierazpen horietatik, gure lan ikerketarako gehien egokitzen zaiguna azkenekoa da, hain zuzen ere. Ikuspegi horretatik, guk holistika hitzaren ingurua, EE zientifikoa eraikitzeko, eta bere osotasun baten ideia frogatzeko, “hololinguistika” zientzia aplikatuko diogu. Gure gizartean, hezkuntza alorrean dihardun hizkuntza ikuspegia, zientziaren aurkakoa, beraz batere logiko edo errazionala zein afektu gabekoa dela frogatu dezakegu. Aldiz, giza sistemaren errealitatea, holistikoki, jorratuz, uste dugu, euskal hezkuntzarako zein EE ereduaren filosofia eta gatazka bideratzeko, irtenbide bateratuago baten beharra adieraztera iritsi ahalko garela.

Azkenik esan, Goldsteinen holismoa, Smutsena baino ikuspegi zehatzagoaz aztertutik agertzen zaigula, eta guk hemen aipatu ditugun bere adierazpen horietatik, gehien egokitzen zaiguna hirugarrena dela.

Hain zuzen ere, guk, holistika hitzaren ingurua, osotasun baten ideia frogatzeko “hololinguistika” aplikatuko dugu: gure gizartean hezkuntza alorretik dihardun hizkuntzaren errealitatea adierazteko.

Guk “hololinguistika” Jose Maria Sanchez Carrion “Txepetx” en ikuspegitik ulertu eta aplikatzen dugu. Berak, euskararen berreskurapenerako giltzarriak eta hizkuntzei buruzko teoria sozialak ikertu ditu, euskal gizarteari aplikatuz eta bere berregokitzapenerako irtenbide eta ibilbide zehatzak eskaini<sup>22</sup> ere.

Oso baliagarri eta berria iruditzen zaigu Txepetxen teoria hori, Eskola-erakuntza eremura aplikatzeko, ala hezkuntza eta hizkuntzaren

---

<sup>22</sup> “Txepetx” (1987a). Op. cit.

teori sozialak teknologikoki erabiliz, euskal hezkuntza eta hizkuntzen berreskurapena elkar landu ahalko direlarik.

Txepetxek dio hololinguistikak hitzaren etika eta jokaeraren estetika aztertzeko balio duela eta gure ahalegina hori aztertzea izango da, hain zuzen ere:

1. Eskola-erakuntzaren eremuan, eta
2. Hezkuntzan, orokorrean.

#### 4. Eskola-erakuntza eta hololinguistika

##### *4.1. Hizkuntzen norburutasunaren teoria versus eskola-erakuntzarena*

Eskola-erakuntzaren kultura eta teknologi inguruneak Eskola-erakuntzaren EE kanpo baldintzak dira.

Eskola-erakuntza kultura ingurunearen (EEki) zeinu nagusia den hizkuntza, euskara, harturik, Hezkuntza eta Eskola-erakuntzaren teoria ezagutuz lehenengo, eta hizkuntzen giza teoriari elkartuz bigarren, euskararen eta hezkuntzaren artean dauden ahalbide zein, egin beharko lirartekeen egokitzen aurkitzen lagunduko digun bidea aztertu behar dugu orain, gure gaurko eta etorkizuneko izatea adierazi eta gara dadin, “giza sistemaren” kultura eremuan euskal (EEki) dihardun hezkuntza, jatorrizko gizartearekin lotura areagotzen eta aldaketa berri guztiei aurre egiten lagunduko duen “hezkuntza-sistema”ren<sup>23</sup> teknologi ingurunea eraikitzen lagunduz. Arlo teknologikoaren aurreremua da garatu gabe dagoena euskal gizartean eta bi ingurune teknologikoren mendeen murgilduta daukagularik hezkuntza, hots: Frantzia eta Espainia Estatuetakoko Hezkuntza Sistemak, hain zuzen ere, EEAS eta FEHS alegia,

Kulturan zehar, euskaraz bizi eta hezi nahi duen giza sistemak, hezkuntzak duen tokia ulertu eta ikertzeko, bi eratako ikuspegiak lortu behar ditu:

1. Hezkuntza teoria baten bilakaera ezagutu, hau da, zein lanabes bidez sortzen diren hezkuntza-teoriak, hots, hiru jakintza motaren bidez, alegia:

---

<sup>23</sup> Ikus: 1. zatia, 2. azpiatala “hezkuntza sistema”.

1.1 Enpiriko-zientifikoak edo giza zientziak: Biologia, Psikologia, Soziologia eta Ekonomia.

1.2 Axiologikoak: Filosofia, Teologia, Antropologia, Politika eta Zuzenbidea.

1.3 Axiomatikoak edo zientzi formalak, metodologikoak: Logika eta Matematika.

Honekin batera hezkuntzaren teoria soziala<sup>24</sup> zer eta nola egiten den jakin beharko dugu, gure hezkuntza sozialki aurreikusten eta eraikitzen jakiteko.

2. Gure elkarte kulturalak, bere hizkuntza, euskarak bizi duen errealitatea, zientifikoki ezagutuz, hizkuntzen teoria sozialaz<sup>25</sup> jabetu beharko du, gero hizkuntzaren lurraldetasuna<sup>26</sup> eta giza taldearena elkar eta naturalki<sup>27</sup> uztartuz, aldi berean, beste giza talde guztiekin batera, gizakiaren garapen eta aurrerapenean ahalbide gaitzen.

Grafikoki adieraziko dugu, bi puntu horietan azaldu nahi izan duguna:

---

<sup>24</sup> USATEGI BASOZABAL, E. (1993). "Implicaciones educativas de los análisis sociolingüísticos de Basil Bernstein". Rvta. *Interuniversitaria de Formación del Profesorado*, Valencia, ICE, 16 zk., 159-179 orr.

<sup>25</sup> "Txepetx". (1987a). Op.cit.

<sup>26</sup> Ibid. (1992d) eta (1986). "Fundamentos para una teoría de la territorialidad lingüística": OZAMIZ, J.A.; RUIZ OLABUENAGA, J.I. *Hizkuntza minorizatuen soziologia*. San Sebastian, Tartalo. 1985an Getxon egon zen "Hizkuntza gutxituen soziologiaren I Jardunaldien" bilduma.

<sup>27</sup> Ibid. (1985). 327-349 orr.

31. IRUDIA: *Hezkuntza-hizkuntzaren teoria soziala*



M. Jaione Apalategi (1994)

Giza sistemaren izatetik, eskola-erakuntzaren “kultura” ingurunea aztertzeak, beraz, hezkuntza-hizkuntza alorrak ikertzea suposatzen duela diogu. Baina, horretaz gain, eskola-erakuntzaren kanpo baldintzak “teknologi” ingurunea ere osatzen du.

Eskola-erakuntzaren ardurapean geratzen da, giza sistema baten kultura ondarea teknologikoki egokitu eta bideraraztea. Urrats hori emateak “Hezkuntza sistema”<sup>28</sup> eraikitzea suposatzen du. Quinta-

<sup>28</sup> Ikus: I. zatia, 2.2 azpiatala.



nillak<sup>29</sup> dio, teknologi sistema baten berezitasuna, ekintzarako presatzen den planifikatutako sistema tekniko bat izatea dela, non, planifikazio eta ekintza ezagutza zientifikoetan eta arrazionaltzat jotzen diren balio irizpidetsuetan oinarritzen direlarik.

Bi eratakoak izan daiteke/daitezke eskola-erakuntzak beretaz eskaini ditzakeen berriak:

1. ingurune kulturaleran, hezkuntza-arloan ematen diren jokaerak zientzia zentzutik aztertuz, hezkuntza-hizkuntza eta eskola uztartuz, eta

2. bere ingurune teknologikoaren barnean, hezkuntza eremuan desadostasun gune eta hutsuneak diagnostikatuz<sup>30</sup>.

Quintanilla<sup>31</sup> arrazionaltasun teknologiaz mintzatzen da esaterakoan, arrazionaltasun kognoszitibo gehi ebaluatiboa suposatu behar duela hezkuntza-teknologi adierazpenak, hau da, teknologi arrazionaltasun hori ez dela ziurra, erabatekoa, eta betirako erabili behar den zer-bait, baizik bere erabilerak benetako garapena bermatu beharko duela, horretarako jarrera batzuk eskatzen dituelarik, besteak beste:

1. aldioro berrikusi;

2. jarrera irizpidetsua landu, eta azaldu;

3. bere ezaugarri partziala eta behin-behinekoa onartu.

Eskola-erakuntzaren teknologi inguruneari dagokion “balio” sistemaren arrazionaltasuna bere berrikuspen eta balioekiko berrikuntza eta aldakuntzan datza.<sup>32</sup> Jarrera irizpidetsuaren beharra berriz, errealtatea bera, hobe ezagutzeko era egokiena bilatzean datza, gure ustez horretarako, Eskola-erakuntzaren Barne eta Kanpo baldintzak, holismoaren eta sormenaren legeei jarraitu behar lekieke.

---

<sup>29</sup> QUINTANILLA, M.A. (1980). “La tecnología, la educación y la formación de los educadores”. *Studia Pedagogica* aldizkaria. Revista de las Ciencias de la Educación. Universidad de Salamanca. 6 zk., uztaila-abendua, 101-114 orr.

<sup>30</sup> KLIKSBERG, B. (1979). Op. cit.

<sup>31</sup> *Studia Pedagogica* aldizkaria (1980). “El valor cultural de las nuevas tecnologías”.

<sup>32</sup> BRONCANO, F. (1989). “Las bases pragmáticas de la racionalidad tecnológica”. *ANTHROPOS*, Revista de la Documentación Científica de la Cultura. Barcelona, Prensa Científica, 94/95 zk., 99-109 orr.

DAVENPORT, W.H. (1979). *Una sola cultura. La formación de tecnólogos-humanistas*. Barcelona, Gustavo Gili. (Col. Tecnología y Sociedad).

Horregatik guztiagatik, honengatik, eta gure eremuan kokaturik, EETik sortzen duen hezkuntza-sistemaren ezaugarriarik nabarmena, bere ez-oso eta behin-behinekotasunean topatuko dugu. Horrek ez du esan nahi jarrera arrazionaltasun honetan zehar zientziaren metodoa erabili behar ez dugunik. Are gehiago, hori da egiteko era bakarra, baina metodoak ez du zientzia egiten.

EEKBk euskal ikuspegitik ikertzeko J.M. Sánchez Carrión Txepetxen teoria hololinguistikoari egokia bezain aurrerakoa deritzogu. Teoria horren bilakaerak, euskal hezkuntza / euskara / euskal ikastetxe alorrak, gaurko euskal gizarteak behar lituzkeen, herri parametroetatik, lantzen erakutsiko digu. Orain, jarraian galde dezakeguna hauxe da: zer ikusten ote diogu Txepetxen teoriari, beste hizkuntza teoria ugariei ikusi ez dieguna? “hizkuntza esperientziaren adierazpen auto-konszientea”, hain zuzen ere. Eta teoria hori ulertzeko, ezinbestekoa da aurretik “gizakiaren esperientzia”, oro har, zertan datzan ulertzea, hots: “gizabanakoa, objektu (helburu) eta xedearen arteko, etengabeko trukaketa,<sup>33</sup> alegia.”


Uste dugu EE zientifikoaren bidez, berreskuratu ditzakegula “euskara eta euskal hezkuntza”, baldin eta ikuspegi horren iparrari jarraitzen badiogu. Horretarako gure hezkuntza-“iturburuak” birtopatu beharko ditugu, saltzen diguten botilako uraren izatea lehenengo, eta kalitatea bigarren, frogatu ahal izateko.

Ikus dezagun grafikoki dioguna:

---

<sup>33</sup> “Txepetx” (1989). Op.cit.

### 32. IRUDIA: Giza-esperientziaren izatea eta berrikuntza



M. Jaione Apalategi (1994)

#### 4.2. Ikastola

Ikastola altxatu zen euskal giza sistemaren kultura aldarrikatu, bizi iraunarazi, giza aurrerapenaren abiaduraren pare hezkuntza izatez, iragana-oraina eta etorkizuna elkarturik gurea den hizkuntza, euskararen bidez euskal gizon-emakume ereduak garatzeko.

Bestalde, ikuspegi eta argudio askoren gain<sup>34</sup>, ikastetxea, hezkuntzak dituen funtsezko eginkizunak bete eta garatzeko bide egokiena dela diogu. Horretxegatik, giza sistema guztien kezak bideratzeko eta gaurkotasunez osatzeko, hezkuntza toki edo ikastetxeak eraiki izan ohi dira.

Ikastolaren iparra eta ikuspegia, nor bere nortasuna hezi eta garatzearena da, erabat ohartuz, ezberdin iraunez<sup>35</sup>.

Egia da, Ikastolak, esan ohi den hezkuntza-gune eta hezkuntza-erakuntza teoriaren zentzuan, bere curriculuma eta hezkuntza-teoria propio bat ezartzeko eragin tresna tinkorik ez daukala hots, gure giza sistematik sortutako botere egiturarik: politiko-ekonomiko-kulturala..., alegia. Baina isurtzen dituen astinduetatik datorkio bere indarrak, honen banakoari ekintzarako ahalmena berrituz eta eragin baikorra berreskuratzen baitio.

Ikastetxearen kanpo baldintzak<sup>36</sup>, eskola-erakuntza zientziari jarraituz, ezin zitezkeen egon giza talde baten ordezkari "legalen" aniztasun ustean, baizik eta balizko aniztasun naturalaren izatean<sup>37</sup>, hau egiazko errealitatearekin garatzen baita. Beraz, hezkuntza gertakaria, atal erreal horren zentzutik lantzea, gizartea osatu eta bideratzen duten "ezinbesteko" egitura guztien esku-hartze zuzena eskatzen du. Horren ondorioak beste irakurketa berri bat sortuko luke EEKBen egiturari:

---


<sup>34</sup> COOMBS, PH. (1971). *La crisis mundial de la educación*. Barcelona, Península; REIMER, E. (1974) eta ILLICH, I. (1974). Op. cit.; FULLAT, O. (1984). *Las finalidades educativas en tiempos de crisis*. Barcelona, Hogar del libro; MACEDA, P. (1994). *La educación ante los grandes cambios culturales*. Madrid, Eurolicco.

<sup>35</sup> Txepetx. (1980). Op.cit., 27 orr.

<sup>36</sup> TAYLOR, W. (1993). Op. cit., Harvard DEUSTO ..., 29 zk., 92-103 orr.

<sup>37</sup> Txepetx (1990d). Op.cit., "Las leyes de la realidad: Ley natural. Ética. Ecología. Sociolingüística. Física cuántica" eta "Correlación entre ley natural, imperativos éticos y leyes científicas" Inprecor. Tema 81.

### 33. IRUDIA: *Ikastetxearen kanpo baldintzen egiazko eragileak*



M. Jaione Apalategi (1994)

Baina hezkuntzaren antolaketa eta gizartearekiko derrigortasun norabideak, politikoek, soilik, bideratzen dituzten legetatik egiten bada, bistan da, T. Husenek<sup>38</sup> dioen bezala hezkuntza formala ezin dela, bakarrik, politiko hrien esku egon, baizik eta giza atal ezberdinetatik antolaturiko talde sendo eta ordezkagarriek ere egon beharko liratekeela, baldin eta hezkuntza, ideologizatu gabe eta errealityatik hurbilen eraiki eta garatu nahi bada. Horrelako irtenbideak, hezkuntzaren eremutik kanpo ere aldarrikatzen ari direla jakiteak bernorabideketaren garrantzia ulertzen lagunduko digu.<sup>39</sup>

Ikuspegi hori dagoeneko kinka larrian ez dauden gizarteetan hedatzen ari bada, zer esanik ez legoke, holako jokabide berri batek gu bezalako gizarteei ekarriko liokeen aurrerapen itxaropentsuaz, orduan

<sup>38</sup> HUSEN, T. (1978). Op. cit.

<sup>39</sup> MASCOLELL, A. (1992). Op. cit.

eta hurbilagotik hitz eta ekin ahalko bailitzaiokie hezkuntza-errealitate osoari, ikastetxeraterakoan, alegia.

Ikastetxeak hezkuntza-egiteko ahalmena du, baina hezkuntza, ikusten ari garen bezala, gizartean islatzen den errealitate zabal eta sakona bezala hartu eta ikastetxearen eginahal eta antolamendura egokitu beharreko giza gertakaria dugu. Euskal Herritik, berriz, euskal hezkuntza eta irakaskuntza, Barandiaran, Joxemiel; Aranzadi, Oteiza, Jorge; Txepetx Jose Maria Sanchez Carrion, (...) bezalako ikerketen ildotik eraiki ahalko da, gaurko eta biharko balioko duen hezkuntza-ikuspegia. Euskal giza taldeari bere “kondairaren ezagupena”<sup>40</sup> lortzea falta zaio norbera eta besteekin, giza garapena egituratzen lagunduko duen bidea. Euskara eta beste inguruko hizkuntza guztiak zein urrun-goak, norbere hiztun taldeekin oreka eta bide batez osagarritasun beharra landuko duen ikuspegia dugu hau,<sup>41</sup> hezkuntzaren eremutik garatu daitekeen ahalegina, hain zuzen ere.

Euskal hezkuntza formalaren, kondaira laburraren zehar, euskal ikastetxe bilakatu den IKASTOLA eredia, bere giza sistema naturalaren izate, balio, uste, printzipio, e.a., norabidean sortua izan arren, ezaugarri nagusia beste nonbaitetik dator kio, hots: ahalegin hori giza-banako askoren motibazioaz bultzatua eta eraikia izan delako, hain zuzen ere; gure giza sistema kulturak, gurea den hezkuntza ezartzeko erakunde zein erakunde propiorik ez dituelako ... Horregatik, esan dezakegu, Ikastola hezkuntza-erakuntza, Euskal Herrian zehar dagoeneko zilarrezko urtemugak<sup>42</sup> ospatzen ibili arren, oraindik euskal gizartearekin uztartu gabeko egitasmoa dela, edo beste era batera esanik, erabat osatu gabeko hezkuntza-egitasmoa adierazten duela ... baino, ez bere barne egitura, antolamendu, irakasleri, teknikari zein irakaskuntza-ikaskuntza joanaren arloengatik –baikor eta arrakastatsu lortu duen helmuga baitugu hori, gizartean zehar adibide ugari agertzen zaizkigularik–, baizik eta kanpo baldintzei begira, hau da euskal giza egituraren aldetik aztertuta.

---

<sup>40</sup> AGIRREAZKUENAGA, J. (1994). “La lengua y la estructuración política propia, claves de la identidad vasca”. *EL MUNDO DEL PAIS VASCO* egunkaria, 94/2/25. 12 or.

<sup>41</sup> Op.cit., (1985). “La nueva sociolingüística ...” eta (1990d). “Presente y ...”

<sup>42</sup> Euskal Herriko Ikastolen Elkarteak-EHIE. (1990), 3 ikastola. (1991), 5 ikastola. (1992), 5 ikastola, (...)

Ikastola hezkuntza-ereduen bidez, adierazi nahi den mezua, egun nahastua azaltzen bada ere<sup>43</sup>, euskal hezkuntza eta euskal ikastetxeak aldarrikatzearena da, ez eta eredu hau ugaritzearena, soilik. Ikastola gehiago sortzeak aipatu ditugun azken xedearen bi sokamuturrak lotzen ditu, noski.<sup>44</sup> Baina Ikastola euskal hezkuntza-egitasmoaren isla bezala harturik, alde batetik gaur arte izatea iritsi dena indartu eta sendotu behar du, baino bestetik behin ere ahaztu gabe bere izate eta sortze sakona. Ikastola ez da Euskal Herrian diharduten, beste ikastetxe erduekin batera, aukera bat gehiago, ez horixe, askotan edo egoera hoberenean ere<sup>45</sup>, honela bideratu nahi bada ere.

Gure lurraldean kokaturik dauden erdal ikastetxe eredu guztiak, euskal hezkuntzara bernorabidetu beharko dira, baldin eta orekaren zein hezkuntzaren printzipio unibertsalak eta tokian tokikoak garatu nahi badituzte. Bakoitzak bere hezkuntza-eredua eskaintzen jarraituko dezake, gizartearen eskakizunen eta aukeren arabera, alegia, baina euskal gizartearen izatea eta bere ikur nagusia den hizkuntza, euskara abiapuntu harturik, ala gero inguru eta izadiaren zentzuan aurrerape-na eta ongitasuna hezi eta ugaltzekotan.

Gure hezkuntza-arazoa, ez da “erlijioso”, “laiko”, ... “publiko”, “pribatu” (...) izatearena, ez da gutxiagorik ere; hori, gure giza sistemaren printzipio, uste, balio, antolamendu eta garapen egarriak markatuko duen eremua baita alde batetik, eta bestetik, hezkuntzan “jaki-tunak” direnak eskaini eta bideratu dezaketzen hezkuntza-aukeren baitan. Arazoa beste bat da, hezkuntza euskaratik eta euskaltasunetik

---

<sup>43</sup> Euskal Elkarte Autonomo-EEAko Hezkuntza sailaren mezua ikastolei: Sare publiko-pribatua aukeratu beharrarena, 1993ko maiatzaren 25rako, alegia (...).

<sup>44</sup> Op. cit., (1991) Lodosako ikastola (Nafarroa) eta (1992) Oztibarreko Ikastola (Zuberoa).

<sup>45</sup> Euskal Herriko hiru hezkuntza administrazioetatik esaten dena ikusi edo aztertu besterik ez dago... gero gizarte soilean islatzen delarik (...)

Op. cit., (1994). “Buesak akordioa onartu ...” Jaurlaritzako lehendakariorde eta Hezkuntza sailburua. *EGUNKARIA* egunkarian.

MARCOTEGUI, J. (1993). “La ley del vascuence ...”. *ALDIZKARIA* aldizkarian. Nafar Gobernuko Hezkuntza eta kultura sailburua Barcos, Jesusekin elkarhizketa.

GOIETXE, PH. (1993). “Seaska ere, publikoaren eta pribatuaren arteko aukeran”. Bayrou, F. Pyrenéés Atlantikoetako Kontseilu Nagusiko Lehendakaria, Hezkuntza ministroekin mintzatzen ... *IKASTOLA* aldizkaria, 26 zk., 8-9 orr.

eraikitzea. Ikuspegi horretatik antolatzeko, euskal lurraldean gaur egun ari diren ikastetxe ezberdinek zenbait urrats garatzea suposatuko du:


1. Guztiak hezkuntza-dinamika berri baten beharra ikustea.
2. Hezkuntzaren izatea “zientifikoki” aztertzea.
3. Euskal Herria eta Ikastetxea –Hezkuntza– Hizkuntza multzoa elkar hezurmamitzea.

4. Giza sistemaren eta hezkuntza-sistemaren arteko lokarria iker-tu, ulertu, jabetu eta eraldaketa baterako antolatzea.

5. Jarrera berri baterako eta biziaren oreka bermatzeko behar diren hiru printzipioez jabetzea eta horien ildotik antolatzea: berdintasuna, bereizten gaituzten ezaugarrien bitartez elkar aberastearen jarrera hartzea eta lagunkidetasuna heztea.<sup>46</sup>

Labur esanik utziko dugu grafiko baten bidez:

#### 34. IRUDIA: *Euskal hezkuntzarako dinamika berria*



M. Jaione Apalategi (1994)

<sup>46</sup> Txepetx (1980). Op.cit., 10 or.



Hezkuntza euskaraz eta euskal giza sistemaren izatetik antolatzea, edozein giza kulturak duen eskubide eta egarria asetzea da, benetako gizatasunean heziko duen hezkuntza honelako aurreusteen garapena bermatzetik sortuko du.

Ikastola egitasmo zabal eta natural horren erreinua dugu. Bertara hurbildu diren guraso, babesle, teknikari, irakasle ... eta abarrek, giza errealitate ezberdinak ordezkatu arren, funtsezko zeregina dute elkar, hots: euskal lurraldeari dagokion euskal hezkuntza eskuratzea, aldi berean gurea den gizartea eta beste guztiekin batera, gizatasun zentzuaren ildotik, garapena eta aurrerapena ekimenak elkartasunez landuz.

Begi-bistakoa da, egun Ikastola, besteak beste, euskal gizartearen aniztasuna, batasuna, demokrazia irekia eta malgua den hezkuntza-errealitatea dela. Beraz, orokorrean, euskal gizartearen errealitatearen atal bat islatzen duela, eta bizirik dagoen hezkuntza-elkarte bat osatzen duela. Euskal hezkuntza berreraikitzeke eta sakontasunez berrantolatzeke ezinbesteko egitasmoa, alegia.

Euskal hizkuntza eta hezkuntzak behar duen gutxiengo babesa eta gorpuzketa aberasgarriaren ahalegina adierazten dute ikastolek ..., baina bere printzipio nagusia hezkuntza-lege zientifiko bihurtzeko, euskal lurraldeetan diharduten ikastetxeekin, nolabaiteko, osagarritasuna geratzea eskatzen dute, *ikastolak ez baitira sortu eurengan eta eurengatik izateko, baizik eta euskal gizarte aske eta orekatu batek behar duen hezkuntza-antolamendua aldarrikatzeko, hain zuzen ere.*

Hori horrela, martxan ez bada jartzen euskal ikastetxe eredu isla eta bultzatzaile bezala, ikastolak ez du bere azken xedea betetzerik izango, bere sortze ikurra dion antzera eta, aldiz aukera "soil" bat bihurtzearen arriskua gehituz ez baita. Ikastola ez da, orain ditugun ikastetxe eredu eta hezkuntza-moten artean eta batera besteak baino, aukera bat izatea lortu nahi duen hezkuntza-errealitatea. Kopuruz gutxiago bada ere, oraingo hezkuntza-sare orokor honen barnean, abagune eta ez egitura<sup>47</sup> bezala aurkezten bazaigu ere ... lege naturalak, zein printzipioen izate, uste edo erritoak eta lege zientifikoek ere,


---

<sup>47</sup> XI Congreso. Txepetx. (1992a). Op. cit., "Las lenguas vistas desde la Historia versus la Historia vista desde las lenguas (o el giro copernicano de un nuevo discurso social)". XI Congreso de Estudios Vascos: *Nuevas Formulaciones Culturales: Euskal Herria y Europa*, Donostia, 1991. Eusko Ikaskuntza, 89-143 orr.

laguntzen baitigute adierazterakoan, gure ekimenaren arrazoia erabat frogagarria eta bidezkoa dela, eta gehiago ere, arrazoitua agertzen dela beste edozein ideologi edo logikotasun gainetik<sup>48</sup>, hain zuzen ere.

Beraz, ikastolak euskal hezkuntzaren eta hizkuntzaren “adierazpen autokonzientziaren esperientzia” ordezkatzen duten ikastetxeak direla esan behar da, eta Euskal Herriko “hezkuntza-sare” baten barnean, benetako hezurdura osatzen lagunduko duten “mamia” ordezkatzen digutela:

35. IRUDIA: *Ikastolen “adierazpen autokonzientziaren esperientzia”*



M. Jaione Apalategi (1994)

Hezkuntza eredu baten ikuspegitik, euskal gizartean diharduten eredu guztiak bitan bana ditzakegu.

a) Ikastola ikastetxeetan ematen dena, euskaltasuna eta euskara garaturik, eta

<sup>48</sup> Euskal Herriko hiru egoera administratiboak jarraitzen dituzten argudioak.

b) beste ikastetxe guztietan egiten dena, publikoak zein pribatuak izan, beti ere gurea edo “osoa” ez den giza sistemaren kultura teknologikoa garatzeko antolatu direnak, ditugu. Horiek berez, ez ditugu “irakasle” edo “hezkuntzalari” ikuspegitik hartu behar, baizik eta ikastetxe horien jabego aldagaietatik.

Ikastolen garapenei esker, esan behar dugu, bigarren taldeko hezkuntza-eredua ordezkatzan duten zenbait ikastetxe eredu (publiko zein pribatu) eta horren ardura duten jabego eta kudeatzaileak ere hurbilpenak egin dituztela euskal irakaskuntzara<sup>49</sup>, beti ere “legez” euskal lurraldeetan onartu ziren “A”, “B” eta “D”<sup>50</sup> hizkuntza ereduaren ildotik hain zuzen ere:

A. hizkuntza eredu, euskarari atzerriko beste edozein hizkuntzari ematen zaion kokapena eta tartea eskainiko zaio.

B. “etxetik euskararik ez duten haurrentzat pentsatua dago. Ama hizkuntza erdara eta ingurune soziolinguistikoa ere erdalduna duten ikasleei zuzendua dago. B eredu jarraituko duten gelatan, bi hizkuntzak, gatzelera eta euskara, landuko dituzte. Eredu horretako haurrak etxetik euskararik ez izan arren, urteetan zehar euskararen jabe izatea da helburu. Areago oraindik, maila batetik aurrera ikasketak euskaraz egin ahal izateko neurrian landuko da euskara”<sup>51</sup>. Bestalde, “eredu honen eskaintza bideak bi dira:

1. Euskarari poliki-poliki nagusitasun bat eskaini diotenak.

2. Hizkuntzen arteko oreka gorde nahi dutenak. Ordu kontuan bi hizkuntzei parekotasun bat eskaini nahi dieten ikastetxeak izango lirateke.<sup>52</sup>

---

<sup>49</sup> Aurrerago ikusiko dugu. 6.1.3 azpiatalean.

<sup>50</sup> Euskal Herriko Agintaritzaren 35. eta Hezkuntza Sailaren argitalpenak 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9 zenbakiak; Op. cit., (1989). Euskara Nafarroako Irakaskuntzan. Nafar Gobernu; (1993). “Euskal eskola eta hitzarmen politikoa”. Donostia: EHU/UPV: Hezkuntzaren Teoria eta Historia Saila. Filosofi eta Hezkuntza zientzien Fakultatea. Op. cit., *TANTAK*, 9 zk., 73-101 orr.; RODRIGUEZ OCHOA, J.M. Director general de Política Lingüística del Gobierno de Navarra. (1994). “La línea del euskera tiene cada año más alumnos en Navarra”, *DIARIO DE NOTICIAS* egunkaria. 94/4/20, 22 orr.; SORTZEN taldea (1994). “Euskarazko ereduak gora egin du Iruñerrian: Sortzen taldeak eskari osoa ez dela betetzen salatu du”. *DIARIO DE NOTICIAS* egunkaria. 94/6/7, 46 orr.

<sup>51</sup> Eusko Jaurlaritza (1981b). *Hasierra zikloko euskararen programakuntza B eta D ereduak*. Gasteiz, Hezkuntza saila. Hitzaurrea, 5 orr.

<sup>52</sup> *Ibid.*, 7 orr.

D. hezkuntza-eredua: “Ikastetxe batetan haur gehienek “ama hizkuntza” Euskara eta ingurune soziolinguistikoa ere gehienbat euskalduna dutenek jarraituko dute eredu honen programazioa. Eredu honetan eskolaurreko eta O.H.O.ko ikasketa gehienak oinarritz euskaraz emango dira”<sup>53</sup>.

Ikastola, ez da ikastetxe eredu bukatua, beraz ez da ere, Euskal Herrian diharduten beste ikastetxetatik bat gehiago edo beste aukera mota bat soilik:

“*écolè publique*”

“*colegio público*”

“*colegio privado*”

“*collége*”

“*lycée*”

“*instituto*”

“*ikastola*”

Ikastola, berezko euskal gizartea osatzeko eta hezkuntzaren eremua harturik, gure kultura egituratzen duten beste azpi-sistematariko bat dugularik, etorkizuneko euskal ikastetxe ereduak gararazi dezakeen “hezkuntza-ikur gunea”<sup>54</sup> dugu. Berau esperientzi autokonsziente baten adierazpen iturri bezala ez bada hartzen, ezingo da euskal gizarteak orain eta gero beharko lukeen hezkuntza-sarea antolatu.

Hezkuntza eremuan, bereziki EEA eta Ikastolen bidez norabide-tu nahi izan den “publiko/pribatu” eredu defintitu beharra<sup>55</sup> ez da benetako arazoa. Gainera, ezin da onartu, diotenean Ikastolak direla Euskal Herrian bakarrak, auzia konpondu gabe duten hezkuntza ereduak. Baldin eta euskal gizarteak irauten jarraitu nahi badu, bertan bizi diren ikastetxe guztiak sakoneko azterketa egin, aldatu eta hezkuntza dinamika berri batean sartu beharko dira benetako gizartearekin bat eginez. Beraz, gure arazoa ez dira: Ikastolak eremu euskaldunean bai erdaldunean ez, eraikuntzen bideragarritasuna; kontzertazio eta diru-laguntza; lehen hezkuntza ala bigarren hezkuntza;

---

<sup>53</sup> Ibid., Hitzaurrean: 6 or.

<sup>54</sup> Txepetx. (1987a). Op.cit., “Hizkuntzaren ikur gunea” erabiltzen duen zentzuan: 254 or.


<sup>55</sup> Besteak beste: ZUBIA, B. (1993). “El día “D” llegó para las ikastolas”. *EGIN* egunkaria, 93/5/25, 21 or.

finantziazio publiko-pribatu; gizarte ekimena: oinez, herri urrats, ibilaldia, kilometroak, Araba ... e.a.); “colegio público” edo “écolè publique” eta hizkuntza eredu gatazka “A”, “B”, “D” edo bi hizkuntza lerroen antolaketa edo aldarrikapena ikastetxe baten barnean: erdara-espainola/frantsesa-euskara, “ikastola” izan diren ikastetxeen kokagune berria, edo haur kopuru txikiak sortzen dituzten arazoak ...), “colegio privado” edo “college” (jabego eta kudeaketa izatearen arazoak, laiko/erlijioso/beste aukera bideratzeagatik), kontserbadore-neoliberal-sozialdemokrata eta gizatasun-ohizko hezkuntza eraginkor pragmatizitate askatasunaren pedagogiak jorratzeagatik, erabat finantzatuak ala batez-gutxi-ezerrez-; “lycée” edo instituto” eta “lanbide heziketa” erakundeak darien berezko egoeretatik isurtzen, (...) baizik eta elkar ez trinkotzetik, hain zuzen ere. Zer esan nahi du horrek?. Ba, bene-benetako hezkuntza auzian ez direla ados jartzen eta bakoitzak bere “aukera” bestearen “aurka” bailitzan garatzen dituela. Nabardura bidezkoak, aukera ezberdinak, eskaintza berekoiak, hezkuntza uste, egitasmo, antolamendu ... bereiztuak nabarmentzea guztiz logikoa da. Gizarte bateko hezkuntza eremuan, ikastetxeen bidez, gizarte bizi diren printzipio, balio, uste, errito, asmo, nahi ... e.a. anitzak, zerbait “oso” egituratzen du alde, osagarritasun hori ikastetxe ereduetan islatu daitekeelarik.

Elkarren arteko mugak lege “naturalen” izatetik etorriko dira ... ez eta “egoerari” dagokion legeetatik.

Ikastola sortu zenetik hona, bere printzipio eta antolamenduarrekiko arrakasta lortu duela begi-bistakoa da, baina ikastola, EE eredu zientifikoa ikerketen ildotik aztertuz, bere giza sistema eta hezkuntza ingurune “formalarekin” uztartu beharrean dago, beste ikastetxe eredu guztiak ikastolaren egitasmoarekin uztartu beharrean dauden bezala. Ikastola, kanporanzko abiadan “zabaltzen” hasi beharko da. Aldiz, beste ikastetxe guztiak, barnerantz “estutzen” (grafikoa: ). Bien artean, bestetik, euskal hezkuntza, gure talde kulturatik eta talde kulturari zor zaion, behar duen eta ahal dezaketen aukera errealak eskainiz, euskal kosmoikuspegia hezkuntza ikuspegitik garatzeko era ezberdinak bideratu eta antolatu beharra aldarrikatu behar dute.

36. IRUDIA: *Ikastolak versus gainontzeko ikastetxeen uztarketa*



M. Jaione Apalategi (1994)

Ikastolen, azpiegitura, esan daiteke bertan hasi eta bertan bukatzen dela nahiz eta oso garrantzitsuak izan diren “ikastolen elkar-teak” egituratzea, esan nahi duguna beste hau da: horien balio formala gizarte botere eta erabaki tokietan mugatua izan dela alegia. Aurrez hauek sorturiko hezkuntza legeetatik kanpo sorturiko mugimenduak zirelako besteak beste, ... eta indar botere mota horretan sekula ez dira hezkuntza berrantolaketa berri baten ardatz eta zio bezala hartuko, baizik eta “euskal gizon-emakume batzuen ahalegin ulertezinagatik” bai kantitate zein kalitatez, kontu hartu beharreko zerbait bihurtu diren hezkuntza “aukera” bezala.

Beste ikastetxe mota guztien azpiegitura, berriz, publiko eta pribatu deritzogunak, izugarria da, hots: eusko jaurlaritza, nafar gobernu eta ipar Euskal Herriko hezkuntza zein ikastetxe eredu ezberdinen ofizialtasuna bideratzen duten administrazio sailak, egun Fernando

Buesa, Javier Marcotegui eta François Bayrouren eskuetan daude eta pertsona zein lan arlo ugarik osatzen dute.<sup>56</sup>

Euskal irakaskuntzaren bidez, oihukatu behar dugun mezua, ez da gaur arte lortu duguna ziurtaraztearena edo gutxiago ez izatearena, baizik eta dagoeneko, euskal hezkuntzaren alde egin den ahalegina, gizabanakoak egin dezaketen eremutik kanpo geratu dela. Eta garaia iritsi dela dagoeneko, egitasmo horri, gizarte sendo eta garatuetan emango litzaiokeen adinako bermea ziurtatzeko; beraz “oraingoz” daukagunari eusteko beste hezkuntza elkarteek jasotzen dituzten diru laguntza zein beste (...) ezin zaigula ukatu.<sup>57</sup> Hezkuntza egitura nagusie dagokienez isurri berri baten bidez euskal lurraldean diharduten ikastetxeak egitasmo horretarantz bideratu beharrean daude, errealitate, bere osotasunean, ongi aztertuz euskal giza kulturatik abiatuko den hezkuntza, elkarren beharra duela sinistuz. Inor ezin daiteke bere eskolean estalita paratu ez egin daitekeen bakarrak “Ikastolak” direla ustez ez eurekin ez doanarena eginez “beste ikastetxe” mota guztiek ... ezin dugu onartu gure etxean bertan, gure hezkuntza-ikastetxe era/mota aukera, salbuespen edo batzuen nahiak asetzeko bezala ulertzea, aldiz, gure izatearen garapenari uko edo itsuarena eginez antolatzen diren hezkuntza ikastetxeak, gehiengo edo egoera arruntaz bezala hartuz. Euskal Herrian eta hezkuntzaren alorretik gure kultura tankerako giza emakumea berreskuratu beharrean gaude, printzipio hori ez onartzeak gure gizartean eta euskal hezkuntzak tokirik ez edukitzea suposatzen du, eta hori, ezinbestekoa dela sinisten duten guztiak, auzolanean jarrai eta jar daitezke, berehala! Hori aurrera eramateko ez dago traba teknologikorik, ez noski!. Hezurra, giza sistema kultura inguruneko eztarrian geratuta daukagu ..., dagoeneko, gure herrian, badago gai horiei behar bezala heltzen dakienik, (...). Baina guztiak aurretik, aitzindari eta ikuspegi berezia eskaini digun J. Oteizaren lana ulertzea, aurrebaldintza bilakatzen zaigu. Ezin daiteke, “euskalduna eta kultura” bikoteaz hitz egin, Oteizaz hitz egin gabe. Eta horren hartu-emanaren zerikusia hezkuntza eremuarekiko, zehatz-mehatz “gizonezko eredu bat herri

<sup>56</sup> GOIETXE, PH. (1994). “Negoziaketaren bidez ikastolen onespena”. *EGUNKARIA* egunkaria. 94/5/8, II or. Seasko lehendakaria.

<sup>57</sup> TUTERAKO ARGIA ikastola. (1993). “La ikastola busca nuevas fuentes de financiación”. *NAVARRA HOY* egunkaria. 93/2/7, 22 or.

bakoitzeko haurrentzat”<sup>58</sup> lanaren bidez eskaini digu, bertatik zenbait ekarpen egin ditzakegarik:

– (123 or.): “(...) herri bakoitzak eta kondaira une bakoitzean, giza eredu bat, ez eta haur eredu bat behar du haurra hezteko, ...”. – “... aldaketen legea, giza jokaera aldaketetarako ahaltasun ezintasunetarako aplikagarria da.”

– (124 or.): Oteizak dio, 1964.urterako, dagoeneko “garaikide artearen esperientziak, gazteen prestaketa politikoan integratuz, artistaren ekintza nagusia haurra kutsatu eta horren zein gazteen hezilarien hezkuntza estetikoan parte hartze zuzenean konprometitu beharraren”, inguruko kezka aurrera eraman nahian zebilela.

– (125 or.): (...) “haurren hezkuntzan gehien aurreratzen duten ikaspidetzak/metodoak, artistak erabiltzen dituen adierazpen bitartekoetara gehien hurbiltzen direnak dira, baino sormen jardueraren natura eta proiektzioan ez dute pedagogikoki sakontzen, ... behar hau garaikide artetik adieraz daiteke: nola sortzen da gizazko berri bat erantzungo digularik, (...)”

– (132 or.): (...) “ez dut uste, haurrentzat jokalaria eredu den hezilariaren jarduera oinarria bera baino, ekintza ikaspidetza gehiago kontutan izan behar denik. Haur jokalaria gaur egungo hezilariaren ezinbesteko prestaketa estetikorik gabe ezin dira sortu haurren garenarekiko berriz bi dira funtsezko helburuak:

1. inkonszientea den bere heldua edo bere barne-barneko anizko nortasunaren herria.

2. bere heldu konszientea edo bere nortasun helduaren xedea.

– (135 or.) (...) “esaten dut, dagoeneko herri bakoitzari barne-barneko sentsibilitatearen jokaeraren berreskurapena eta birberrikuntza baimenduko duen ikerketa estetiko mota egokituak daudela.”

Bestalde, euskararen berreskurapena euskal kultura berreskuratetik etorriko dela dio, besteak beste hainbat hutsune norabidetu beharko direlarik:<sup>59</sup>

(...) gure krisi guztiak gizonaren kultura politikarenak dira, garaikide, sentsibilitatean berrezi beharreko politikoarena, euskaraz haur berria berrirudikatu beharrarena eta horrela ez bazaio laguntzen, euskara ez da bakarrik bereskuratu/berosatuko”.

---

<sup>58</sup> OTEIZA, J. (1972). “Op.cit.

<sup>59</sup> Ibid. (1983). 4. arg., 5 or.



(...) “baino, gure kultura, artea, mitoak, hizkuntzaren aurrekondaira, mendebaldeko iturburu bezala ezer?. Aurreindoeuropeo mundu hau, gure berezko talde inkonszientearena, gure iraganetik sakonki arduratzen/interesatzen zaidan bakarra da eta gure gaurko munduaren interes eta kezkekin erlazionatzen dut. Baina gaur iragan urrun hau oso nahasturik eskaintzen zaigu, eragin askoz katrapildurik, presioez indoeuropearrak, judu-kristaua, e.a.”<sup>60</sup>

Kultura baten ikur nagusia den hizkuntza garapen tresna bezala hartzen duten herritar edo herri erakunde, elkarte, erakunde ... zenbaitek ere, kultura beraren errealitatea osoki atzematean dute berreskurapenaren ildoak:

(...) “dena galtzen utzi dugunean oso eroso eta erraza da itxura ematea: hizkuntza da dena esatea. Nire teoria aurkakoa da, alderantzut egiten da erlazioa: arazoa ez da lehenengo hizkuntza itzultzea gizon-emakumeari baizik eta hizkuntzari (geratzen zaiguna(ri)) gizon-emakumea (ez geratzen zaiguna, zerbait geratzen bazaigu, baizik eta hizkuntzaren barnean lehen genuen gizon osoa). ... Bere burua berrosatzen ari den gizon horrek jakingo du nola berrosatu bere hizkuntza, ... ekintza gizona dugu bere kulturaren, gure kultura tankerakoa.”<sup>61</sup>

Euskalduna ez euskalduna da arazoa, euskal hezkuntza zeri eskola-erakuntzaz arduratzerakoan.

Euskal hezkuntza izatearen ezaugarri nagusia, euskal giza kulturak nabarmen duen euskara bere lan tresna egitea da, lehenik, gero bertako kulturaren ildotik hezkuntza garatzen joan ahal izateko eta azkenik hezkuntzaren errealitate zabalari, norabidetuz beste giza kultura taldeekin batera giza aurrerapenaren bidea urratzen joatea, elkarren arteko oreka bermatuz.

Ikastola, gaurkoz, euskal hezkuntza gune bakarra da, inguraturik dagoen indar boterearekiko iraupena eta ez bereganatzea suposatzen duelarik. Gainera, Ikastola, osagarritzaile eta funtsean baikorra den hezkuntza erakundea da, non, gizabanakoari gizataldetasuna zein bere zentzumen moralaren tokia, taldean, erakusten dio; denez gain, multzoak, bere osagai bakoitzaren arteko batuketa baino zerbait gehiago direla heziz.

---

<sup>60</sup> Ibid. (1984). 422 or.

<sup>61</sup> Ibid. (1983). 5 or.

## 5. Berrikuntza: Euskal eskola-erakuntza esperientziaren adierazpen autokonszientea. (EAA)-EEEEÅ

### 5.1. Hizkuntza

Eskola-erakuntza –EE zientifikoaren ikuspegi erreala lortzeko, “hizkuntza-hezkuntza eta erakuntza” multzoen esperientzi adierazpen autokonszientearen teoria menperatu beharko dugu, baldin eta euskal hezkuntzaren oinarritzko adierazpena ingurune zehatz eta aldi berean, munduko beharretara egokitu nahi badugu giza garapenaren funtsa, hots, gizabanakotasun eta gizatasunaren garapena ahaztu gabe. Mundua aipatzen dugunean, ez dugu esan nahi, hezkuntza dihardun mundura egokitu behar denik, baizik eta gizabanakoen zein taldeen biziak “naturazko sistemaren oreka” norabidean egokitu zein beharrezko iruditzen zaien mundua sortu behar dutela, ahalegin hauetara bideratuz hezkuntza ekintza.<sup>62</sup>

#### 5.1.1. Euskal gizartea eta talde hitza

Gure ahaleginetarako, oso adierazgarria zaigu, Txepetxek eskaini dizkigun zenbait ekarpen

a) “kondaira, antropologia, soziologia bezalako zientziak, gizabanako eta giza taldea, gertakizunak jasaten dituzten subjektu bezala hartzen dituzte, hizkuntzaren bidez giza nortasun eta esperientzi pertsonal bat hartzen dutela, ahazturik. Eta beraz, ezinezkoa da errealtatearekin duten zerikusia ulertzea baldin eta hizkuntzak, eguneratzeko dituen gorpuzte erreal eta naturazkoak diren, hizkuntza elkar-teak, gizabanako eta giza taldeekin dituzten atxikimenduak ulertzen ez badira. (...)”<sup>63</sup>

b) “Gizakiak errealtatea ikasteko duen tresna da hizkuntza. Hizkuntzaren kontrola galtzen duen gizarteak errealtateaz jabetzeko ahalmena galtzen du, kutsadura eta murrizketei tokia eginez; gizabanakoaren *nikeriak* sortuz, eta hizkuntza aurkikuntza bide izan beharrean, mozorroa bilakatuz. Naturalak diren berezitasunak (hizkuntzen artekoak, izaerazkoak, artezkoak ...), aberatsak beraz, arriskutsuak edo

<sup>62</sup> Txepetx. (1990f). Op.cit., 15-45 orr.

<sup>63</sup> Ibid. (1989a). Actas ..., 676 orr.

desagertu beharrekoak direla sinistarazi digute, ordez, nahikotasun batzuen poderioz sorturiko berezitasunak, ezinbestekoetaz eta giza ezberdintasunaren arlo bezala aurkeztuz, horiek giza aurrerapenaren zio direla esanez. Horren ondorioa, "gizarte modernoetan" jardueren berezko egintza eta giza "rolen" banaketa izan da; gizabanako eta talde bezala bereizten gintuzten berezitasunak ezeztatuz, aldiz gizabanako soilak, giza talde kultura bateko izatetik at, banatzen eta bereizten gaituzte, honela, ezberdintasunak eta ez berezitasunak, areagotuz ... sakabanaketa horrek egiazko komunikazioaren tokia lapurtu du."

d) "Gizabanakoen arteko berdintasun sakonak talde adierazpenaren ondorioak izan beharrea, hots: ikus ahalmena, irudikapena ... e.a., ergelkeriaren berdintasuna besterik ez dira, gaur egun. Ondorioz, husten joaten den banakoak ni eta beste ni baten arteko lehia besterik ez du garatzen ahal, berarengandik kanpo geratuko den "botere" baten beharra sentitu arte."

e) "Taldetasuna, beste gauza askoz gainera, komunikazioa da, ni eta nirekikoen artean ditugun interes, ikuspegi, amets, ... e.a., bizi-molde batetik edo gizabanakoa bere burua, bere leinu propioan bihurtzen du, bera bezalakoak direnekin, lagunkide izan beharrea, lehiakide bihurtuz. Horretan erortzen den banakoak edo bideratzen duen taldeak bere hitzaren arrazoa eta izatea galtzen dit eta aldiz, boterearenak besterik erabiltzen ez dituelarik."

f) "Azken buruan, boterearen helburu nagusia da gure hitzak bereak egitea, gizabanakoa giza talde zentzu gabe, berak nahi eta behar duen jarrerara bultzatuz."<sup>64</sup>

Gaurko euskal gizarteak, talde hitza berreskuratu beharrea aurkitzen da aldiz, diharduten "gizaburuzagi", "uste", "botere" eta halakoe-kiko jaurespena baztertuz eta berea eraikiz. Gure gizarte horrela antolatzen ez bada, euskal hezkuntzaren (ber)eskurapena ezinezkoa izango da, noski.

"Gizarte baten gogoeta eraikitzen duen hotsa da giza hitza. Ondorioz, banakoaren hitza "berezia" "ezberdina" uler daiteke. Hitza pertsonala eta soziala izan daiteke. Norbere herriaren hitza gaitzesten edo mespretxatzen duenak ez du behin ere bere hitzak errealitateko berezitasunak elkar osatzeko balioko are gehiago, ezberdintasunak,

---


<sup>64</sup> Ibid. (1980). 79-82 orr.; 113-118 orr.

pertsonalki, berea barne areagotzeko baizik. Egia bilatzeko balio duten “hitzak” mozorroturik eta ilunpean norabideturik agertzen dira gaur ... hala nola “interesak”, “elkar interesen” aurka bihurtuz, edo eta asmoa, giza aurrerapenaren aurkakoa bezala agertuz.”<sup>65</sup>.

Hizkuntzak askatasuna, egia, eta edertasuna bilatzeko balio du, baina horretarako giza izatearen sena berezia adierazten duen “logos” edo pentsatzeko ahalmena garatu behar da, gizabanakoarengan zein giza taldeetan.

Edo grafikoki esan da:

37. IRUDIA: *Giza izatearen logos-a*



M. Jaione Apalategi (1994)

<sup>65</sup> Ibid., 8 or.

Gizabanako eta giza taldeen eskubideen zein garapen aurrerakoi eta orekatsuen aurka joatea da hizkuntza bat ukatu edo debekatzea. “Hizkuntza baten gainbehera ez da bere hiztunak eragin dezakeenagatik gertatzen, baizik eta aurkako egoera sozial batek egoera suspertu duelako gertatzen da.”<sup>66</sup>

Horrela, euskara, euskal hezkuntza formalaren bidez duintzeko, iraina suspertu duen egoera sozialaren berregituraketa eta eskuartze sendoa eskatzen du.

Oro har, hezkuntza, eduki eta antolaketa sistematizatu bezala ulerturik, pentsamena garatzeko ezin ekintza trebeagoa dugu. Horretarako, ordea, gizarte eredu hezgarriagoen beharrea aurkitzen gara, giza sistema bakoitzean oinarriturik eraikiko diren hezkuntza sistemen beharrea alegia, eta izate hori garatu eta askatasunean heziko duten ikastetxeen beharrea ere, hain zuzen ere. Hori guztia Eskolakerakuntza EE zientifiko baten oinarri eta funtsa litzateke.

Euskal gizarteari dagokionez, aipatutako guztiaren norabidea jarraitzeak lan bikoitza egitea ekarriko du berekin:

1. *giza logosaren eta hizkuntzaren artean dagoen zentzumen unibertsala bereganatzea eta,*
2. orokorrean, *beste edozein gizatalde askeren irudia lortzea, besteak beste, hezkuntza azpi-sistema bat bilakatuz.*

Diogun gizarte eredu hori lortzeko, Txepetxek dioen “duintasun printzipioa”<sup>67</sup> eraikitzea suposatuko du, non:

1. berdintasuna edo benetako berezitasunak,
2. lagunkidetasuna edo elkar batzen gaituenaren onspena eta
3. elkar aberastasuna edo sakonean bereizten gaituzten gauzetaz elkar aberastea.

Euskal EE-ren izatea berreskuratzeko, hiru printzipio horiek beharrezkoak ditugu eta, bide batez, heziketaren eta gizataldeen zein gizabanakoen auzia bihurtuko delarik. Gure herrian, Euskal Herrian, “hitza” hemen diogun zentzuan<sup>68</sup> bazterturik dago, beraz gurea izan

---

<sup>66</sup> Ibid., 24 or.; Ibid., (1987a) 188 eta 206 orr.; Ibid., (1989a) 687 or.

<sup>67</sup> Txepetx (1989b) “Pahán y el Hermano Rojo o el otro descubrimiento de América I eta II”. Amaiurko *QUETZAL* agiria. 17-21 orr. eta 17-22 orr.; Ibid., 13,14,17 orr.

<sup>68</sup> Txepetx (1988). Op.cit., “El poder y las lenguas (o el apocalipsis de todos los euskeras). *HERRIA* 2000 Eliza.

behar genukeen hezkuntza bahiturik aurkitzen da. Aldiz, (indarrean) ezarri dizkiguten hezkuntza eta ikastetxe eruedetan dihardugu edo pairatzen ditugu.

Bere hizkuntza taldearen kosmos ikuspegiarekiko balio urratsak adierazten ditu hizkuntza bakoitzak. Hizkuntza ezberdinen artean kosmosaren oreka, garapena eta aurrerapena bermatzen dutelarik.

### 5.1.2. Hizkuntza eta hezkuntza

Hezkuntza formala, eskolaritate garaia bezala ulerturik, EE eredu ezberdinetan egiten dena ulertzen da. Hezkuntza “mota” hori giza sistema guztietan, hots: Alemania, Luxenburgo, Britainia Handian, Norvegia, Estatu Batuetan, Frantziako eta Espainiako estatuetan, Marokon eta Israelen ... euren balio eta kosmogonia bereziak ziurtatzeko egiten den nahitako ekintza da, horretarako egokiak jotzen diren EE-k antolatuz.<sup>69</sup>

Hezkuntza honen hutsune nabarmenena, eta aspalditxotik sakonki aztertu dena, zera da: hezkuntza gertakizun unibertsala eta tokian tokiko<sup>70</sup> bezala harturik ere ez duela osotasunez, hau da hezkuntzaren errealitate guztia islatzen, EE mailan, bere eraginak era askotakoak suertatuz.<sup>71</sup>

Hezkuntza errealitatea, giza sistemaren azpi-sistema bat bezala harturik, gizarte boterearen esku-hartzea eskatzen du gaur, bere garrantzia eta ondorioak aztertuz geroztik, baina ez gure inguruan diharduen botere politiko ideologikoaren zentzuan<sup>72</sup>, baizik eta gizarte izate berezi eta sakonetik darion nortasuna garatzeko<sup>73</sup>, bertatik sortuko den botere politikoari, benetako giza aniztasuna ordezkatzeko eskatzetik, hain zuzen ere. Horrelako ikuspegi berri baten beharra nabarmentzen da jadanik.

---

<sup>69</sup> FULLAT, O. (1983). Op.cit.

<sup>70</sup> CAPITAN DIAZ, A. (1986). *Historia del pensamiento pedagógico en Europa. II Pedagogía Contemporánea*. Madrid, Dykinson; COOMBS, PH. (1985). Op.cit.

<sup>71</sup> Txepetx. (1990f). Op.cit., 44 or.

<sup>72</sup> CERAP (1989). Op.cit., 11-67 orr.; FULLAT, O. (1994).

<sup>73</sup> MACEDA, P. (1994). Op.cit.; TAYLOR, W. (1993). *Harvard Deusto Business Review*.

Hizkuntza, hezkuntzaren irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren ardatza eta tresnarik garrantzitsuena da, baina ikastetxetik kanpo ere, kulturaren eta azpi-kulturaren osagai nabarmena dugu. Kultura batetik hizkuntza desagerrarazten badugu, bere izatearen nahia ezabatzen dugu.<sup>74</sup>

### 5.1.3. Hizkuntza eta ikastetxea

Bestalde, gizataldeek, hezkuntza formalarekiko eskakizun berdinak eduki arren, aurrera eramateko era ezberdinak dituzte. Guztien norabideak, ordea, osagarriak ez baino aurkakoak bezala agertzen direlarik, gehienetan, honela ez bada sinistarazten ere. Beraz, EE ereduak esan nahiko duena, beste hau da: ikastetxe eredu ezberdinak gure ingurua, orokorrean publiko/pribatu barnean dauden guztiak harturik, kontrajarri bezala azaldu edo ulertu beharrean, elkar osatzen diren eredu bezala ikusi behar lirateke, non eredu bakoitzaren izatea, gizarte bateko gizatalde baten nortasuna, askatasuna eta uste ezberdinak garatzeko antolatuko diren, hots: Finlandian, Britainia Handian, (EEBB), Holandan, Espainia eta Frantzia estatuetan ... e.a., EE ereduez ez da gauza berbera<sup>75</sup> ulertzen eta mundu zabalean zehar lantzen. Euskal Herrian, berriz, hezkuntza inguruan sutsu ibili den “publiko-pribatu” auziak ez du balio euskal hezkuntza eta irakaskuntza ziurtatzeko, gurea ez den giza sistemaren gerizpean sortutako zeinua dararmalako, hain zuzen ere. Ez da eredu banaketa hori, jokoan dagoen zerbait Euskal Herrian, horren aurretik giza sistemaren barnean, gure gizartearen balio eta antolamendu printzipioak “hizkuntza-hezkuntza eta eskola-erakuntza” multzora extrapolatuz ingurune teknologiko baten beharrean aurkitzen gara, hots: hezkuntza sistema propio bat. Hemendik aurrera, besteak beste, edozein gizatalde bezala, hezkuntza inguruko gai edo eztabaida zehatzak aurkeztu eta eraldatzeko prest izango gara publiko/pribatu, nolako publiko edo pribatuak; anglosaxoi, napoleonar, iparamerikar ikuspegizaleak; eredu bakoitzaren babesa eta zergatia gizarte botereetatik, hezkuntza printzipioak eta euskal gizon-

<sup>74</sup> COOMBS, PH. (1971). Op.cit., “Problemas lingüísticos en el mundo”, “Búsqueda de una identidad cultural” eta “Educación, cultura, ciencia, lenguaje”, 314-339 orr.

<sup>75</sup> FULLAT, O. (1983). Op.cit., “Por ahí, en Europa, subvencionan la escuela privada”: 81-84 orr. eta “Escuela pública o escuela privada?; escuela que funcione”, 173-180 orr.

emakume eredu propioak, hezkuntzaren garapena eta aurrerapenerako urratsak, hezkuntza heziketa (...)

Hizkuntzak, berez, kultura dira. Baina hizkuntza bateko hiztunak, esandako zentzuan baliarazteko, hizkuntza eta gizabanakoaren artean dauden giza taldeak, hizkuntza horretan, nazio/aberi estandar bati dagokion funtzio guztiak betetzera, ezinbesteko baldintza da<sup>76</sup>. Ondorioz, hizkuntza batean jasotzen den hezkuntzaren balioak, hau da, ikas-texe batek hezteko erabiltzen duen hezkuntzaren prestigioak zerikusizuzena du bere erreferentziako gizartean betetzen dituen funtzioekin.

Orokorrean,<sup>77</sup> hiru arlok osatzen dute kultura hizkuntza baten balioa:


1. oharkuntza/perzepzioa: gaurko kondaira unean pentsamendu eta gizadi (...) albistea bideratzen den hizkuntza izatea,

2. erabilera: bere hizkuntza ez dutenak ere ikastera bultzatuak edo oharpen horretara murgiltzea eta

3. motibapena, bere ondorioz sorkuntza ematen da.

Grafiko xume batez adierazita, honela agertuko zaigu:

38. IRUDIA: *Kultura hizkuntzaren balioa*



M. Jaione Apalategi (1994)

<sup>76</sup> Txepetx (1987a). Op.cit., 81 or.

<sup>77</sup> Ibid., 83 or.



## 5.2. Hezkuntza: eremuen bernorabideketa eta oharpena

### 5.2.1. Isurri berri baten beharra

Gure ustez, hezkuntza oro har eta euskal hezkuntza zehatz-mehatz "isurri berri" baten beharrean aurkitzen dira,<sup>78</sup> eta ahalegin horretarako, ohikoak diren zenbait hezkuntza eremuren bernorabideketa aztertu beharko da:

1. Ikasketen izatea eta joana ulertu, ezagutza / ikasketa elkartuz, baldin eta, hezkuntza-hizkuntza bikotearen garapena bermatzea nahi bada.

2. Gure ikastetxean, hezkuntza egoera ezberdinak sailkatu, irizpide eraikigarri baten ingurutik.

3. Euskal hezkuntzaren izate balio subjektiboa hots, beretaz jabetzen direnak gune eta denboran zehar bizitzeko ematen dioten era, eta lagunkide duen giza hezkuntzaren balio objektiboa, hau da esperientzia eta pentsamendua jasotzeko eta bideratzeko erak osatzen duten ikuspegia, bereganatu behar dugu, hizkuntza talde bakoitzari, dago-kion hezkuntzaren behar eta aniztasun aberatsa zainduz.

4. EE-ren eremura eramanez, zera esan nahi du: balio eta izatearen alorrak bereganatuz eraiki behar dela EE zientifikoa, ikuspegi berri eta eraikigarria suspertzen lagunduko duten ikastetxeak sortuz.

Eskola-erakuntzaren EE, "kanpo baldintzen" giza sistema atala azterterakoan, oro har, hezkuntzarekiko atzeman ditzakegun hiru multzoen izateaz ohartu eta jabetzea oso egokia lekiguke gure ahaleginetarako, hots: eginkizunak, manupeak eta guneak.

Hizkuntzaren eremuan, Txepetxek<sup>79</sup> bereiztu eta ikertu dituen arloan dira horiek. Guretzat, hezkuntza eta EE euskalduna eraikitzeko balioko dizkigutenak eta bide batez, gure ibilbiderako, irizpide nagusiak bihurtuko zaizkigunak, hain zuzen ere.

Hezkuntzaren errealitateak (formalak, ez formala edo formarik gabekoa)<sup>80</sup> erakundetze prozesuan zehar agertzen dituen eginkizunak,

---

<sup>78</sup> Ibid. (1990f). 44 or.

<sup>79</sup> Ibid. (1987a). 35-39 orr.

<sup>80</sup> TRILLA, J. (1977). Op.cit., 9-10 orr.; RODRIGUEZ BORNAËTXEA, F. (1990). Op.cit., 140-143 orr.

manupe eta guneak zeintzuk diren jakitea, EE zientzia onartu eta mugatzeko ezinbesteko baldintzak dira. Ikus ditzagun banaka.

## 5.2.2. Hezkuntzaren funtsezko eginkizunak

Hezkuntza formalak ematen duen giza estatusa, hezkuntzak berak erabiltzen duen hizkuntzaren adinakoa da. Hori, berriz, bereganatzen dituen eginkizunen baitan dago.

Txepetxek<sup>81</sup> dioen hizkuntzaren eginkizunak emasabelak, hezkuntzaren izatetik ulertzea, honenbestez jabetzea da:

1. Lehenik eta behin, hezkuntzaren garapen prozesuak “ni” bat naizela sentiarazi behar du, gero “pentsatu” eta “sortu” ahal izateko.<sup>82</sup>

2. Nire talde naturala (berezko taldea) den sendia eta ni, elkarrekin sentiarazi.

3. Ni bezalako besteez ohartu eta, elkar gozatu.

4. Nire kultura inguruko berezko hezkuntza jaso, sentitu eta pentsatu poliki-poliki autokonszienteki gara dezan.

5. Nire lehen ingurune zabalena, aberria bera, oso osorik ulertzeko eta hobetzeko hezkuntza eraiki.

6. Nire hezkuntza garatzeko erabiltzen dudana hezkuntza, hezkuntza kultura eraikitzeko hedatu.

(Hizkuntzaz baliaturik eraikitzen den hezkuntza, kultura tresna bihurtu).

7. Nerea den hezkuntzaz, gizabidetasuna hezi. Giza talde bati dagokion hezkuntza kosmoikuspegi batek arruntasunez bizitzeko, hizkuntzari gertatzen zaion bezala 1 eta 5 eginkizunak ezinbestekoak, muinak, bilakatu behar dira.

Hezkuntza baten balioa, ez izadiaren zentzuan baizik eta tokian tokiko gizakien arazo, iraungarritasuna eta antolaketa lanak bideratzeko norbere giza sistemaren barnean dihardun hizkuntzak bizi-razteak eta garzteak ematen du. Jakina, hezkuntza bat baino gehiago bizi diren kultura talde edo giza sistemetan, hezkuntzaren balio bide hori arazotsu bihurtu ohi da. Askotan, elebakarrak diren giza sistematan, bere hizkuntzan jasotzen duten hezkuntzari, behar bezalako prestigioarik

---

<sup>81</sup> Op. cit. (1987a). 75 or.

<sup>82</sup> Txepetx (1990g). “Euskara eta irakaskuntza”. *Jazten* aldizkarian, 2 zk. 39-42 orr.; OTEIZA, J. (1972), Op.cit., 133 or.

ez ematea ere gertatzen da, gehienetan euren ez den giza sistematik kanpo datorren eragina izaten bada ere<sup>83</sup>. Horrekin, zera adierazi nahi dugu: hezkuntzaren eginkizun funtsezkoak, berdinak izan arren edozein giza sistemarentzat, honetan bizi diren hizkuntza gatazka egoerak direla medio, arazogarri bihurtzen dituztela eginkizun horiek: gehienetan ikuspegi politiko-ideologikoa erabiltzen delako hezkuntza-hizkuntza formala antolatzerakoan. Munduan zehar, edonon topatzen dugun errealitatea da hori; baina guk ez daukagu urrutira joan beharrik arazo hori baieztatzeko, noski.

Gaur egun dihardun geopolitikaren ondorioz, Hego eta Ipar Euskal Herrian, bina hizkuntza hitz egiten dira, euskara/espainola batean, euskara-frantsesa bestean. Guztira, hiru hizkuntzen gatazka adierazten zaigularik. Baina, hezkuntzaren alorrean, elkar bat egiten dituzten hezkuntza-hizkuntza gunearen isla dute IKASTOLA ikastetxea, hain zuzen ere.

### 5.2.3. Hezkuntzaren manupeak

Hemen hezkuntza garapena, kultur talde baten zentzuan harturik, bere hezkuntzaren oharpena, erabilera eta motibapenari loturik aurkitzen da. Beraz, ondorioz, zenbat eta eginkizun gehiago bete hezkuntzak, orduan eta manupe gehiagotan azalduko da eta hezkuntza horretan hezten ari direnak, bere izate unibertsala zein talde kultura zentzuan, hezkuntza egokitzeko ahalbideturik egongo dira.<sup>84</sup>

Guzti horretaz ohartzeak hartu-eman berezi batzuk aztertzerakoan eramango gaitu, hots: ikusi berriak ditugun hezkuntzaren funtsezko eginkizunak, hezkuntzaren barneraketa prozesua eta hezkuntza ikasten duten taldeen bereizketa, hain zuzen ere, guzti hau, hezkuntza, euskara, tartean delarik.

Hezkuntza prozesuaren ondorioz lortu beharreko manupeak, Txepetxek hezkuntzaren eremuan ikertu dituenetik extrapolatuz agertuko zaizkigu:

- Nortasunaren adierazpena lortu.
- Jendarteko lokarrien hezigarritasuna euskaraz hezi.
- Lan munduko lokarrien hezigarritasuna euskaraz hezi.

---

<sup>83</sup> Txepetx (1987a). Op.cit., 78-79 orr.; Ibid. (1980), 23-24 orr.

<sup>84</sup> Ibid. (1987a), 84-89 orr.

- Etxekoen arteko lokarriak euskaraz hezi.
- Lurralde loturak eraiki euskaraz, hezigarritasun zentzu eta ikuspegitik.
- Nazio loturak garatu hezigarritasun zentzutik.
- Norberaren kondaira une/garai inguruaren adierazpena euskaraz egiteko hezi.

Gaur egun Euskal Herrian, hainbat mailatan diharduten hizkuntza ereduak hauek dira: A, B eta D.<sup>85</sup> Baina, neurri zabal batean, “D” ereduak izan ezik, besteek ez dute hezkuntza euskaldun batek behar dituen funtzio eta manupeak garatzeko bermerik ematen.

Euskal hezkuntza Euskal Herrian erabat ziurtatuko bada, ezinbesteko bi ibilbide urratu beharrean dago:

1. Hizkuntzari dagokion baldintza: irakaskuntza euskaraz, hasieratik Unibertsitateraino bermatzea, ez maila batzutan islaturik ager daitezkeen ikasketa multzo bezala, baizik eta euskal lurraldean zehar arrunta eta lehen aukera bezala eskainiz.

2. Hezkuntzari dagokion baldintza: gizarteak uste, nahi eta ahal dituen hainbeste ikastetxe eredu zein hezkuntza mota sortzea<sup>86</sup>

- elebakarrak, elebidunak, eleanitzak, ...;

- erlijjiosoak;

- laikoak;

- esperimentalak;

- kulturantzak;

- ekologia zaleak;

- ekonomia zaleak;

(...) sare publikoetan zein pribatuetan zehar.

Une honetatik aurrera, hitz egingo dugu “Euskal Hezkuntzaz”, aberri zentzuan, hain zuzen ere.

Gure hezkuntza, horrelako argudioekin bat norabidetzen ez bada,

1. Orokorrean, euskal gizarte sistemak, dagoeneko nahiko deshezurmamitua egonik ere, bere ahulezia areagotu besterik ez du egingo, heriotza garatu nahian bezala (...)

<sup>85</sup> (1981 b). Op.cit., Eusko Jaurlaritza. Gasteiz.

<sup>86</sup> OTEIZA, J. (1980). “Organigrama para un Ministerio Autónomo de Arte Vasco”. *DEIA* egunkaria, 80-12-7 Bilbo eta Op.cit., (1983). QT. “prólogo”, 4. arg.

2. Zehazki, IKASTOLA, euskal gizartearen hezkuntza isla, euskal ikastetxe bultzatzaile bezala sortu zelarik, euskaldunak ez diren eredu askoren arteko aukera bat balitz agertu nahi da<sup>87</sup>, Euskal Herrian dauden ikastetxe guztien “hezkuntza ikur gunea” izan beharrean. Gure gizarteak ezin ditu ikastetxe ereduak zein hezkuntza ereduak beretu IKASTOLA ez badu bere “erdigune” bezala hartzen.

Ikastola ez da bukatutako egitasmo bat, ez baitago oraindik euskal hezkuntzaren benetako egituraketarik. Gizarteak, egiturazko gizarte sistema bezala harturik, euren baldintza kulturala eta teknologikoa eraikitzen saiatzen dira, edozein azpi-sistema delarik ere, onarturiko egitura bat lortu arte. Gure lan honetan ere, EE-ren kanpo baldintzak deitu ditugun arloan, horren beharra azaldu nahi dugu, eta Euskal Herrian hezkuntzarekiko, egitura horiek orekaturik ez daudenez, IKASTOLA abagune bezala agertzen da, “dihardugun” hezkuntza egituraren aldaketa bidera dezakeen euskal hezkuntza egitasmo bezala, ez gatazka edo elkar eraso suspertu nahian, baizik eta darabilgun hezkuntza egiturazko aurkakotasunak atzematen lagundu nahirik, azken finean hezkuntza sistemaren berrantolaketa eraginez<sup>88</sup>.

#### 5.2.4. Hezkuntza gunek: EE eredu arteko harremanak


Txepetxek, “ikaskuntzaren teoria” aztertzen duenean, bere ulertuntzaren dinamikaz ari da; hizkuntzen arteko ukituak ematen diren tokietan, banakoak har ditzaten irtenbide linguistikoen erabakiaurrean, ezagutu daitezkeen joerak ikertuz, alegia, horretarako egokitutako terminologi zientifikoa sortuz.

Hori guztia, guk, EE zientziaren zentzuan harturik, “hezkuntza gunea” edo hezkuntza-hizkuntza toki bezala ikertu nahian, *hizkuntza “ofizial” bat baino gehiago bizi duten euskal lurraldeetan, ikastetxe ereduak har ditzaketen irtenbide linguistiko erak aztertzea nahi dugu*. Ikastetxea, gizartearen azpi-sistema bezala harturik, giza talde ezberdinetatik datozen gizabanakoz osaturik dago. Beraz lehenik eta behin, banakoaren irtenbide linguistikoen tipologiaz ohartzea beharrezkoa dugu.

---

<sup>87</sup> Op.cit., 1993/5/25, EEA/CAV eta Ikastolak.

<sup>88</sup> Txepetx (1992a). Op.cit., “Las lenguas vistas desde la historia...” Ikus “egitura-abagunea”, 132 or.



M. Jaione Apalategi (1994)


EE eredu eta hezkuntza oreka Euskal Herrian hizkuntza orekaren baldintza berberak bete eta egokitetik etorriko dira. Gainera euskal hezkuntzaren eta euskararen arteko zerikusiak, EE-ren zentzuan, euskararen izate eta egoeraren kontzientzia hartzetik datoz, eta hori mar-txan jartzeko, hizkuntzen ikaskuntzen teoria ezagutzea ezinbestekoa da. Ahalegin hori urratzeko berriz, hizkuntzaren jabekuntza eta ikaskuntza baldintzak<sup>89</sup> versus hezkuntzarenak, zeintzuk diren jakin beharko

<sup>89</sup> Ibid. (1987a). I. zatia, 33-105 orr.

ditugu. Ondorioz, euskararen eta euskal ikastetxearen arteko lotura, gure hizkuntzak bizi duen egoerak baldintzatzen digu, alegia.

Txepetxek dio hizkuntzak oinarritzko hiru ibilbide osatetik, jaso eta ikasten direla: motibapena (M) ezagutza (E) eta erabilera EE multzoak, osatetik hain zuzen ere. Honela adierazten digu grafikoki<sup>90</sup>:

40. IRUDIA: *Hizkuntzaren oinarritzko hiru ibilbideak*



J.M. Sánchez Carrión "Txepetx" (1987a), 36 or.

Beraz, edozein hezkuntza eredu garatu nahi duen eskolakerakuntzak, (M)/(E) eta (ER)ren izateak ezagutu, menperatu eta jorratu beharko ditu. Alderantzizko norabidean, elkar eraikitzen diren bi eratako hizkuntza ikasketak osatzen ditu ibilbide honek: (A) eta (B).

(A) ibilbidea "lehen" edo "goiztiarra" bezala ezagutuko dugu, non hizkuntza -guretzat berriz euskal hezkuntza- ahalmena suposatzen du, eta bere ezaugarriak hauek lirateke:

1. erabileratik hasi eta motibaziorantz doa,

<sup>90</sup> Ibid., "Diagrama nº 1", 36 or.

2. jasotzen diren hizkuntzak edo hezkuntza, gizabanakoarekiko balio du,

3. gizarteratze prozesua hobeki bermatzen laguntzen du, hizkuntza gune edo hezkuntza gune hauek geroz eta, giza nortasun gainezarri zabalagoetan sararazten duelarik gizabanakoa.

(B) ibilbidea berriz, motibaziotik erabilera garatzen den hizkuntza edo hezkuntza da, prozesu honen balioa gizartearentzat da eta aldez gizabanakoratzea suposatzen du non, norberak ematen baitio zereginak hizkuntza edo euskal hezkuntzari, zeregin horien hedapena, nahi, arrazoi eta interesak bultzaturikoa da.

EE eremua eramanaz, Euskal Herrian zehar bi motako ikastetxe, eta honekin batera, bi motako hezkuntza eredu nagusi bereizten dira: (B) eta (K).

(B) eredukoak hezkuntza “bertako” edo “lehena” egiteko antolatzen direnak dira eta (K) eredukoak aldiz, hezkuntza “berantiarra” edo bigarrena” eta beraz, bertakotasun zeinu gabekoa egiten duten ikastetxe multzoarena dugu. Ikus dezagun nola agertzen zaigun grafikoki dioguna:

IKASTETXE

(B) “Bertako” eredia

(K) “Kanpoko” eredia

HIZKUNTZA

(B’) “Bertako” hizkuntza

(K’) “Kanpoko” hizkuntza

Alde batetik, edozein EE-ren hizkuntza/hezkuntza ikasketa bi eredu nagusitan eratuaz azaltzen zaigu, eta bestetik, euskal lurraldean diharduten hizkuntzak hiru izan arren, bat da bertakoa bakarrik, euskara alegia.

### *5.3. Erakuntza: hiru urrats*

EE-ren ikuspegitik, esperientzi adierazpen autokonszienteaz jabetzea zenbait urrats atzematea esan nahi du.

Hezkuntzaren oinarritzko adierazpena ingurune zehatz eta aldi berean munduko beharretara egokitu nahi bada, giza garapenaren funtsa, hau da, gizabanakotasun eta gizatasunaren garapena ahaztu gabe. Mundua aipatzen dugunean, ez dugu esan nahi, hezkuntza dihardun mundura egokitu behar denik, baizik eta gizabanakoen zein taldeen biziak, “naturazko sistemaren oreka” norabidean, egokitu zein



beharrezko iruditzen zaien mundua sortu behar dutela ahalegin honetara bideratuz hezkuntza ekintza.

### 5.3.1. Eskola-erakuntza zientifikoaren jabeakuntza

EE-n parte hartzen duten osagai guztien izateaz jabetu, eta diharduten paradigma teori errealak ezagutzean datza. Dagoeneko esaten ari garena, gure lan honen lehen eta bigarren zatietan urratuta dugu neurri batean, baina bere sakontasuna menperatzeko eta euskal EE zientifikoa eragiteko, Txepetxen teoria hezurramitzen dituzten hiru elementuen, hots<sup>91</sup>, motibapena, ezagutza eta erabileraren izatea ezagutu beharrean gaude, jarraian, EE-ren edukietara extrapolatuz eta guk diogun “Hololinguistika” eta Eskola-erakuntza” hartu-emanen ezinbestekotasuna frogatuz. Horretarako EE zientifikoaren ikuspegitik zehazten saiatuko gara:

- a) MOTIBAPENA: euskal eskola sortzeko nahi, arrazoi eta interesak,
- b) EZAGUPENA: bere eginkizunaz onartzeko ahalmena,
- d) ERABILERA: edozein kondaira gune zehatzetan, hezkuntza elkarten parte hartu beharra.

Txepetxek, hizkuntzarekiko ikertzen dituen elementu horien adierazpena, EE zientziatik aztertuta honela litzateke, baina hizkuntza eremuan gertatzen den bezala, “motibapena, ezagupena, erabilera” multzoaren norabidearen arabera, bi eratako EE ereduak bultzatu eta garatu ahalko dira:

1. BEREZKOAK (naturalak): hemen, gizartea edo ingurunea da eragile, ikasleek “erabilera, ezagupena-motibapena” ibilbidea garatuko dutelarik.

2. BURUTZAPENEZKOAK (zuzenduak): gizabanakoen eraginagatik, hezkuntza elkarte zehatz bat osatu eta antolatzen dute, motibapena erakarri, ezagupena lortu eta erabilera irabaziz, gizartea eurengandik proiektatzen dute.

### 5.3.2. Eskola-erakuntza ereduak edo hezkuntza elkarten izateak

EE eredu arteko berdintasun eta ezberdintasunak arakatzea eskatzen du esperientzi adierazpen autokonszienteak, eta hori berriz, hezkuntza elkarten izateaz arduratzea litzateke.

---

<sup>91</sup> Ibid., 35-36 orr.

EE eredu nagusiak bi eratakoak dira:

a) erakuntza mota “lehenak”, gizartean diharduten erakuntza inguruneko aldagai burokratiko eta soziopolitikoak batik bat<sup>92</sup>susper-turik, sortu eta antolatzen direnak dira. Horiek, azken buruan, “erabi-lera” ziurtatzeko egiten den ahalegina delarik. Berez, gizarteratze prozesua bideratzen du, gizabanakoa, gizarteak altxatu dituen erakun-tza horien bidez, geroz eta hezkuntza gune zabalagoetan ibiltzeko bidea eskaintzen dio.

b) erakuntza mota “bigarrenak”. Funtsean, besteak beste, erakun-tza inguruneko aldagai bereziaren bidez eurek sinisten duten EE mo-tari, “erabilera” alorrera iritsi nahian bideratzen dute erakuntza giza-banakozale prozesua suposatzen du. Euskal Herriaren eremutik, “ikas-tolen” esperientzia dugu aztergai, nahiz-eta berez, erakuntza eredu hau “naturazko” euskal gizartetik, ez eta “egoerazko” batetik begiraturik erakuntza “lehenak” izango liratekeen.

### 5.3.3. Eskola-erakuntza eta nahikotasun maila

Hezkuntzaren izatek isurtzen diren beharrak, orokorrak zein zehatzak edo tokian tokikoak izanik ere, eta EE eredu ezberdinetan ematea egon arren, egitura egoki eta garapen ziurra bideratzen ari direla jakiteko, zenbait baldintza betetzea eskatuko zaie, hots: EE eredu batean, hezkuntza garapena eraikitzeak “motibapena (M), eza-gupena (E) eta erabilera (ER)” ibilbideak “nahikotasun maila” garatzen ari direla esan nahi du, EE-ren hizkeratik esanda, ikastetxea eta gizartearen arteko zerikusiak egoki garatzen ari direla, alegia.

Ikastetxe batek bere gizartearekin osaturik egoteko, norberarekiko eta gizartearekiko osatua egon behar dela genion<sup>93</sup>, eta horretarako ezinbestekoak ziren bi motako eginkizunak osatu beharrean zegoen ikastetxea: ikasleen arlo afektibo eta efektiboak.

Horren ondorioz, esan dezakegu, ikastetxeek lantzen dituzten hezkuntza ikuspegi ezberdinak erabilera hunkikor/eraginkorik lortzen ez badute, nolabaiteko hutsunea adierazten ari zaizkigula, edo Txepet-xen hitzetan “nahikotasun maila” desegoki bat, hain zuzen ere.

---

<sup>92</sup> Ikus II. zatia, 2.4.2 eta 2.4.3 azpiatalak.

<sup>93</sup> Ikus I. zatia, 3.2 azpiatala.

Garapena eta aurrerapena bermatzen dituen baldintza dugu “nahikotasun maila”. EE zientifiko baten kanpo eta barne baldintzak harturik, bakoitzaren maila edo urrats ezberdinek eraginkorki ez erabiltzea suposatuko du, hots: giza sistema propioa ez duen hezkuntza sistema lantzea edo ikastetxe bateko azpi-sistemak bete behar dituzten motibapen-ezagutza-erabilera multzoetan, hutsune eta elkar garapen eza ematea. Aldiz, “nahikotasun maila” erakuntza mota honetan eraginkorki garatzeak EE-ren izatea, bat-bateko erabilera bihurtzea suposatzen du, euskal hezkuntza kontzientzia eta behar duen EE zientifikoa sortzeko ikuspegia barneratuz.

Azter dezagun “EE eta nahikotasun maila” Euskal Herrian ditugun ikastetxe ezberdinetatik:

### 1. Ikastola

Ikastola, motibaziotik-erabilerako norabidean sortu eta egituratu den EE eredua dugu. Bere kanpo baldintzak azterturik, berehala bi motako egoerak atzeman ditzakegu:

1.1 Ikastolaren hezkuntza elkarte harturik, gizarte euskaldun bateko partaide bezala, euskal giza sistemaren kulturazko oinarri eta funtsa den euskara, bere hezkuntza ikuspegi pedagogikoa garatzeko eta hezkuntza formalaren barnean, hezkuntzaren errealitatea (formala, formarik gabeko eta ez-formala) ahalik eta osoen jabetzeko, bitarteko tresna bakarra eta zutabezkoa da.

1.2 Baina Ikastolak, gure lurraldean diharduten hezkuntza sistemetara egokitu beharrean daude, beraz eraginkorki, ezin dute euren hezkuntza asmo osoak, euskal giza kulturatik datozenak, ingurune teknologiko euskaldun batean egokitu. Hori horrela izatearekin, hunkikortasunezko arloak garatzeko nahiko motibapen eta ezagutza maila lor daiteke, baina erabilera urratsak bermatuko lukeen “nahikotasun maila” kolokan geratzen da, oraingoz.

Horrek adierazten diguna hau besterik ez da: EE eredua den Ikastolaren xedea, ez dela bere jatorrizko gizartearekin erabat osatu, bien artean lokarria den hizkuntza/hezkuntza ez dela maila guztietan onartu, alegia. Biziraun eta garatzeko propioak dituen eginkizunak bermatu behar ditu edozein hizkuntzak, baina horiek betetzen ez badira hizkuntza batek, berak, nahi ez dituelako gertatzen, baizik eta hizkuntzatik kanpoko, egitura sozialak areagotu duten egoera adierazten

du soilik,(...). Ordea, gure kasuan “euskara duintzeko, iraina suspertu duen egoera sozialaren arruntasuna lortu behar da”<sup>94</sup>.

Gure herrian, diharduten hezkuntza sistemek, EE-ren ingurune teknologikoa deritzoguna,<sup>95</sup> ez dute behar adina bermatzen, ezagutzaren urratsa, ikastolatik kanpo ezagutaraztearen garapena galarazten delako, hain zuzen ere. Aldiz, ikastetxearen edo ikaslearen erru hutsa bezala hartu nahi da, gehienik ere sendien akatsa dela esanik. Baina, aurreko une horietan halako arazoak agertzea bat da, eta arazo honen izatea, esaten duguna baino/esaten dena baino, askoz ere sakonagoa eta zabalagoa dela ikusaraziko digu EE zientifikoaren teoriak.<sup>96</sup>

## 2. Publiko-pribatu ikastetxe motak

Dagoeneko azaldu dugu, eskola-eredu horien ezaugarri eta zenbait berezitasun, baina “nahikotasun maila” euskal hezkuntzarekiko aztertzerakoan, biak, publiko zein pribatu ikastetxeak, norabide berdineko bi ibilbide osatzen duten EE ditugu.

Gure gizartean ezagutzen ditugun publiko-pribatu ikastetxeak, “egoerazko” ez “naturazko” erabileratik-motibazioerantz sortutako norabidean antolatatu diren EE ereduak dira; eta EE zientifikoaren teoriatik aztertzen baditugu, diharditugun EEIT-aren tresna den “Hezkuntza sistemak” eta horren atzean dauden EEIK “giza sistemak” onartu eta kolokan ez jartzeagatik bereizten dira, beraz hezkuntza sistemek diotena, ahalik eta hoberen betetzea da euren kezka nagusia. Eta ondorio zuzena, hezkuntza eraginkortasunaren zeinuak egoki betetzen badituzte ere, bertara hurbiltzen diren gizarte bezero edo “guraso-ikasle-ingurunei”, arlo hunkikorra dilin-dalan garatzearen hutsunea atxiki diezaiekegu, beraz “nahikotasun maila” orekatua dutenik, ezin esan.

## 3. EE ingurunearen nahikotasun mailaren ezaugarriak

EE ingurunearen ikuspegitik aztertu ezker “nahikotasun maila” egoera, esango genuke bere bi kanpo baldintzak, EEIK eta EEIT dituzten hiru aldagaien bidez neurtu edo atzeman dezakegula, hots:

---

<sup>94</sup> Txepetx (1989a). Op.cit., “El túnel o el discurso de la desigualdad y la situación minoritaria”, 693-697 orr.

<sup>95</sup> Frantzia eta Espaina estatuetako hezkuntza sistemak.

<sup>96</sup> Op.cit., Txepetx-SIADECO & ... (1993-94); FISHMAN, J.A. (1990). “Eskolaren mugak hizkuntza biziberritzeko saioan”. *Euskal Eskola Publikoaren Lehen Kongresua*. Gasteiz/Vitoria, Eusko Jaurlaritz. I Tomoa, 1. arg. 190-196 orr.

aldagai burokratiko, soziopolitiko eta berezia<sup>97</sup>. Ikastetxe batek, bere gizarte ingurunearekin mantendu ditzakeen hartu-emanak, aipatutako aldagaiak zehaztu eta kontrolatzen ditu. Beraz, horietariko bakoitza aztertzen badugu EE batetik, berehala atzeman dezakegu “nahikotasun maila”ren egoera, eta esan behar dugu ez dela bere izatea bermatzen, hain zuzen ere. Euskal hezkuntza aldarrikatzeko, sortu zen EE Ikastetxea eredu den ikastolarentzako.

Aldagai burokratiko zein beste biak izan behar duten lokarritasuna ikastetxearekin, joan etorriko gezi batek ordezkatu behar luke, eta horrelakorik ez da gertatzen. Ikastetxeak, aldagai burokratikoak “bideratzen” duena bete beharrean dago, nahitaez, eta aldeztetxeak zuzentzen dizkion eskakizun, ikuspegi, berezitasun, uste, kezka e.a., gutxitan kontutan hartu ahal izaten ditu. Beti ere, gure inguruan gertatzen dena esaten ari gara, ez beste gizarte batzuetako EE inguruneetan ematen dena. Aldagai burokratikoaren eraginez EE hezkuntza administrazio menpe egotea suposatzen badu, hau da administrazio zentraletik isurtzen diren egokitzapenen menpe egotea bada, non hezkuntzari buruzko arautegi orokorra ziurtatzea, hezkuntza politika-hezkuntza sistema eta hezkuntza legislapena betearazteaz ulertzen delarik (...) esan nahiko du, gure euskal gizarteak, hezkuntza egitura eta sare propio baten jabe ez den neurrian, nolabaiteko “nahikotasun maila” hutsunea adierazten digula.

Ikastetxe eta erakuntza inguruko aldagai burokratikoaren artean garatu beharreko helburuak, zentzu zientifikoenean hartzen baditugu, aurreste politiko eta geopolitikoek benetako garapena eragozten dutela esan dezakegu. Gaurko administrazio edo hezkuntza administrazio egoeran, gure hezkuntza eta hizkuntzaren garapen osoa bere euskal gizartearen ikuspegi eta izatetik ezin dira bideratu.

Ikastetxe euskalduna, aldagai soziopolitikoaren izatetik aztertzen badugu, berriro ere “nahikotasun maila” desegokiekkin topo egingo dugu. Hala nola, aldagai honen langaiak diren:

- hezkuntza sarearen antolaketa;
- eskola-eredu bakoitzaren egitura;
- hezkuntza ereduak;

---

<sup>97</sup> Ikus II. zatia, 2.4.2, 2.4.3 eta 2.4.4 azpiatalak.

- EE zientifikoaren egoera eta etorkizuna;
- hezkuntza eta demografia;
- hezkuntza eta teknika;
- hezkuntza eta ekonomia;
- (...)

ez dira behar bezala egokitzen, ez EE euskalduna den Ikastola egitura osotik nahi ez delako, baizik eta Euskal Herrian dihardun “egoerazko” giza politikagatik, hain zuzen ere. Ondorioz

- a) behar den motibapena, ezagutza eta erabilera arloen “nahikotasun maila” garapen oso gabe geratzen dira, eta
- b) gehienetan ikastetxe horietatik egiazko ez den desoreka eta desatsegintasun hatsa sortzen da gizarteari.


Aldagai soziopolitikoak hartu behar dituen hainbat erabaki garrantzitsu edo zenbait argudio lantzerakoan, onenean ere, ikastolak, gure herrian dauden beste edozein ikastetxe eredu eran hartzen ditu, euren izate eta asmo sakonak kontutan hartu gabe, (...) baina aldagai soziopolitikoaren arduradunek jakin badakite bere ezaguera eta ekintza maila bi eremu arduradunak ikertu eta aztertzetik egituratzen dela, hots:

- a) hezkuntza edukiak eta soziopolitika, eta
  - b) pedagogia soziopolitikaren nolatasuna hezkuntzen aztertzetik.
- Bistan da, ez dela horrelako baldintzarik betetzen euskal gizarteetako, hezkuntza ardurak buru zein sail ugarietan.

Eta erakuntza ingurunean dihardun, aldagai berezi edo hezkuntza elkarrekin osatzen duten errealitate ezberdinen arabera hartu-emanak, ikastola ereduarekin, “nahikotasun maila” egoki gabe bizi direla ere esan behar dugu; baldin eta euskal hezkuntzak behar duen hedapena, izatea nahi bada gure herriaren demografia, lehengoz, eta tokian tokiko gurasoen jatorri, statusa, harremanak, hezkuntza elkarrekin, bizikidetzak, herriar-hiritar osaketaren beharrak ondoren, e.a., egokitzetik etorriko da.


Grafikoki esanda

41. IRUDIA: *Nahikotasuna maila orekatu*



M. Jaione Apalategi (1994)

42. IRUDIA: *Nahikotasun maila desorekatua*




M. Jaione Apalategi (1994)



EE zuzenduak edo burutapenezkoak deritzogunek, euren motibapen “aurre urratsean” eta “nahikotasun maila” adierazten dute, ikastetxe bat eratzera bultzatuz. EE mota horien, “erdiko urratsak” berriz, oharpenaren “nahikotasun maila” adierazten digu, erakuntza ezagumendu sendoak lortuz, erabilera eraginkorretara bideratu eta hezkuntza erabaki guneetara egokituz, edo beste EE-k gozatten duten hezkuntza guneen menperatzea eta garaipena garatuz. Azkeneko urratsa, berriz, lortutako aurrerapenari eustean datza, jaso diren oharpena eta motibazioa erabiltzea eta bititzea.

43. IRUDIA: *Eskola-erakuntzaren erabilera osagarria*



M. Jaione Apalategi (1994)

## 6. Eskola-erakuntza hololinguistikoa

### 6.1. *Ikuspegi osagarria*

#### 6.1.1. Balio eta izatea: objektibotasun-subjektibotasun baldintzak

Txepetxek<sup>98</sup> dio “hizkuntza gatazka” aztertzerakoan ezin garela bere eremutik at geratu, bertan murgildurik eta bere legeen eraginpean baikaude. “Objektibotasuna”, behatzailearen desagerpena eta “subjektibotasuna” behatzen ari den gauzaren ezabaketa bezala, ulertzeak oharpen zatituaren bi aurpegiak besterik ez dira. Aldiz, aldi berean, errealitate baten bi aurpegiak kontutan hartzen dituen ikuspegia, izan daiteke bakarrik osoa.

Euskal EE mundua aztertzeko, ikuspegi oso baten beharra dugu; beraz, goiko ildo hori ongi taxutu eta ulertzea komeniko zaigu.

EE-ren izatea, hizkuntza batena bezalaxe, bi ikuspegi edo ardatzek osatzen dute:

a) bere berezkotasuna (objektiboa)=OBJEKTUA, non esperientzi eta asmoak bideratzeko eta jasotzeko leku aproposa bezala agertzen den, eta

b) bere izatea (subjektiboa)=SUBJEKTUA, erakuntzako hezkuntza elkarteak, hutsune ezberdin eta denboran zehar, izateari eraketa berezi bat eskaintzen diote.

Beraz, bietariko ikuspegi bat, bere kabuz eta besteari bizkar emanenez erabiltzen bada, osagarritasunaren orde, desosagarritasuna bultzatuko da.

Adibidez, EE den Ikastola, objektu zoragarri, ondare paregabe, guraso talde batzuen mirari (...) bezala ikus daiteke, baina, bere balio subjektiboa bermatu beharra erlazionatu gabe, hau da, (ikastola altxatu dutenen helburua, berezko gizarte sendoaren nahi eta eskubide berberekoak, hezkuntza euskaraz, bere osotasunean birsortu eta igorri ahal izateko, erakuntza mota horrek, beste batzuen artean, gune trinko osatzen dutela ikusi gabe.

Aldi berean, ikastetxe bat subjektiboki interesa daiteke, bere izaerari dagokionetik ikasle berriak erakarriz eta horien bitartez hizkuntzari eginkizun berriak sortuz, baina horren garapena benetakoa izateko, ikastetxea altxatu dutenen giza sistemaren barnean islatzen diren

---

<sup>98</sup> (1987a). Op.cit., 172-178 orr.

nahi eta eskubide objektiboen menpe zein mugaturik egon beharko da. Adibidez, Nafar eta Eusko Jaurlaritzek zein Akitaniako hezkuntza ordezkariak egiten dutena, egia erdia besterik ez da. Administrazio horrietatik, euskaraz ikastearen apustua azaltzen dute<sup>99</sup>, ... baina alde subjektiboa besterik ez dute erabiltzen, euskarazko irakaskuntza: ikastola eta ikastetxe publikoetan egin daitekeela diotenean inongo hedapenik eman gabe ikastetxe pribatueta, hots, "colegios privados" edo "collèges".

Euskal Herrian, beste edozein herrialdetan bezala, ezin da onartu, bertan finkatuta dauden EE eredu ezberdinei, atzerritar hizkuntzaren bat oinarritzat dutenek salbu, hau da alemaniar, frantses, ingeles, espainol, (...) ikastetxeei ez ezik, bertako hizkuntza den euskararen bidez, bakoitzak gogoko ducn hezkuntza mota garatzeko tresna edo lanabes bezala ez erabiltzea. Hau horrela bideratzen ez den bitartean, gure herrian bertan euskaraz heztea, ingelesez edo alemanez hezkuntza jasotzea adina izango da, orain arteko guztiak irtenbide subjektibo edo itxuratsua besterik ez direlarik, edo bestela gogoratu ditzagun zenbait egoera

1. Euskal Herrian zehar, ez dago "hezkuntza legedi" bat edo bakarra.
2. Hezkuntza politikaren bidez, botere kutsu hutsa duten hezkuntza esku-hartzeak dira nagusi.
3. Arazo larriena ez bada ere, guk geuk sortutako Ikastolak bi "hezkuntza sistema" agiri ezberdinetan diharditugu.
4. Hizkuntza politikaren aurreusteak gurea ez diren hizkuntzak babesteko eginak diote.

Oro har, gure herriko hezkuntzak, eta zehazki euskal irakaskuntzak, honelako argudiopean irauten du:

---

<sup>99</sup> Prentsa iragarkiak:

a) "El gobierno de navarra reedita su campaña informativa y de promoción del vascuence en la enseñanza: la línea de euskera tiene cada año más alumnos en Navarra." *DIARIO DE NOTICIAS* egunkaria. Iruñea, 1994/4/20, 22 or.

b) "Apta para todos los públicos". Eusko Jaurlaritza. Gobierno Vasco. *EL MUNDO* egunkaria. 1994/5/10, 9 or.

d) "Ipar Euskal Herriko ikastolak Elkarte kontratuaren bidea aukeratzekotan dira." *EGUNKARIA* egunkaria. 1993/10/24, 10 or.

"Negoziaiketaren bidez ikastolen onespina" Frantzia Estatu mailako Hezkuntza Nazionala (...) *EGUNKARIA* egunkaria 1994/5/8, II or.

DELOBEL, Th. (1993). "Elebitasunak hamar urte Eskola Publikoan". *EGIN* egunkaria. 93/2/25, 7 or.

erdara eta hezkuntza erdaldunaren “objektibotasuna” euskara eta euskal hezkuntzaren “subjektibotasunerako”.

Euskaraz hezitako ikasleak, bere baldintza subjektiboetatik ohartzten da hizkuntzaz, eta horiek kili-kolo badaude, hau da, bere izate bereziekiko, gune denboran zehar onarpenik sentitu eta ikusten ez badu, bat-batean, funtsezko balioengan motibapena galdu eta mesfidantza sortzen zaio.

Egoera hori oso argi agertzen da, gure ingurunean, gutxitzen ari dela esan badezakegu ere, oso salbuespen eta egoera berezietan ematen baita. EE zientifikoaren ikuspegia utzi gabe, begi bistakoa da objektibotasun-subjektibotasun dimentsio horren beharra, eragin soziopolitiko eta burokratikoak sortutakoa dela, ez eta, euskara beraren ezintasun edo ahal ezinagatik.

Euskal Herrian, euskaraz hezi eta irakaskuntza euskalduna hedatzearen berrantolaketa zenbait errealitate ezagutu eta jabetzetik etorriko da:

1) “Osagarritasunaren zentzua”:

Euskal gizartean bizi diren eta iraun nahi duten ikastetxe orok euskal hizkuntzaren aldeko apustua egin behar dute. Ondoren, bakoitzak, bere hezkuntza uste eta abiapuntuak ongi finkatu eta gizarteari eskainiz, beste ikastetxeekin batera, osagarritasunaren ildotik aurrera egin ahalko dute.

Dagoen “egoera” ez da egokia diogun berreskurapena lortzeko, baina guztien beharra dugu eraketa eraginkor eta sentiberatasunago bat lortzeko, zeren eta euskal hezkuntzaren eskubidea eginarazteko bizi dugun EE banaketak, ez du balio. “Osagarritasun” bidea urratuz eta bere legeetara atxikiz, ikastetxeen bidez euskarak eta euskal hezkuntzak behar duten ikuspegi eta baldintza objektibo/subjektiboak garatu ahalko dira.

Osagarritasun ikuspegia garatzetik sortzen den errealitate berri hori hezkuntza formala ematen den erakunde mota guztietan ezarri beharko da: haurtzaindegietatik –Unibertsitateraino, eta lehen euskal erakundetza erratu duen “ikastola” mugimenduaren ingurua, euskal hezkuntzaren ordezkari nagusi bezala onarturik bere hezkuntza kide diren ikastetxe ezberdinen arteko “osagarritasuna” lortu beharko dela esan nahi du, baldin eta dioguna lortu nahi bada; guztiak “bertakortze” norabideruntzeko abiadura hartuz.

Egia da, azken hamarkada honetan euskal EE-gintzan aldaketa eta egokitzapen batzuk gertatu direla, baina betiere, ez dira baizik eta

“aukera” edo egoerazko ikuspegitik bezala aurkeztu dira, eta euskal gizartean, bertako hizkuntza hezkuntza sare orokorrean bihurtzea ezin da aukeratzat hartu, derrigorizat baizik. Ikusi behar dena zera da, nola “osatu” errealiterantz eta eskubiderantz, gaurko EE eredu ezberdinen “egoera”, hain zuzen ere:

- . haurtzaindegi;
- . ikastolak;
- . écoles publiques;
- . colegios públicos;
- . colegios privados;
- . collèges;
- . lycées;
- . institutoak;
- . lanbide eskola;
- (...)
- . Unibertsitatea.

## 2) “Osagarritasunaren helmuga”.

EE artean eman beharko den osagarritasunaren helmugak jakiteak euskaraz heztearen helmugak jakitea suposatuko du:

2.1 Euskal giza emakumearen objektu-subjektu edo balio-izatearen jarraipena zaindu eta gordetzearena da. Honela beste giza talde guztien oreka bermatzen delarik.

2.2 Euskal gogaiera edo asmo, esperientzi eta giza ekintza eraginarazteko balio duena.

2.3 Ikastetxe talde egituratuen bidez, ikasleek dituzten trebezi bereziak garatuko dituzte, aldi berean euskal pentsaera, esperientzi eta giza ekintza eraginez.

2.4 Ikastetxe bakoitzak, bere giza sistema inguruko kultura, sarkonki menperatu behar du. Ondorioz, ikaslearen berezko izatea zein bere giza eta hizkuntza taldearen lehena, oraina eta geroa uztartzeko eta egungo beharretara egokitzeko, bertako giza tankeratik aldenduko ez den giza/emakume eredu lortzen saiatu behar dira.<sup>100</sup> Eta horretarako ezinbestekoa da bertako hizkuntza, ikastetxe eta ikasleen artean elkar osaketa bat ematea hots, ikastetxeek euren izatea garatzeko behar dute hizkuntza, eta ikasleak, berriz, hizkuntzaren bidez, duen ahaltasun eta trebezia izateko.

---

<sup>100</sup> OTEIZA, J. (1972). Op.cit.

2.5 Hezkuntza euskaraz emateko sortu diren ikastetxeen helmuga, ez da euren balio goraiatzearekin hedapen objektibo arrunta eginekin bukatzen, baizik eta, horrezaz gain, horien izatea benetan erabilarazten utzi eta bideratzearekin.

Gure herrian zehar ditugun ikastetxeak, oro har, elkar lanean aritu behar dira, euren balio (objektu) eta izate (subjektuaren) arteko, behin betiko oreka bilatu eta eskaini arte.

### 6.1.2. EE osoaren bi ibilbide nagusiak

(A) “LEHEN ORDEKOAK” edo “erabileratik-motibaziorantz” antolatatu direnak, eta

(B) “BIGARREN ORDEKOAK” edo “motibaziotik-erabilerara” altxatu diren ikastetxeak.

“Nahikotasun maila”, ikastetxe eredu bakoitzaren izatea, eragin-korki garatzea suposatzen du, ondorioz EE zientifikoa barneratuz eta EE eredu zehatz baten kontzientzia sortuz.


Bai (A) zein (B) ibilbidean eratu diren EE-k, “nahikotasun maila” honetan, hutsuneak agertzen dituzte, arlo ezberdinetan badira ere, eta EE zientifikoaren ikuspegia erabiliz gero, hauxe esaten digu: ikastetxeen barne eta kanpo baldintzen arteko osagarritasuna ematen ez delako gertatzen dela, hain zuzen ere.

Horrexegatik, EE ikuspegi autokonsziente batetik ulertu nahi ezkerro; Euskal Herrian, euskal hezkuntza garatuko duten ikastetxeak, aztertu ditugun hiru urrats horiez gain, beste baten beharrea ere aurkitzen dira, hots, “osagarritasunaren” urratsa.

Non, EE eta hololinguistikaren ezinbestekotasuna frogatu nahirik, hiztun, hizkuntza elkarte eta hizkuntza-gizabanakoa eremuie loturiko Txepetxen teoria, Eskola-erakuntza Hololinguistikoaren: erakuntza-hizkuntza-hezkuntza eremu edo alorretara extrapolatuko dugu, honako izkurri hau erabiliz EEH, hain zuzen ere.


EE-ren barne zein kanpo baldintzak osatzen dituzten elementu guztien arteko harremanek osagarritasun zentzua behar dute, baldin eta euskal hezkuntza formalaren hedapena “nahikotasun maila” egokiz garatu nahi bada, eta EEH-k, hori, posible dela demostratzen digu. Beraz, urrats hau, EEH-ren adierazpen autokonszientearen esperientziak jabetu, menperatu eta berrosatzen lagunduko digun oinarritzko aurkikuntza dugu: euskal gizartean ditugun EE eredu nagusien arteko osagarritasunaren egiaztapena, ziurtatzen alegia. Grafikoki honelaxe adieraz genezake dioguna:

44. IRUDIA: Ikastetxeen (A) ibilbidea




M. Jaione Apalategi (1994)

45. IRUDIA: Ikastetxeen (B) ibilbidea



M. Jaione Apalategi (1994)



M. Jaione Apalategi (1994)

### 6.1.3. Ibilbide osoak garatzearen ondorioak euskal gizartearen “giza sistema”ren ikuspegitik

EE eredu nagusiak bi ibilbide garzetetik antolatzen badira ere, (A)/(B) edo “lehen eta bigarren ordekoak” alegia, euskal EE-ren zirkuitua bat izan behar da: (AB) edo (BA) ibilbide osoan zirkuitua, edonongo giza talde egituratu eta garatuen erara, hain zuzen ere.

EE zientifikoaren bi ibilbide osoak (AB)/(BA) garatzearen ondorioak hauexek dira:

1. Hezkuntza euskaraz, ibilbide osoan geratzearen errealitatea, hezkuntza elkarte edo euskal gizarteko EE inguruneko aldagai berezitik eratu eta antolatu diren taldeen ahaleginei esker “ikastola” izeneko ikastetxeei zor zaie. Gure gizartearen ikuspegitik “izate edo errealitate “indibiduala” duen hezkuntza garapen bidea dugu.



Euskal gizartearen jomugatik, (AB) ibilbidea osatzen duten ikastetxeak ditugu ikastolak, hots: hasieratik bertako kultura, bat-batekotasunez erabiltzeko sentitzen duten beharrak, ikastetxe bat eratzeraz bultzatzen dituzten hezkuntza elkartearen eraginez sortutakoak ditugu. Horiak, naturazko antolamendu horren ondorioz, hizkuntza erabileraren kontzientziak motibatuz, abiapuntutzat hartzen dute, garaturiko kultura erabilerak adierazi eta bideratzea lortuz, EEH lehenak bezala bereziko ditugularik.

2. Bestalde motibazio indibidual eta sozialaren eraginez, dihar ditugun hezkuntza administrazioei, oro har<sup>101</sup>, euskarazko irakaskuntza lerrorik ez zuten ikastetxe publiko ugari zein hainbat pribatuk, hezkuntza euskaraz emateko, ikastetxeak berrantolatu behar diren kezka eta aldarrikapena bideratu dute, (BA) EEH-k sortuz:

a) Eremu euskaldunetako herri edo aran euskaldun elebarkarretan zeuden “eskola nazional / école publique” deiturikoetan eta erdarazko hezkuntza soilik, ematen zenetan orain euskara hutsean ematera igaro dira...

b) Eremu euskalduntzat jotzen diren horietako zenbait herri edo aran elebidunagotan, hau da, bi hizkuntza –gutxienez– erabiltzeko joera edo, ala banatuta daudenetan, erdaraz erakusteko erabiltzen ziren “eskola nazional –école publique” berberetan, gutxienez euskara eta erdarazko lerroak ireki dituzte, eta hego Euskal Herrian zenbait ikastetxe pribatutan ere bai... .

d) Euskal eremuen barnean, zenbat eta hiri handiagoa izan, orduan eta erdaldunagoak ditugu, nahiz eta euskararen ikasketa eta erabilera gutxitu beharrez, mantendu eta askotan suspertu arren. Ikastetxe pribatu ugari daude Euskal Herri hegoaldean batik bat, eta honetan EEH ibilbide osoen hutsunea beste edozeinetan baino nabariagoa agertzen da. Aldiz, hezkuntzaren bidez bultzatu daitezkeen kontzientziak eta euskararen normalkuntza, larru gorritan utziz eta askotan berriz, baztertuz.

e) Euskal Herri bitxi honetan, badugu bai, eremu “misto” edo eta “ez euskalduntzat” jotzen den lurralderik ere... . Ikus ditzagun EEH-ren aldetik.

Hala nola Nafarroako Legebiltzarrak 1986ko abenduaren 15eko “Ley Foral del Vascongado” edo euskararen legea onartu zuen, ziotenez “elkar bizikidetzaz eta irakaskuntza alorretan, euskararen erabilera

---

<sup>101</sup> Nafarroan /EEA/ Iparraldean.

arrunta eta ofiziala egokitu nahirik”. Lege horrek hiru hizkuntza eremu inposatzen ditu Nafarroara<sup>102</sup>: ipar aldean euskal eremuak edo euskaraz hitz egiten den tokietan ahaliko da Euskararen koofizialtasuna onartu. Eremu “mistoan”, berriz, eta irakaskuntzan publikoan bakarrik, irakaskuntza erdaraz eta euskaraz egiteko aukera eskainiko da, azken kasu horretan gutxiengo lege baldintza batzuk betez gero. Aldiz, Nafarroa hegoaldeko erdia, Erribera esaten dioguna, eremu ez euskalduntzat hartuko du. Handik zazpi zortzi urtera zuzenketa proposamenak bideratu eta aurkeztu ziren, baino berriro ere lehengo moduan geratu zen.<sup>103</sup> Hala eta guztiz, ikusi besterik ez dago eremu honetan euskara hizkuntza “A” eremuan ikasten ari diren ikasle kopurua nolakoa den. Beraz, Erriberan kokaturik dauden Ikastolak: Tütera, Sartaguda, Zangozaa, Kortés, Lodosa, ... EEH-ren (AB) ibilbidea ziur-tarazten duten ikastetxe bakarrak ditugu; (BA) ibilbidekorik oraingoz eratu ahal ez delarik.

Dena den, motibaziotik-erabileraranzko ibilbidea osatzeko anto-latu diren EEH guztiak, “bigarren ordeko” erakuntzak lirateke, euskal EE-ren ikuspigitik, hain zuzen ere. EEH mota horiek, bere bilakaera-ren une batean, behaketa eta norabidea sakontzeko geratzen direnean ematen den berrantolaketa berriaren ikastetxeak ditugu. Motibapen (arrazoi, nahi, asmo) kulturala medio delarik, ikastetxearen barnean, erakuntzarekiko zuzenketa berri baten beharra sumatzen da, EEH-ren errealitate osoz jabetu eta barneratuz, gero honela, dagokion garapen eraginkorra sortzen delarik.

Lehen motako erakuntzari, Txepetxen teoriari jarraituz, giza errealitateari egokituriko ikastetxea “bertako-kulturizatua” den EEH deituko

---

<sup>102</sup> *Mapa escolar de Navarra* (1990). Tomo I eta II. Gobierno de Navarra. Departamento de educación.

<sup>103</sup> (1992). “Colectivos relacionados con el euskera piden cambios en la ley” *NAVARRA HOY* egunkaria. 92/6/25, 8 or.; (1992). “La cámara modificará la ley del Vasculence, a pesar del gobierno”. *NAVARRA HOY* egunkaria. 92/11/18; (1993). “Proposición de ley foral de modificación de la ley foral 18/1986, de 15 de diciembre, del vasculence”. *B.O. del Parlamento de Navarra/III Legislatura* 45 zk./18 de noviembre de 1993; “Euskararen lege proposamenari 11 zuzenketa aurkeztu dizkio HBk”. *EGUNKARIA* egunkaria. 1994/3/8; “POLITICA. Importante rechazo en el comité ejecutivo regionalista a la acción lingüística del Gobierno foral: El euskera reaviva la batalla interna entre Alli y la actual dirección de UPN”. *DIARIO DE NOTICIAS* egunkaria. Iruñea. 1994/4/27, 17 or.

dugu. Bigarren ordekoari berriz, “heldu-bertakoratu” bihurtu den ikastetxea dugu. Eta EEH-ren egoera arrunta bi multzoen batuketak osatzen dutena da: ikastetxe kulturizatu + bertakoratuak, hain zuzen ere.

Eskola-erakuntza, zein beste edozein arlo delarik, berreskurapen baten prozesu batean zehar, nahikotasun erabilerak, bertakoratzea suposatzen du. Beraz, EE berantiar edo bigarren ordekoak, hezkuntza iraulketa urratsa garatzean, aberrizate prozesua bideratzen dute, hezkuntza/hizkuntza izatea berregituratu eta ibilbide oso bat eskaintzen dutelarik, (BA) ibilbidea osatuz, alegia.

Euskal Herrian diharduten ikastetxe “publikoek”, mugaz bi alde-tik, zenbait tokitan, aipatu dugun iraulketa bultzatu eta burutu dute. Ordez “pribatutzat” jotzen diren ikastetxe motatan, ez da horrelakorik osatu oraingoz; nahiz-eta nolabaiteko urrats berriak ematen hasi diren, ez da bertakoratze edota aberrizate adinakorik izan.

#### 6.1.4. (AB)-(BA) ibilbide osoak euskal EEH-an eta gizartearen hezkuntza eskaria

Euskal Herrian hiru hizkuntza bizi dira elkar, estatu bakoitzaren barnean, ofizialki bina dihardutelarik, euskara eta frantsesa Ipar Euskal Herrian eta euskara eta espainola Hego Euskal Herrian.

Abiapuntutzat joko dugun axioma, hau da: hizkuntza bakoitzean irakaskuntza garatu daiteke, eta bere ikasketa, hezkuntzaren bidez egiteko, bi motako EE eredu egon daitezke ondorioz “Erakuntza-Hezkuntza-Hizkuntza” edo EEH-”ren zentzurik, honelako araketa edo aurreikuspegi kontutan hartu beharko ditugu.

- Erakuntzaren ikuspegitik
  - EE<sub>1</sub> Bertako ikastetxe ereduak, EE lehena, naturala
  - EE<sub>2</sub> Ekarritako ikastetxe ereduak, EE bigarrena, kulturala
- Hezkuntzaren ikuspegitik
  - (HE)<sub>1</sub> Hezkuntza euskalduna, osoa
  - (HE)<sub>2</sub> Euskalduna ez den hezkuntza, ezosoa
- Hizkuntzaren ikuspegitik
  - (HI)<sub>1</sub> Bertako hizkuntza
  - (HI)<sub>2</sub> Ekarritako hizkuntza
- Eskola-erakuntza hololinguistikaren ikuspegitik
  - EEH<sub>1</sub> Hezkuntza/euskara lehena edo naturalki
  - EEH<sub>2</sub> Hezkuntza/euskara bigarrena edo kulturala

Baina, hori guztia laburtuz eta euskara, bertako hizkuntzaren egoera abiapuntuz hartuz gero,

A HIZKUNTZA

(HI)<sub>1</sub> Bertakoa edo jatorrizko hizkuntza

(HI)<sub>2</sub> Ekarria edo arrotza

B IKASTETXE edo EE

EE<sub>1</sub> Bertan sortutako EE eredia

EE<sub>2</sub> Kanpotik ekarritako EE eredia

Biak, hizkuntza eta ikastetxea elkartu ezkerro hizkuntza eta hezkuntza toki batuz gero, honelako ikurrak sortuko zaizkigu.

EEH<sub>1</sub> Bertako ikastetxea jatorrizko hizkuntza

EEH<sub>2</sub> Kanpoko ikastetxea ekarritako hizkuntza

Baina konponketa, bi ibilbideak, osagarritasun bidean ipintzea eta gizarteko hezkuntza arduradunak elkartasunezko eraiketa ez eta, aurkako garapena bideratzen saiatzean dago. Horretarako ezinbestekoa da gure gizarteko erakundeak EEH bultzatu eta naturalki hedatu beharren premia ikustea. EE zientifikoak, berriz, behar dugun nora-bidea garatzen lagunduko digun tresnak eskainiko dizkigu.

Gure gizartean, bistan da ez dituela bere ordezkari egokienak erabaki alor gehienetan, eta beste arrazoi askoren artean, ezin dugu sinistu gure herrian zehar, ez direla haur gehiago hurbiltzen euskal irakaskuntza eta euskarazko hezkuntza ikastera daudenak baino, hau da euskal hezkuntza ez da hedatuko, baldin eta “eskaria”<sup>104</sup> gizarteko erakunde gorenaren eskutik sustatzen ez bada. Inongo gizartetan hezkuntza eskaria ez da uzten biztanleria soilen esku, hots, Frantzia, Espainia, Grezia, Luxenburgo, Suitza, ... e.a.

Beste gauza bat da “ikastetxe mota”ren auzia, edo zer nolako ikastetxeak nahi izaten dituzten gurasoek, zein nolako “hezkuntza asmoak” tiratzen dien ... erabateko arazo arrunta gizarte garatu eta irekietan. Euskal Herrian erabateko begirunea izan beharko dugu hezkuntza, era ezberdinetako aukeratan eman nahi bada; gure gizarteak ahal adina ikuspegi filosofiko berezietatik, oinarriturikoak, hots:

erlijiosoak;

esperimentalak;

---

<sup>104</sup> Txepetx (1990b). Op.cit., 1-4 orr.; Ibid. (1989f). “Subvención económica y normalización lingüística”.

teknologikoak;  
hizkuntzatan oinarrituak;  
politiko garapen ikuspegikoak;  
estetika ardatz dutenak;  
kirola goraipatuko dutenak;  
gizazaleak (...)

arazoa bat besterik ez da oraingoz, guztiak euskal hezkuntza emasabeltzat bezala hartzea, gero bakoitzak bere garapen eta aurre-rapena eraikiz. Gure gizartean bizi diren ikastetxeak, oro har, “publiko pribatu” izan, euskaldunak izan behar dira, eta hori erabat lortu eta egituratuta dugunean, beste bitxitasun eta Euskal Herria aberasteko den edozein egitamuri ireki egotea ahalko dugu. Baino oraingoz, onartu ezin duguna, zera da: gure euskal hezkuntza biziarazian duen ikastetxe egitasmo bakarra, ikastola alegia, gure herrian bertan sortzez bertakoak ez diren eredu edo ikastetxeen artean aukera soil bat bezala aurkeztu eta “eskaria”ren arabera edo gizabanako kontzientziadunen hurbilketa soilaren esku egotea da.

Garbi gera bedi beraz, ikastolagintzaren izatea ez dela eredu pribatu/publiko zein hezkuntza mota bakar edo zehatz bat berreskuratzearen auzia, ... baizik eta, *funtsean, bere jaiotze unetik eta bilakaeran zehar, bertako kultura eta giza sistema iraunaraziko duen hezkuntza propio bat garatzeko, behar den eusgarri teknologikoaren aldarrikapenean datza*. Bestalde, bizirik dauden edo giza taldeen jomuga dugu hau; eta horrek bezalaxe, garapen eta berrikuntzak dakarten aldaketa ugariekiko, banakoen zein taldearen aurrerapena eta oreka ziurtatzea dute ere helburu.


Beraz, Ikastola, egungo egoeratik azterturik, benetako hedakunde beharrean aurkitzen da. Euskal Herrian dauden beste ikastetxe guztiekin (publiko-pribatu), eta alderantziz horiek harekin, teilakapen eta ukaezinezko ulertu beharrera zuzendurik.

Euskal hezkuntzaren hedapen arrunta, ez da “eskakizunaren” arazoa baizik eta “hizkuntza eta hezkuntza politika planifikazioarena”. Diseinu berri horren barnean, herrialde ezberdinetan dituzten hezkuntza paradigmak egoerak ezagutu eta aztertu beharko lirarteke, besteak beste guztiok, herri orok, dugun nazioarteko bizikidetzeta eta lankidetasunaren beharrikatik.

Jarraian Euskal Herriko hezkuntza sarea irudiz ketuko dugu:

a) gaurko egoera


47. IRUDIA: *Egoeraren arabera*ko hezkuntza sarea



M. Jaione Apalategi (1994)

b) Eraginkortasuna eta sentiberatasun bertakoa + kulturizatua

48. IRUDIA: *Naturaren arabeko hezkuntza sarea*



M. Jaione Apalategi (1994)

“Hizkuntza egoeren oinarriko motak”<sup>105</sup> ikertzerakoan, kondai-  
ra une zehatz batean hizkuntza lau izate egoera ezberdinetan egon  
daitekeela dio Txepetxek: A-B-AB eta  $\emptyset$ .

<sup>105</sup> Ibid. (1987a). 185-194 orr.

A egoeran dauden hizkuntzak igorpen naturalaren bidez jasotzen direla, soilik, esan nahi du.

Økoak berriz, kondaira une batean kulturalki bakarrik erakusten dira.

AB egoerako hizkuntza, kulturalki eta naturalki igortzen dena litzake eta

ø egoerak berriz, garai zehatz batetan hizkuntza batek duen ezizatea adieraziko luke.

Eta honekin batera dio, zientziaren ikuspegitik ez dagoela hizkuntzarik AB ibilbidea edo egoera urra ez dezakeenik eta hau garatzeko, “aldi berean, gizadiaren ikuspegitik Giza Hizkuntza osoak egoteko, hizkuntza elkarte guztiek euren hizkuntzetan osa daitezen behar du, bakarrik horrela ahal baita, izadi eta gizadiaren egiazko kosmoikuspegi eduki”.<sup>106</sup>

Euskal ikastetxeentzat, berriz, hizkuntzan eta hezkuntzan osatzea edo hezkuntza-hizkuntza garapena lortzea eta Euskaraz lortzea gauza bera dira. Beraz, giza kondairan zehar, hizkuntza baten egoera lan eratakoa izan badaiteke, Euskal Herrian euskaraz hezi daitezkeen ikastetxeak ere lau egoeratan egon ahal dira. EEH auto-konszientearen AB edo BA ibilbideak osatzen dute, hori baita naturazko arruntasunez hezkuntza garatzeko bidea, horrek erabilera urratsari dagokion eskubideak eskuratzea esan nahi du eta,aldi berean, ordea, besteek bere erabilera pribilegiatuari amore ematea hain zuzen ere.

Ezin da EEH euskalduna burutzen duen Ikastola mugimendu bati aldarrikatzen dituen eskubideak itzuli, aldez aurretik honen bablesa beste ikastetxeentzat inondik inorako aldaketa “arrisku” edo “mehatxurik” ezin dezakeela ekarri esanez, beraz horiek dituzten burupeak berdín jarraitu beharko direla ustez. “Osagarritasun” zientifikoaren oinarriak benetako berdintasun oreka bideratzen lagun diezaguke eta, hori gerta dadin, ikastolak garatu duten EEH mota, ezinbesteko abiapuntu dugu Euskal Herrian, hezkuntza egitasmo erreal bat planifikatzeko Ikastolak “lehen ordeko” EEH dira eta edozein hezkuntza berrantolaketaz mintzatzerakoan, muintzat hartu beharrekoak ditugu, ez eta saihets edo abagune soiltzat.

---

<sup>106</sup> Ibid., 188 or.



Ikastolak, (B) ibilbidetik sortu diren ikastetxeak ditugu, gurea ez den giza sistema kulturatik sorturiko hainbat ikastetxe bezala, “pribatuak” deitzen direnak hain zuzen ere. Baina gure giza talde kulturari zor zaion giza sistematik azterturik, euskal ikastetxea naturazko egoera baten bihurtzearena bideratzen du ikastolak. Bere norabidea, beraz, ez da dagoen egoeraren barnean, toki bat, ziurra izan da ere, egitearekin bukatzen.

Ikastola egitasmoaren bitartez, euskaraz hezkuntza, Euskal Herrian zehar, garatu beharraren berreskurapena lortzea aldarririk nahi du. Euskaraz egiten den irakaskuntza, “berezko” EE-n beharra du, hedapen arrunta garatzekotan, handik aurrera gure gizartearen “burutapenezko” EE ezberdinak tokia izan dezaketelarik, noski, ... gure giza taldearen uste, nahi, ahal, asmo ... e.a.-en arabera ikastetxe ereduak sortuz. Ondorioz, EE inguru orekatu bat lortu ahalko dugu, non aldagai “burokratikoak”ren hezkuntza arau oro harrak (politikoak, teknologikoak, legezkoak ...) gure hezkuntza babestu, indartu eta beste edozein herriren pare, lehiakide izateko eskubidea izango du. Aldagai “gizapolitikoaren” esku geratuko da, euskal giza taldeak hezkuntzarekiko dituen kezka eta usteen ez bai neurri eta giroa. Bere esparrua gizarte orokorra da, bertan, maila ezberdinetara “hezkuntza” munduaren gai ingurunea islatzen da. Adibidez, ez dute lehentasun berdina zenbait gaik gizarte ezberdinetan zehar, hots: Suedia, Italia, Irlanda, Austria, ... egia da hezkuntzaren eremu sakon honetan, badirela aurre egin beharreko gai komunak, noski

- . Publiko-pribatu hezkuntza ereduak.
- . Ekonomia eta hezkuntzaren arteko zerikusiak.
- . Hezkuntza sarearen egituraketa eta arazo orokorrak.
- . Hezkuntza legeen eraginkortasuna.
- . Hizkuntza politikaren ikuspegia.
- . Hezkuntza porrota eta arrakasta.
- . Hezkuntza eta gizartearen lokarritasuna.
- . Ikastetxeen tokia eta eginkizunak gizarte berrikuntzan barna e.a.

baina bakoitzaren taxutzea, garrantzia, abiadura, e.a., gizarte izate ugarien adinako berezia da; adibidez, ez da berdina Holanda eta Espainia estatuek ikastetxe publiko-pribatu aurrean duten ikuspegia<sup>107</sup>,

---

<sup>107</sup> FULLAT, O. (1983). Op.cit., 84-86 orr.

edo (EEA) Euskal Elkarte Autonomoko Hezkuntza arduradun nagusiak eta (EHIE) Euskal Herriko Ikastolen Elkarteak diotena “ikastola” eta “sare pribatu-publiko” auzia dela eta, (...) <sup>108</sup>

## 6.2. Euskal eskola-erakuntza hololinguistikoaren ikur gunea

Goiko atalean garatu duguna jabetu eta onartuz gero, oso erraz uler dezakegu zer den “Euskal EEH-ren ikur gunea”.

Euskal EEH, bi ibilbidek osatzen dutela diogu:

1. Lehena edo “erabileratik-motibazioerantz” sorturiko ikastetxe multzoena edo (AB), eta

2. Bigarren edo “motibapenetik-erabilera” antolaturikoak edo (BA).

Ibilbide bakoitzak, EEH ezosoa ordezkatzen du. Baina, baten ibilbidearen hasiera bestearena batzen bazaio, EEH osoa bilakatuko zaigu.

EEH-ren ikuspegia lantzea, hezkuntza eta hizkuntzaren izatea elkartasunean garatzea da. J.A. Fishmanek <sup>109</sup> dio hizkuntza, komunikazio tresna bat baino zerbait gehiago dela, gauzak abiaduran biziarazten jartzeko eta ezin hobeto adierazten duen etnokultura integrazeko era bat dela. Hizkuntzaren izate hori, ikastetxearen eremutik garatzeak hiru arloen zerikusiak garatzea esan nahiko du: moral, eza-gutza, gizarteratzea, edo halako zentzu batean eskola, eragile sozial, moral eta kognitibo zabalena izateaz gain, azken erremedio moduko eragile sozial, moral eta kognitibo ere bihurtu da.

Eskola-erakuntzak EE, bere kanpoan baldintzen giza sistema garatzeko, erakuntza ingurunearekin hartu-eman osoak eduki beharrean dago, bere egitasmoa eraginkorra izatekotan. Fishmanek dio gizarteak ikastetxeari bi motako indargarriak eskaini behar dizkiola:

1. “Hunkikorrak”, hau da, maitasuna, onespina eta onarpena adierazten dutenak, gehi

2. “langai-ekitezkoak” edo eraginkorrak, gizarteak eskaintzen di-tuen sari, merezimendu berezi, lan postu e.a.-en bidez.

---

<sup>108</sup> EGIN egunkaria 93/5/27: a) IKASTOLEN ELKARTEAK-EHIE: “Ez dute lortu ikastolak desegitea”. 1 eta 25 orr. b) BUESA, F. Eusko Jaurlaritzza/Gobierno Vasco lehendakariordea eta Hezkuntza Sailburua (1993). EGIN egunkaria: “Las ikastolas tomaron su decisión: no volveremos a hablar de ellas”, 26 or.

<sup>109</sup> Op.cit., FISHMAN, J.A. (1990). 183-184 orr.

EEH osoa bilakatu ahal izateko, EE barne eta inguruneko azpisistema eta aldagaiak elkar onartu eta garatu behar dira eta, ondorioz, "Hezkuntzaren IKUR GUNEA" hezurramitzen dute. Horrek EEH hezkuntza elkartearen bihotza ordezkatzeko du eta bere sendotasunaren menpe daude hezkuntza, hizkuntza eta kondaira une zehatzaren bizitasun orokorra.

EEH berantiar edo (B) ibilbidetik hasi eta iraulketa fasea garatu dutenek, (BA) ibilbide oso bat lortuz, zein EEH goiztiar edo (A) ibilbidekoak, (AB) norabidea osoa garatu dutenen artean, "euskal EEH-en ikur gunea" osatzen dute.

Ikastola, euskal lurraldean zehar, eremu euskalduna izan ala ez izan, guztietan hedaturik dagoen hezkuntza ikastetxea dugu. Bertara hurbildu diren ikasleak bi errealitate osatzen duten erakuntza inguruneko aldagai berezitik datoz:

1. etxetik, inguru hurbiletik, ... euskaraz betetzen dituzten funtzioen arabera, euskaraz dakiten haurrak, non herrietako edo hirietakoak izan, (AB) ibilbidea osatzeko prest daudenak eta,

2. etxetik ..., motibazioak eragin da, (BA) ibilbidea osa nahirik hurbiltzen diren ikasle multzoa edo sendiak genituzke, alegia.

Bi ibilbide horiek ez dira ez aurkakoak, baizik eta osagarriak<sup>110</sup> eta ezaugarri hori honela azaltzen da:


1. "Arauetako hartu-emanen", (erlazio proportzionala) EEH-ren oreka dugu, ordez EE baten izatearen baldintzak, hezkuntza EE eremu orokorrean, egoera orekatua agertzen du hezkuntza elkarte zabalagandik, non alde batetik, bat-bateko motibapena (irakaskuntza euskaraz egitea guztiz arrunta da) eta motibapen errazionala (horrela prestatzea ezinbestekoa da) jasotzen dituenen, eta bestetik, oharpen natural edo berezkoa (bere eginkizunaren prozesuaz ohartzeko ahaltsuna), burutapenezko oharpenarekin batera; eta eginkizun edo berezko erabilerarekin batera eginkizun edo erabilera kulturalak. EEH hausnartzeko era honek, "nahikotasun maila" lortu eta era zehatz batean kateatzea lortu nahi dute.

2. Beste hartu-emanaren ezaugarria, "dinamikotasuna" da, hau da, EEH ibilbide bakoitzaren helmuga beste EEH ibilbidearen abiapuntua da:

---

<sup>110</sup> Тхепетх (1987а). Оp.cit.,169-178 оrr.


49. IRUDIA: *Eskola-erakuntza hololinguistikoaren abiapuntua eta helmuga*



M. Jaione Apalategi (1994)

Diogun hau honelaxe geratuko litzaiguke, grafikoki adierazita.


50. IRUDIA: *Euskal EEH-aren iker gunea*



M. Jaione Apalategi (1994)

Aldiz, euskal eskolaren lehen urratsak<sup>111</sup> ematen hasten direnean, euskal hezkuntza erakundetu eta formalaren irudia beste honako hau zen:

51. IRUDIA: *Euskal hezkuntzaren zuzeneko irudia*



M. Jaione Apalategi (1994)

<sup>111</sup> *TANTAK* hezkuntza aldizkaria, (1990). Op.cit., 4 zk.

Ez zegoen, euskal hezkuntza bideratzeko inongo EE motarik. Osagarritasunaren ordeaz, aurkakoa zihardun eta hau areagotzen doan neurrian, barrengo egoerak  $\emptyset$ , A/ $\emptyset$  .. hazten joaten dira. Kanpokoak, berriz, geroz eta txikiagoak bihurtzen dira. Zorionez, ez da egungo euskal EE-ren egoera.

Baina EEH osoaren “ikur gunea” berezko eta burutapenezko oharpenaren egonkortasunean datza. Zer ulertu behar da “oharpenaz”? Lehenik eta behin, hasiera batean banakoari dagokion zerbait, norberak dituen burutazio eta errealitateko esperientzia bat egiterakoan sortzen da. Gero berriz taldearen bidez erabiltzean, indarra sortzen du, eta giza ekintza bihurtzen da.<sup>112</sup> Urrats hau garatzen ez bada, zerbaiten eragozpena dagoela adierazi nahi du hots:

a) adimenari dagokiona, beraz norberaren esperientzi eta azalpenaren arteko lotura eza, edo

b) sentiberatasun arlotik datorrena. Besteengan edo norberarengan sinismen eza adierazten duelarik.

## 7. Eskola-erakuntza hololinguistikoaren ondorioak

Euskal Eskola-erakuntzaren esperientzi adierazpen autokonszientearen teoria naturaliki eta burutapenez oartzeko ahalmenean gauzatu da eta horrek zenbait ondorio sortzen ditu, hizkuntzari dagozkion ildo beretik datozkigarik<sup>113</sup>:

### 7.1. Lau eskola-erakuntza eredu

1. Hizkuntza ikasteko lau era badaude, EEH oso bat lortzeko ere lau modu edo bide egongo dira:

(A) ibilbideko EE: erabileratik – motibaziorantz

(B) ibilbideko EE: motibaziotik – erabilerarantz

Ibilbide bakoitzak ezosoa den bidea suposatzen du, berezko edo kulturazko antolamenduetan oinarritzen diren EEH genituzke.

<sup>112</sup> Txepetx (1990h). Op.cit., “Txepetxekin elkar hizketa: gaurko egoeraren giltzak, kontzientzia pertsonala eta ekintza soziala”. Iñaki Uribe. BAT Soziolinguistika aldizkaria. 2. alea, 69-96 orr.

<sup>113</sup> Txepetx (1989b). Op.cit., 682-685 orr.

Bien arteko batuketak ibilbide osoa suposatzen du; euskal EEH-aren ereduak hizkuntzari (AB) edo eta (BA) ibilbide osoa eskaintzetik sortuko dira.

### ***7.2. Eskola-erakuntza hololinguistiko osoaren banako izatearen garapena***

EEH osoa bi ibilbide jorraztetik eraiki daiteke (A) ibilbidetik hasi, lehen ordeko ikastetxe bezala eta bere bitartez ikastetxe batek dituen adierazpide eta bideratu behar guztiak kulturalki erabiltzea lortu duenean, horiei “bertako kulturak edo kulturizatu” diren ikastetxeak deituko zaie. (AB) ibilbidea osatuz.

(B) ibilbidetik sortu eta bigarren ordeko ditugun beste ikastetxe multzoek, motibazio kultural batek eraginda, pixkaka EEH euskalduna izatea eta barneratzea lortzen dute. Ikastetxe hauek “heldu bertakoratuak” deitzen ahal zaie. (BA) ibilbide osoa garatzen dutelarik.

Euskal EEH-ren “ikur gunea” bi motako ibilbidea jorratu duten ikastetxeek osatzen dute, eta gure gizartearen EEH euskaldunen eta hezkuntza formalaren bihotza ordezkatu behar dute.

Beraz, euskal EEH-ren bi ibilbide oso horiek ez dira ez bakarrik alderantzizko ibilbideak osagarriak baizik:

- hezkuntza oreka proportzionalaren ikuspegitik eta
- erakuntza ibilbide baten helmuga bestearen abiapuntua delako.

### ***7.3. Eskola-erakuntzaren “natura” eta kulturazko oharpenak***

EEH oso baten baldintza, hizkuntza horretan jasotzen den hezkuntza oharpen naturala eta kulturala ahalbidetzean egiaztatzen da. Adiera dugun eredu teorikoak funtsezko zenbait arlo ulertarazten digu:

3.1 EEH (B) ibilbidetako ikastetxeak, oharpen barneratura iristeko eta, bide batez, giza sistema inguru natural edo bertakoari jarraitzeko, ikastetxea berreraikitze beharra sentitzen dutenean, euren esparrua den hezkuntzari erabilera eraginkorra gehitzea suposatzen du.

Gehitze honek, “hezkuntza-hizkuntza-erakuntza” arteko zerikusien barneraketa sortuko du eta, halako une batean, euskal hezkuntza bat-batekotasunez pentsatzeko eta giza aurrerapenaren norabidean garatzeko ahalbidetuko du.

3.2 Aldiz, antolamendu natural baten oinarrian altxatzen den EEH-ren oharpen kulturala lortzeko, motibapen, edo arrazoi, nahi eta



asmoen, multzoak gehitu beharko dira, bat-bateko motibapenetik EEH-ren kontzientzia sortuz. Hezkuntza gure hizkuntzaren bidez, EE sendoa garatu beharraren kontzientzia, alegia. Hori emateko ordea, EEH hauek duten balio kulturala uztartu behar zaie, argi ikusi dadin euren lan prestaketak eta antolamendu garapen bereziak ezinbesteko bide berezia jarraitu beharko dutela, baldin eta gizartearen aldaketa edo hobe esan da, berregituraketa bat etortzen ez den bitartean.

3.3 Teoria berri honen “berrikuntza” oharpenean datza, eta Txepetxek hizkuntzaren eremuari eta euskararen berreskurapenari atxiki dizkion argudioak, gure alorrera extrapolatuz hauxe esan dezakegu: oharpena, EEH-ren funtzionamendu eta eraginkortasunaren prozesuaz jabetu eta ahalbidetzean datza. Eta oharpen oso batera iristea, bi eusgarrietan oinarritzen da:

a) EEH oso batek ahalbidetzen duen hezkuntza, gizartearen “hezkuntza toki” orotarretan eskuartzea eta gainera, egoki erabilaraztea suposatzen du, adibidez:

\* Erakunde “ofizial” ezberdinetan: bertako zein kanpoko ala atzerrikoetan izan.

\* EEH-ren ordezkari bezala egin eta egon beharreko toki guztietan.

\* Hezkuntza elkarte hurbil eta urrunetan hitz egitea.

\* Gizarte mailako “mass-media” guztietan.

\* e.a.

b) Erakuntzagarritasunaren kontzientzi sakon eta iraunkorrek eskatzen dituen teknikari eta espezialista ugarien beharra garatuz, ikastetxearen giza eta bitarteko baliabide egokiak garatu ahal dira.

## 8. Eskola-erakuntza hololinguistikoaren eraginak

Gure hezkuntzaren arduradun nagusi (administrazio, hezkuntza erakunde eta elkarte, jakitun eta ikerlari), erabakitzaile, kudeatzaile, azterkari, ... e.a. bezalakoetatik, eta oraingoaz, bideratu edo eskaini dituzten irtenbideak zein hautabideak (orokorrean hots, hizkuntza eredu eta ikastetxe edo erakuntza eredu publiko-pribatua egokitzearenak; ... ez datoz bat XXI. mendea sartu behar den euskal gizarte kondairaren lehena, oraina eta askoz gutxiago, geroarekin, ... eta ez datoz bat, batik bat, “bera izaten utzi diezaioteneko baldintzan-zilegizko baldintza-beste batzuk besarkatu nahi dituen herri baketsu

batentzat”<sup>114</sup>; eta ez datoz bat F. Krutwigek<sup>115</sup>, gogoramen ziber-netikoaz ari denean, Woelfelen teoriaren azterketa ondotik esan daitekeenean “karyanista” eta “indoeuropeisten” aurka, EUROPEAR KULTURA ENPIRIKOAREN SORTZAILEAK herri megalitikoak direla”, eta Woelfen ustetan hauek “guantxe eta euskaldunekin ahaideturik daude, etniko ikuspegi batetik egun, euskaldunak bakarrik izanik, ziber-netika TEORI ENPIRIKOZ<sup>116</sup> ulertzen denaz oinarrituriko, kultura guztiaren herri sortzaile haien oinordeak”; eta ez datoz bat J. Oteizaren ardura nagusia izan denarekin<sup>117</sup>; eta ez datoz bat euskaltasuna, handik eta hemendik ikertzen zein egokiarazten saiatu diren gizon-emakume zerrenda luze batek<sup>118</sup> eskaini dituzten gogoeta, kemen, ahalegin, trebetasun, aurrerapen, garapen, lan, ekimen, min eta dolu, bilakaera eta etorkizun itxaropentsu baten alde aritu eta ari diren guztiakin.

Eskola-erakuntza Hololinguistikoaren-EEH, Esperientzi Adierazpen Autokonszienteak-EAA, Eskola-erakuntza-EE zientziaren izate orokorrean, eta euskal EE-rengan zehazki sortzen dituen ondorioak, bat-bateko eragina dute zenbait mailatan:

## 8.1. *Ikastetxea*

### 8.1.1. Eskola-erakuntza kanpo baldintzak aztertzeko eskola-erakuntza hololinguistiko ikuspegia

Teoria honen bidez, Euskal Herrian zehar diharditugun ikastetxe mota guztian, sailkapen zehatza egitea lortuko dugu, ... orain arte erabilitakoak hezkuntza botere zein hezkuntza elkarte ala jakitun, ... eta Euskal Herriko Ikastolen Elkartetik-EHIE bertatik ez dutelako balio EEH-ren errealitatea, oso-osoan berrantolatu eta bideratzeko. Horietako askok, gainera hezkuntzaren izate eta garapenari dagozkion

---

<sup>114</sup> REDONDO, R. (1994). “El espacio vacío”. *DEIA* egunkaria. 94/8/23, 10 or.

<sup>115</sup> Ikus I. zatia, 2.1.1 azpiatalak.

<sup>116</sup> Ikus ibidem (1978). “El cientifismo”. 101-114 orr.

<sup>117</sup> Ikus I. zatia, 2.2 azpiatala.

<sup>118</sup> *ENCICLOPEDIA GENERAL ILUSTRADA DEL PAIS VASCO*. Donostia: Añamendi; AGIRREAZKUENAGA, J. (Zuz.). (1994). Op.cit., *EL MUNDO* egunkarian.

hausnarketa, gogoeta eta ikerketa unibertsaletik, euskaltasunari, EE-ren bidez, aurre egiteko ditugun tresna eta lanabes bezala erabili ordez, irtenbide interesatu, egoera areagotzaile bati eutsi nahian, edo apustu ideologiko hutsak dirudite, ondorioz:

1. ez dugu uste erabiltzeko balio dutenik;
2. interesatuek, eurek ere, gehienetan ez dakite diotenaren eragin eta esanahi zehatzak;
3. gaizki, erdizka edo eta kontzientziarik gabe erabiltzen dira;
4. sekula ez da ondorio eta eraginez hitz egiten;
5. giza arazoak izanik, soziolinguistikaren elkarrekintzazko ikuspegia<sup>119</sup> ez da kontutan ere hartzen;
6. giza lurraldetasunak dituen printzipio, lege eta sinismenak ez dira aintzakoz jabetu eta bideratzen edo botere mota zehatz baten esku soilik egoten dira.

Euskal Herriko eremu guztietako hezkuntzaren ikastetxeratze eredu oro harren beharrak ulertu, ikertu, teorizatu, eztabaidatu eta frogatu; geroari (hurbil eta urrun) ukitu eta irtenbide borobila topatzeko, EEH-ren ikuspegiak jabetu, ezagutu eta menperatzea ezinbesteko baldintza da. Soziolinguistikari esker hizkuntza, honen inguru ugariak eta gizarte elkarrekintzazko ikuspegitik aztertzerakoan, hizkuntza horren ikasketa funtzional eta garapenezko batek, duintasunez eta garaian garaiko egoerak konpontzeko balio eta bizi irauteko, jarraitu beharko duen iparraren norabideak eskaintzen dituen zientzia dugu. EE zientziak, ikastetxegintzaren natura eta egoeraz kezkatzen da, hauek berriz gizarte eta inguru zehatz baten bizi diren errealitatearen isla dira, edo edozein egiaztapenen gainetik, errealitate horrek hitz egiten du. Hara hemen, EEH-ren zuhaitz genealogikoa. Eta Hololinguistikaren elkarrekintza ikuspegia babesten dugun bezalaxe, EE-ren elkarrekintzazko erakuntza joeraren aldekoak gara.

Ikastetxe bateko erakuntza ongi bideratuz gain diogun EE teoria eta Hololinguistika elkartzetik gure herrian zehar ditugun, ikastetxe eta hezkuntza errealitate ezberdinak, elkar begira ez eta bizkarra eman ez ... bakoitza bere abiaduran norabidetu dezakeen EEH teoriak ari gara. Edozein berrantolaketa egiteko EEH-ren izatea eta tresnak eza-

---

<sup>119</sup> COOK-GUMPERZ, J. (1988). *La construcción social de la alfabetización*. Madrid, Paidós/M.E.C. "La sociolingüística interaccional en el estudio de la escolarización" 61-83 orr.

gutu beharko ditugu, bere ezinbesteko aurreikuspena, abiapuntutzat hartu eta onartzea suposatuko duelarik:

1.  $EE_1$  edo ikastetxe natura eta  $EE_2$  edo kulturaren ibilbidetik antolatutakoak sailkatu.

2. Bietako bat da bakarrik jatorrizkoa.

3. Euskal lurralde baten, aldiko, bi hizkuntzen arteko gatazka atzematen da.

Arlo hark elkarrekintzaraztean, alde batetik Txepetxek dioen<sup>120</sup> “hizkuntza mota” adina “ikastetxe mota” sortuko zaizkigu eta bestetik, honen osagarritasunezko irtenbidea bi ikuspegi aztertu eta hauen on-dorioak bideratzetik etorriko zaigu; honetarako ere, Txepetxen<sup>121</sup> hizkuntza terminologia ikastetxe erakuntza zentzutik molda dezakegularik:

a) ikuspegi kuantitatiboa, datorren EEH azpibanaketa eraginez:

“AurreEEHak”: EE-ren aldagai berezia den horretan oraindik EEH-arekiko  $\emptyset$  egoeran aurkitzen direnak lirerateke, bere joera norantz joango den ez dakigularik.

“EEH Elebakarrak”: EE mota hauek hizkuntza-hezkuntza batean soilik egiten dute euren ibilbidea.

“EEH Erdiebidunak”: bi ibilbide dituzte EE barna baina bakoitza hizkuntza-hezkuntza ezberdinean, beraz batetan berarik ere osatu gabe daudelarik.

“EEH Elebidunak”: hizkuntza-hezkuntza batean ibilbide oso bat duten bitartean bestean natura edo kulturazko ibilbidea dute.

“EEH Hizkuntzbidunak”: EEH osoa dute eurengan, bi ibilbideetan garapen osoa, alegia.

b) Ikuspegi kualitatiboa, horren bitartez ikastetxe motak, bere hizkuntza egoera eta lurraldeko hizkuntzaren behararen artean dituzten hartu-emanak adierazteko balioko digu,  $HI_1$  lurraldeko hizkuntza berzkoa eta  $HI_2$  arotza edo kanpotik etorritakoaren egoerak adieraziz, hain zuzen ere:

Ikastetxe “kitagarriak”: bertako hizkuntza ez erabili arren edo ezosorik erabiliz, erabat oso ibiltzeko baldintzan daudenak ditugu.

Ikastetxe “desegokituak”:  $EE_2$  finkaturik duten ikastetxeak dira, beraz bertako kultura ibilbidea etenda dute, edo ibilbide osoa urratzen dute  $HI_2$  an eta ezosoa berriz  $HI_1$  ean.

---

<sup>120</sup> (1989b). Op.cit., 685-687 orr.

<sup>121</sup> Ibid., 687-688 orr.

Ikastetxe “bikoiztuak”:  $EE_1$  eta  $EE_2$  dute eurengan beraz  $EEH$  osoa bermatzen dute.

### 8.1.2. Eskola-erakuntza barne baldintzak bideratzeko $EEH$ -ren kudeaketa eta azterkaritza

Erakuntza adigaia bera, kondairan zehar oso nahaspildurik agertzen dela genion<sup>122</sup>. Erakuntza teoriak, entpresa teorien garapenetik hartu eta ikastetxe eremura eramateak, ohizko bi kategorizazio arteko, hots: etekin eta hierarkia funtzional erakuntza joeren bilakaeratik sortu den “elkarekintzazko erakuntza” ereduaren aldekoak gara. Eredu hau, ikastetxe erakuntza batean erabiltzeak hiru atal elkarrek-inaraztea suposatzen du:

1. ikastetxeko hezkuntza elkartea, erakuntza barne sareraztea;
2. elkarrekintzazko funtzionamendua gatztea, eta
3. teknologiaren ekarpena, bertako erakuntza kulturak dioen ildotik norabidetzea.

Hiru atal horren sinkronizaziozko kudeaketaz arduratzeak,  $EE$  mailan, oso garrantzitsua den garapenezko leia eta dinamikotasunean, abantailaz jokatzeko suposatzen du. Baina egia da, elkarrekintzazko erakuntza eredu sinistuta eta eratu den ikastetxea, erakuntza mota honek sortzen dituen konplexutasuna bideratzeak sekulako “arte lana” bihurtzen den kudeaketa eskatzen duela. Lehenik eta behin, ordea, errealitate konplexu baina sistema oso bat bezala funtzionatzen duen ikastetxe baten ulerkuntza antolatu eta kudeaketarako gutxiengo printzipioak eratzeko, zientzia baten laguntza beharrezkoa da. Gure ustez Boulding eta Bertalanffyren Sistemen Teoria Orokorrak horrelakoetarako balio duen zientzia dugu. Hemendik, Eskola-erakuntza Sistemikoaren alde agertzen gara, ez zientzi itxi edo bukatutako zerbait bezala, baizik eta ikastetxe bateko errealitatea, osorik hartu eta diogun hiru atalen bidez elkarrekintzarako norabidea garatzen lagunduz, ondorio berri edo ikastetxeari egokituagoak bilatzeko prozedurak eskaintzen dituelako.

Kudeaketa mota eta eredu horiek aurrera eraman ahal izateko, ordezkazekin diren artezkariak eskatzen dituzte eta, beraz, orain arte edo ugarietara ez den prestaketa berezia, non, Erakuntza Teoria men-


<sup>122</sup> Ikus:II. zatia, 1.1 azpiatala.

BORDA ELEJABARRIETA, J. (1991). “¿Va hacia algún lado la ciencia de las organizaciones?”. *NAVARRA HOY* egunkaria, 91/11/21, 3 or.

peratzea ezinbesteko baldintza bihurtzen den, ongi bereiztu behar diren zientzia, teknologia eta bat-bateko teknika erabilerak egokitu eta tokian tokiko beharren eragingarri izateko.

Euskal Ikastetxeak, besteak ez bezala, isurri berri horrek ematen duen prestaketa eta ziurtasuna bereganatzen saiatu behar da, “Non”, “Nola” eta “Nortzuk” bideratu ahal erantzuteak beste une baterako saioa delarik<sup>123</sup>. Baino aurrez, hauxe da grafikoki gogoratu behar dena:

52. IRUDIA: *Ikastetxearen kudeaketa eta artezkaritzaren isurri berria*



M. Jaione Apalategi (1994)

<sup>123</sup> Gure ustez Zientzia-Teknologia-Gizarte ZTG egitarau eta mugimenduari heldu behar litzaioke.

## 8.2. Hizkuntza

Hizkuntza eta EEH-ren EAA-k hezkuntza mailan sortzen duten eragina antzekoa da.<sup>124</sup> Kondaira une zehatz batetan, EE bat hizkuntzarekiko lau egoera ezberdinetan egon daiteke:

A: garaiko kondairaren eskakizunekiko igorpen “naturala” besterik bideratzen duten ikastetxeak dira;

B: goera berdinean, igorpen “kultura” bakarrik bultzatzen dute;

AB: egoera hortan EEH honek, hizkuntza naturalki zein kulturalki igortzen dutenak dira.

Ø: egoera hortan dauden EEH, jatorrizko hizkuntza batekiko izate eza adierazten dute; ez natural ez kulturalki igortzen ez baitute natural zein kulturalki igortzen hizkuntza, ordez kanpotik ekarritakoa den beste hizkuntza bat erabiliz.

Euskal EEH berri bat bideratzeko ezin dugu onartu gaurko “egoera” naturazko garapen bati dagokiona dela. Are gehiago jakin eta gero, hizkuntzak ez direla Ø, A, B edo AB baizik eta egoera Ø, A, B edo AB batean daudela. Hizkuntzen, eta giza talde naturazko batek horri loturik aldarrikatzen duen hezkuntza egoeraren izatea.

Hizkuntzen izate eta natura, hauek bizi duten egoerarekiko independenteak dira<sup>125</sup>. Euskal EEH-ren izate eta natura guztiz burujabea da, egun bizi duen egoera aldatu nahi izateko. Egoera baten inguru-neak ez du naturako EEH batez ezer frogatzen bai orde, egoera horrekiko bizi duten jatorriaz.

Hizkuntza guztiak beraz EEH guztiak, naturaz, AB ibilbidea osatzeko ahalmena dute. Eta haxe da, Euskal Herriarekiko egokitu behar harko dena: bere hizkuntzaren bitartez gaurko hezkuntza formal batek dituen zeregin guztiak garatu ahal izatea, honetarako, EEH-ren teoriak eskainiko dizkigun irtenbide osagarriak ulertu, jabetu, onartu, menperatu eta bideratuz.

## 8.3. Gizartea

Ikastetxea, giza sistemaren hezkuntza formalaren isla bezala, EE sistemikoaren credua harturik aztertu dugu. EEH-ren eragina EE-ren

<sup>124</sup> Txepetx. (1989a). Op.cit., 687 or.; Ikus III. zatia, 5. atala.

<sup>125</sup> Ibid.

ingurunean gizartearen maila ezberdinetara diharduten zenbait arloren jarrera aldaketa eta isurtze berriaren jabeakuntza sakona egitea eskatuko du: hezkuntza-boterearen mailetan, hezkuntza elkarte ezberdinetan eta ikerlariengan. Aldi berean, arlo hauek EE inguruneko hiru alda-gaiekin lan egiten dute: burokratikoak, gizapolitikoak eta berezia, hain zuzen ere.

53. IRUDIA: EE eta EEHaren eragileak eta eragin motak

		EE ALDAGAIK		
		BUROKRATIKO	GIZAPOLITIKO	BEREZIA
EEH A R L O A K	HEZKUNTZ BOTEREA	*	X	X
	HEZKUNTZ ELKARTEA	X	X	*
	HEZKUNTZ IKERLARI	X	*	X

M. Jaione Apalategi (1994)

Ukaezina da, EEH ustezko batek ere, ezingo duela bere kabuz, euskal hezkuntza eta bide batez, bere hizkuntzari zor zaion eskubide eta eginbeharren normalizazio osoa eskainiko, baldin eta ikastetxeen EEren ingurunea egokitzen ez bada.

EEH-ren EAA-ren eragina gizarte mailan hiru arlo elkar egokitzea suposatzen du:

### 8.3.1. Hezkuntza botere

Hezkuntza botereaz hitz egiterakoan, aurrez zenbait bereizketa kontutan izatea komeni da.

Hezkuntza boterea, EE inguruneko aldagai burokratikoaren eusgarri nagusi bezala uler dezakegu, eta hona hemen bere ardurak:



hezkuntza eta hizkuntza politika, hezkuntza legeria eta hezkuntza sistema beraren egituraketa. Hartu-eman zuzena du gizarte politikarekin zein berezi aldagaiekin lehenengoarekin, bere eragin maila eta bigarrenarekin, ondorioak frogatzen dituelarik.

Hezkuntza botere barnean, nagusitasun, behaketa eta banaketaren lehentasun arabera azpimaila batzuk bereiztu beharko dira:

- a) Hezkuntza erakunde gorenak zehatz-mehatz:
  - Nafar Jaurlearitzako Hezkuntza Saila.
  - Eusko Jaurlearitzako Hezkuntza Saila.
  - Frantzia Estatuko Hezkuntza Nazionaleko Arduradunak.
  - Euskal Herriko Ikastolen Elkarte – EHIE.

Bistan da, Euskal Elkarte Autonomo – EEAko ikastola zein Hezkuntza Saila, eta Iparraldeko ikastolen elkarte eta Frantzia Estatuko hezkuntza nazionaleko ministroaren artean nola Nafarroako Gobernuaren jarrera Euskararen legea dela eta..., euskararen irakaskuntza eta ikastolagintzaren eremuan nolabaiteko igurtzi, aldaketa nahiak eta beharrak elkartu direla, ... baina hala eta guztiz, ez dira EEH batek eskatuko luken ikuspegi osagarri kontutuan hartuta egin, ez da gutxiagorik ere!. Ikastolak, oraingoz, eta ezagutzen ditugun eran<sup>126</sup>, gorpuzturik jarraitu beharko dute diharditugun hezkuntza egoerei aurre eginez. Eurek euskal hezkuntza eta ikastetxegintzaren ikuspegi osagarriaren<sup>127</sup> ardatz baitira.

b) Tokian tokiko hezkuntza erakunde bitartekoak. Hauek, hezkuntzaren alde ez formal eta formarik gabekoak osatzen dute:

- Udaletxe
- Kultura elkarte, erakunde eta erakundeak bere giza eta tresneri guztiekin, hots: prentsa, irrati, telebista, ... e.a.
- Herri/hiri egitura atal guztiak: eliza; osasuna; alderdi politiko; kirolgintza sailak; nekazal industri, zerbitzu eta merkatal, enpresagintza eta teknologia, komunikabide oro harren azpiegitura, lurralde antolaketa eta banaketa, irabazpide ... e.a. arloekiko antolatzen diren giza elkarte ezberdinak eta orok; jai eta ospakizun inguruko arduradunak, (...).

---

<sup>126</sup> Ikus "nahikotasun maila" III. zatia, 5.3.3 azpiatalean.

<sup>127</sup> Ikus III. zatia, 6.1 azpiatala; APALATEGI, J. (1992). Op.cit., Nafarroako Ikastolen Elkartearen Zentzua Gaur – NIE. Iruñea, 1-5 orr.

Egun hezkuntza formala, kalitatezko hezkuntza eta eragingarriak izango diren gizakiak prestatzeko, hezkuntza atal honek duen pisua nabarmenez gain, gaurko giza zein banako errealitate sutsu eta bizkor bezain aldakorren isla dugu.

### 8.3.2. Hezkuntza elkarte

EE inguruneko aldagai berezitik sortu eta hantxe kokatzen da. Bera da hezkuntza boterearen laborategi eta hartzaile zuzena bere ongitasun, onespén, gaitzespen, kezka zein amorruak, ... aldagai gizapolitikoarengandik bideratzen dituelarik.

Hezkuntza elkartearen EEH-ren EAA honako atal guzti hauen elkarrekintza bideratzea litzateke: guraso, ikasle, irakasle, teknikari, artezkaritza, eta zerbitzu guztietako langileak. Arlo honekiko esperientzia, hololinguistikatik, EEH-tik zehazki baino aplikaturik Txepetx, Siadeco eta beste, ni neu bertako partaide naizelarik, Iruñeko bi ikastoletan aurrera eramana izan da, geroa gaur<sup>128</sup> egitasmoaz ezagutaraztea emango dena, hain zuzen ere.

Euskal hizkuntza, EE-ren bidez garapen osoz ziurtatzeko, gure lan honen<sup>129</sup> 50. grafikoan agertu dugun bezala antolatu eta bildu behar-ko dira ikastetxe eredu ezberdinak. AB eta BA ikastetxeek hezur-muina osatzen dute edo EEH-ren “ikur gunea”, gainera garbi utzi dugun bezala, ez dira elkar gainezartzen, ... ikastetxe mota horiek, gizarte mailan, hezkuntza elkartearen bihotzean hedatzen ez badira, euskal hizkuntza-hezkuntza bera, eten daitezke. Baina hezkuntza elkarteengan, holakorik gerta dadin, beste bi arloen esku-hartzea ezinbestekoa da, hots: hezkuntza botere eta hezkuntza ikerlariena hain zuzen ere.

### 8.3.3. Hezkuntza ikerlari

Ikerlariak gizapolitiko aldagaien sortu eta garatzen diren taldea dugu.

Giza sistema baten kultura eta teknologikoki norabidetu eta zuzentzearen ardura du bere gain hezkuntza botereak, baina onspén hau, gizarte demokratikoetan behinik behin, gizarte osotik eta bereziki,

---

<sup>128</sup> Txepetx, SIADECO & ... (1993-94). Op.cit., “Geroa gaur: ...”

<sup>129</sup> Ikus III. zatian, 396 or.

gure auzirako, hezkuntza elkarrengandik datorkio. Eta hezkuntzaren izate eta hizkeraz hartu-eman hau bermatu zein egiazko eraginkortasunezko eguneratze bat eskaintzeko alde batetik, hezkuntza ikerlari sormentsu eta arduratsuen beharra ezinbesteko baldintza da, bestetik berriz, giza sistemaren barneko azpi-sistema ezberdinen elkarrekintza eta esku-artzea ziurtatzearena da. Asko dira kezka honen kontzientzia sortu nahian dabiltzan ekonomilariak hezkuntzatan T. Husen, S. Kemmis, K. Gilbraith, A. Mas-Colell ...<sup>130</sup>.

Egun, hezkuntzatik hasi eta giza sistemaren azkeneko azpi-sistema hartuta ere, euren eginbehar eta eraldaketa arteko elkar esku-hartzea eskatzen dute, baina horren ekintza etekin zen funtzionamendu hobe baterako balio izateko “giza ikerlari sendo”en beharra sumatzen da. Honen lana ulertzeak bi eremu bereiztea eramaten du:

a) ez da nahikoa, hezkuntza botere edo hezkuntza elkarrekin antolaturiko saio zehatz baino bakan eta jarraipen gabekoetara ikerlari batzuk gonbidatzea bakoitzak bere esku dauden arazoaren garapena eta ondorioez bakarrik arduratzekotan edo eta beretik hasi eta beregan bukatzen den egitasmo baten berri ematen.

b) eguneroko ohikeriak sortzen dituen traba, hutsune eta itsukerrietatik irteteko, hezkuntzaren errealitatea orokorrean eta EEH-rena zehazki ikertu, aztertu eta naturazko dinamikotasuna zein leia mantenduko duten pertsona talde baten beharra dugu. Hezkuntza ikerlariak, oro har, eta beste ikerlari mota eta eremuen partaidetasuna beharrezkoa da euskal hezkuntza eta EEH-gintza garapen bidetik eramatekotan.

Gaur egungo hezkuntza etorkizunaren ildoek elkarrekintzazko erabaki tokiak eskatzen dituzte, ezinezkoa da autonomoki edo diziplinartekotasunik gabe lan egin. Gaurko “biziaren” “munduan” “nagusitasun aurkako lana funtsezko zerbaitetan bihurtzen da.”<sup>131</sup>

Askotarako balioko digu Zientzia-Teknologia-Gizartea ZTG hezkuntzaren jomuga gureganatzeak, diogun ikerketa mota finkatu eta munduan zeharreko beste ZTG egitarauak ezagutzeko. ZTG hezkun-

---

<sup>130</sup> KEMMIS, S. & Mc TAGGART, R. (1988). *Cómo planificar la investigación acción*. Madrid, Leartes. 9-10 orr.; HUSEN, T. (1978); GILBRAITH, K. (1993); MAS-COLELL, A. (1992). Op.cit.

<sup>131</sup> APPLE, M.W. (1987). *Educación y poder*. Madrid, Paidós / M.E.C., 1. arg., 6 or.

tzaren ezaugarriak “zientzia eta teknologian alfabetatzea” eragitean datza.<sup>132</sup>

Hezkuntza eremuko ikerlarien lana, hezkuntza botere eta elkar-teei EEIT-aren, oro har eta euskal hezkuntzarenak bereziki, arazoan erabaki hartzeak eskatzen duen esku-harmen demokratiko eta elkarre-kintza bultzatu eta heztearena da.

Artezkaritzak EE sistemiko baten ardura eta elkarrekintzazko antolamendu bat eraikitzeke eta hezkuntza ikerlariek, gizabanako, oro har, esku-hartze prozesuan ahalbidetzeko behar duten azter harrobia, berbera ez baino berdina izan behar dela uste dugu, ZTG mugimen-  
du zabalarekin sareturik, hain zuzen ere. Egitarau horiek egungo arazo.”teknogizartezko” arazo larriak aurre egiteko prestatuak daude eta horretan ahalbidetzeko zientzialari, ingeniari, historiagile zein zientzi eta teknologiaren filosofo taldeak sortu dira.<sup>133</sup> Ez dugu uste ZTG egitarauen bidez euskal hezkuntza ikerlariak zein azterkariak prestatzeko bide “bakarra” denik, baina bai beharrezkoa.

Guzti horri loturik, zeharo sinisten dugu lurperaturik dagoen altxorra bilatu eta gureganatu beharrean gaudela, hots:

1. bizi ingurune osasuntsuak, eta
2. gogoeta gaitasuna.

Ingurune batzuk, gogoeta ugaltzari diren ustea oso etsigarria da baina, zerk elika dezake, gogoeta, sormen eta ardura multzoa? eta, zer ulertzen da ingurune baikorraz? Jakin ditzagun zenbait ikerketa ondorio-  
riok diotena<sup>134</sup>:

a) Asmo ezberdinak adierazteko, askatasun eta irrigarri beldur gabeko giroari eutsi,

b) arazoei buruzko gogoeta eta adierazpideak eskaintzen suposatzen duten ahaleginaz jabetu eta urratsez urrats jarraitzen saiatu,

- d) entzuten ari direnak:  
– interesa agertu;

---

<sup>132</sup> WALKS, L.J. (1990). “Educación en ciencia-tecnología y sociedad: orígenes, desarrollos, interacciones y desafíos actuales”. Op. cit., MEDINA, M.; SAN MARTIN, J., 42-75 orr.

<sup>133</sup> DURBIN, P.T. (1990). “STS y STPP: la educación de la próxima generación de profesores e investigadores” Op.cit., MEDINA, M. & SAN MARTIN, J., 85-92 orr.

<sup>134</sup> NICKERSON, R.S. & .... (1990). *Enseñar a pensar*. Madrid, Paidós/M.E.C., 378-39 orr.

- entzuten dutenaren aurrean erreakzio edo galdera-erantzuen bat sortu;
- onartu, bultzatu, osatu eta ugaltu, ahal den neurrian,
- argitasunak eskatu;
- gehitu badezake zerbait, eskaini.

Honelako giropean esku-hartzen badute EE aldagai eta EEH arloak jakineko ondorioak sortuko dira: elkarrekintza, tentsio eza, esperimentazio bide ugari eta irekiak bezain malguak, aurreusteak hausnartzeko beharrezkoa den Kontsensu edo ikuskatzeko giroa, erantzunen moldaketa eta etengabeko egokitzapena datu gehigarrien zein iturri ezberdinen arabera, hots, gizarte politika aldagaien eta ikerlari arloak hausnartzetik ezagutaraztea emanik.

Behingoz onartu eta ekin beharko dugu, arazoen irtenbideen balioa, ibilbide ezberdin edo irtenbide ezezagun zein sormentsuetan dagoela, ez eta aurrez “egoki” edo “zuzen” bezala aurkezten diren erantzunen onespen hutsean.

Bataz beste, hezkuntza botere eta elkarteari, galdera multzo eta kezka pizgarriak zein zirrargarriak sortzen lagundu behar du ikerlariak.

Erantzunak, berriz, hiru arloren artean bilatu edo eta erabaki hartze ezberdinen aurrean, arduradun zehatzen esku utziko dira. Horiek ez dute ahaztu behar nondik eta zertarako jaso duten ardura, besteen iritzi, uste, gomendio, ... e.a. kontutan hartu beharko dituztelarik, bere ahaleginaren bidez irtenbiderik aproposena bilatzen saiatu-rik. Baina ikerlariek prozesu honetan guztian zehar.

- galdera berri, ezezagun edo ohizkoak ez direnak sortzen eta eskaintzen arituko da;
- desafioak luzatuz;
- konpondu beharreko arazoak gogoratu eta aurrera egiteko bideak ikertu eta adierazi;
- bakoitzari dagokion mailan, behaketa eta oharpena garatzen erakutsi.

EEH-ren barnean, atal zein arlo guztietako partaideek eskubide osoak dituzte euren trebetasunak garatu eta ekintza zehatzen bitartez frogatzeko eskubide osoak dituzte, baina hau guztia arduratsu eta eraginkortasunez emateko “ikerlariak” ordezkaezinak dira.

Hezkuntza ikerlariak, EEH-ren kultura eta teknologiaren artean sortzen diren galdera, fenomeno eta teori ezberdinen ikerketarako

ikuspegi berriak ikuspegi berri edo eta osagarriak sortu eta ahaleginak egiten saiatu behar da.<sup>135</sup>

Ikerlari batek ez dezake hauxe egin: hezkuntza natura edo egoera zein hezkuntza egoera baten natura aurrean so egon, ... gehienik ere, behaketa eta oharpenean geraturik, (...). Ikerlaria, aurretik egin denaren zein orain eta etorkizunean egin behar denaren suspertzaile eta aurrezle sutsua izan behar da, eta euskal hezkuntza eta EEH-gintzan duen zeregina, besteak beste:

a) gure hezkuntza “egoera”tik isurtzen diren presio eta zilegita-sunaren arteko bidezko oreka bilatu,

b) gure hezkuntza “natura”ren hezkuntza “egoera” antolatzeko behar diren baldintza ikertu eta giza zein baliabide egokiak prestatzeko norabide eta ardurak banatu,

d) hezkuntza askatasuna eta agintearen muga edo eta elkarre-kintza berri baterako irtenbideak eskaini.

Askoren artean, hezkuntza eta<sup>136</sup>

arrazoiaren garapena (PETERS, R.S.)

sinismena (GRIFFITHS, A.P.)

objektibotasuna (HAMLIN, O.W.)

osasun mentala (WILSON, J.)

bezala gaiaren artean dagoen zerikusia aztertze-tik sortzen den eztabaidako zentzuaren gaitasuna bereganatu beharko dute ikerlari-ek.

Ikerlariak eskaintzen dituen irtenbideak, aurrez ikusi dugun go-goeta ondorio-tik sorturikoak dira, baina horren ezaugarria “zientziaren ildo-a” da. Ikertzen diren gai guztiek zientziaren izate eta hizkera bal-dintzak bete behar dituzte. Ikerlariaren lana, zientzialariarena izan behar da.<sup>137</sup> Gure ahaleginetan, ikerlaria, EE zientziaren ezagutza eta bidera ahalmena, gizartearen kultura eta teknologiaren elkar mendeta-sunaren “ikerketa zientifikoak” erabiliz garapena eta aplikazioen urra-tsetara nola igaro behar den erakutsi behar dute. Eta hori egin ahal iza-teko, hezkuntzaren barnean diharduen dikotomia gainditu beharko

---

<sup>135</sup> COLE, M. & SCRIBNER, S. (1977). *Cultura y pensamiento*. Mexico, Limusa, 7-8 orr. eta 8. atala.

<sup>136</sup> REARDEN, R.F. & ... (1982). *Educación y desarrollo de la razón. Formación del sentido crítico*. Madrid, Narcea, 92-100, 220-234, 234-245 eta 464-482 orr.

<sup>137</sup> FAURE, E. & .... (1991). *Aprender a ser*. Madrid, Alianza Universidad / UNESCO. 13. arg., 126-127 orr.

dute hots: doi eta naturazko zientziena alde batetik, eta giza-gizarte zientziena bestetik, funtsezko gizazale ikuspegiaren aurkakoa baita hau.

Azken baitan ikerlarien xedea zientzialari iraultzailea izatea da eta Bungek<sup>138</sup>, Kuhnek dioena harturik, “zientzi teoria baten hazkundera bere aplikazio zabalkuntzan datza, (...). Teoria baten iraultza teori gune bat beste batengandik ordezkatzean legoke, (...)”. Euskal Herrian EEH teori berri baten zain gaude, non Txepetxek dioen eran esan dezakegu eta hizkuntzarekiko dioena Txepetxek, gure eremura aplikatzerakoan esan ere, EEH-ren kontzientzi soziala, hezkuntza bostereak ordezkatzan duena alegia, eta EEH-ren kontzientzi pertsonala edo hezkuntza elkarreana uztartu beharko direla baldin eta gure “naturazko” hezkuntza eta EEH-gintza “egoera” bidezko eta legezko koherente eta orekatuago bat eraiki nahi badugu. Eta honen eragile zuzena, hezkuntza ikerlaria izango da.

## 9. Eskola-erakuntza erakundetuaren normalizazioa Euskal Herrian

### 9.1. *Printzipio orokorrak*

Dagoeneko adierazi dugu EEH oso baten garapena bi eratarata lor daitekeela:

1. Bertako EEak kulturazkoak bihurtzen.
2. EE kanpoko edo kulturazko ibilbidunak, naturazkoa garatuz.

Baino jakin badakigu, naturazko ibilbidean altxatu diren zenbait EE-k ez dutela sekula lortzen kulturazko ibilbidea urratzea, eta alderantzizkoak berriz, behin ere ez direla bertakoratzera iristen. Hori horrela gerta ez dadin, eta EEH osoa bermatzeaz, hezkuntza arduragabekidun esku-hartzea ezinbestekoa da, bai gizarteko teknikari eta arduradunak izan. Hau da guztiak jabetu eta menperatu beharreko gaia: nola hedatzen da hezkuntza bat, EE mailan zehazki eta hezkuntzan orokorrean, bere egoera arruntera edo EEH-ren arruntasuna nola lortzen da?

---


<sup>138</sup> BUNGE, M. (1985). Op.cit., 105 or. Guk itzulia. Ikus ere: “ideología y ciencia”, 136-152 orr. eta “Ideología científica”, 131-133 orr.

Bide hau ikertzeko, berriro ere Txepetxen ikerketak ditugu aipagarri. Gaur egun, horien izateaz jabetu gabe zaila da etorkizun itxaropentsu bezain sendoa eskaintzea euskal EEH-ren eremuari. Guk hemen labur eta xumeki aipatuta utziko ditugu zeintzuk diren euskal EEH-ren normalizaziorako behar diren printzipioak.

### 9.1.1. EEH-ren ikur gunea

EEH osoa eraikitzeko lau motako EE kontutan izan beharko ditugula ohar gaitzke: AB, BA, A eta B.

54. IRUDIA: *EEHren lau EE mota*



M. Jaione Apalategi (1994)



Euskal ikastetxeen oreka egokira iristeko, (AB/BA) EEH motak hazten joan beharko dira, aldiz ito beharrean arnasa betea hartzeko egoera lorturik.

EEH egituratzen duena, bere izatearen garapena trinkotzea da ez eta “deszentralizazio”, “giza nahikotasun maila gutxiegia” edo “abagune paregabea” ... bezalako argudiopean finkatzea. Justu Txepetek<sup>139</sup> dioen “estatu hedakunlariak bideratzen duen desartikulazioak dakarren erbestertzearen” aurkakoa da EEH-ren egituraketa. Eta mota hone-tako egoera batean bizi den euskal EEH-k, bertatik aldegitoko behar duen laguntza isurri eta joera berri batetik etorriko dira. Hau berriz dagoen egoeraren “haustura” burutzetik sortu daiteke.

### 9.1.2. Oklusio gunea

Egun, giza hezkuntza aginteak euskal ikastetxe eredu bakarra –ikastola– mantentzearen alde agertu badira ere, “talde”<sup>140</sup> bezala desagerrarazi nahi dituzte, euren ugaltasunaren beldur direlako, eurek osatzen duten taldetik kanpo, talde edo giza nortasuna topa dezaten bultzaturik; “oklusio gune” hori, Txepetek dioen “eragozpen paradigma”<sup>141</sup> erabiliz areagotzen dute, dauden errealtateak, “naturazko” egituraketan osatu beharrean “egoerazkoan” sorraraziz, hots:

1. “ikastola” dituzten “hutsuneak” giza eginkizun egokiak ez betetzetik datorkie, eta gure “egoera” kultura eta teknologikora bideratuz “mesede” besterik ez diegu egiten.
2. Ondorioz, ikuspegi osoaren errealtatea bitan banatu eta be-reizten da, elkar osatu eta garatu beharrean.
3. EE diren ikastola batzuei gutxiagotasun konplexua edo des-bideratuta dabiltzan xomorroa sortzen eta hazten zaie.
4. Egoera txarrean, ikastola taldearen desegituraketa sor daiteke, geratzen direnei lehengo egoera berdina ukatuz<sup>142</sup> eta joaten direnei sekulako aldaketa baikorra aukeratu dutela sinistaraziz,<sup>143</sup> eta lortu ez arren, aurkakotasuna eta deseuztaketa (desuztarketa?) bultzatuz.

---

139 (1987a). Op.cit., 223-259 orr.

140 Ikus diogun 93/05/25 arteko joan etorriak EEako hezkuntza saila eta EHIE elkarte zein Ikastetxe eta beste artean.

141 (1987a). Op.cit., 246 or.

142 Dagoeneko EEA-n EHIE erakundeak ez du lehengo balio ordezkapenik.

143 Zuek aukeratu duzue bai, “euskal eskola publiko berria” bezalako argudiopean.

5. Azkenik, egoera okerrenean aurreko guztiak urratzen joaten bada, zigor legalak kaleratzen dira euren erabateko desagertzea lortzeko.

### 9.1.3. Haustura tentsioa

Aldiz, holako desartikulazioa geratu ahal izateko, artikulazioaren “normalizazio paradigma” bideratu behar da. Euskal EEH-aren irudi eta itxura erreala den ikastolek kanpoko eraso jasaten dute Euskal Herria osoan, bere egoera ez baitu bertako hezkuntza elkarte edo babesle zein ikerlari eta gizartetik era askotara (Nafarroa oinez, Kilmetroak, Seaska, ...) alde agertu eta jokatu dutenek eragin, ... egoera anker honetatik irteteko Txepetxen hitzak erabiliz “haustura tentsioa” egituratu beharrean dago, EEH egituratzen duten hiru mailetan:

a) erakuntzatik, euskal ikastetxearen bidez kultura gunea eta horri loturik dauden eginkizunak betzetik sortzen du aberri ezaugarriak lortuz;

b) hezkuntzatik, Euskal Herriko EE orok, euskal EEH ikur gune inguruan berregituratuz, non bertan egoteak hezkuntza toki prestigio gorena eta hezkuntza elkarte zein hezkuntza horren kultura lurraldean politika ekintzarako ahalbidetzen suposa dezakealarik;

d) hizkuntzatik berriz, EE bakoitzaren eredu eta hezkuntza mota aukeratik gure hizkuntza ezin hobetzen saiatuz.

Prozesu hau Euskal Herria osatzen duten lurralde guztietan zehar eman beharko litzateke, baldin eta “euskaraz hezkuntza” egitea bermatu eta egituratu nahi bada, eta ordez euskal EEH ordezkatzen dituzten ikastetxeak, abagune izatetik, berregitura berri eta oso bat lor dezakeen ikur gunea bihurtuz.

## 9.2. *Euskal EEH-ren berreskurapen eta normalkuntzaren axiomak*

Lehenengo eta behin, aurreraxeago genioen bezala, euskal ikastetxeentzat hezkuntza eta hizkuntzan osatzea ezinbestekoa da eta euskaraz egin ahal izatea gauza bera dira.

EEH-ren berreskurapena eta normalkuntza, (AB) EEH-ren egoera euskal ikastetxe baten xedea dela ulertzen hasten denean ematen da, beste EE egoera guztiak, (∅) barne, euren xedera egoki daitezzen bultzatu behar diren iragapenak direlarik.

Ikastolak (AB) euskal EEH-ren ahalegina dira, beste ikastetxe eredu guztiak euskal hezkuntza orekaranzko iragapenak izanik. Euskal

eskolagintza ezin da, Euskal Herrian zehar gaurko “hezkuntza egoeran” kokatu, egokitu eta bukatutzat eman, egoera horren natura ez baita euskal gizartetik sortu eta garaturikoa eta EEH-ren “naturak” sor dezakeen “egoerara” murgil eta egoki behar litzateke, baldin eta euskal hizkuntza eta hezkuntzaren arruntasuna bermatu nahi bada; ez alde-rantziz. Euskal izatetik beste edozein gauza iruzurra edo eskizofrenia hutsa besterik ez da. Horrelako egitasmo bat hezurmamitu nahi izatea, beste edozein giza taldek eratu nahi duen errealitate adinakoa da, ez eta aukera bat. Beste gauza bat litzateke, euskal diaspora, mundu zabalean zehar Australia, Amerika eta Europa ..., hala nola, Madril, Paris eta Bartzelonan euskal ikastetxeak sortu eta garatzeko aukera emango balitzaieke... Bestalde, gure ustez, gaur egun dagoeneko, egin beharreko zerbait eta halako batean seriozki ukitzeko asmotan duguna ere bai! Antzeko egoera asko ditugu batik bat Ipar Ameriketako hezkuntza erakundetza munduan: ikastetxe txinatarrak, frantsesak, alemandarrak, italiarrak, espainiarrak, holandarrak, ... eta ia harriturik gera gaitzke giza talde ugari eta ez hain ezagunen hizkuntzetan eratuturiko ikastetxeekin topo egin dezakegu; inongo oztoporik sortzen ez delarik behin, ingelesezko hezkuntza eduki eta ezagupenen hurbilketa egin behar denean.<sup>144</sup>

Euskal gizon-emakumea, hezkuntza erakundetuaren bide berrosa dadin gure lurraldeko ikastetxe guztiak, EEH mota bakoitzean barna lerrotatzea ezin besteko baldintza da, bide batez hezkuntza eta hizkuntzaren alde lerrotzea suposatzen duenari. Luckmann eta Bergerek<sup>145</sup>, ikasteari beste gauza askoren artean gizarteratze prozesua garatzea eskatzen zaio eta horretarako diote “beste edozer baino lehen, barneratu behar dena hizkuntza dela. Eta hizkuntzarekin eta bere bidez da, nola motibapen zein ulergarritasunezko eskema ezberdinak erakundetzatiki mugaturik bezala barneratzen diren”.

Euskara eta hezkuntzaren artean dugun zubia EEH taldeak ditugu eta guztien beharra dugu euskara eta euskal hezkuntzaren berres-

---

<sup>144</sup> Bilboko Amerika Enbaxada. *El sistema de educación en los Estados Unidos*. Servicio cultural e informativo de los Estados Unidos. (1972), 1. arg., 1-28 orr.

GARCIA GARRIDO, J.L. (1987). Op.cit., “El sistema educativo norteamericano”, 261-378 orr.

<sup>145</sup> Txepetx. (1987a). Op.cit., 189 or.

kurapena lortu, garapen trinkoa eskaini eta, aldi berean, beste edozein giza talderen kultura sistemari darion teknologia egituratzeko eratzen dituen EEH-ekiko, aurrerapen eta giza garapenaren zentzuan eskuhartze arduratsua eskaini.

Bukatzeko esan, hezkuntzaren eremu formaletik EEH-ren normalkuntza lortzeko, zenbait urrats garatu beharko direla:

1. Erakuntzaren euskaltasunaren gizarte politika berreskuratzea, ez bakarrik gaurko euskal ikastetxeen biziraupenerako, baizik eta Euskal Herriaren dauden EE eredu eta hezkuntza mota guztiak, euskal hezkuntzaren EEH osoa garatzeko. Hori bidera dadin, euskal hizkuntza-hezkuntzaren botere nagusia, botere politikoarekin parekatu beharko da, zeren eta euskal giza sistemaren hezkuntza bideratzen duten EEk dira euskal hezkuntzarentzat garrantzi handiena dutenak eta aldi berean, “osagarritasun printzipioa”<sup>146</sup> gogoratuz euskal hezkuntza da haienezko buruhausterik handiena. Bi nagusitasun horiek elkartzen ez badira gure lurralde mailan, botere politikoak ez du naturazko euskal EEH-ren garapena bermatzeko balio. EE inguruneko aldagai gizapolitikoak eta aldagai bereziaren arteko esku-harmen egokiak, “giza hezkuntza bote-rearen berreskurapena” sustatzea suposatzen du, Txepetxek hizkuntzaren dion “giza hizkuntza boterearen berreskurapen” ildo berberetik ulertua.

2. Aurrekoa ematen bada, EEH-k jatorrizko aldagai burokratikoak sortu ahaliko du, ondoren euskal hezkuntza sistema berria eraikiz eta ikastetxe barneko azpi-sistemak handik darien eginkizun, zein bere eskaintza bereziak, garatzeko prest egongo da. Zuzenean, EEH (AB) EEH(A)-rantz eta EEH (BA), EEH (B)-rantz, hazten hasiko dira. Eta hezkuntza berri horren berrantolaketak  $\emptyset$  egoeran daudenak EEH (A) zirenen bidez EE lehenak, naturazko norabidean eta EEH(B)-koek EE bigarrenak, kulturazko bidetik erakartzea lortuko dituzte.

3. EEH talde guztiak, kateaturik egon behar dira, euskal hezkuntzaren izatetik bakoitzak duen tokia eta eginkizunak ongi ulertuz. Adibidez ez da bidezkoa izango (B) urratseko EEH euskal hezkuntzaren eredutzat hartzea ... e.a. horretarako hori egin, hedatu eta EE guztien norabidea eskaintzeko ahalbideturik daudenak EEH (AB) urratsekoak

---

<sup>146</sup> Txepetx. (1985). Op.cit., 333 or.

dira, eurek bideratu duten errealitate eta ekimena bera, euskal EE balio ziurraren neurria baita.

Azkenik esan, honelako norabideari aurre egitea, gure giza kultura eta teknologi ingurune dagokien hezkuntza, bere natura zein izate ibilbide osoari egokitu “hezkuntza egoera erreal” sortu ahalko dela. Horiek dira, hain zuzen ere, euskal EEgintzak behar duen eraldaketaren iparra.

## EPILOGOA:

### GIZARTE ZIENTZIEK ORTZEMUGATIK KANPO

Jose M<sup>a</sup> Sánchez Carrion “Txepetx”

Gary Zukavek idazten duenez, benetako fisikariak eta benetako matematikariak aspaldi kontu-ratu ziren egiturarik eta formularik sinpleenak direla egiarik sakonenak eta aplikaziorik emankorrenak jasotzen dituztenak.

Badirudi, beste gauza batzuren artean, teknika eta teknologia astrofisiko, kibernetiko eta informatiko modernoen aurrerapen harrigarria ahalbideratu duen konstatazio hau, gaur egun-go gizarte-zientzien ortzemugatik kanpo dagoela oraindik. Zientzia hauen inguruan batzutan honako inpresio hau jasotzen dugu; alegia, gizarte fenomenoaren itxurazko konplexutasuna murriztu beharrean, beren osagarri diren elementu sinpleak identifikatuz (kimikan bezala, berenarteko harremanak ordenatzen dituzten arauak bilduko lituzkeen elementuen taula modukoban osatuz), helburua, konplexutasun hori are gehiago korapilatzea dela errazak bezain antzuak, eta erosoak bezain azalekoak diren hainbat baliabideen edo trukoen bidez.

Esate baterako, argitu beharrean, sailkatu edo besteen teoriak zerrendatu. Besteen teoriak sarri gainera antagonikoak dira, fenomeno berari buruz aurkako interpretazioekin ari direnak, edo aurkako fenomenoekin asimilatzen dituzten etiketekin ari direnak. Beste “truko” bat, kontzeptu baten edukiaren ordez, izen baten historia jartzea da, kontzeptua erabat subjektibizatuz eta hartu dituen konnotazioak gaindimentsionatuz, justifikatu eta kokatzen duen denotazioaren kaltean

Beste maina bat, besteen ikuspuntu eta ekarpenen kritika, kritika egiten den norberaren ikuspuntua azaldu gabe burutzea da, enfokea egiten duen lenteak, ikusten den objektuaren konfigurazioan, enkua-drean eta aukeraketan eraginik izango ez balu bezala (eta gaur egungo psikologia eta fisikari esker jakina da baduela). Jokaera honek, Machadok zioen hura ahazten du; alegia, begiratzen duzun begia ez dela begi begiratzen duzulako, begiratzen zaituelako baizik, hau da, objektiboa, subjektiboarekiko harreman dialektikoan osatzen dela.

Beste baliabide eroso eta komikoa, interpretazioa alde batera uztea da, ustezko objektibismo pragmatiko eta enpirista baten alde agertuz. Jokaera hau linealismo hutsa da, ideiek ondoriorik ez balute bezala, edo berauek intelijentziz ulertu eta gero, ondorioak arrazionalizatu edo egituratu ezingo balira bezala. Gehiegikeria honen anaia bikia, bere akats baliokide eta ekipotentea da; hots, egoeraren inguruko kontsiderazioei balio guztia ukatzea, arruntak, oinezkoak eta "antia-kademikoak" ("antizientifikoak") izateagatik, espekulazio hutsaren linboan kokatuz, eta inguruan dauden eta beren iharduera aberats edo sotilen bidez era batera edo bestera espekulazio hau ahalbideratzen duten pertsonen behar erreal eta zehatzei bizkar eginez.

Hizkuntzaren gramatika, hala nola berak duen eta bera duen kulturaren azpian dauden egiturazko elementu sinpleen bilaketaren ordez (erakargarria batzutan, baina exijentzia handikoa denbora nahiz ahalegin aldetik beste batzutan), baliabide sinple hauek erabiltzeagatik, zientziaren eta gizatasunaren arteko bereizketa garbi bezain ezproduktiboa sortu dugu. Bereizketa hau, beste batzuren artean, gizateriaren historian aurrekinik gabeko aurrerapena ezagutzen ari den teknologia-ren (aplikazio zientifikoaren produktua) eta gizarte zientzien arteko bereizketa da. Gaur egungo gizateria ukitzen duen arazorik larriaren aurrean –bere superbibentzia– ezer esateko edo erabakitzeke ez bozik eta ez botorik ez duten gizarte zientziak, azkenhauek.

Superbibentziaren arazo honek bakarria (balioen krisia) eta adar asko ditu, hala nola, planetaren hondamen ekologikoa, giza-hizkuntza eta kulturen hondamena, demografikoki eta ekonomikoki eusgarriak, hau da bateragarriak, diren erduen hondamena, eta gauden krisiariburuzko kontzientziaren hondamena, norberaren kontzientziaren hondamen edo krisiaren ondorio bezala. Kontzientzia, bai guk eta bai beste pentsamendu-eskola batzuk honela ulertzen dugu: pentsamenduaren, sentimenduaren eta ekintzaren integrazio bezala.

Jaione Apalategiren lan honi eskertu behar zaion lehen gauza, stabilisment unibertsitarianbertan ere errotuta dauden baliabide antzu horien erabiitzeari uko egiteko adorea eduki izanada; sinpletasun emankor, sakon eta gardenean amaitu ohi den bide neketsu, zail eta konplexuari eutsiz.

Korapilo eta benetako labirinto honetatik ateratzeko, ausardia, pazientzia eta intelijentzia praktikoeta espekulatibo aldetik ahalegin handia behar da. Eta ahalegin honek, gaur aurkezten den lanhonen modukoak behar duten neurrian baloratzen laguntzen du.

Baina lan honek, oinarrietako bat bezala gure teoria hartzen duenez, eta gure teoria, ekintzarako pentsamendu gisa, esperientziaren esplikazio autokontziente gisa eta introspektzio-mailakontzentrikoetan oinarritutako eta sostengatutako aplikazio gisa perspektibizatzen denez, lagungarri izango zaigu maila horien arteko kontzentrikoenetik hasia: gure introspektzio pertsonaletik, alegia.

Dagoeneko bada mende laurdena, Europa zaharreko hizkuntzarik zaharrenaren egoeraren behaketatik abiatu ginela (egoera, beti dramatikoa eta ez gutxitan marjinala). Giza-hizkuntzenbizitza interpretatzeko eredu aurkitu nahi genuen, denbora berean, hizkuntzen arteko bateragarritasuna ahalbideratuko zuketen baldintzak ezarri edo adieraziko zituen. Abiatu ginenean, ez genuen imajinatu ere egiten zein nekeza izango zitzaigun horren sintomatologia konplexutik, elementurik sinpleen disekzioa iristea

Beste leku batzutan adierazi dut partzialki prozesua eta ez dut beraz, hemen errepikatuko. Baina orain esan nahi dudana ez dut aurretik inon esan: izan ere, neke askoren ondoren. bainaarakastatu, harimatazaren gunera iritsi ginela ematen zuenean, ez genuen pentsatu ere egiten zein zail, luze eta konplexu suertatuko zitzaigun beronetik ateratzea. Edo beste era hatera esanda, errealitate arakaekin eta konplexu bat osatzen duten elementu sinpleak zeintzuk diren ezagutzera iritsi ondoren, eta, bete ala hautsi, bizikidetasun ala gatazka-eredu konduktualak determinatzen dituzten oinarritzko legeak aurkitu eta gero, garbi frogatzen da, gizarte-zientzilaria, zientzia zehatzen arau amankomuna den lan-metodora egokitzeabaino askoz ere zailagoa dela gizarteak, funtzionamendu-ohitura konplexu baina komraesankorrak, ohitura sinpleago, lojikoago eta emankorragoen ordez aldatzea, gizarte-oreka eta bizikidetasunaren berme gisa.



Geure haragitan frogatu dugu era honetan, JAKITEA beharrezkoa eta lagungarria dela, baina ez déea nahikoa. Zerbait EGITEKO bitarteko edo baliabidea da. Baina bizikidetasun etabateragarritasun linguistiko-kulturalari dagokionez, zerbait EGITEA, maila handi batean iharduera soziala da eta ikerlariaren eta ikerkuntzaren ahalmen eta baliabideetatik kanpora geratzenda.

Ekialdekoen ustez, jainkoen sufrimendua honetan datza: badakitelatela gizakiei zorientasuna nola eman, baina ezin dutela ezer egin, hauek ez dutelako lagunduak izan nahi. Ideiak paradoxikoa dirudi, eta paradoxikoa da, paradoxa kontraesanetatik aterarazteko baliabide dialektikomodura darabilen ekialdeko pentsamenduari dagokionez. Baina guri dagokigunez adierazi nahiduguna honako hau da: UNE JAKIN BATEAN ERREALITATEARI BURUZ DAGOENINFORMAZIOAREN ETA ERREALITATE HAU BERAU OSATU ETA DETERMINATZEN DUEN IHARDUERA SOZIALAREN ARTEAN ZUBIREN BAT ERAIKITZEN EZBADA, EZAGUERA ETA IHARDUERA ELKAR ERNALDU GABE MANTENDUKODIRA. Modu egokian arrazionalizatu eta kontzientizatu gero, ekidin zitezkeen esperientziakerrepikatzen ditu gizarteak (Balkanetako gatazka, hamaikaren artean jar daitekeen adibide gertua da). Eta izurritea sendatzen duen sendagaia aurkitu dutelakoan dauden gizakiak, sozialkii solatuta mantentzen dira, mespretxatuak, marjinatuak, jazartuak edo isilduak ez direnean. Zubi bat eraiki beharra dago beraz, norbana-koaren ezagupenaren eta gizartearen ihardueraren artean.

Zubi hau JAKINARAZTEA da. Bi ertzen arteko edozein zubi bezala, bere funtzioa bi ertzaklotzea da, hau da, egitatea, ezagupenarekin konektatzea. Hain zuzen ere, norabide bikoitzekopasabidea altxa behar du. Intersekzioa edo loturagunea, jakinaraztea eta egiten jakitea da; hauda, esplikazioa eta aplikazioa elkar lotzea, esplikazioa lehen aplikazio-modu gisa ulertuko dueneta aplikazio berriak, aurkikuntza, argibide, ikerkuntza eta prospekzio-iturri bihurtuko dituen metodo edo bide baten bidez. Zubi hori, informazioaren eta administrazioaren arteko zubiada, azken hau zentzu zabal etajatorrizkoan ulertuz (idea, pertsona eta baliabideen administrazioa). ETA HAUXE DA HEZKUNTZAREN BEREZKO FUNTZIO BEREZIA. Horregatik etorri ohi gara bat HEZKUNTZAK duen garran tziaz, norberarenganako atxekimendua eta besteenganako errespetua artikulatzeko behar den

zentzu sozial berriaren etajoakerasozialen arteko katemaila bezala. Hain zuzen ere, ordu eta ahalegin franko eskaini dizkiogu Joandiren urteotan lan hezitzaile eta formatiboari, sarritan eragin duen ikerketa espekulatiboarekineta batez ere maila lokalean garatu den aplikazio praktikoarekin konpajinatuz.

Baina zati garrantzitsu eta giltzarria falta zen zubi horretan. Helburu zehatz modura, euskal eskolaren esparru zehatzera aplikatutako heziketa-ikerkuntza hartuko zuen zatia. Hala teoria, nola eskola-antolakuntza barrutik ulertuko zituen katemaila, eta bata besteari eta alderantziz aplikatuko ziena, eskola-antolaketarako eredu propio, bideragarri eta sendoa diseinatuz etaera berean teoria aberastuz. Hori da Jaione Apalategiri eraikitzea egokitu zaion zatia. Lehenbegirada batean apala irudituko zaio norbaiti, baina burutu den moduak eta duen kokapenakgarrantzi handia eta duen benetako balioa ematen diote, muitzo osearen barruan.

holografiko eta holonimikoen antzera, zati honek,besteak amilduko balira, muitzo osoa berreraikitzeke izan zezakela (teoriaren klabe inplizitoakezagutuko ta erabiliko balirazko kondizioarekin,hain zuzen). Bere zati honen barnesendotasuna ikuskatu eta aztertzeke garaia da beraz.

Teoria hololingüistikoaren argitan burutzeak, denbora berean objetiboki eta subjektibokiegitea eskatzen du, hau da, esaten duenarengan nahiz esaten duenean gertatzen diren baldintzak kontutan izatea, pertsonari nahiz obrari dagokionez. Abiapuntua pertsona denez, pertsonarengandik hasiko naiz.

Teoria hololingüistikoa, teoria trilojikoa da, hau da, ez binakoa. Antagonikoki eta dilematikokiplanteiatu-rikoko gatazkak konpontzen ditu, triangelazio jarraikien bidez berauek gaintzetzeko duenahalmenari esker. Triangelazioa ez da inoiz mekanikoki lortzen; egoerari kontzientzia aplikatzearen eta kontzientziari egoera adicrazi edo argitzearen ondorio da, era honetan esperientziaeta zentzua artikulatzen baitira.

Berau ulertzeke pertsonak prozesuaren gunean bertan kokatu behar du, labirintoarengunean. Honek esan nahi du, pentsamendua, sentimendua eta ekintza berriro konbinatu nahiditu-ela, hori egiten jakin eta horretarako prest egon behar duela. Hau da, esplikazioa, inplikazioa eta aplikazioa.

Esan genezake, Jaione, orain arte plazaratu ditugun teoriaren mailak(l) barneratu dituen pertsona gutxi horietako bat dela, hiru arlo horietan jokatzeko duen ahalmenagatik. Izan ere, teoria holonimiko bat barneratzen denean besterik ez baita ulertzen. Eta hiru elementuak dialektikoki konbinatzen direnean besterik ez baita ulertzen. Eta, are gehiago hiru elementuak dialektikoki konbinatuko dira eskuragarri dagoen informazioaren erripaken edo parafraisi utsa EZBADA konbinatze horren sortzen dena, bere zabalpen edo gehitze, edo ugaitze baiz'k. Ugaitze hau ez da soilik informazio berria, energia psikosozial berria baizik.

Apalategi irakasleak testuak sutuki, adoretuki eta era nekaezinean lantzeaz gain, berkokatu egin ditu etengabe. Berkokapen hori, bere denbora eta espazioarekin konprometitutako pertsona bezala duen inplikaziotik egin du, eta testuak eskola-erakuntzari aplikatu dizkio, baimaila espekulatiboan, eta baita pedagogo eta euskal eskolaren eskola-eraketaren hainbat esparru eta instantzien arduradun bezala duen ikuspuntuan. Aurre-erantzunak galdera berri bihurtu ditu beraz, eta zintzilik zeuden galderak erantzun berri.

Bere lanak, eskola-erakuntzaren inguruan teoria berria formulatzeaz gain, teoria hau haragiztatzen duen euskal eskolaren testuinguruan aplikatzeko behar diren bitartekoak eskaintzenditu.

Eskaintza hau gainera, kokapen pertsonal eta profesional pribilejiatu batetik egiten du: edukin intelektual handiko pertsona da, sentsibilitate sozial handikoa, eta lan-esparru duen hezkuntza-komunitatearen guraso, irakasle eta etorkizuneko irakasle izango diren ikasleekin harreman iraunkorrean dago hezitzaile eta dinamizatzaile gisa. Hezkuntza bestalde, aplikazioaren eta informazioaren arteko zubi denez, INPLIKAZIO HONEK, alegia, ikerkuntzaren etagizartearen ARTEKO HARREMAN-GUNEA OSATZEN DUTEN TALDE SOZIALEN HEZIKETAN INPLIKATUTA EGOTEAK, kultura eta naturaren arteko konbinaketa trebearen ondorio den xarma eskaintzen dio bere lanari: esaten dena sentitzea eta sentitzen dena esatea. Edo beste era batera esanda, uneroro jarrera egoki batean oinarrituriko iharduera egokibat izatea.

Horrexegatik Jaione zoriondu nahi nuke. Ez bakarrik bere lanarengatik. Baita nire lanerako suposatutako duen akuilukadarengatik, eta bere exenpluan eta talentuan laguntza aurkitukodutenengan suposatutako duenarengatik.

Sasoi latzak bizi ditugu. Euskal eskola bere oinarrietatik berrantolatzearen erronka biziki erakargarria da. Baina beste edozein erronka

berezi bezala, ezin da aurrera eraman, garai hauen ondorioz gero eta elementu urriagoa eta murriztagoa bihurtzen ari den adorerik gabe.

Gizartea gero eta arrazionalagoa eta gizatiaragoa izan dadin, behar-beharrezkoa da batzuk bizi-legez amaitzen duten bidaia, leku horretatik bertatik hasiko duten beste batzuk jarraidezaten; amaiera oraindik urrun dutela jakin arren, hurrenez hurren, karreraren lekukoa edozuzia elkarri pasatzen di oten korrikalarien antzera.

Gizarte honek, beste batzuren artean, zailtasun handi bat du: guk baino askoz ere lehenago beste batzuk hasi zuten eta hemendik belau-naldi batzuetarajarraituko gaituztenek heredatzeko eskubide osoa izango duten langintzajarraitzeko zailtasuna.

Jarrera-arazoa da eta arestian aipatu dugun balioen krisiarekin zerikusi estua du. Penagarria da muitzoari emakin gehien eskaintzen dioten pertsonak garaia baino lehen erre edo ahidaitezen, gutxienez zalantzazkotzat jo daitezkeen beste langintza batzuei oztoporik gabe eskaintzen zaizkien laguntzak, zekentasunez gordetzen zaizkielako.

Baina denok gara gizartea eta laguntza ere kontzentrikoa da, kanpotik barrura Joan behardu, kontzientziarik handieneko sektoretatik, inertzien eta manipulazio interesatuen eragina errazago jasan dezaketenetara.

Aukera honetaz baliatuz, krisi sozialari soluziobideak hezkuntzatik eskaini behar dizkioten sektore unibertsitari arduradunak, Apalategi irakaslearen lana tramkazio administratibohutsean gera ez dadin zerbait egin dezaten animatu nahi nituzke. Gertaera intelektuala izanik, modu horretan uler dadin eta bere azken hartzaileengana irits dadin saia daitezela.

Bere ekarpenak modu egokian baloratu eta informatzea (inplikaturuz eta jakinaraziz) izandaiteke bidea; ez bakarrik nortasun baten krisia soluzionatzen laguntzeko, baizik eta unibertsitatearen eta gizartearen arteko bereizketa soluzionatzen laguntzeko. Horretarako, oso garrantzitsua izango da ezpairik gabe, unibertsitatea –eta bertan hezitako pedagogok– heuren funtzioekiko fidela izatea eta ez nahastea balorazioa eta panegirikoa, eta era berean, bere funtzioa berreskuratuz, ez nahastea kritika intelijentea eta banderismo sektarioa edo nagikeria axolagabekoa.

Era honetako lan bat, bere argumentazioaren sendotasunaren arabera baloratu behar da, eta ez bibliograf<sup>3</sup>a mailako aipamen edo hutsu-neen arabera. Kokatzen den perspektibatik ebaluatu behar da, ez alde hatara uzten dituenetatik. Eta eskaintzen dituen soluziobideengatiko-

netsi behar da, ez, beste batzuk ere zer egina izan dezaten, egitear uzten dituenengatik. Hau egiten baldin bada, pertsona azkar, gai eta koherente bati, besteok pasa behar izanditugun justifikaziogabeko nekeak ekiditzeaz gain, batez ere, berreskuratzen ari garen eta moduegokian dimentsionatzen gaituen perspektibak bere azken helburua lor dezan lortuko da: alegia, gizateriaren aintzineko asmoa izan den “herri bakoitzarentzat etxe bat, etxe bakoitzarentzaherri bat” helburua, gauzatuko den mundu berri hori sortzea.

J.M<sup>a</sup> Sánchez Carrión, “Txepetx”  
Josse, iraila, 1995.

## BIBLIOGRAFIA

### 1. Aldizkariak

- ALDIZKARIA*, (1992). Iruñea.
- ANALES DE PEDAGOGIA*, (1987). Madrid 5 zk.
- ANTHROPOS*, Revista de documentación científica de la cultura, (1994-95) Barcelona, Prensa Científica.
- ZERUKO ARGIA*, (1993). Donostia.
- BABELIA*, (1993). Barcelona
- EKBerriak*, (1993). Donostia
- ELHUYAR zientzia eta teknika*, (1993). 73-74zk. Usurbil (Gipuzkoa)
- ERE*, (1980), 35zk.
- EZTABAIDAGALAK* aldizkaria, 1.zk. Donostia, EHU-Irakasle elkarte.
- FONTES LINGVAE VASCONUM*, (1982). Iruñea, Institución Príncipe de Viana. Nafarroako Gobernua XIV urtea, 37.eta 40.zk.
- HARVARD DEUSTO BUSINESS REVIEW*, Best of Business Schools, (1993). Bilbao, Ediciones Deusto, S.A.
- HEMEN*, (1990).
- HERRIA*, (1990-94), *Baiona*
- Herria 2000* /Eliza, (1981). Bilbo
- HERRIA ETA KULTURA*, *Euskal Kultur Erakundea / Institut Culturel Basque* Ustaritze (Lapurdi)
- HUARTE DE SAN JUAN*, Iruñako Magisteritza Eskolaren hezkuntza aldizkaria

*IKASTOLA*, (1991-1994), 1-34 zk., Euskal Herriko Ikasoteln Elkar-  
 tea-EHIE-  
*INVESTIGACION Y CIENCIA*, (1992). Barcelona, Prensa Científica,  
 189 zk.  
 ISILIK Pedagogi aldizkaria, (1992). 14 zk.; 19 zk.  
*JAKIN*, (1988). *Oñate (Gipuzkoa)*, 48zk.  
*JAZTEN*, Eskoriatzako Irakasle Eskola (1990)  
*REVISTA ESPAÑOLA DE INVESTIGACIONES SOCIOLOGICAS*,  
 (1988). 41.zk.  
*REVISTA ESPAÑOLA DE PEDAGOGIA*, (1988). Salamanca, 181  
 eta 191 zk.  
*REVISTA INTERUNIVERSITARIA DE FORMACION DEL PRO-  
 FESORADO*, (1990). Valencia, ICE, 7zk.  
*R.I.E.V. Revista Internacional de Estudios Vascos*, (1993). Eusko Ika-  
 s-kuntza  
*SOZIOLINGUISTIKA BAT*. (1991) 3/4.zk.; (1992) 6.zk., (1993)  
 10.zk., Donostia, EKB.  
*STUDIA PEDAGOGICA*, Revista de las Ciencias de la Educación.  
 Universidad de Salamanca.  
*TANTAK*, EHUren Hezkuntza Aldizkaria. (1986), 4.zk.; (1993), 9.zk.  
*UEMA*, Udalerri Euskaldunen Mankomunitatearen Aldizkaria  
*UZTARO*, giza eta gizarte-zientzien aldizkaria. (1992). Bilbo. UEU.  
*ZUTABE*. (1988). HABE  
*ZUTIK*, (1987), 431zk.

## 2. Egunkariak

*DEIA*, 94/8/28; 80/12/7;  
*DIARIO DE NAVARRA*, Iruñea. 93/1/14; 85/9/28.  
*DIARIO DE NOTICIAS*, Iruñea. 94/6/25; 94/4/20; 94/6/7; 94/4/27.  
*EGIN*, Iruñea. 92/11/14; 93/5/27; 94/5/24; 94/6/29; 93/5/1;  
 93/5/26; 94/6/24; 93/5/25; 93/2/25.  
*EGUNKARIA*, Iruñea. 94/7/21; 94/9/17; 94/5/8; 93/10/24; 94/3/8.

EL MUNDO del Pais Vasco, Bilbo. 93/7/28; 93/2/28; 93/2/3; 94/2/25; 94/5/10.

EL PAIS, Madrid. 92/4/29; 93/5/16;

NAVARRA HOY, Iruñea. 92/12/15; 93/2/23; 93/3/18; 91/11/18; 93/6/20; 93/2/28; 93/2/7; 92/6/25; 92/11/18; 91/11/21.

### 3. Kongresu aktak

(1987). *II Congreso de Lingua galego-portuguesa na Galizia*. Orense, AGAL.

(1988). EUSKO IKASKUNTZA: *II euskal mundu biltzarra*. Leioa (Bizkaia).

(1990). EHU/UPV: *Hizkuntza/Hezkuntza. Encuentros sobre la Lengua y la Educación*. Bilbo, EHU

(1990). EUSKO JAURLARITZA: *Euskal eskola publikoaren lehen kongresua*. Gasteiz, Eusko Jaurlaritza, I. eta II tomoa..

(1990). UNIVERSIDAD DE SEVILLA: *El centro educativo. Nuevas perspectivas organizativas*. Sevilla, Universidad de Sevilla, GID.

(1991). EUSKO IKASKUNTZA: *Nuevas formulaciones culturales: Euskal Herria y Europa*, XI Congreso de Estudios Vascos. Donostia, 1991. Eusko Ikaskuntza.

(1992). UNIVERSIDAD DE DEUSTO: 1er CONGRESO INTERNACIONAL SOBRE DIRECCION DE CENTROS DOCENTES: *La dirección factor clave de la calidad educativa*. Bilbao, Universidad de Deusto

(1992). UNIVERSIDAD DE SEVILLA: II CONGRESO INTERUNIVERSITARIO DE ORGANIZACION ESCOLAR: *Cultura escolar y desarrollo organizativo*. Sevilla, Universidad de Sevilla.

(1993). EUSKO IKASKUNTZA: *Eusko ikaskuntzak hezkuntza sarean*, XII Kongresua. Gasteiz, Eusko Ikaskuntza.

(1994). EUSKO IKASKUNTZA: *Hezkuntzaren kalitateari buruzko ihardunaldiak*. Bilbo, Eusko Ikaskuntza.



#### 4. Liburu, idazkiak eta hiztegiak

- AGUIRREGABIRIA, M. (1988). *Tecnología y educación*. Madrid, Narcea.
- ANTUNEZ, J. (1987). *El proyecto educativo de centro*. Barcelona, Grao.
- APALATEGI, J. (1989-1990) "Gure hezketa berbideratzen"; "Zein adinetan har ditzake haurrak bere gain erresponsa-bilitateak"; "Jostailuak, adin bakoitzari berea"; "Nola gaitzetsi "hitz zakarren erabilpena haurrengan?"; "Gure umea ikara betean"; "Haudixeagoak ere izutzen direnean" eta "Haur ezkertiarak/haur eskuindarrak". *Navarra Hoy* egunkaria, Pamplon/Iruña
- (1990). "Pedagogia-Soziolingistika-Haur Hezkuntza". *Huarte de San Juan* hezkuntza aldizkaria, 87-97orr., Iruñea, Magisteritza Eskola.
  - (1991). "Hezkuntz ebaluaketa". *Isilik* Pedagogi Aldizkaria, 13zk., 9-11 orr.
  - (1992). "Hezkuntzaren ebaluaketarako aurrebaldintzak". *Uztaro* Giza eta Gizarte-Zientzien Aldizkaria 6 zk., 117-124 orr.
  - (1993). "Eskola erakuntza eta euskal irakaskuntza bidegurutzean". Eusko Ikaskuntzaren XII. Kongresua: *Eusko Izaskun tzak hezkuntza sarean, Gasteiz*, 1-7 orr.
  - (1994). "Euskal irakaskuntza eta Curriculum", *Isilik* Pedagogi Aldizkaria, 19zk., 5-7 orr.
  - (1994). "1992/93 Urteetan hezkuntza arlorako Euskal Herrian Euskaraz Argitaratutako aldizkariak". Eusko Ikaskuntzaren RIEV Revista Internacional de Estudios Vascos, 463-464 orr.
- APPLE, M.W. (1987). *Educación y poder*. Barcelona, Paidos/M.E.C.
- ARDOINO, J. (1990). *Perspectiva política de la educación*. Madrid, Narcea.
- ARENDT, H. (1973). *La crise de la culture «la crise de l'éducation»*. Paris, Gallimard.
- AZCONA, J. &. (1985). "La Diputación recibió el informe sobre la situación del euskera en Navarra." *DIARIO DE NAVARRA* egunkaria 85/9/28, 21 or.
- BALL, S.J. (1989). *La micropolítica en la escuela: Hacia una teoría de la organización*. Madrid, Paidos/M.E.C.

- BARBERA ALBALAT, V. (1988). *El proyecto educativo, Plan Anual del Centro, Programación docente*
- (1989). *La planificación de los objetivos en el diseño curricular del centro. Preescolar, EGB, Enseñanzas medias*. Madrid, Escuela Española.
- BARQUERO SEGOVIA, J. (1987). *El reglamento de régimen interior de un centro*. Madrid, Magisterio Español.
- BASURCO, F.; IZTUETA, P. (Kord.), (1993). *Euskal Eskola Berria*. Donostia, EHU
- BATESON, G. &. (1984). *La nueva comunicación*. Barcelona, Kairós.
- BERNSTEIN, B. (1988). *Clases, códigos y control. II. Hacia una teoría de las transmisiones educativas*. Madrid, Akal Universitaria. 3. arg.
- BETTELHEIM, B. (1982). *Educación y vida moderna. Un enfoque psicoanalítico*. Barcelona, Crítica.
- BILBOKO AMERIKA ENBAXADA. (1972). *El sistema de educación en los Estados Unidos*. Bilbo, 1.arg.
- BIRDWHISTELL GOFFMAN, B., JACKSON SCHEFLEN, H.; WATZLAWICK, S. (1984). *La nueva comunicación*. Barcelona, Kairós.
- BOURDIEU, P.; PASSERON, J.C. (1970). *La reproduction*. Paris, Minuit.
- BOURDIEU, P. (1982). *Leçon sur la leçon*. Paris, Les éditions de Minuit.
- BREZINKA, W. (1990). *La educación en una sociedad en crisis*. Madrid, Narcea.
- BRONFENBRENNER, U. (1987). *La ecología del desarrollo humano*. Barcelona, Paidós.
- BUENO ABAD, J.R. (1988). *Servicios sociales: planificación y organización*. Valencia, Mestral
- BUESA, F. (1994). “Buesak akordioa onartu ...”, *EGUNKARIA* egunkaria.
- BUNGE, M. (1983). *La investigación científica*. Barcelona, Ariel. 2. arg.
- (1985). *Seudociencia e ideología*. Madrid, Alianza Editorial.
- CAPITAN DIAZ, A. (1986). *Historia del pensamiento pedagógico en Europa II. Pedagogía Contemporánea*. Madrid, Dykinson.
- COMPAÑIA DE JESUS (1991). *Caracter propio de los centros educativos de la Compañía de Jesus*. Madrid, Conedsi, Secretaría General.

- CARR, W. (1990). *Hacia una ciencia crítica de la educación*. Barcelona, Leartes.
- CARTWINGH, D.; ZANDER, A. (1989). *Dinámica de grupos: investigación y teoría*. Mexico, Trillas.
- CEAC, (1987). *Políticas educativas europeas: treinta experiencias piloto*. Madrid, IFAPLAN-Popular-MECV
- CERAP/Centre d'Etude et de Réflexion pour l'Action politique, (1989). *Un projet éducatif pour la France*. Paris, Presses Universitaires de France.
- CIEMEN, (1987). Centre international Escarré per les Mignoris Etniques i les Nacions" *Mapa*.
- CISCAR, C.; URÍA, M.E. (1986). *Organización escolar y acción directiva*. Madrid, Narcea.
- COHEN, L.; MANION, L. (1990). *Métodos de investigación educativa*. Madrid, Muralla.
- COLE, M.; SCRIBNER, S. (1977). *Cultura y pensamiento. Relación de los procesos cognoscitivos con la cultura*. Mexico, Limusa.
- COLOM, A. (1979a). *Lectura del discurso pedagógico actual*. Palma, Embat.
- (1979b). *Sociología de la Educación y teoría general de sistemas*. Barcelona, Oikos-tau.
- COLOM, A.; SUREDA, J. (1980). *Hacia una teoría del medio educativo*. Universidad de Baleares, ICE
- COOK-GUMPERZ, J. (1988). *La construcción social de la alfabetización*. Barcelona, Paidós.
- COOMBS, PH. (1971). *La crisis mundial de la educación*. Barcelona, Península.
- CRONEY, J. (1978). *Antropometría para diseñadores*. Barcelona, Gustavo Gili.
- CHANAG-GILCHRIST, L. (1981). *Para qué la escuela*. Madrid, Cincel-Kapelusz.
- CHIAVENATO, I. (1981). *Introducción a la teoría general de la administración*. Buenos Aires, Mc Graw-Hill.
- D'HAINAUT, L. (1979). *Programmes d'études et éducation permanente*. Paris, Presses d'Unesco.

- (1988). *Los sistemas educativos: Análisis y regulación*. Madrid, Narcea.
- DAVENPORT, W.H. (1979). *Una sola cultura. La formación de los tecnólogos-humanistas*. Barcelona, Gustavo Gili (Colección: Tecnología/Sociedad).
- DE UGALDE, M. (1974). *Hablando con los vascos*. Barcelona, Ariel.
- DEARDEN, R.F., HIRST, P.H.; PETERS, R.S. (1982). *Educación y desarrollo de la razón. Formación del sentido crítico*. Madrid, Narcea.
- DIEZ HOCHLEITNER, R. (1983). “Organización” en *Diccionario de Ciencias de la Educación*. Madrid, Santillana.
- DURKHEIM, E. (1976). *Educación como socialización*. Salamanca, Sígueme.
- (1990). *Educación y sociología*. Barcelona, Península
- EDITORIAL SANTILLANA, (1991). *Léxicos Ciencias de la Educación. Tecnología de la educación*. Madrid, Santillana.
- ELLIOT, J. (1990a). *La investigación-acción en educación*. Madrid, Morata.
- (1990b). *La investigación en educación*. Madrid, Morata.
- ENTWISTLE, H. (1980). *La educación política de una democracia*. Madrid, Narcea
- ESKIL, N. &c. (dir.), (1988). *Le rôle des chefs d'établissement dans l'amélioration du fonctionnement de l'école*. Paris, Economice.
- ETXAGUE, X. (1991). “Hainbat gogoeta: Ikastetxeke hezkuntza proiektua”. *Eztabaidagaiak* aldizkaria, 1.zk. Donostia, EHU-Irakasle elkarte.
- EHIE / EUSKAL HERRIKO IKASTOLEN ELKARTEA (1985). *Gestión y funcionamiento de la ikastola (modelo orientativo)*.
- (1985). *Gestión y funcionamiento de la ikastola*.
- (1988). *Ikastola izaera eta egitura. La ikastola carácter y estructura*. Zarautz, Itxaropena.
- (1990). *Ikastolen I. Batzar Nazionala*. Iruñea.
- (1991a). *Euskal Eskola-Escuela Vasca*. Lizarra, Gráficas Lizarra (Nafarroa).
- (1991b). *Euskal eskola. Euskal Herriko Elkarte*.
- (1991d). *Eraginkor*

- (1992). *Ikastolen II. Batzar Nazionala*. Iruñea.
- (1993). *Ikastola* aldizkaria, 26 zk. Iruñea, ONA.
- EUSKALTZAINDIA, Bilbao. (1977). *El libro blanco del euskara*.
- (1979). *Hizkuntz borroka Euskal Herrian*.
- EUSKO JAURLARITZA, Gasteiz. (1981a). *Eskolaurreko euskararen programakuntza. B eta D ereduak*. Hezkuntza Saila.
- (1981b). *Hasiera Zikloko euskararen programakuntza. B eta D ereduak*. Hezkuntza Saila.
- (1988). *Ikastola eta “eskola publikoaren” arteko konfluentzia legea*.
- (1989). “Jose Ramón Rekalde eta Euskal Eskola Publikoaren Legearen zirriborroa”.
- (1990). *Euskal eskolaren diseinua. Eranskina. Estudio jurídico*. 1-122 orr.
- (1991). *Nueva escuela pública. Ley de escuela pública vasca: Proyecto jurídico para el 2º Congreso de Ikastolas*, 1-41 orr.
- (1992b). “EAJ/PNVk sare publikoaren aldeko jarrera aurkezten du”.
- (1993a). Otsailean EEA-ko legebiltzarrak “Euskal Eskola Publikoaren Legea” onartu zuen.
- (1993b). Apirilaren 24an, “EHIE Batzar Nagusia Gasteizen”.
- (1993d). Maiatzaren 4an, “EAJ eta PSOE-EE-ren arteko akordioa”.
- (1993e). Maiatzaren 25an, Ikastolak, EEA-an zehar, “Sare publiko edo pribatuaren arteko aukeraketa epea, bukatutzat ematen da”.
- Euskal Herriko Agintaritzaren 35. eta Hezkuntza Sailaren argitalpenak 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9 zenbakiak.
- FAURE, E.; HERRERA, F.; KADDOURA, A.R.; LOPES, H.; PETROVSKI, A.V.; RAHNEMA, M.; CHAMPION WARD, F. (1991). *Aprender a ser*. Madrid, Alianza Universidad.
- FERMOSO, P. (1992). *Educación intercultural: La Europa sin fronteras*. Madrid, Narcea.
- FERRANDES, E. (1987). *Proyecto educativo para una sociedad nueva*. Madrid, Narcea.
- FERRATER MORA, J. (1990). *Diccionario de filosofía*. Madrid, Alianza.
- FOULQUIE, P. (1976). *Diccionario de pedagogía*. Barcelona, Oikos-tau.

- FREIRE, P. (1975). *Acción cultural para la libertad*. Buenos Aires, Tierra Nueva.
- FULLAT, O. (1983). *Escuela pública. Escuela privada*. Barcelona, Humanitas.
- (1984). *Las finalidades educativas en tiempos de crisis*. Barcelona, Hogar del libro.
- (1994). *Política de la educación. Politeya*. Paideia. Barcelona, CEAC.
- GARCIA GARRIDO, J.L. (1986a). *Fundamentos de educación comparada*. Madrid, Dykinson. 2. arg.
- (1986b). *Problemas mundiales de la educación*. Madrid, Dykinson. 2. arg.
- (1987). *Sistemas educativos de hoy. Alemania, Inglaterra, Francia, U.S.A., U.R.S.S., España*. Madrid, Dykinson. 2. arg.
- (1989). *La educación en Europa. Reformas y perspectivas*. Madrid, Cincel.
- GARCIA HOZ, V.; MEDINA, R. (1987). *Organización y gobierno de centros educativos*. Madrid, Rialp.
- GARMENDIA, J.A. (1988). *Revista Española de Investigaciones Sociológicas*. 41 zk.
- GIMENO SACRISTAN, J.; PEREZ GOMEZ, A. (1989). *La enseñanza: su teoría y su práctica*. Madrid, Akal Universitaria.
- GOETZ, J.P.; LECOMPTE, M.D. (1988). *Etnografía y diseño cualitativo en investigación educativa*. Madrid, Morata.
- GOIETXE, PH. (1993). “Seaska ere, publikoaren eta pribatuaren arteko aukeran: Bayrou, F. Pyrennées Atlantikoetako Kontseilu Nagusiko Lehendakaria eta Frantziako errepublikako Hezkuntza Ministroarekin mintzatzen”, *IKASTOLA* aldizkaria.
- GOIKOETXEA, M.J. (1994). *Eskola eta hizkuntza-escuela y lengua*. Donostia, Txertoa
- GOMEZ DACAL, G. (1986). *Administración educativa*. Madrid, Anaya.
- GONZALEZ, M.T. (1987). *Anales de Pedagogía* aldizkaria, Madrid, 5 zk.
- GRAS, A. (1976). *Sociología de la educación*. Madrid, Narcea.

- GROF, S. (1990). *La mente holotrópica*. Barcelona, Kairos.
- (1993). *El poder curativo de la crisis*. Barcelona, Kairos.
- (1994). *La evolución de la conciencia*. Barcelona, Kairos.
- GULICK, L. (1962). *La ciencia, los valores abstractos y la administración pública*. Costa Rica, Esapac.
- HABERMANS, J. (1989). *El discurso filosófico de la modernidad*. Madrid, Taurus.
- HALL, R.H. (1982). *Organizaciones, estructuras y proceso*. Madrid, Prentice/Hall.
- HAWLEY, A. (1982). *Ecología humana*. Madrid, Tecnos.
- HERNANDEZ RUIZ, S. (1954). *Organización Escolar*. Mexico, Uteha.
- HUBERMAN, A.M. (1973). *Cómo se realizan los cambios en educación: una contribución al estudio de la innovación*. Paris, Unesco.
- HUSEN, T. (1978). *La sociedad educativa*. Salamanca, Anaya/2.
- HUSEN, T.; POSTLETHWAITE, T.N. (1989-1993). *Enciclopedia Internacional de la educación*. Barcelona, Vincens-Vives/MEC
- IBAR ALBIÑANA, M.G. (1976). *Modelo económico-administrativo como instrumento de gestión y evaluación de centros docentes*. Bilbao, Universidad de Deusto/ICE.
- IFAPLAN-Popular-M.E.C. Madrid. (1987). *Nuevos temas y lugares educativos*.
- (1987). *Políticas educativas europeas. Treinta experiencias piloto*.
- ILLICH, I. (1974). *La sociedad desescolarizada*. Barcelona, Barral.
- INSTITUTO DE CIENCIAS DE LA EDUCACION/ICE. (1994). *Autonomía institucional de los centros educativos. Presupuestos, organización y estrategias*. Universidad de Deusto, Bilbao.
- INTXAUSTI, J. (1991). *Euskal eskolaren iraganaz Historia baten bila*. Bergara, Iragi.
- ISAACS, D. (1987). *Teoría y práctica de la dirección de los centros educativos*. Pamplona, EUNSA.
- JACKSON, B. (1981). *Cada niño una excepción. (Cómo motivar las aptitudes infantiles)*. Madrid, Morata.

- JAKIN sorta (1972). *Gure ikastola*. Oñate (Gipuzkoa), Talleres gráficos del S. Aranzazu
- KAHN, J.S. (dir.). (1975). *El concepto de cultura: Textos fundamentales*. Barcelona, Anagrama.
- KATZ, D.; KAHN, R.L. (1986). *Psicología social de las organizaciones*. Mexico, Trillas.
- KEMMIS, S.; McTAGGART, R. (1988). *Cómo planificar la investigación-acción*. Barcelona, Laertes.
- KEMMIS, S. (1988). *El curriculum: más allá de la teoría de la reproducción*. Madrid, Morata.
- KENNEDY, M.I. (1980). *Construcción de escuelas en la comunidad. Análisis de diversas experiencias*. Paris, UNESCO.
- KLIKSBERG, B. (1979). *El pensamiento organizativo: del Taylorismo a la Teoría de la organización*. Buenos Aires, Paidós.
- KOONTZ, H.; O'DONNELL, C. (1969). *Principios de dirección de empresas*. Buenos Aires, Mc Graw-Hill. 15 or.
- KINDER, H.; HILGEMANN, W. (1980). *Atlas histórico mundial. I. eta II. alea*. Madrid, Istmo, 10. arg.
- KRUTWIG SAGREDO, F. (1978). *Garaldea*. San Sebastian, Txertoa.
- (1984). *Computer Schoch Vasconia año 2001*. Estella (Navarra), Gráficas Lizarra, S.L.
- KUHN, T.S. (1966). *Las revoluciones científicas*. México, Fondo Cultura Económica.
- LANGLOIS, D. (1990). *La politique expliquée aux enfants et aux autres*. Paris, Enfance heureuse.
- LARROSA, J. (1990). *El trabajo epistemológico en pedagogía*. Madrid, PPU.
- MALHERBE, M. (1993). *Les langages de l'humanité*. Paris, Seghers
- MEC. (1985). *Ley Organica del Derecho a la Educacion -LODE-Textos legales*. Madrid, Boletín Oficial del Estado / M.E.C.
- MEC. (1990). *Ley Organica de Ordenacion General del Sistema Educativo -LOGSE-*. Madrid, M.E.C.
- LORENZO DELGADO, M.; SAENZ BARRIO, O. (1993). *Organización escolar. Una perspectiva ecológica*. Alcoy, Marfil.



- LUCKMANN, T.; SCHUTZ, A. (1973). *Las estructuras del mundo de la vida*. Buenos Aires, Amorrortu.
- LUSSATO, B. (1976). *Introducción crítica a las teorías de la organización*. Madrid, Tecniban.
- MACEDA, P. (1994). *La educación ante los grandes cambios culturales*. Madrid, Euroliceo.
- MARTIN BRIS, M. (1988). *Organización escolar (Plan Anual y Memoria del Centro)*. Madrid, Escuela Española, S.A.
- MATURANA, H.R.; VARELA, F.J. (1990). *El árbol del conocimiento*. Madrid, Debate.
- MAYNTZ, R. (1972). *Sociología de las organizaciones*. Madrid, Alianza Universidad.
- McKENNA, B.H. (1979). *La organización del profesorado en los centros educativos*. Madrid, Anaya/2.
- MEAD, M. (1972). *Educación y cultura*. Buenos Aires. Laidos.
- MEDINA, M.; SANMARTIN, J. (Eds.) (1990). *Ciencia, Tecnología y Sociedad. Estudios interdisciplinarios en la Universidad, en la educación y en la gestión pública*. Barcelona, Anthropos-EHU/UPV.
- MELOTTI, U. (1981). *El hombre entre la naturaleza y la historia*. Barcelona, Península.
- MIALARET, G. (1984). *Diccionario de ciencias de la educación*. Barcelona, Oikos-tau.
- MINOT, J. (1970). *L'entreprise education nationale*. Paris, Arnaud Colin.
- MINTZBERTG, H. (1984). *La estructura de las organizaciones*. Barcelona, Ariel.
- MONORY, R. (1987). *Plan pour l'avenir de la education nationale*. Paris, Ministère de l'Éducation Nationale, 15 decembre.
- MORENO, J.M. (1978). *Organización de los centros de enseñanza*. Zaragoza, Edelvisés.
- MUÑOZ GARDUÑO, J. (1986). *Introducción a la administración. Enfoque histórico*. Mexico. Diana.
- MUÑOZ SEDANO, A.; ROMAN PEREZ, M. (1989). *Modelos de Organización escolar*. Madrid, Cincel.

- MYERS, G.E.; MYERS, M.T. (1990). *Les bases de la communication humaine: une approche theorique et pratique*, 2. arg. Quebec (Canada), McGraw-Hill.
- NAFARROAKO GOBERNUA/GOBIERNO DE NAVARRA. (1986). "Euskararen Legea Nafarroan-Ley del Vasuence de Navarra", 1986/12/15
- (1989). *Euskara Nafarroako irakaskuntzan*. Textos legales bilduma. Iruñea.
  - (1990). *Mapa escolar de Navarra* I. eta II. aleak. Departamento de Educación
- NAFARROAKO LEGEBILTZARRA/PARLAMENTO DE NAVARRA.(1993) "Proposición de ley foral de modificación de la ley foral 18/1986, de 15 de diciembre, del vasuence. *B.O. del Parlamento de Navarra.III Legislatura*, 45zk. 18/11/1993
- NICKERSON, R.S.; PERKINS, D.N.; SMITH, E.E. (1990). *Enseñar a pensar. Aspectos de la aptitud intelectual*. Barcelona, Paidós.
- ORDEN, A. (1986). "Organización escolar" en *Diccionario de la Administración educativa*. Madrid, Escuela Española.
- OTEIZA, J. (1964). "Ideología y Técnica para una ley de los cambios en el arte". Hitzaldia: *Artearen kritika nazioarteko ihardunaldiak*, Italian.
- (1972). "Un modelo de hombre para el niño de cada país" Epílogo in UBALDE MERINO, *La psicología entre la física y la ecología*. Santander, Krispin,
  - (1983). *Quosque Tandem...! Ensayo de interpretación estética del alma vasca*. San Sebastián, Auñamendi. 4. arg.; (1993). Iruñea, Pamiela, 5. arg.
  - (1984). *Ejercicios espirituales en un túnel*. Donostia, Hordago.
  - (1988). *Propósito experimental*. Bilbao, Museo de Bellas Artes de Bilbao. "Renovación de la estructura en el arte actual" 5. atala, "El arte hoy, la ciudad y el hombre" 14.atala.
  - (1992). *Existe Dios al noroeste*. Iruñea, Pamiela.
- OWENS, R.G. (1979). *La escuela como organización. Tipos de conducta práctica organizativa*. Madrid, Santillana. 20-21 or.

- OZAMIZ, J.A.; RUIZ OLABUENAGA, J.I. (1986). *Hizkuntza minorizatuen soziologia*. San Sebastian, Tarttalo.
- PALACIOS, J. (1988). *La cuestión escolar*. Barcelona, Laia.
- PASCUAL, R. (1987). *Liderazgo y participación: Mito y realidad*. Bilbao, Deusto/ICE.
- (1988). *La gestión educativa ante la innovación y el cambio*. Madrid, Narcea.
- (1992). *El liderazgo transformacional en los centros docentes*. Bilbo, Deusto/ICE.
- PAUVERT, J.C. (1986). *Les Personnes de supervision pedagogiques: nouvelles fonctions et formation*. Paris, UNESCO.
- PEIRO, J.M. (1991). *Psicología de la organización*. Madrid, UNED.
- PEREZ GOMEZ, A.I. (1978). *Las fronteras de la educación*. Madrid, Zero.
- PERROW, CH. (1991). *Sociología de las organizaciones*. Madrid, Mc Graw-Hill/interamericana 1.ª ed.
- PHILLIPS, C.W. (1974). *Les systemes de construction industrielle, les objectifs de l'enseignements et les problemes de changement*. Paris, OCDE.
- PIAGET, J. (1972). *Naturaleza y métodos de la epistemología*. Buenos Aires, Emecé.
- PORCEL, A. (1987). *Introducción a la psicología de las organizaciones*. Barcelona, Biblioteca Universitaria de Ciencias Sociales.
- POZO, A. (1978). *Organización escolar*. Burgos, Hijos de S. Rodríguez.
- QUINTANILLA, M.A. (1980). “La tecnología, la educación y la formación de los educadores”. *Studia Pedagogica* Revista de CC de la Educación. Universidad de Salamanca. 6 zk.
- RAMO TRAVER, Z. (1986). *Manual de los órganos de gobierno de los centros docentes*. Madrid, Escuela Española.
- REARDEN, R.F., HIRST, Ph.; PETERS, R.S. (1982). *Educación y desarrollo de la razón. Formación del sentido crítico*. Madrid, Narcea.
- REIMER, E. (1981). *La escuela ha muerto*. Madrid, Guadarrama.
- RIBOLZI, L. (1988). *Sociología educacional y escolar*. Madrid, Narcea.
- RODRIGUEZ MORENO, M.L. (1986). *Teorías, proceso de la orientación educativa*. Barcelona, PPU.

- ROTAETXE AMUSATEGI, K. (1988). *Sociolingüística*. Madrid, Síntesis.
- RUIZ OLABUENAGA, J.I.; ISPIZUA, M.A. (1989). *La descodificación de la vida cotidiana*. Bilbao, Universidad de Deusto.
- SAENZ, O. (1985). *Organización Escolar*. Madrid, Anaya.
- SANCHEZ CARRION, J.M. "Txepetx". (1970). *El estado actual del vascuence en la provincia de Navarra (1970). Factores de regresión-Relaciones con el bilingüismo*. Pamplona, Institución Príncipe de Viana/Diputación Foral de Navarra
- (1980). *Lengua y Pueblo*. San Sebastian, Elkar.
  - (1981). "La Navarra Cantábrica. Estudio Antropolingüístico de una Comunidad Euskaldun". Iruña-Pamplona, *FONTES LINGUAE VASCONUM studia et documenta*. XIII urtea, 37 zk., (19-97 orr./1-77 orr.).
  - (1985). "La Nueva Sociolingüística y la Ecología de las Lenguas". Aingeru Irigarayri omenaldia. Donostia/San Sebastian, Eusko Ikaskuntza.
  - (1986). "Fundamentos para una teoría de la territorialidad lingüística". In OZAMIZ, J.A.; RUIZ OLABUENAGA, J.I. Op.cit., Donostia/San Sebastian, Tarttalo.
  - (1987). *Un futuro para nuestro pasado: claves de la recuperación del Euskera y teoría social de las Lenguas*. Estella (Navarra), Gráficas Lizarra/Elkar.
  - (1988). "El poder y las lenguas (o el apocalipsis de todos los euskeras)". *HERRIA 2000 ELIZA* aldizkaria, 10-17. orr., Bilbo.
  - (1989a). "La teoría social de las lenguas y su aplicación a la recuperación del euskera". *Actas II Congreso de Lingua Galego-Portuguesa na Galizia*: 1987. Orense, AGAL.
  - (1989b). "Los espacios de la desigualdad: Patología social y conciencia lingüística".
  - (1989d). "Pahaná y el Hermano Rojo o el otro descubrimiento de América (I)-(II)". *Amaiurko Quetzal agiria*, 17/21-17/22 orr.
  - (1989e). "Biziaren eta herioaren mintzabideak".
  - (1989f). "Subvención económica y normalización lingüística". Behanoare.

- (1990a). “Kontzientzia soziala eta pertsonala uztartu behar dira”. *HEMEN* aldizkaria,
  - (1990b). “La realidad y la ley”; “Análisis para escépticos”, *ZUTIK* aldizkaria, 1/4 orr.
  - (1990d). “Del infinito al cero”; “Del cero al infinito”; “Correlación entre ley natural, imperativos éticos y leyes científicas”. INPRECOR.
  - (1990e). “El marco sociológico y espacial de una situación bilingüe”. La problemática del bilingüismo en el estado español. Leioa (Bizkaia), EHU/UPV-ICE.
  - (1990f). “Los espacios de la desigualdad: patología social y conciencia lingüística”. *HIZKUNTZA/HEZKUNTZA: Encuentros sobre lengua y educación*. Bilbo, EHU/UPV.
  - (1990g). “Euskara eta irakaskuntza”. *JAZTEN* Aldizkaria, 2 zk.
  - (1990h). “Txepetxekin elkar hizketa; gaurko egoeraren giltzak, kontzientzia pertsonala eta ekintza soziala.” *BAT* Soziolinguistika aldizkaria. 2. alea, (69-96 orr.).
  - (1991a). “Prediseño de una cátedra especial de planificación lingüística”. Universidad Pública de Navarra/Nafarroako Unibertsitate Publikoa.
  - (1991b). “Gizarte funtzioak eskolan eta eskolaren funtzioa gizartean: hizkuntzaren erabilera neurtzeko zenbait abiapuntu”. Gasteiz.
  - (1992a). “Las lenguas vistas desde la Historia versus la Historia vista desde las lenguas (o el giro copernicano de un nuevo discurso social)”. XI Congreso de Estudios Vascos: *Nuevas formulaciones culturales: Euskal Herria y Europa*. Donostia. 1991. Eusko Ikaskuntza, 89-143 orr.
  - (1992b). “Euskara eta gu: nolakoa gure egoera, halakoa hizkuntzarena”. *EGUNKARIA*, egunkarian, 92/1/7, 24 or.
  - (1992d). “Euskararen aldeko lurraldetasunaz”. *UEMA-Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatearen* Aldizkaria.
  - (1994). *GEROA GAUR egitasmoa: Lineas maestras. Plan de implementación del uso, conocimiento y saturación del euskera en las ikastolas de San Fermín y Fco. de Jaso de Iruña-Pamplona*. Txepetx, Siadeco eta &.
- SANTOS GUERRA, M.A. (1990). *Hacer visible lo cotidiano*. Madrid, Akal.

- SANVISENS, A. (1987). *Introducción a la pedagogía*. Barcelona, Barcanova.
- SARRAMONA, J. (1987). *Currículum y educación*. Barcelona, CEAC.
- SCHUMACHER, F. (1979). *Lo pequeño es hermoso*. Madrid, Blume.
- SCHUTZ, A. & LUCKMANN, T. (1977). *Las estructuras del mundo de la vida*. Buenos Aires, Amorrortu.
- SCHUTZ, A. (1974). *El problema de la realidad social*. Buenos Aires, Amorrortu.
- SIGUAN, M. (1990). *Las lenguas y la educación para la paz*. Barcelona, ICE/Horsori.
- (1992). *La España plurilingüe*. Madrid, Alianza.
- SIMON, A.H. (1971). *El comportamiento administrativo*. Madrid, Aguilar.
- SOBRADO, L. (1990). *Introducción psicopedagógica y orientación educativa*. Barcelona, PPU.
- SPECK, J.; WEHLE, G. &. (1981). *Conceptos fundamentales de pedagogía*. Barcelona, Herder.
- STEGÖ, N.E., GIELEN, K., &. (dir.), (1988). *Le rôle des chefs d'établissement dans l'amélioration du fonctionnement de l'école*. Paris, Economica.
- STENHOUSE, L. (1987a). *Investigación y desarrollo del curriculum*. Madrid, Morata.
- (1987b). *La investigación como base de la enseñanza*. Madrid, Morata.
- STUFFLEBEAM, D.L.; SHINKFIELD, A.J. (1989). *Evaluación sistemática. Guía teórica y práctica*. Temas de educación. Madrid, Paidós/M.E.C.
- TENZER, N. (dir.). Centre d'Etude et de Réflexion pour l'Action politique-CERAP. (1989). *Un projet éducatif pour la France*. Paris, Presses Universitaires de France.
- TRILLAS, J. (1977). *La educación fuera de la escuela*. Barcelona, Planeta.
- UBALDE MERINO, J. (1972). *La psicología entre la física y la ecología*. Santander, Krispin, OTEIZA, J. ren epilogo: "Un modelo de hombre para el niño de cada país"

- UNESCO (1979). *Enfoque sistémico del proceso educativo*. Madrid, Anaya.
- UZEI (1987). *Filosofi hiztegia*. Donostia, Elkar.
- VAYER, P., DUVAL, A. & RONCIN, CH. (1993). *Una ecología de la escuela. La dinámica de las estructuras materiales*. Barcelona, Paidós.
- VEXLIARD, A. (1970). *Pedagogía comparada: métodos y problemas*. Buenos Aires, Kapelusuz.
- VILLA, A. (1988). *Perspectivas y problemáticas de la función docente*. Madrid, Narcea.
- WALTER, H. (1994). *L'aventure des langues en occident*. Paris, Laffont

## 5. Irudiak

### I. ZATIA

1. IRUDIA: *Eskola-erakuntzaren aurrebaldintzak*
2. IRUDIA: *Hezkuntza eta kulturaren arteko harremana*
3. IRUDIA: *Ikastetxearen agiriak*
4. IRUDIA: *Erakuntzaren aginte-bidea*
5. IRUDIA: *Erakuntza-kideak*
6. IRUDIA: *Erakuntzaren nortasun juridikoa*
7. IRUDIA: *Eskola publikoa-Eskola pribatua*
8. IRUDIA: *Hezkuntza-ekintzaren hiru mailak*
9. IRUDIA: *Ikastetxea eta gizartearen arteko hartu-emanak*
10. IRUDIA: *Ikastetxearen eta gizartearen zereginen trukaketa*
11. IRUDIA: *Ikastetxeko hezkuntza-egitasmoaren ekintza-bidea*
12. IRUDIA: *Ikastetxearen hezkuntza-egitasmoaren ibilbidea*
13. IRUDIA: *Espainia estatuko ikastetxe publikoetako organigrama*
14. IRUDIA: *Garaiko ikastolaren organigrama*
15. IRUDIA: *Ikastetxeko barne-araudia eta irakaslegoa*

## II. ZATIA

16. IRUDIA: *Erakuntza-ereduen oinarrizko alderdiak*
17. IRUDIA: *Erakuntza-ereduen alderdi dinamikoak*
18. IRUDIA: *Eskola-erakuntza ereduen eremu epistemologikoa*
19. IRUDIA: *Eskola-erakuntzaren eredu sistemikoa*
20. IRUDIA: *Eskola-erakuntzaren helburu eta helmugen irudi sinbolikoa*
21. IRUDIA: *Estola-erakuntzaren teoria eta bilakaera*
22. IRUDIA: *Hezkuntza-sistema eta pentsamendu antolatua*
23. IRUDIA: *Eskolaren funtzio-esparru zehatzak*
24. IRUDIA: *Teoria eta praktika hezkuntzaren argitan*
25. IRUDIA: *Hezkuntzaren epistemologia*
26. IRUDIA: *Balioen aldaketa*
27. IRUDIA: *Eskola-erakuntza sistemikoaren bideragarritasuna*

## III ZATIA

28. IRUDIA: *Hezkuntza sareen eztabaidarako abiapuntu zientifikoa*
29. IRUDIA: *Giza errealitatea lege naturales baitan*
30. IRUDIA: *Holismoaren ikuskera ezberdinak*
31. IRUDIA: *Hezkuntza-hizkuntzaren teoria soziala*
32. IRUDIA: *Giza-esperientziaren izatea eta berrikuntza*
33. IRUDIA: *Ikastetxearen kanpo baldintzen egiazko eragileak*
34. IRUDIA: *Euskal hezkuntzarako dinamika berria*
35. IRUDIA: *Ikastolen "adierazpen autokonzientaren esperientzia"*
36. IRUDIA: *Ikastolak versus gainontzeko ikastetxeen uztarketa*
37. IRUDIA: *Giza izatearen logos-a*
38. IRUDIA: *Kultura hizkuntzaren balioa*
39. IRUDIA: *Lurralde elebidunen irtenbide linguistikoetarako jomugak*
40. IRUDIA: *Hizkuntzaren oinarrizko hiru ibilbideak*
41. IRUDIA: *Nabikotasuna maila orekatu*
42. IRUDIA: *Nabikotasun maila desorekatua*
43. IRUDIA: *Eskola-erakuntzaren erabilera osagarria*
44. IRUDIA: *Ikastetxeen (A) ibilbidea*



45. IRUDIA: *Ikastetxeen (B) ibilbidea*
46. IRUDIA: *Ikastetxeen (AB) (BA)ibilbidea*
47. IRUDIA: *Egoeraren araberako hezkuntza sarea*
48. IRUDIA: *Naturaren araberako hezkuntza sarea*
49. IRUDIA: *Eskola-erakuntza hololinguistikoaren abiapuntua eta helmuga*
50. IRUDIA: *Euskal EEH-aren iker gunea*
51. IRUDIA: *Euskal hezkuntzaren zuzeneko irudia*
52. IRUDIA: *Ikastetxearen kudeaketa eta artezkaritzaren isurri berria*
53. IRUDIA: *EE eta EEHaren eragileak eta eragin motak*
54. IRUDIA: *EEHren lau EE mota*

# *BILA*

## BILDUMA

1. Paulo Iztueta: *Euskal irakaskuntza Autonomi Aroan (1983-1994)*, 2000
2. Paulo Iztueta: *Hezkuntza, hizkuntza eta boterea Euskal Herrian*, 2000
3. Paulo Iztueta: *Erbesteke euskal pentsamendua*, 2001
4. Ander Iturrioz: *Boterea gizarte homerikoan*, 2002
5. Paulo Iztueta: *Orixe saiogilea*, 2003
6. Paulo Iztueta: *Orixe auzitan*, 2003
7. Paulo Iztueta: *Orixe gaitzesia*, 2003
8. Txomin Peillen (koord.): *Euskal etorkinak Ameriketean*, 2003
9. Begoña Bilbao: *Curriculum eta kultura Euskal Herrian*, 2003
10. Karmele Perez: *Curriculum eta testuliburua Euskal Herrian*, 2004
11. Josu Amezaga: *Satelite bidezko nortasunak*, 2004
12. Gurutze Ezkurdia: *Curriculum eta ingurunea Euskal Herrian*, 2004
13. Begoña Bilbao; Gurutze Ezkurdia; Karmele Perez: *Euskal curriculum ala euskal dimentsioa curriculumean*, 2004
14. Pello Jauregi; Asier Huegun: *Sentitu*, 2005
15. Jose Inazio Imaz Bengoetxea: *Lanaldi murrizketari buruzko eztabaida, 1995-2005*, 2006
16. Joxe Garmendia Larrañaga: *Azkoitiko bailaretako eskolak, 1824-1977*, 2006
17. M. Jaione Apalategi: *Ikastetxeen egitura intelektuala*, 2006